

Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak

Ane Ortega
Estibaliz Amorrortu
Jone Goirigolzarri
Jacqueline Urla

BizkaiLab

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral

 **Deusto**
Universidad de Deusto
Deustuko Unibertsitatea

Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak

Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak

Ane Ortega
Estibaliz Amorrortu
Jone Goirigolzarri
Jacqueline Urla

2016
Deustuko Unibertsitatea
BizkaiaLab
Bilbao

Taldeakideak:

Estibaliz Amorrortu, Deustuko Unibertsitatea

Ane Ortega, «Begoñako Andra Mari» Irakasleen Unibertsitate Eskola

Jone Goirigolzarri, Deustuko Unibertsitatea

Jacqueline Urla, University of Massachusetts

Lan honen berregintza, banaketa, komunikazio publiko edo moldaketaren bat egiteko, ezinbestekoa da egileen baimena izatea, legeak ezarritako salbuespenetan izan ezik. Lan honen atalen bat fotokopiatu edo eskaneatu behar izanez gero, jo ezazu CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

© BizkaiLab

© Deustuko Unibertsitatea Argitalpenak

1. postakutxa - 48080 Bilbo

Posta elektronikoa: publicaciones@deusto.es

ISBN: 978-84-15759-95-9

Lege gordailua: BI - 1.365-2016

Aurkibidea

1. Sarrera	15
2. Metodologia	21
2.1. Datuen bilketa	21
2.1.1. Eztabaida-taldeak	21
2.1.2. Banakako elkarrizketa erdi-bideratuak	23
2.2. Partaideak	23
2.2.1. Eztabaida-taldeetako partaideak	23
2.2.2. Banakako elkarrizketetako partaideak	25
2.2.3. Laginaren deskripzioa	25
2.2.4. Euskaldun zaharrekin osatutako eztabaida-taldeak	27
2.3. Datuak aztertzeko prozesua	27
2.3.1. Lehen mailako analisia: Eduki Azterketa	28
2.3.1.1. Lehen mailako analisia egiteko metodoa eta prozedura	28
2.3.1.2. Lehen mailako analisiaren emaitza: kategorien «arbola»	29
2.3.2. Bigarren mailako analisia: hiztun berrien profilak	30
2.3.2.1. Bigarren mailako analisiaren prozedura	30
2.3.2.2. Bigarren mailako analisia: profilak definitzeko aldagai garrantzi- tsuenak	31
3. Ikaste prozesua	39
3.1. Heldutan edo nerabe aroan euskara H2 bezala ikastea	41
3.1.1. Helduen ikaste prozesu eta esperientzia ezberdinak	42
3.1.1.1. Testuinguru oztopotzailean	43
3.1.1.2. Testuinguru mesedegarrian	48
3.1.2. Euskara bigarren hizkuntza bezala ikasteko motibazioak	53

3.1.2.1. Integrazioarekin lotutako motibazioak	54
3.1.2.2. Motibazio instrumentalak	58
3.1.3. Euskara ikasteak ekarritako sariak	60
3.2. Adin goiztiarrean murgiltzean ikastea	62
3.2.1. Murgiltzeko ikaste prozesua eta esperientzia ezberdinak	63
3.2.1.1. Testuinguru mesedegarrian	63
3.2.1.2. Testuinguru oztopotzailean	65
3.2.2. Euskara ikasteak dakartzan sariak	69
3.3. Bi prozesuen inguruko hainbat hausnarketa	71
3.3.1. Gaitasuna gora eta behera	71
3.3.2. Euskara ikasteko motibazioak eta hiztun berriek aipatutako «sariak»: on- dorio orokorrak	73
3.4. Ikaste prozesua kontuan harturik profil ezberdinak	75
3.4.1. Profilak zehazteko aldagaiak eta prozedura	76
3.4.2. Hiztun berrien profilak ikaskuntza prozesuari begira	77
3.4.2.1. Lehen ikaskuntza-profila	77
3.4.2.2. Bigarren ikaskuntza-profila	78
3.4.2.3. Hirugarren ikaskuntza-profila	78
3.4.2.4. Laugarren ikaskuntza-profila	79
3.4.2.5. Bosgarren ikaskuntza-profila	79
3.4.2.6. Seigarren ikaskuntza-profila	79
3.4.3. Ikaskuntza profilen diagrama	80
4. Hizkuntza-praktikak: erabilera	81
4.1. Erabilera azaltzeko gako garrantzitsuenak: testuingurua eta sareak	83
4.1.1. Testuinguru soziolinguistikoa	83
4.1.2. Sareak	87
4.2. Erabilera baldintzatzen duten beste gako batzuk	91
4.2.1. Gaztelaniaren presioa oro har	92
4.2.2. Ohitura	92
4.2.3. Gaitasuna	96
4.2.3.1. Helduak	96
4.2.3.2. Testuinguru oztopotzailean bizi diren gazteak	97
4.3. Proaktiboa edo errektiboa izatea: agentibitatearen garrantzia	101
4.4. Hiztun aktibo bihurtzea	103
4.5. Egoera elebidunen kudeaketa: hizkuntza-hautuak	107
4.5.1. «Euskaldun zahar» eta hiztun berrien arteko harremanetan egiten diren hizkuntza-hautuak	107
4.5.2. Erdaldunen presentzia	110
4.5.3. Jarrera proaktiboa erakusten duten hizkuntza-hautuak	111
4.5.4. Euskararekiko jarrera errektiboa erakusten duten hizkuntza-hautuak	113
4.5.5. Ele bitan aritzea: bakoitzak berea	114
4.5.6. Kode-alternantzia	116

4.6. Erabilera kontuan harturik profil ezberdinak	120
4.6.1. Profilak zehazteko aldagaiak eta prozedura	120
4.6.2. Hitzun berrien profilak erabilerari begira	120
4.6.2.1. Lehen erabilera-profila	121
4.6.2.2. Bigarren profila	121
4.6.2.3. Hirugarren profila	121
4.6.2.4. Laugarren profila	122
4.6.2.5. Bosgarren profila	122
4.6.2.6. Seigarren profila	122
4.6.2.7. Zazpigarren profila	123
4.6.2.8. Zortzigarren profila	123
4.6.3. Erabilera profilen diagrama	124
5. Familia hizkuntza-politika	127
5.1. Transmisioa eta Familia Hizkuntza-Politika	129
5.2. Familia barruko hizkuntza-kudeaketa	130
5.2.1. Neba-arreben artean, batez ere gazteen kasuan	130
5.2.2. Bikotekidearekin	133
5.3. Familia barruko transmisio-ereduak	134
5.3.1. Familian euskara baino ez da transmititzen	135
5.3.2. Familian hizkuntza biak transmititzen dira	139
5.3.3. Familian euskara ez da transmititzen, baina bai H2 bezala hezkuntzaren bidez	140
5.3.4. Euskara H1 bezala transmititzeko arrazoiak eta zailtasunak	140
5.3.5. Euskara H2 bezala transmititzeko arrazoiak	142
5.3.6. Gazteek hobesten dituzten transmisio-ereduak	144
6. Hizkuntza-ideologiak eta identitatea	149
6.1. Batuaren eta tokian tokiko aldaeren balioak	151
6.1.1. Euskararen aldaerak: sarrera	151
6.1.2. Partaideen karakterizazioa hizkuntza-aldaera kontuan hartuta	152
6.1.3. Batuari eta euskalkiei lotutako balioak eta funtzioak	153
6.1.3.1. Euskalkien balioespen positiboak	153
6.1.3.2. Batuaren balioespenak	154
6.1.3.3. Euskara batuaren eta euskalkien funtzioak	155
6.1.3.4. Batua eta tokian tokiko aldera, biak al dira beharrezko?	159
6.1.3.5. Euskalkia ala erregistro informala? Euskalkia ala jariora?	160
6.1.4. Batua-euskaldunberriena eta euskalkia-euskaldun zaharrena	161
6.1.5. Zer hizkuntza-aldaeratan mintzatu, halako identitatea hartu	162
6.1.6. Euskararen aldaeren prestigioa eta legitimitatea	162
6.2. Hizkuntza-identitatea: sarrera	163
6.2.1. Euskal hitzunen hizkuntza-identitatea aipatzeko erabiltzen diren terminoak	165
6.3. Zer hitzun mota naiz? Euskal hitzun berrien hizkuntza-identitatea	166
6.3.1. Zer euskal hitzun mota naiz? <i>Euskaldun zaharra</i> ez, behinik behin.	166
6.3.2. Zer euskal hitzun mota naiz? « <i>Euskaldunberria</i> naiz»	168

6.3.2.1. Beren burua <i>euskaldunberri</i> izendatzen dutenek identitate hori justifikatzeko ematen dituzten arrazoiak	168
6.3.2.2. Beren burua <i>euskaldunberri</i> definitzen duten pertsonen partekatzen dituzten ezaugarriak	171
6.3.3. Zer euskal hiztun mota naiz? «Ni ez naiz <i>euskaldunberria</i> »	173
6.3.4. Eta <i>euskaldunberria</i> ez banaiz, zer euskal hiztun mota naiz? « <i>Euskalduna</i> naiz».	175
6.3.4.1. Beren burua euskaldun definitzen duten pertsonen partekatzen dituzten ezaugarriak	177
6.3.5. Hizkuntza-identitate profilen diagrama	178
6.4. Kategorien interpretazioa: hizkuntza-identitatea eta legitimitatea	180
6.5. Hiztun-kategoriak eta haien euskarri diren ideologiak auzitan	183
6.5.1. <i>Euskaldunberri</i> / <i>euskaldun zaharra</i> ohiko dikotomia zaharkitua dago	184
6.5.2. <i>Euskaldunberri</i> terminoa auzitan	185
6.5.3. «Euskaldunberria naiz eta ez dit axola»	187
6.5.4. <i>Euskaldun zahar</i> kategoria auzitan	187
6.5.5. <i>Euskaldun zaharra</i> -euskalkia vs. <i>euskaldunberria</i> -batua loturen haustura: H1 batua duten <i>euskaldun zaharrak</i>	190
6.5.6. Ama-hizkuntzaren ideologiaren haustura: zein da benetako <i>euskaldunaren</i> bermea, ama-hizkuntza ala hizkuntzaren erabilera?	192
6.6. Kategorien arteko mugikortasuna	193
6.6.1. Bizitzan zehar kategoria batetik bestera mugitu	193
6.6.2. Identitate bat edo beste hartu inguruabarren arabera	195
7. Azterketa kuantitatiboa.	197
7.1. Metodologia	198
7.1.1. Helburuak	198
7.1.2. Galdesorta	198
7.1.3. Lagina eta datuen bilketa	200
7.2. Analisia	204
7.2.1. Euskararen ikaste prozesua: eskola, euskaltegia eta kalea/lagunartea.	204
7.2.2. Euskara gaitasuna	207
7.2.2.1. Euskaraz ondo komunikatzeko gaitasuna bereganatzeko adina	207
7.2.2.2. Norberaren euskara gaitasunarekiko asebetetze sentimendua	208
7.2.2.3. Zelako gaitasuna: batua, euskalkia, kaleko euskara	210
7.2.3. Euskara ikasteko motibazioak eta euskara ikasteak ekarritako sariak	213
7.2.3.1. Euskara ikasteko motibazioak	213
7.2.3.2. Euskara ikasteak ekarritako «sariak»	215
7.2.4. Euskara erabilera patroiak	218
7.2.4.1. Euskararen erabilera-maila	218
7.2.4.2. Euskararen erabilera oztopatzen duten faktoreak	220
7.2.4.3. Euskararen erabilera laguntzen duten faktoreak	221
7.2.4.4. Euskara norekin eta zein esparrutan erabiltzen den	222
7.2.4.5. Hiztun aktibo bihurtzea	226

7.2.5. Familia barruko hizkuntza-transmisioa	230
7.2.6. Hizkuntza-identitatea	232
7.3. Azken hitzak	234
8. Hitzun berri gazteak	239
8.1. Hitzun berri gazteen profil oso desberdinak	240
8.2. Euskal hitzun berri gazteen esperientzietan eragina duten faktoreak	244
8.3. Gazteek euskarari atxikitzen dizkioten balioak, kontzientzia eta konpromisoa	249
8.4. Gazteen hizkuntza identitatea	252
8.5. Azken gogoetak	254
Erreferentzia bibliografikoak	257
Eranskinak	263
1. Eranskina. Azterketa kualitatiboko galdesorta	265
2. Eranskina. Banakako elkarrizketan galdera-gidoia	267
3. Eranskina. Kode zuhaitza	270
4. Eranskina. Kodeen definizioak	271
5. Eranskina. Azterketa kuantitatiboko galdesorta	275

Grafikoak, taulak eta mapa

Grafikoak

1. grafikoa. Euskaldun zaharren, jatorrizko elebidunen eta euskaldun berrien bilakaera adinaren arabera (EAE, 1991-2011)	16
2. grafikoa. Hizkuntza-identitateak benetakotasun continuumean	181
3. grafikoa. Euskararen ikaste prozesua adinaren arabera	205
4. grafikoa. Ikaste prozesua gune soziolinguistikoaren arabera	206
5. grafikoa. Ikaste prozesua sexuaren arabera	207
6. grafikoa. Euskaraz ondo komunikatzeko gaitasuna bereganatzeko adina	208
7. grafikoa. Duten euskararekin zein neurritan dauden gustura	209
8. grafikoa. Euskara batuaren menperatze maila	210
9. grafikoa. Bizitoki edo inguruko euskalkiaren menperatze maila	211
10. grafikoa. Lagunarteko edo kaleko hizkeraren menperatze maila	212
11. grafikoa. Euskara ikasteko izandako motibazioak	214
12. grafikoa. Euskara ikasteak ekarritako sariak	215
13. grafikoa. Euskara ikasteak eskainitako sariak abertzaletasun ideologiaren arabera	217
14. grafikoa. Euskararen erabilera maila egunerokoan	218
15. grafikoa. Euskararen erabilera egunerokoan hizkuntza gaitasunarekiko duten asebetetze mailaren arabera	219
16. grafikoa. Euskararen erabileraren kontra eragiten duten faktoreak	220
17. grafikoa. Euskararen erabileraren alde eragiten duten faktoreak	221
18. grafikoa. Euskararen erabilera pertsona ezberdinekin eta esparru ezberdinetan	223

19. grafikoa. Euskararen erabilera pertsona ezberdinekin eta testuinguru ezberdinetan testuinguru soziolinguistikoaren arabera	224
20. grafikoa. Euskararen erabilera pertsona ezberdinekin eta testuinguru ezberdinetan sexuaren arabera	225
21. grafikoa. Euskararen erabilera pertsona ezberdinekin eta testuinguru ezberdinetan adinaren arabera	226
22. grafikoa. Hizkuntza-ohitura aldaketa euskararen alde	227
23. grafikoa. Hizkuntza ohitura aldaketa euskararen alde gune soziolinguistikoaren arabera	228
24. grafikoa. Euskara modu aktiboan erabiltzen hasteko bizitza momentuak	229
25. grafikoa. Euskararen transmisio-ereduak: gurasoena eta guraso ez direnen intentzioa	231
26. grafikoa. Guraso ez direnen euskararen transmisio-ereduak adinaren arabera	232
27. grafikoa. Hizkuntza-identitatea. Euskal hitzun-motekiko auto-definizioa.	233

Taulak

1. taula. Ikerketako partaide kopurua euren bizilekua dagoen lurralde eta testuinguru soziolinguistikoaren arabera	26
2. taula. Transmisio-ereduak gurasoetatik bat gutxienez hitzun berria izanik	135
3. taula. Laginaren tamaina gune soziolinguistikoaren eta lurraldearen arabera	202
4. taula. Lagina.	203
5. taula. Gazteen euskara erabilera: zenbat eta norekin	246
6. taula. Euskara erabiltzeko faktore oztopotzaileak gazteen ikuspegitik	247
7. taula. Euskara erabiltzeko faktore mesedegarriak gazteen ikuspegitik	248

Mapa


1. mapa. Partaideen bizilekua eta euskaldunen kopurua udalerriak (EUSTAT, 2013).	26
--	----

Hiztun berriak: euskararen normalizazio-prozesuan talde estrategikoa

Azken lau hamarkadetan Euskadiko Autonomia Erkidegoan euskarak bizi izan duen garapena ukaezina da: hizkuntza gutxituak erabilera-esparru berriak ez eze hiztun kopuruan bizi zuen beheranzko joerari buelta ematea lortu du, familia-transmisioa egonkortuz eta, batez ere, hiztun berriak erdietsiz. Zehazki, azken Mapa Soziolinguistikoaren arabera, 318.000 euskaldun gehiago daude EAEn 1981ean egin zen lehen neurketatik 2013an egin den azkenera (Eusko Jaurlaritza 2014). Edo beste modu batera esanda, Euskadiko Autonomia Erkidegoan haien burua euskalduntzat jotzen duten herritarren kopurua 1981ean biztanleria osoaren %22 izatetik 2013an %36,4 izatera heldu da. Eta 2036an %49,5 izango direla aurreikusten da, EUSTATEN aurreikuspenen arabera (Baztarrika eta Erize 2016).

Gaitasun-datuak onak izanagatik, euskara urrun dago normalizatuta egotetik eta erabilera-datuak bereziki kezkarriak dira. Azken Mapa Soziolinguistikoaren datuen arabera, 1991tik 2011ra behera egin du etxean euskara gaztelania beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak bigarren, hirugarren eta laugarren gune soziolinguistikoetan (euskaldunak biztanle guztien %20 baino gehiago direnetan, hain zuzen) eta gora etxean gaztelania egiten dutenenak; euskaldunak %20 baino gutxiago diren guneetan ezer gutxi aldatu da etxeko erabilera (Eusko Jaurlaritza 2014: 87). Kaleko erabilerari dagokionez, 1989tik 2011ra bakarrik handitu da nabarmen Gipuzkoan (Soziolinguistika Klusterra 2012). Eta egoera are kezkarriagoa da Nafarroan eta Iparraldean.

Hiztun berrien talde estrategikoaren garrantzia nabarmena da adina-aldagaia aintzartatzat hartzen bada, belaunaldi gazteagoetan hiztunen ehunekoa nabarmen igotzen baita. Izan ere, hiztun berrien igoera hogeita hamalau urtetik beherakoen artean ematen da bereziki, murgiltze-ereduetan ikasi dutenen artean, hain zuzen. Kontsidera ditzagun 1. grafikoak dakartzan datuak:



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa – Laburpena (Eusko Jaurlaritza 2012)

Grafikoak euskararen hiztun tipologiaren bilakaera erakusten du. Hiru hiztun-mota daude (Eusko Jaurlaritza 2008): *euskaldun zaharrak*, familia-transmisioaren bidez H1 bezala euskara jasotakoak; *jatorrizko elebidunak*, familian hizkuntza bi jaso dituztenak; eta *euskaldunberriak*, *Euskal Herriko Hizkuntza-adierazleen sisteman* horrela definitutakoak: «ama-hizkuntza euskara ez beste hizkuntza izanik, euskaraz ondo ulertu eta hitz egiten dutenak». grafikoan ikusten denez, 1991an euskaldun gehienak adin-tarte guztietan *natiiboak* ziren, euskaldun zaharrak. Hamarkada bi geroago, 2011n, berriz, hiztun berriek osatutako taldea oso garrantzitsu bihurtu da, batez ere gazteen artean. 16-24 adin-tartearen biztanleriaren %60 euskalduna da, eta haietatik erdia baino gehiago hiztun berriak, gehienek murgiltze-ereduetan ikasitakoak. Arestian aipatu diren EUSTATEN aurreikuspenen arabera, 2036an 24 urtetik beherakoen artean herritarren gehiengoa (%83,4) euskalduna izango da (Baztarrika eta Erize 2016).

Hortaz, hiztun berrien garrantzia estrategikoa ukaezina da: talde honek orain euskara zelan bizi duen eta etorkizunean euren hizkuntza-praktiketan euskararen alde egiteko prest egon daitezken aurreikusteak berebiziko garrantzia dauka. Hala ere, orain arte ez da talde hau osotasunean eta modu sakonean aztertu. Beharrezkoa da, besteak beste, hiztun berriek euskara ikasteko prozesua zelan bizi izan duten argitzea; erabilera- eta transmisio-patroiak zehaztea eta euskara egunerokoan erabiltzeko eta ondorengoei transmititzeko faktore mesedegarri eta oztopatzaileak identifikatzea; eta argitara ekartzea zelako atxikimendu emozionala daukaten lehen hizkuntza ez den euskararekiko eta zelako hiztun kontsideratzen diren. Era berean, komeni da hiztun berri profil nagusiak ezberdintzea eta ondo deskribatzea, hizkuntza-politika zehatzak eta ondo bideratuak egin nahi badira.

Hiztun berriak nazioartean: hiztun natibo eta ez-natiboen kontzeptuak kolokan

Hiztun berriaren kontzeptu berriak auzitan ipintzen du hizkuntzalaritzan tradizio handia daukaten *hiztun natibo* edo *jatorrizko* eta *ez-natiboen* arteko dikotomia. Bai hizkuntzalaritzan zein gizartean erabat zabalduta dauden ideologiak arabera, ez-natiboari natiiboak daukan zerbait falta zaio, bigarren mailako hiztuna da, haren bertsio defizitario bat (O'Rourke, Pujolar, Ramallo, 2015); hizkuntza «ona», «jatorra», «gramatikala» natiiboak egiten du eta berak du autoritatea hizkuntza «zuzena» zein den erabakitzeko. Horren ondorioz, ez-natiiboa «ikaslea», «H2 hiztuna», «kuasihiztuna», «semihiztuna» kontzeptuekin lotzen da sarri.

Baina bi kategoria horien arteko ezberdintasunak ez daude hain argi. Nor da, bada, hizkuntza bateko natiiboa? Hiztun «tradizionala», gurasoengandik jaso duena? Sozializazio goiztiarrean jaso duena, edo sei-zazpi urte aurretik jaso duena (*Critical Period Hypothesis* (Lenneberg 1967))? Gaitasun komunikatibo osoa garatu duena? Natibotzat besteek hartua dena (Piller 2002)? Bere burua halako daukana? *Hiztun berri* terminoak ez-natiibo terminoak daukan zama negatiiboa ekidin nahi du.

Euskararen kasuan ere antzeko termino arazotsuak erabili dira euskaldun-mota ezberdinei erreferentzia egiteko: besteak beste, *euskaldun zaharrak*, *euskaldunberriak*. Guk *hiztun berria* terminoa hobetsi dugu, nazioartean erabiltzen den *new speaker* aukerari jarraituz eta, termino berria denez, hiztun batzuentzat *euskaldunberri* terminoak daukan zama negatiborik ez daukalako; era berean *euskaldun zahar* terminoarekin batera beste batzuk erabili ditugu, adibidez, *etxeko euskalduna* edo *euskara familiar ikasi duena*, *euskaldun zahar* terminoaren hegemonia erabatekoa ekidin asmoz. Jakin badakigu euskaldunon artean oso zabalduta dauden *euskaldun zahar* eta *euskaldunberri* terminoen erabilerak ondorio sozialak dituztela eta gure gizartean ere auzitan jartzen hasita daudela.

Ikerketaren nondik-norako nagusiak

Ikerketa hau euskararen hiztun berrien inguruko abiapuntuko lehen ikerketa sakona izanik, **ikergai-subjektuaren definizioa** beren-beregi egin da ahalik eta modu zabalenean. Horrela ziurtatu gura izan da ez dela hiztun berri profilik baztertuko hizkuntzaren, kulturaren edota jarrera politikoaren inguruko aurreiritziengatik. Beraz, ikerketa honetan, ikergai-subjektuak euskara familia-transmisioa ez den beste bide batean ikasi duten pertsona guztiak dira, haiek euren burua zein beste hiztunek edo komunitate zientifikoak hala hartu zein ez.

Gainera, ikerketa honetan bakarrik sartu dira gaitasun aurreratua dutenak. Zehazki, Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuak ezarritako gaitasun operatibo eraginkorra duen erabiltzaile gaituak (C1) (Europako Kontseilua 2001), edota euren bizitza sozialean edo profesionalean beharrezko funtzio komunikatiboak betetzeko gai direnak, ahoz nagusiki. Beste testuinguru batzuetan, hala nola nazioartean, hizkuntza gutxitu batzuen testuinguruan, beste profil batzuk ere sartu ohi dira *hiztun berri* kategoriaren barruan, besteak beste, familia-hizkuntza lehen hizkuntza bezala ikasten hasi, guztiz ikasi ez eta gero, heldutan, berriro ikasi dutenak («heritage speakers» adibidez, txikitan jabekuntza burutugabea egin dutenak eta heldutan burutu dutenak), edo ikaste prozesuaren hasierako maila baten daudenak («ikasleak»). Gure ikerketan, alabaina, profil horiek ez dira sartu. Lagina gehiago murriztu aldera, aztergai izan dugun adin-tartea 18-55 urte bitartekoa da.

Ikerketaren **helburu nagusia** euskal hiztun berrien deskripzioa edo argazki orokorra egitea da. Zehazki, (a) euskal hiztun berrien jarrerak, esperientziak, motibazioak, eta euskararen alde zer egiteko prest dauden azaleratzea; (b) identitatearen konfigurazioan euskal hiztun berriei euskara ikasteak zer ekarpen egin dien zehaztea; (c) euskararen erabilera eta transmisioarentzat mesedegarriak diren elementuak, eta baita kaltegarriak edo oztopatzaileak direnak, aurkitzea; (d) euskal hiztun legitimo bezala hautemateko euskal hiztun berrien eta gainerako auto-pertzepzioan zein elementu diren eraginkorrak identifikatzea. Bereziki, euskal hiztun legitimo bezala hautemateko euskalkien edota batbateko erregistro ez-formalen erabileraren garrantzia zehaztea; (e) hizkuntza gutxituen ikerketaren testuinguruan, gaur egungo nazioarteko *hiztun berrien* eta *jatorrizko hiztunen* inguruko eztabaidari ekarpena egitea.

Helburu horiek betetzeko **bi ikerketa osagarri** burutu dira: lehen fase baten, metodologia kualitatiboa erabili da ikergai dugun taldearen esperientzien, jarreraren, motibazioen eta identitatearen azterketa egiteko, haien diskurtsoak eta biografia linguistikoak arakatuz. Bigarren fase baten, metodologia kuantitatiboa erabili da ikerketa kualitatiboan gako bezala identifikatu diren emaitza batzuk kuantitatiboki neurtzeko.

Liburua zelan irakurri

Liburua 8 kapituluk osatzen dute. Lehen seik **ikerketa kualitatiboaren** berri ematen dute eta zazpigarrenak azterketa **kuantitatiboa** eta bere emaitzak dakartza. Azken ka-

pitulua izaera ezberdinekoa da, aurreko kapituluetan **gazteei buruz** azaldutako datu kualitatibo zein kuantitatibo garrantzitsuenak laburbiltzen ditu. Zentzu horretan, ez dakar informazio berririk baina, gazteen taldea estrategikoa izanda, garrantzitsua iruditu zaigu talde horri begira gako diren auziak berriro, denak batera, argitara ekartzea eta horietaz gogoeta berezia egitea.

Bestalde, batez ere plangintzari begira azpimarratu nahi izan diren ideia-gakoak taula urdinetan bildu ditugu. Azkenik, partaideen diskurtsoei buruzko oharra egin nahi da: partaideek sortutako aipuak euren berbalizazio-zehatzak dira. Ortografia-arauei jarraituz egin da transkripzioa; hala ere, *diskurtsoaren azterketan* ohikoa denez, dialekto- edo erregistro-mailako ezaugarri adierazgarriak gorde dira transkripzioan, hiztunaren inguruko informazio garrantzitsua ematen baitu. Aipuak jatorrizko bertsioan ematen dira, euskaraz ala gaztelaniaz, hiztunak esanda bezala.

Eskerrona

Ikerketa hau Bizkaiko Foru Aldundia eta Deustuko Unibertsitatearen arteko *Bizkaia-lab* ekimenaren diru-laguntzari esker egin da, 2012-2015 urte bitartean (www.bizkaialab.deusto.es). Lehenetsitako arloen artean *Bizkaia euskalduna: euskara eta elea-niztasuna* ildoan egon da eta horren barruan burutu da ikerketa-lan hau. Urtez urteko Bizkaiko Foru Aldundia eta Deustuko Unibertsitatearen laguntza eta babes barik ezinezko izango zatekeen ikerketa hau aurrera eramatea. Gure eskerrik beroenak, beraz, erakunde bioi.

Espainiar Estatuko Ekonomia eta Lehiakortasunaren Ministerioak ere diruz lagundu du (FFI2012-37884-C03-03), maila askoz apalagoan bada ere. Gainera, lan honetako egileak COST IS1306 «New Speakers in a Multilingual Europe: Opportunities and Challenges» Europako Batasunak diruz lagundutako proiektukideak dira. Txosten honetan ageri diren ideiak nazioarteko sare horretan sustatutako hiztun berrien inguruko eztabaida akademikoak ere eragin ditu. Ane Ortega eta Estibaliz Amorrortu EHUKo Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO katedrakideak dira. Bestalde, azterketa kuantitatiborako datu-bilketa Siadeco enpresak egin du eta azterketa kualitatiborako partaideak bilatzen bitartekariak lagundu digute. Egileek eskerrak eman nahi dizkie erakunde, akademiko eta lagun guzti horiei.

Belen Uranga lagunari aipamen berezia egin gura diogu, beragaz hiztun berrien inguruan izan ditugun eztabaida luze eta aberatsetatik ere edan eta prozesu osoan bere laguntza izan dugulako.

Azkenik, ikerketa honetan parte hartu duten euskaldun guztiei gure eskerrona erakutsi gura diegu: mahai-inguru eta elkarriketako partaideei eta galdesorta kuantitatiboa erantzun dutenei, eurak baitira liburu honetako protagonista.

Ikerketa honen lehen faseak partaideen diskurtsoa oinarri duen metodologia kualitatiboa darabil. Aurrerago ikusiko den moduan, aztergaiak eta ikerketa helburuek hitzun berrien esperientzia eta jarrerren izaera konplexua ulertu eta beraietan sakontzeko lagungarri den metodologia eskatu dute. Eta horixe izaera kualitatibodun datu bilketa eta analisi metodoek bakarrik ahalbidetzen dute. Dena dela, hitzun berrien gaineko azterketa honek bi ikerketa fase ditu. Bigarrenak izaera kuantitatiboa du eta bere xede nagusia ikerketa kualitatiboan azalarazitako auzi nagusiak gizarte mailan duten presentzia neurtzea da. Metodologia mixto honek hizkuntza-jarrerren gaineko aurreko ikerketetan emaitza aberasgarriak eskaini ditu (Amorrortu *et al.* 2009).

2.1. Datuen bilketa

Datuen bilketa ikerketa kualitatiboan oso erabiliak diren bi tekniken bitartez burutu da: eztabaida-taldeak (*focus groups*) eta elkarrizketa erdi-gidatuak. Guztira 63 hitzun berrik hartu dute parte. Aldi berean, euskaldun zaharrek osatutako bi eztabaida-talde ere burutu dira. Eztabaida-taldeon helburua bikoitza izan da: batetik, hitzun berriek euskaldun zaharrek dituzten harremanei buruzko pertzepzioak baieztatzea eta, bestetik, euskaldun zaharrek hitzun berriekiko dituzten irudiak ezagutzea. Guztira 14 euskaldun zaharrek hartu dute parte ikerketan.

2.1.1. Eztabaida-taldeak

Hainbat ikerketak aditzera eman duten lez, hizkuntza-jarrerak aztertzerakoan datuak eztabaida-taldean bidez biltzea oso teknika eraginkorra suertatu da. Horren erakusga-

rri da Amorrortu eta bestek (2009) erdaldunek euskararekiko dituzten jarrerak aztertzeko burutu zuten ikerketa, edo Baxok *et al.* (2006) edo Tejerina (1992). Hizkuntza-jarrerak elementu konplexuak dira; balio, iritzi, ideologia eta sentimenduetan oinarritzen dira, baina ekintza-osagai bat ere badute, hain zuzen, egunerokoan ikusgai diren hizkuntza-praktikak. Aztergaiaren izaera konplexu honek metodologia indartsua behar du, jarrerok sakontasunean argitara emateko gai izango dena. Izan ere, azken urteetan, metodologia kualitatiboaren erabilera orokortu egin da hiztun berrien gaineko ikerketetan, besteak beste, eztabaida-taldeak, bizitza-historiak edota elkarrietzak erdi-gidatuak izan dira ohikotasunez erabilitako teknikak (Pujolar eta beste 2010, Pujolar eta González 2012, Kasares 2014, O'Rourke eta Walsh 2015, O'Rourke eta Ramallo 2015).

Ikerketa honetan oinarritzko metodologia eztabaida-taldeek osatu dute; elkarrietzak erdi-gidatuak lagungarri moduan jokatu dute. Erabaki horren arrazoiak eztabaida-taldeek eskaintzen duten potentzialtasuna da, elkarlanean jarduteko aukera ematen baitute eta, horrela, datu aberasgarriak eta kalitatezkoak batzea ahalbidetzen baitute, partaideen arteko iritzi aniztasuna azalarazten dutelako eta elkarrekin ideia berriak eraikitzeak aukera ematen dutelako.

Eztabaida-taldeak bi motatakoak izan daitezke ematen den dinamikaren arabera: moderatzailearen gutxiengo *input*-a jasotzen duten eztabaida-taldeak eta eztabaida-talde gidatu edo erdi-gidatuak, zeinetan landuko diren gaiak aurretiaz erabakita dauden eta moderatzaileak galdera zehatzen bidez aurkeztu dituen. Ikerketa honetan lehenengo dinamika hautatu da. Aurretiaz ezarritako ikerketa-galderak eduki arren, eskuartean dugun ikerlana hiztun berrien gaineko lehen ikerketa orokorra izanik, esku-hartze txikia burutzea egokiagozat jo da. Horrela, moderatzaileek gaia galdera orokor baten bidez modu orokorrean aurkeztu ostean, partaideak izan dira eztabaida kudeatu dutenak. Beraz, moderatzailearen esku-hartzea oso txikia izan da. Horrekin partaideek modu kolaboratzailean *beraien* gaiak mahaigaineratzea eta garatzea bilatu da. Moderatzaileek gehiegizko esku-hartzea burutzekotan aurreikusi gabeko gai garrantzitsuak ez azalarazteko arriskua egon zitekeen, hain zuzen, gaiok mahaigaineratzeko aukera ez emateagatik. Beraz, moderatzaileak gai gakoak proposatzeko aukera izan duen arren, hori eztabaidaren bigarren atalerako utzi da beti.

Eztabaida-taldeetako partaideen aukeraketa bitartekarien bidez burutu da. Bitartekariok lekuan lekuko komunitateko kide izan dira eta, hortaz, hautagai egokiak proposatzeko pertsona aproposak. Bitartekariak esperientzia anitzak eta osagarriak biltzeko beharrezko profil zerrenda eman zaie (profilotan ordezkaturako aldagaiak 2.2. atalean deskribaturako dira). Bitartekariak partaide posibleen zerrenda osatutakoan, eta horiekin lehen kontaktua eginda, ikerketa taldekideak izan dira behin-betiko partaideak aukeratu eta eurekin kontaktuan jarri direnak. Parte-hartzaileei emandako azalpena orokorra izan da: familia-transmisioan euskara jaso ez duten euskaldunen euskararekiko esperientziak, bizipenak eta iritziak batzea zen ikerketaren xedea. Eztabaida-taldeak 6-8 pertsonakoak izan dira, nahiz eta azken momentuko aldaketek talde batzuk txikiagoak izatea ekarri duten.

Eztabaida-talde guztietan bi moderatzaile egon dira: moderatzaile nagusi bat (M1), eztabaida-taldea dinamizatzeko ardura hartu duena, eta moderatzaile laguntzaile bat (M2), behatu, oharra hartu eta iruzkin eta galdera lagungarriekin gai desberdinetan gehiago sakontzeko moderatzaile nagusiari laguntzeko ardura izan duena.

Eztabaida-talde guztiak euskaraz burutu dira, nahiz eta partaideei, nahi izanez gero, momentu puntualetan gaztelania erabiltzeko aukera eman zaien. Moderatzaileak honakoak izan dira: Estibaliz Amorrortu, Ane Ortega eta Jone Goirigolzarri.

Hiztun berriek saioez gainera, euskaldun zaharrek osatutako bi eztabaida-talde ere burutu dira. Bi kasutan moderatzailea Estibaliz Amorrortu izan da.

2.1.2. *Banakako elkarrizketa erdi-bideratuak*

Banakako elkarrizketak eztabaida-taldeak amaitu eta lehen analisia egin ondoren burutu dira. Elkarrizketon funtzioa bikoitza izan da: batetik, hiztun profil jakinetan sakontzea (bereziiki interesgarriak suertatu direlako edo eztabaida-taldeetan ez direlako egon behar bezala ordezkaturak); bestetik, ikerlariok lehen analisisan garrantzitsu moduan jotako auzi jakinetan sakontzea. Horrela, galdesorta bat diseinatu da, elkarrizketetan oinarri moduan erabili dena (Ikusi 1. eranskina).

Guztira 9 elkarrizketa egin dira. Eztabaida-taldeetan parte hartutako bi pertsona berriro elkarrizketatu dira bere esperientzietan gehiago sakontzeko. Gainontzeko zazpiak hiztun profil jakin baten ordezkari izan daitezkelakoan aukeratu dira.

Elkarrizketok Jacqueline Urlak bideratu ditu eta gaztelaniaz burutu dira.

2.2. Partaideak

Hurrengo ataletan ikerketako partaideak deskribatuko dira.

2.2.1. *Eztabaida-taldeetako partaideak*

ERABILITAKO ALDAGAIK

Eztabaida-taldeak osatzeko kontuan hartu diren **aldagaiak** honakoak dira: sexua, adina, bizilekuaren testuinguru soziolinguistikoa, euskararen ikaste prozesua, hizkuntza-erabilera, ideologia politikoa eta euskararekiko jarrera. Ikerketa soziolinguistikoetan erabili ohi diren aldagai klasikoak hartu dira kontuan, baina ikerketaren helburuetarako errelebanteenak direnak aukeratu dira. Aldagai batzuetan ordezkaritza orekatua izatea

bilatu da, sexuan adibidez. Beste aldagai batzuetan profil batzuen gain-ordezkaritza bilatu da. Zehazki, Bizkaian bizi diren hiztun berriei eta murgiltze eredukoak izan eta 30 urte baino gutxiago dutenei ordezkaritza handiagoa eman zaie.

Adina aldagaia ikaskuntza-esperientzia ezberdinekin lotuta dagoela kontuan hartu beharra dago: 80ko hamarkadan abiatutako aldaketa politikoa dela eta, sistema demokratikoa eta murgiltze eredu elebidunak ezarri eta lehen ezagutzen ez ziren ikaskuntza-esperientzia ezberdinak sortu ziren. Horrela, euskara eskolan ikasi duten hiztun berrien ehuneko handia kontuan izanda eta ikerketa honek gazteengan duen interes berezia aintzat hartuta, eztabaida-talde mixtoez aparte 18 eta 30 urte bitarteko gazteek osatutako hiru eztabaida-talde burutu dira.

Eztabaida-taldeak osatzeko erabili den lehenengo aldagaia **testuinguru soziolinguistikoa** izan da. Mapa Soziolinguistikoak (Eusko Jaurlaritza, 2014) agertzen duen moduan, euskaldunen kopurua asko aldatzen da EAEko udalerri batetik bestera. Aurreko ikerketek (Amorrortu *et al.*, 2009) aditzera eman dute hiztuna bizi den herriak duen euskaldun dentsitateak zeresan handia duela hiztunaren ikaskuntza-esperientzian, bere erabilera-aukeretan zein euskararekiko zelan kokatzen diren zehazterakoan. Hiztun berrien erabilerari begira testuinguruak daukan garrantzia ikusita, lagina aukeratzekoan gune-mota ezberdinetako partaideak ordezkatuta egotea erabaki da, beti ere muturreko (non euskaldunak % +60 eta % -30 diren) gune-mota biei pisu handiagoa emanik, testuinguruaren garrantzia guneotan argiago azalarazten da eta. Bestalde, arestian esan den bezala, ikerketa-eremua EAEko euskararen hiztun berriek osatzen badute ere, Bizkaikoei pisu handiagoa eman zaie eta lurralde horretakoak izan dira laginaren erdia baino gehiago.

Honako herri hauexetan burutu dira eztabaida-taldeak. Parentesi arteko kodeak herriari egiten dio erreferentzia; gazteek bakarrik eraturako eztabaida-taldeak Gazte-z hasten dira:

- Araban: Gasteiz (GA)
- Bizkaian: Bermeo (BE), Bilbo (BI y Gazte-BI), Getxo (Gazte-GE), Sestao (SE), Zeanuri (ZEA)
- Gipuzkoan: Donostia (Gazte-DO), Tolosa (TO), Zumaia (ZU)

Eztabaida-taldeetako partaideak modu honetan identifikatu dira: eztabaida-taldea burutu den tokia eta partehartzaile bakoitza identifikatzen duen letra (esaterako, BI-C edo TO-A). Gazteek osatutako taldeek «Gazte + tokia» moduan daude identifikatuta (esaterako, Gazte-DO-C).

2.2.2. *Banakako elkarrizketetako partaideak*

Eztabaida-taldeen gainera 9 banakako elkarrizketa egin dira. Elkarrizketon funtzioa bi-koitza izan da: eztabaida-taldearen analisiaren ondorioz sortutako gai eta auzietan sakontzea eta hitzun profil jakinetan arakatzea. Bilatu diren profilen artean daude, esaterako, euskararekiko konpromisoa duen Euskadiko Alderdi Popularreko pertsona bat; euskara arrazoi instrumental hutsagatik ikasi duen eta euskararen normalizazio prozesuarekiko oso kritiko agertzen den pertsona bat; testuinguru oso euskaldunean bizi arren nagusiki gaztelaniaz bizi den pertsona bat; euskarak presentzia gutxi duen negozio-munduan lan egin baina euskararekiko sentsibilitatea agertzen duen nazioarteko profildun profesional arrakastatsu bat. Gainera, eztabaida-taldeetako bi partaideri ere egin zaie elkarrizketa bana, esperientzia eta diskurtso oso interesgarria izan dutelako eta horietan sakondu gura izan delako.

Banakako elkarrizketetako partaideak identifikatzeko modua honakoa izan da: ELK (elkarrizketaren laburdura dena) eta partehartzaile bakoitza identifikatzen duen letra (adibidez, ELK-B).

Banakako elkarrizketa horiek metodologia honetan aditua den Jacqueline Urlak burutu ditu. Elkarrizketa guztiak gaztelaniaz egin dira.

2.2.3. *Laginareen deskripzioa*

a) **Bizilekua eta testuinguru soziolinguistikoa**

Partaideen bizilekuari erreparatuz gero, ordezkaritza handiena bereganatu duen lurraldea Bizkaia izan da, zehazki, partaideen %60k dauka bizilekua bertan; bigarren postuan Gipuzkoa dago partaideen %30aren bizitoki baita eta, azkenik, Araba partaideen %10 bilduta. Era berean, azpimarratzekoa da partaideak eremu soziolinguistiko desberdinetatik datozela. Ia erdia (%48) gune nahiko erdaldunean bizi da, alegia, euskal hitzunen kopurua biztanleriaren %30 baino txikiagoa den herrietan. Partaideen %42k, ostera, herri euskaldunagoetan dauka bizilekua, hau da, euskal hitzunik biztanleriaren %60 baino gehiago diren herrietan. Euskaldun kopurua erdi mailakoa duten herrietako partaideak, biztanleriaren %30-60 bitartekoa, gutxiengoa dira gure laginean, zehazki partaide guztien %9.

Ondoko taulak ikerketan parte hartu duten partaideak zein lurraldetan eta zein testuinguru soziolinguistikotan bizi diren batzen du.

1. taula


Ikerketako partaide kopurua euren bizilekua dagoen lurralde eta testuinguru soziolinguistikoaren arabera

		LURRALDEA			
		Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	Guztira
Testuinguru soziolinguistikoa (euskaldunen %)	>= 60	12	15	0	27
	30 - 60	1	4	1	6
	< 30	25	0	5	30
	Guztira	38	19	6	63

Ondorengo mapan eztabaida-taldeetako eta banakako elkarriketetako partaideen bizilekua ageri da. Mapan herri bakoitzaren euskaldun kopurua ere zehazten da (Eustat, 2013):

1. mapa

Partaideen bizilekua eta euskaldunen kopurua udalerrika (EUSTAT 2013)



- b) **Sexua.** Emakumeak eta gizonak modu orekatsuan ordezkaturik daude, %47 dira emakumeak eta %53 gizonak.
- c) **Adina:** Ikerketak 18 eta 56 urte bitarteko hiztun berriak ditu aztergai. Partaideen ia erdia (%48) 18tik 30era bitarteko neska-mutilak dira, «gazte» moduan jo direnak. Berriz, partaideen %34 30-45 adin tartean kokatzen da eta %17k 45 urtetik gora dauzka.
- d) **Ikaste prozesua:** Partaideen %66k euskara umetan ikasi du murgiltze ereduari esker; %34k, berriz, nagusitan ikasi du euskaltegiaren bitartez.
- e) **Ideologia politikoari** arreta jarritz gero, partaideen %66k bere burua ezkertiartzat du. Zentroan kokatzen direnak partaideen %27 dira eta eskuindar definitutakoak %7 besterik ez. Abertzaletasun kontinuum-ean, gehiengoak euskal abertzaletasunean kokatzen du bere burua, zehazki, partaideen %66k. Ostera, partaideen %9 ez da batere euskal abertzale sentitzen eta %26k erdiko lekua hartzea aukeratu du, hau da, ez batean ez bestean.

2.2.4. Euskaldun zaharrekin osatutako eztabaida-taldeak

Ikerketaren lehen faseak aditzera eman du (ikusi 2.3.1. atala) hiztun berrien jarrera, autopertzepzio eta sinesmen askok «euskaldun zaharrei» erreferentzia egiten diela eta, beraz, ikuspegiok ondo interpretatzeko euskaldun zaharrekin kontrastatzea funtsezkoa dela. Horrela, euskara familian jasotako hiztunek osatutako bi eztabaida-talde burutu dira. Bata euskararen presentzia handia den herria baten egin da, Tolosan hain zuzen; bestea Bilbon, baina Bizkaiko herri ezberdinetan, eta hortaz testuinguru soziolinguistiko anitzetan, bizi diren partaideak bilduta. Edozein kasutan hiztun berriekin kontaktu ugari duten pertsonak bilatu dira. Partaideak askotarikoak izan dira, besteak beste, eskolako eta euskaltegiko irakasleak, eskolaz kanpoko jardueretako monitoreak, unibertsitate-ikasleak, editore bat eta tabernari bat.

Partaideak modu honetan identifikatu dira: «zahar» eta, aurreko kasuetan lez, eztabaida-taldea burutu zen lekua kodea eta partaide bakoitza identifikatzen duen letra. (Adibidez, Zahar-BI-D).

2.3. Datuak aztertzeko prozesua

Datuen analisiak lan handia eman du, ikerketan jarraitutako metodologia induktiboa dela eta. Ikerketan bi analisi-maila bereiztu daitezke, denboran elkarren segidan etorri direnak:

- a) Analisiaren lehen mailan datuetan agertutako ideia nagusien identifikazioa eta kategorizazioa burutu da. Lehen mailako analitikoak ideia eta gaien «arbola» eraiki da. Ikusi 2.3.1. atala.

- b) Analisiaren bigarren mailan, partaideen esperientziak oinarri hartuta, hiztun berrien profilak identifikatzea bilatu da. Ikusi 2.3.2. atala.

Jarraian, bi maila horietako prozesua eta emaitzak azalduko dira.

2.3.1. *Lehen mailako analisia: Eduki Azterketa*

2.3.1.1. LEHEN MAILAKO ANALISIA EGITEKO METODOA ETA PROZEDURA

Datuen analisia burutzeko Eduki Azterketa metodologia jarraitu da (*Content Analysis*, Mayring 2000). Eduki Azterketa partaideen ideiak hierarkikoki antolatutako gaietan sailkatzean datza. Datuen kodifikazioa burutzeko NVivo 9 analisi kualitatiborako softwarea erabili da. Analisiaren emaitza gai «arbola» bat izan da, hau da, hierarkikoki antolatutako gai-kategoria sistema bat.

Eduki Azterketa modu induktiboan, *behetik gora*, edo modu deduktiboan, *goitik behera*, burutu daiteke (*inductive/bottom-up* eta *deductive/top-down*, Mayring 2000). Azterketa honetan bi bideak jarraitu dira. Eztabaida-taldeen azterketa modu induktiboan burutu da eta, hortaz, kategoriak datuek eskainitako informazioa oinarri hartuta eraiki dira; hau da, kategoria-diagrama ikerketa honetarako *ad hoc* egin da. Analisi deduktiboa ikertu nahi diren kategoriak aurretiaz ezagunak direnean erabiltzen da; hortaz, galdera zuzen edo erdi-zuzenetatik abiatutako datuak aztertzeko egokia da. Analisi deduktiboa banakako elkarrizketa erdi-gidatuak aztertzeko erabili da, izan ere, elkarrizketatuen erantzunak analisi induktiboaren bidez eraikitako arbolaren kategorien bidez kodifikatu dira.

Gai baten inguruan lehen ikerketa zabala, orokorra burutzerakoan analisi induktiboa da zalantza barik metodorik egokiena, baina denbora eta behar den ikerlari kopuruari dagokionean kostu handiagoa dakar, analisia bakarka egitea ez da-eta gomendagarria. Arrazoiak honakoak dira: batetik, interpretazioen subjektibitatea ahal den neurrian minimizatzeko; bestetik, errelebanteak diren ideia guztiak azalarazteko. Izan ere, ikerlari adituenarentzako ere ideien ikusezintasuna suertatu daiteke, hau da, ez ikus-tea. Ikerketa honetan datu guztiak hiru ikerlarik aztertu dituzte, honako prozedurari jarraituz:

1. Hiru ikerlarik, bakoitzak bere aldetik, eztabaida-taldeen transkripzioak irakurri dituzte.
2. Hiru ikerlarien arteko kontraste-batzarrak egin dira, non helburua datuetan identifikatutako ideien gainean eztabaidatzea eta akordioetara heltzea izan den. Behin akordioa lortuta, hitzez-hitzezko aipuak dagokien gai-kategorian kodifikatu dira NVivo software-aren laguntzaz. Esaterako, partaideek euren euskara ikasteko prozesua deskribatzen duten aipu guztiak *Ikaskuntza* gai-kategoria nagusian dagoen *Prozesua-zelan* azpikategorian kodetu dira.

NVivok daukan moldaerraztasunari esker, kategorietan aldaketak egitea erraza izan da eta sarritan egin dira: kategorien izena aldatzea, gai bereziki emankorretan azpikategoria berriak sortzea, kategorien batura, beharrezko jo izan denean, etab.

3. Behin eztabaida-talde guztien analisia amaituta, kategoria guztiak banaka-banaka aztertu dira horien barne-koherentzia ziurtatzeko, aipuak kategorietan gehituz, kenduz zein aldatuz, beharrezko jo denean.
Arestian esan den moduan, azterketa prozesu osoan hiru ikerlari aritu dira lanean.

Banakako elkarrizketen kasuan prozesua ezberdina izan da. Arestian esanda bezala, elkarrizketen funtzioetako bat gai jakinetan sakontzea izan da eta horiek eztabaida-taldean azterketa oso aurreratuta eta gaien arbola nahikoa zehaztua zegoela egin dira. Elkarrizketetarako galderak aurretiaz prestatu dira, ordurako sortuta zeuden gai-kategoriekin erabat lotuz. Hortaz, kasu horretan ideien kodetzea deduktiboa izan da eta askoz arinagoa.

2.3.1.2. LEHEN MAILAKO ANALISIAREN EMAITZA: KATEGORIEN «ARBOLA»

Analisiaren lehen maila honetatik eraikitako kategorien diagrama 3. eranskinak dakar. Partaideek hiru gai nagusiren inguruan eskaini dituzte datuak: ikaskuntza-esperientziak (*Ikaskuntza* adarra), hizkuntza-praktikak (*Praktikak* adarra) eta balio, iritzi eta sentimenduekin lotutako gutzia (*Ideologiak* adarra):

1. **Ikaskuntza** adarrak euskararen ikaste prozesu eta esperientziari dagozkien ideia guztiak biltzen ditu. Datuak narrazio moduan agertzen dira, hizkuntza-historia edo bizitza-historia moduan. Era berean, partaideek euskara ikasteko izan dituzten motibazioak ere batzen ditu, eta euskara ikasteak eskaini diena ere bai. Azkenik, euskararen ikaste prozesuaren bidez lortu duten euskara gaitasun-maila ere batu da.
2. **Praktikak**, hizkuntza-praktika moduan hartuta. Kategoria honetan hizkuntza-ekintza zehatzekin zerikusia duen gutzia bildu da. Nagusiki, bi praktika mota batu dira: euskararen erabilera eta transmisioa. Horiek euskarak etorkizunean izango duen garapenera begira auzi zentralak direla jakinik, hiztun berriek gaion inguruan esateko dutena batzea ezinbestekotzat jo da. Zorionez, partaideek gai horien inguruan luze eta sakon jardun dute.

—**Euskararen erabilera**: Kategoria honetan partaideen euskara-erabilerari dagokion gutzia batu da: euskara zenbat darabilten (*zenbat* kategoria); erabileran eragina duten faktore positibo eta negatiboak, besteak beste, *testuinguru soziolinguistikoa* edota *situazionala*, baita erabiltzeko *oztopoak* ere; erabilera aukerak handitzeko partaideek erabiltzen dituzten *estrategiak*; bizitzaren zein

momentutan hasi diren euskara modu aktiboan erabiltzen (*mudes*¹); eguneroko jardunean egiten diren hizkuntza-hautuak, egoera zein den (*kudeaketa* izeneko kategoria)

—**Transmisioa**: Kategoria honetan transmisio-eredu desberdinak biltzen dira, zehazki, familian H1 bezala, murgiltze ereduan H2 bezala eta euskara ez transmititzea. Era berean, erabakiok hartzeko partaideek agertzen dituzten arrazoiak ere bildu dira. Familian ematen den euskararekiko jarreraren transmisioaren garrantziaz emandako ideiak ere batu dira.

3. **Ideologiak** adarrean orohar hizkuntzari buruz eta zehazki euskarari buruz agertu diren sinesmen, sentimendu eta balioak bildu dira. Euskararekiko balioak eta konpromisoa barne, eta oso garrantzitsu suertatu den beste gai bat ere: partaideen hizkuntza-identitatea. Euskararen egoerarekiko balorazioak ere batu dira kategoria honetan, nahiz eta gai horrek ez duen aurretiaz pentsatutako beste garrantzi izan eta gutxi aipatuko den txostenean.

2.3.2. *Bigarren mailako analisia: hiztun berrien profilak*

Analisiaren lehen maila burutu eta kategoria-arbola eraikita, analisiaren bigarren mailari ekin zaio. Bigarren analisiaren helburua hiztun berrien profil desberdinak identifikatu eta tipologia baten multzokatzea izan da, «talde-argazki» baten antzera non pertsona bakoitza profil baten ordezkari den. Xede horrekin arestian identifikatutako hiru adarretako profilak identifikatu dira: lehena ikaste prozesu eta esperientzian oinarritutakoa, bigarrena euskararen erabilera oinarritutakoa eta hirugarrena hiztun berrien hizkuntza-identitate desberdinetan oinarritutakoa.

Atal honetan profilak identifikatzeko jarraitutako prozedura azalduko da eta horiek identifikatzeko emankorrenak suertatu diren aldagaiak definituko dira. Adar nagusi bakoitzeko profilak dagokien kapituluari aurkeztuko dira, analisi-prozesu bakoitzaren gaineko xehetasunekin batera.

2.3.2.1. BIGARREN MAILAKO ANALISIAREN PROZEDURA

Oinarrizko prozedura honakoa izan da: ideia, esperientzia eta diskurtso parekoak dituzten eta ezaugarri soziolinguistikoak konpartitzen dituzten pertsonak elkartzea; behin talde edo profilak identifikatutakoan beraien karakterizazioa burutzea.

¹ Kategoria hau, hasiera batean «ateak» izana bereganatu zuena, Pujolar eta González-en (2012) «mudes» kontzeptuari dagokio. Kontzeptu hau hiztun berrien hizkuntza praktiken ikerketetan oso emankorra izan da. *Muda* modu honetan definitzen da: hiztunaren errepertorio linguistikoan aldaketak ematen diren bizitzako momentuak. Autore hauek sei momentu bereizten dituzte muda egiteko bereziki apropos moduan: (1) lehen hezkuntza, (2) bigarren hezkuntza, (3) unibertsitatea, (4) lan munduan barneratzea, (5), bikotea eta (6) ama edo aita izatea. Ikus baita 4.4. atala.

Adar bakoitzaren profilak identifikatzeko, partaideei lehen analisian kategoria bakoitzarentzako errelevanteen moduan identifikatu diren aldagaiak atxiki zaizkie, talde eta azpitaldeetan sailkatuz. Behin profilak identifikatutakoan, beraien karakterizazioa edo deskripzioa egin da, beste aldagai eta ezaugarri soziolinguistiko batzuk eskaintzen duten informazioa baliatuz. Zenbait aldagai oso ahaldun suertatu dira adar guztietako profilak identifikatzeko, esaterako, testuinguru soziolinguistikoa, adina eta hizkuntza-gaitasuna; beste aldagai batzuk, berriz, adar jakin baterako izan dira esanguratsuak baina ez gainontzekoetarako. Adar bakoitzari buruzko kapituluetan profilak eraikitzeke jarraitu den prozeduraren gaineko informazio zehatzagoa aurkituko da.

Hurrengo lerroetan profilak identifikatzeko zein karakterizatzeko erabili diren aldagaiak deskribatuko dira.

2.3.2.2. BIGARREN MAILAKO ANALISIA: PROFILAK DEFINITZEKO ALDAGAI GARRANTZITSUENAK

Profilak definitzeko erabili diran aldagai garrantzitsuenak honakoak dira:

a. Zenbateko erabilera

Hiztun berri moduan dituzten esperientziak deskribatzeko askotan aipatzen dute partaideek euskara egunerokoan zenbat erabiltzen duten. Hiztun askok ez dute lortu euskara beraien errepertorio linguistiko aktiboan integratzea. Euskaraz *jakin* baina ez *erabiltzeak* beraien ahalegina neurri batean baliogabetzen du eta gainera frustazio, erru edota penasentimendu negatiboen iturburu da. Alabaina, euskara egunerokoan darabiltenek beraien elebitasuna oso modu positiboan bizi dute.

Erabilera-aukerek oso lotura estua dute hiztuna bizi den testuinguru soziolinguistikoarekin (b puntua) eta euskarazko sareetan parte hartzeko aukerekin (c puntua). Dena dela, hiztunaren agentibitatearekin eta erabilera-aukerak bilatzeko duen jarrerarekin ere badu zerikusirik, (h) puntuan ikusiko denez.

b. Testuinguru soziolinguistikoa

Erabilera-aukerak izatea euskararen hiztun berrien esperientzia elebidunerako faktore giltzarria da. Zentzu horretan, erabat erabakigarria izan gabe, hiztuna bizi den testuinguru soziolinguistikoak neurri handian baldintzatzen du erabilera. Azken Mapa Soziolinguistikoak (Eusko Jaurlaritza, 2014) erakusten duen moduan, euskaldun kopurua asko aldatzen da herri batetik bestera, elebidun kopurua %20 azpitik zein %80 goitik kokatu daitekelarik.

Profilak identifikatzeko, eta erroldaren datuei jarraituz, euskaldunen ehunekoetan oinarritutako hiru testuinguru soziolinguistiko bereiztu dira:

- Erroldaren arabera, biztanle guztien **%60 baino gehiago euskalduna** denean **testuinguru mesedegarria** deitu zaio, euskara erabiltzeko aukera asko ematen dituelako. Testuinguru honetan daude Artea, Bermeo, Busturia, Dima, Igorre, Zeanuri, Zumaiia, Tolosa, Oihartzun eta Usurbil herriak, euskal herritarren talde-irudipenean eta gure partaideen pertzepzioetan herri euskaldunak direnak.
- Euskalduna biztanle guztien **%30 baino gutxiago** denean **testuinguru oztopotzailea** deitu zaio. Gure ikerketan hauexek dira: Bilbo, Getxo, Trapagaran, Sestao, Erandio, Leioa, Gasteiz eta Trebiño; horiek herritarren talde-irudipenean eta gure partaideen pertzepzioetan herri erdaldunak dira. Euskaldunen presentzia urriak euskara erabiltzeko aukera oso gutxi eskaintzen du, edo beste modu batera esanda, euskaldunen presentzia urriak oztopatu egiten du euskararen erabilera.
- Azkenik, euskaldunak biztanleen **%30-60 bitartean** direnean **tarteko testuingurua** deitu zaio, euskara erabiltzeko aukerak ez direlako ez hain handiak ez hain murriztak. Testuinguru horretakoak dira Galdakao, Donostia, Errearteria eta Lasarte-Oria.

c. Harreman-sareak

Arestian aipatu den bezala, hiztuna bizi den testuinguru soziolinguistikoa oso garrantzitsua bada ere, ez du erabat baldintzatzen hiztunaren esperientzia elebiduna; beste aldagai bat ere kontuan hartzekoa da: hiztuna partaide den sareak. Lehen auzia hiztunak sare euskaldunetara sarbidea izatea da. Hau da, ez bakarrik sareak euskaldunek osatuak izatea baizik eta sarekideen arteko harreman-hizkuntza nagusia euskara izatea. Bigarren auziak sare-motekin dauka zerikusia: sareak trinkoak eta esanguratsuak diren. *Trinkoak* adierarekin sendoak eta egonkorrak esan nahi da, hau da, sareko partaideak noiz-behinka aritu ordez denbora luzez aritzen direnean euskaraz; eta *hiztunentzako esanguratsu* adierarekin harreman estu, intimoak bideratzen dituztela.

Izan ere, izan daiteke testuinguru soziolinguistiko mesedegarri batean, *arnasgune* izanda ere (Fishman 1991: 58, «physical breathing space»), hiztun berriak euskara gutxi erabiltzea bere sare esanguratsuenak eta trinkoenak, hala nola familia eta lagunak, euskaldunak ez direlako edo, euskaldunak izanda ere, normalean erdara erabiltzen dutelako. Hiztuna bizi den herrian euskaldun kopuru handia, familia barruko transmisioa orokortua egonda eta euskaldunak, oro har, euskara modu eroso eta naturalean erabil badezakete ere (hau da, arnasgune geografiko izateko ezaugarriak beteta (Zalbide 2009)), izan daiteke hiztun batzuk, eta bereziki hiztun berriak direnak, eroso ez sentitzea eta arnasgune geografikoaren aukera denak ez baliatzea. Alderantziz ere, testuinguru oztopotzailean bizi den hiztunak sare trinko eta esanguratsuak izan ditzake, adibidez, familia euskaldun batera ezkondu bada, euskaraz lan egiten duen enpresa baten lan egiten badu edo lagun min euskaldunak baditu. Sare horiek (*arnasgune sozio-funtzionalak*, Indaren hitzetan (2014)) benetako aukerak emango dizkio hiztunari egunerokoan euskara modu aktiboan erabiltzeko. Ostera, bere sare euskaldun bakarra ogia edo egunkaria saltzen duen dendari batekin badauka, egunero segundu edo minutu batzuetan berba eginda ere, sare trinkoa ez dute osatuko eta erabilerari begira sare ho-

rrek ez dio mesede handiegirik egingo. Horregatik, aldagai biak, testuinguru soziolinguistikoa eta sareak, modu independentean aztertu dira.

Interesgarrien suertatu diren sareak partaideek eurak aipatu dituztenak izan dira, hain zuzen, familia, lagunak eta lana. **Familia** euskararen erabilera bultzatuko duen sarea bihurtzeko baldintza hauetako bat bete beharra dago: *euskaldun zaharren* familia baten parte bilakatzea, adibidez bikotearen bidez, edo norberaren familia euskalduntzea eta familia euskaldunduta euskara harreman-hizkuntza bihurtzea. **Lagunen** sareari dagokionez, haxe da zalantza barik sarerik ahaltsuenetako bat. Lagun sare berrietara modu desberdinetan sartu daiteke, esaterako, gure ikerketaren arabera nerabezaroan kuadrila euskaldun batean sartzea bereziki erabakiorra izan da erabilera indartzeko. Bestalde, **lana** ez da eremu pribatuari dagokion esparrua, baina lanean ematen den denbora eta lan harreman askoren inplikazio maila kontuan hartuta, sare garrantzitsua dela baieztatu daiteke. Erabilera-esparru hau hezkuntzan, Herri Administrazioan edo euskaldun asko dituzten eta euskararen erabilera oso normalizatua dagoen enpresetan lanean diharduten pertsona askok aipatu dute.

d. Adina eta ikaste prozesua

Adina aldagai giltzarria izan da, bereziki, eta aurretik aipatu den moduan, ikaste prozesu oso desberdinekin lotuta dagoelako. Izan ere, 80ko hamarkadaz geroztik euskara hezkuntza sisteman sartzeak, hiztun berri tradizionalaren profilari, euskara euskaltegian ikasi duenari, beste bat gehitzea ekarri du: euskara adin goiztiarrean murgiltzean ikasi dutenen profila. Ondorioz, bi adin-talde bereiztu daitezke modu argian: 35 urte inguru artekoak (euskara nagusiki murgiltze ereduak ikasi dutenak osatua) eta 35 urte baino gehiagokoak (euskara heldutan euskaltegian ikasi dutenak). Aldagai hau hiru kategorien profilak identifikatzeko suertatu da esanguratsua: Ikaskuntza, Erabilera eta Ideologia kategorien profilak identifikatzeko, hain zuzen.

e. Gaitasuna

Ikerketa diseinatzerakoan partaideen unibertsoa euskara gaitasun-maila aurreratua duten hiztun berrietara murriztea erabaki zen. Horrela, gure partaideak C1 (EGA edo baliokidea) mailaren egiaztagiria izatea edota esparru pribatuan eta lan arloan euskaraz jarduteko gai izatea, ahozkoan bereziki, ezarri da baldintza bezala. Hori horrela izan arren, partaideen artean desberdintasun nabariak aurkitu dira jartotasunari, erregistro-aldakortasunari eta beraien hizkuntza-gaitasunarekiko autopertzepzioei dagokienean. Gai horren inguruan asko hitz egin dute partaideek, eta modu zeharkakoan eta beste gai batzuei lotuta ere sarritan agertu da, esaterako: ikasteko moduak (murgiltzean, euskaltegian, kalean) gaitasun-maila baldintzatzen duela aipatu denean; gaitasunak hitz egiteko konfidantza-mailarekin harremana duela; gaitasun mugatuak gai jakinen inguruan edota egoera jakinetan jarduteko mugak ezartzen dituela; edo euskararen hiztun on ala txar deneko autopertzepzioetan ere eragiten duela. Gaitasunarekin erlazionatu-

tako hausnarketak hizkuntza-aldaerarekin (batuaz ala euskalkiz hitz egitea) lotuta agertu dira sarritan. Gai hori hurrengo atalean azalduko da.

Gaitasunari buruzko datuak bi iturritatik atera dira: partaideetatik euretatik eta kanpo ebaluatzaileek burututako ebaluazio objektiboetatik. Eztabaida-taldeetan eta elkarriketetan partaideek egin dituzten balorazioak batu dira. Era berean, eztabaida-talde eta elkarriketen amaieran betetako galdesortan ere partaideek beraien hizkuntza-gaitasuna (ahozkoa zein idatzia) ebaluatu dute *Oso ona*, *Ona*, *Nahikoa*, *Ez oso ona* erantzunez (ikus. 1. eranskina). Azkenik, hizkuntza-gaitasuna neurtzeko autoebaluazioaren subjektibitateaz jabeturik, ebaluazio objektibo bat egitea erabaki da. Bi ebaluatzailek 1etik 4rako eskalan jarotasun eta zuzentasun gramatikala neurtu dute, 1 «ez oso ona» eta 4 «oso ona» izanik.

f. Aldaera

Aldagaiaren izenak aurreratzen duen moduan, bere baitan partaideek euskararen aldaeren gainean eskaini dituzten ideiak batu dira, batetik, «batua»-ri buruzkoak eta, bestetik, «tokian tokiko», «herriko euskara», «bertoko» eta «euskalkia» modukoei buruzkoak.

Aldaera aldagaia, partaideek hitz egiten duten aldaera, funtsean *batua* ala *euskalkia* hitz egiten duten, profilak identifikatzerakoan oso emankorra izan da. Hiztun berri askok batua ikasi dute, nahiz eta bizilekua eta jarraitutako ikaste prozesuaren arabera batzuek lekuan lekuko aldaera ere ikasi duten. Seigarren kapituluan erakutsiko den moduan, benetako euskaldun sentitzea ala ez sentitzea ondoko elementu hauek baldintzatua egon daiteke: gizartean batua eta euskalkiari atxiki ohi zaizkien balioek eta oraindik bizirik dauden «batua-hiztun berri» eta «euskalkia-hiztun natibo» asoziazioek.

Aldaerari lotutako datuak Gaitasunari dagozkionak bezala batu dira. Alde batetik, galdesortan partaideen autoebaluazioaren eta eztabaida-taldeetan eta elkarriketetan esandakoetatik. Galdesortan partaideei beraien euskara gaitasun-maila baloratzea eskatu zaie (ulertzen dut / hitz egiten dut) batuaz, bizkaieraz, gipuzkeraz edo beste euskalkiaren batean (ikusi 1. eranskina). Beste aldetik, ebaluatzaileek egindako ebaluazio objektiboaren bidez. Batuatik lekuan lekuko aldaera batera doan continuuma lau kategoriatan banandu da: batuaz (batua «koloregabea», hau da, aldaera geografiko jakin bateko ezaugarriarik ez duena) aritzen bada 1, gehien bat batuaz 2, gehien bat euskalkian 3, eta 4 euskalkira asko hurbiltzen bada. Elkarriketa bideratuak gaztelaniaz egin direnez, partaide haien aldaerari buruzko ebaluazio objektiborik ez dago eskuragarri.

g. Euskararen balioak

Beste aldagai garrantzitsu bat *euskararen balioak* izenekoa da, eta honakoak biltzen ditu: partaideek euskarari atxikitzen dizkioten balioak, berarekiko dituzten sentimenduak eta euskararen egoera zaurgarriarekiko agertzen duten kontzientzia-maila.

Balioek **hizkuntza-ideologiek**in harreman estua dute, hau da, gizarte jakin batean hizkuntzari buruz orohar eta hizkuntza jakinei buruz zehazki dauden sinesmen sistemekin (Woolard 1998; de Bres 2014). Gizarte mailan eraiki, konpartitu eta auzitan jartzen diren sinesmen eta balioak dira. Partaideek aditzera emandako balioak *Ideologiak* izeneko kategorian batu dira.

Balio integratzailea, identitarioa eta instrumentala

Balio hauek modu ezberdinean agertu dira solasaldietan: batzuetan motibazio moduan (euskara ikasteko, umeak hezkuntza-eredu batera ala bestera bialtzeko, hizkuntza erabiltzeko); beste batzuetan euskarak norberarentzat duen esanahiaren gainean hausnartzerakoan, edo euskararekin egiten dituen asoziazioetan; beste batzuetan euskara ikasita «irabazi» dutenaren gainean hausnartzerakoan.

Hizkuntzei atxikitzen zaizkien balioen azterketetan klasiko bihurtu diren zenbait kontzeptu ikasteko motibazioen ikerketatik datoz. Zentzu horretan, aspaldiko lan batean Gardner eta Lambert adituek (1967: 14) bi motibazio nagusi ezberdin zituzten: **instrumentala** eta **integratzailea**. Hizkuntza ikasteko erabakia hartzeko orduan hizkuntza hori hitz egiteak dakartzan onura ekonomiko edota sozialak nagusitzen direnean motibazio instrumentala dago; esate baterako, arrazoi praktikoak nagusitzen direnean, kasurako estatus sozioekonomikoan igotzeko hizkuntza hori ikasteak lan hobe lortzen laguntzen duenean. Hizkuntza komunitate horretako kide izan nahiari, identitate jakin batekin lotu nahi izateari edo atxikimenduari lotua dagoenean, berriz, motibazio integratzailea dago. Euskararen testuinguruan ere antzeko dikotomia erabili da (*truke-ordaineko jarrera* eta *jarrera izanarazlearekin*, Larrañaga 1996).

Ikerketako partaideek garrantzi handia eman diete euskarak bai komunitate batean integratzeko duen balio integratzaileari, bai norbanako eta talde-identitatearen eraikuntzan euskarak duen **balio identitarioari**. Horregatik, beharrezko ikusi den kasuetan bereizketa hori burutu da.

Bestalde, aurreko ikerketa baten Amorrortu eta bestek (2009, 2010) beste ardatz bat gehitu zioten tradizio handikoa den instrumentala/integratzailearen ardatzari, **barne-motibazioek** eta **kanpo-motibazioek** osatzen dutena, hain zuzen. Horrela, *barne-motibazioak* norbanakoaren barnean sortzen direnak dira, norbere uste, afektu eta nahietatik; *kanpo-motibazioak*, ordea, norberarengandik at dagoen presioa dela eta sortzen direnak dira (ikus. baita Arratibel 2001: 96). Erdaldunen jarrerak eta motibazioak aztertu zituen ikerlan hartan esaten den bezala, barne-motibazioak zein kanpo-motibazioak balio integratzaile zein instrumentala izan ditzakete, sarriago barnekoak eta integratzaileak, batetik, eta kanpokoak eta instrumentalak, bestetik, elkarrekin joan ohi badira ere. Gainera, barnekoak indartsuagoak edo eraginkorragoak izaten dira euskararen aldeko benetako apustu pertsonal bat egiteko (Amorrortu eta beste 2009: 133, 289). Euskararen aldeko motibazioa kanpoko izanda, presio hori desageritzen bada nahikoa izan daiteke euskararen aldeko hautua ez egiteko. Horregatik, ezin bestekoa da, ikaste prozesuan zehar, kanpoko motibazioa edota euskararekiko kan-

poko balioa barneko egitea, hizkuntza gutxituaren aldeko erabakietan atzera egitea ez dela egingo segurtatu nahi bada.

Euskararekiko sentimendua

Partaideek euskararekiko dituzten sentimenduak askotarikoak dira. Euskararekiko maitasun eta estimutik hasi eta gorrotoraino. Identifikatutako beste sentimendu batzuk pena, errudun sentimendua, frustrazioa edota bazterketa-sentimendua izan dira.

Barneko balioekin lotutako sentimenduei buruz ari gara, ahaltsuak diren sentimenduez beraz. Sentimenduok batzuetan motibazioen eta euskararen aldeko ekintzen jatorrian daude (adibidez, hizkuntzarekiko maitasun sentimendua, kide izatearen sentimendua); beste batzuetan izandako esperientziaren ondorio dira (adibidez, euskaraz bizi nahi eta ezin izanagatik sortutako frustrazioa); beste batzuetan hiztunek eurek bizi duten kontraesanen emaitza dira (euskara gutxi erabiltzeagatik errudun sentitzea). Nolanahi ere, sentimenduak profilak zehazteko emankorrak izan dira, hain zuzen, euskararen aldeko ekintzaren sustatzaile ala eragozle diren neurrian.

Kontzientzia eta konpromisoa

Kontzientziak eta konpromisoak euskararekiko balio eta sentimenduekin erlazio estua dute. Kontzientzia horrela definitzen dugu: euskara egoera zaurgarrian dagoen hizkuntza den aldetik hiztunak daukan ezagutza-maila eta EAEko bi hizkuntza ofizialen arteko harremanaren gaineko hausnarketa-maila. Trantsizio politikoa bizi izan zutenen artean kontzientzia-maila altua den bitartean, belaunaldi gazteak «arrosa koloreko etorkizuna»² irudia izan dezake eta, orokorrean, ezagutza, hausnarketa eta kontzientzia defizita ere egon daiteke. **Konpromisoa** deritzogu euskararen alde jarduteko gogoia ekintza jakinetan gauzatzeko prestutasunari. Kontzientzia egonik posiblea da konpromisoa gauzatea, baina kontzientziarik gabe ezin da konpromisoa egon.

(h) Jarrera proaktibo eta erreaktiboak

Jarrera proaktibo / erreaktiboa Erabilera kategoriatik sortu den ideia da. Dagoeneko, hiztun berriengan kanpoko faktoreek duten eraginaren gainean hitz egin da, adibidez, tes-tuinguru soziolinguistikoak duen garrantziaz. Alabaina, kanpoko faktoreak ez dira guztiz erabakiorrak. Jarrera proaktibo eta erreaktiboaren nozioak hiztunek duten agentibitatearekin erlazioa du. **Jarrera proaktiboa** da hiztun berriek beraien ikaskuntza- eta erabilera-esperientzia hobetzeko aktiboki aukerak bilatzen dituztenean erakusten dutena; **jarrera erreaktiboa**, berriz, hiztunek inguruari erantzunez jarduten dutenean ematen da.

² «Arrosa koloreko etorkizuna» (Amorrortu *et al.*, 2009) da hiztun askok duten euskararen egoeraren gaineko irudia. Irudi horren arabera, euskara dagoeneko ez dago arriskuan, bere aldeko hizkuntza-politika indarrean baitago eta ume eta gazte gehienek eskolan euskara ikasten baitute. Pertzepzio hori arriskutsua da, euskararen normalizazioaren eta erabileraren alde ahalegin indibidual zein kolektiborik egiteko beharrik ez dagoela pentsatzea ekarri dezakelako.

Erabilerari buruzko kapituluan ikusiko den moduan, jarrera proaktiboak eta erreaktiboak kontrako baldintzetan hartzen du garrantzia bereziki: Gasteiz moduko testuinguru oztopotzailean jarrera proaktiboak berebiziko garrantzia dauka testuinguruak eskaintzen dituen erabilera aukera urriei aurre egiteko; ostera, Tolosa moduko testuinguru mesedegarrian euskara asko erabil daiteke jarrera bereziki proaktiboa izan gabe.

Jarrera proaktiboa, esfortsu handiagoa eskatzen duena, motibazio indartsuetan oinarrituta egon behar da. Jarrera proaktibo hori kontzientzia eta konpromiso-maila handiko pertsonetan aurkitu dugu, euskararekiko sentimendu positibo sakon eta balio ahaltzuak dituztenetan, barnekoak nagusiki.

Ikaste prozesua

Partaideek luze hitz egin dute euskara ikasteko bizi izandako prozesuaz, bai norberaren aurkezpena egiteko eztabaida-taldeen hasieran bakoitzak egin duen biografia linguistiko laburrean bai nolako esperientzia izan zuten kontatu dutenean egindako ibilbidean sakondu dutenean. Kapitulu honetan jasotzen diren ideiak kategorien zuhaitzaren *Ikaskuntza* adar nagusitik datoz (Ikus 3. eranskina).

Ondoko galderak erantzun nahi ditugu euskara ikasteko prozesuari buruz:

- Zeintzuk dira hiztun berrientzat euskara ikasteko dauden prozesu ezberdinak? Zeintzuk dira ohikoenak?
- Ikaste prozesuan gaitasun ona lortu dutela uste duten hiztun berriek zelako prozesua bizi izan dute? Eta zelakoak izan dira euren esperientziak?
- Zeintzuk dira euskara ikasteko prozesua modu arrakastatsuan aurrera eramateko motibazio boteretsuenak?
- Euskara ikasteak zer ekarri die hiztun berriei? Zein sari dakar euskaldun bihurtzeak?
- Hau dena kontuan harturik, zein hiztun berri profil ezberdin identifikatu daiteke?

Euskara ikasteko prozesuak modu sakonean ezagutzea ezinbestekoa da haien arrakastan eragiten duten faktoreak zeintzuk diren jakiteko. Hiztun berrien euskararen erabilera aktiboari begira, mesedegarriak eta oztopatzaileak diren prozesu eta esperientziak identifikatu behar dira, hizkuntza-politika neurri egokiak hartu ahal izateko. Gainera, hiztun berriek elebidun bihurtzerakoan elebitasun hori modu positiboan bizitzeko gakoak zeintzuk diren ezagutzea ere komeni da, mesedegarriak direnei garrantzia eman eta oztopatzaileak direnak indargabetzen saiatzeko.

Ikerketan parte hartu duten partaideek funtsean euskara ikasteko bi prozesu ezberdinetan bereganatu dute hizkuntza: batzuk euskara helduaroan bigarren hizkuntza bezala,

haietatik batzuk nagusiki euskaltegian eta beste batzuk euskaltegian eta kalean, bizi diren testuinguru soziolinguistikoaren arabera; beste batzuk oso adin goiztiarrean ikasi dute, hezkuntza arautuan murgiltze partzial edo osoko programen bidez (Siguán 2001: 115-116) edota kalean, euskara erabiltzeko aukera handiak izan dituztenen kasuan. Talde bietan testuinguru soziolinguistikoak erabateko garrantzia dauka ikasteko prozesuaren garapen eta arrakastan, datozen azpiataletan erakutsiko den bezala.

Espero daitekeenez, bi profil nagusi horiek ezberdintasun nabarmenak dituzte beraien artean, bizitako ikaste prozesuaz eta esperientziaz gain, lehenek euskara ikastea erabaki badute bigarrenei emanda etorri zaie, haien gurasoek erabaki baitute euskaraz eskolaratzea. Horrela, lehenek euskara ikasteko erabakia hartu zutenean, eta prozesuan bertan, zein motibazio nagusitu den hausnartu dute; gazteek, berriz, ez dutenez erabakia eurek hartu, sarri ez dute horretaz gogoeta handirik egin, ezta euskarari ematen dioten balioari buruz ere. Halabaina, euskaraz jakiteak euren bizitzari zer ekarri dion kontatzen dutenean, bai profil batean zein bestean, antzeko ideien aniztasuna agertu da.

Bestalde, hiztun berrien ikaste prozesu eta esperientzietan lortutako hizkuntza-gaitasuna kontuan hartu behar da: Ikaste prozesuaren arrakasta ebaluatzeko oso garrantzitsua da hiztun berriek zein mailatako gaitasuna lortzen duten eta zelan perzibitzen duten. Gainera, interesgarria da gaitasun nahikoa lortu ez dutela uste dutenek zelako ikaste prozesu eta esperientziak bizi izan dituzten argitzea. Gure lagineko partaideak aukeratzekoan gutxieneko gaitasun-maila aurreratua izatea irizpide bezala ezarri bada ere, haien artean gaitasun maila ezberdinak antzeman ditugu eta partaideek eurek askotan zalan-tzak eta segurtasun-ezak erakutsi dituzte haien gaitasunarekiko, zehazki, askok aipatu dute *erraztasuna*, *etorria*, *lagunarterako* egokia den *erregistroa*, *hizkuntza emozionala* falta dituztela, edo gauza batzuei buruz hitz egiteko ez dutela nahikoa gaitasunik eta gaztelaniara jotzen dutela.

Ondorenean, bi prozesu ezberdinak deskribatzen dira, partaideek eurek ikaste prozesua zelan bizi izan duten, zerk bultzatuta ikasi duten eta zelango esperientziak izan dituzten. Bi aldagai izan dira bereziki emakorrak ikaste prozesuak eta esperientziak ulertzeko: alde batetik, heldutan vs. adin goiztiarrean ikasi duten eta, bestetik, zein testuinguru soziolinguistikotan bizi diren, hau da, komunitatean euskara zenbat erabiltzen den. Esperientziak oso ezberdinak izan direnez, lehenengo, heldutan ikasi dutenenak aurkeztuko dira, eta gero, murgiltzean ikasi dutenenak, denak ere testuinguru soziolinguistiko ezberdinak kontuan hartuta.

Irakurlearen lana errazteko kapituluaren aurkibidea ematen da.

3.1. Heldutan edo nerabe aroan euskara H2 bezala ikastea

3.1.1. Helduen ikaste prozesu eta esperientzia ezberdinak

3.1.1.1. Testuinguru oztopotzailean

3.1.1.2. Testuinguru mesedegarrian

3.1.2. Euskara bigarren hizkuntza bezala ikasteko motibazioak

- 3.1.2.1. Integrazioarekin lotutako motibazioak
 - 3.1.2.2. Motibazio instrumentalak
- 3.1.3. Euskara ikasteak ekarritako sariak
- 3.2. Adin goiztiarrean murgiltzean ikastea
 - 3.2.1. Murgiltzeko ikaste prozesu eta esperientzia ezberdinak
 - 3.2.1.1. Testuinguru mesedegarrian
 - 3.2.1.2. Testuinguru oztopotzailean
 - 3.2.2. Euskara ikasteak dakartzan sariak
- 3.3. Bi prozesuen inguruko hainbat hausnarketa
 - 3.3.1. Gaitasuna gora behera
 - 3.3.2. Euskara ikasteko motibazioak eta hiztun berriek aipatutako «sariak»: ondorio orokorrak
- 3.4. Ikaste prozesua kontuan harturik profil ezberdinak
 - 3.4.1. Profilak zehazteko aldagaiak eta prozedura
 - 3.4.2. Hiztun berrien profilak ikaskuntza prozesuari begira
 - 3.4.2.1. Lehen ikaskuntza-profila
 - 3.4.2.2. Bigarren ikaskuntza-profila
 - 3.4.2.3. Hirugarren ikaskuntza-profila
 - 3.4.2.4. Laugarren ikaskuntza-profila
 - 3.4.2.5. Bosgarren ikaskuntza-profila
 - 3.4.2.6. Seigarren ikaskuntza-profila
 - 3.4.3. Ikaskuntza profilen diagrama

3.1. Heldutan edo nerabe aroan euskara H2 bezala ikastea

Bigarren hizkuntzaren ikastea azaltzerakoan Krashen adituak (1981a, 1981b) *jabekuntza* eta *ikaskuntza* ezberdindu zituen. H2ren hiztuna hizkuntzaz jabetzen da komunikatzeko erabiltzen duenean. Lehen hizkuntzak eskuratzen diren antzeko prozesuan, hizkuntzaren ezagutza modu subkontzientean gordetzen da burmuinean, modu *natural* batean, *jabekuntza* izeneko fenomenoaren bidez. «Hizkuntzari buruzko» [Krashenen komatxoak] ezagutza modu kontzientean gertatzen denean ikasi egiten da, normalean irakaskuntza formalaren ondorioz (*ikaskuntza*). Horrela, Krashenek H2 ikasteko *inguru formal eta artifizialak* (ikasgelan ematen direnak) eta *natural edo informalak* ezberdindu zituen, biak onuragarriak direla azpimarratuz. Hizkuntzak ikasteko modu biak osagarriak izan daitezkeela onartuta, ezberdintasun hau bereziki pertinentea da euskara bigarren hizkuntza bezala ikasterakoan, giro natural edo informalean (guk «kalean» deituko duguna) euskara erabiltzeko aukerak ez dira-eta berberak ikasle guztientzat.

Heldutan edo nerabe aroan hizkuntza ikasi dutenek ezaugarri komun batzuk dituzte, aztertzen ari garen euskararen kasuan: alde batetik, euskara bigarren edo hirugarren hizkuntza bezala ikasi dute, kasu gehienetan lehen sozializazio-hizkuntza gaztelania izanik; bestetik, partaide ia guztiek datuak jaso zirenean 35-40 urte baino gehiago zituzten, gehienek *Euskalduntzearen* lehen bi hamarkadetan hasi ziren euskara ikasten, euskaltegian, batzuk urte luzeetan eta beste batzuk denbora laburrez. Aipatzekoa da partaide horiek euskara batua ikasi dutela gehiengo nagusian. Bestalde, partaide batzuk sozializazioan, kalean, asko ikasi dutela azpimarratu dute, eta kasu horietan lekuan lekuko hizkera ere ikasteko aukera izan dute.-

Gure laginean 63 partaidetik 31k heldutan, batzuetan nerabe aroan hasita, ikasi dute. Hurrengo atalean euskara heldutan ikasteko partaide ezberdinek bizi izan dituzten prozesu eta esperientzia ezberdinen berri emango da, beti ere, partaideek eurek azaldu ta bezala. Ondoren, euskara ikasteko izan dituzten motibazio ezberdinak aurkeztuko dira eta, azkenik, euskara ikasteak ekarri dizkieten sariak.

3.1.1. *Helduen ikaste prozesu eta esperientzia ezberdinak*

Heldutan euskara ikasi duten partaideek prozesu eta esperientzia ezberdinak bizi izan dituzte eta horietan euskara erabiltzeko zein aukera izan duten garrantzi handikoa izan da. Izan ere, ikaste prozesuan euskaldun zaharrekin harremana izan dutenek ikaste prozesuan bertan euskara asko erabili dute, eta askotan, euskaldun zaharrek emandako laguntza aipatu dute. Badirudi orohar euskara euskaltegitik kanpo erabiltzeko aukera izan dutenek euren gaitasunarekiko autopertzepzio positiboak dituztela eta objetiboki ere gaitasun hobea erdietsi dutela, nahiz eta batzuk oraindik falta zaiena eta gaztelania hobeto dakitela azpimarratzen duten.

Bigarren hizkuntza bezala ikasi dutenen prozesu ezberdinak azaltzeko orduan testuinguru soziolinguistikoak garrantzi handia dauka, euskaltegitik kanpo euskara erabiltzeko aukerak ugaltu ala erabat murriztu ditzakeelako. Izan ere, testuinguru erdaldunagoan bizi direnek ikaskuntza formaletik kanpo euskara erabiltzeko aukerarik ez duten bitartean ikaste prozesuan zehar testuinguru euskaldunagoan bizi direnek aldeberean euskaltegian eta kalean, edo nagusiki kalean, ikasten dute, eta horrek esperientzia eta lortutako gaitasun maila erabat baldintzatu dezake. Egia da, testuinguru erdaldunagoan bizi izanda ere, ikaste prozesu arrakastatsua burutu eta gaitasun komunikatibo osoa eskuratu daitekeela baina horretarako, hurrengo kapituluaz azaltzen denez, euskara erabiltzeko testuinguruak ematen ez dituen aukerak sortu behar dira; kasu horietan ikasleak sareak eta jarrera proaktibo handia izatea ezinbestekoak dira. Ikus ditzagun kasu ezberdinak: alde batetik, euskara testuinguru erdaldunagoan ikasi dutenenak; beste alde batetik, ikaste prozesua testuinguru euskaldunagoan bizi dutenenak.

3.1.1.1. TESTUINGURU OZTOPOTZAILAN

Arestian esanda bezala, testuinguru erdaldunagoan, oztopotzailea kontsidera daiteken testuinguruan, bizi diren partaideek irakaskuntza formala (euskaltegia edo barnetegia) aipatzen dute giltzarri eta ikasteko modu bakar, Sestaotar honek bezala:

- (1) Ba ni hasi nintzen..., aber, **euskaltegi batean** hasi nintzen **hamalau urtekin**, baina eskolan bageneukan ikasgai bat euskara zela. Baina, bueno, nire gustokoa zenez eta, bueno, jakin behar, ba etorkizunerako, eta gurasoei ondo iruditu zitzaien, ordun, ba, hasi nintzen euskaltegi batean. /Bueno, hasi nintzen, hori, hamalau urtekin, eta atera nuen EGA hogeita hamar urterekin edo./ Baina nire ustez ahalegin handia egin dut euskera, batez ere EGA ateratzeko. Azkenean EGA ez nuen atera, baizik eta Hizkuntza Eskolan. Nik ja urte batean pentsatu nuen «bueno, atera behar dut zeozer, eta saiatuko naz edozein, osea, leku guztietatik». Eta joan nintzen, hori, EGA egitera, urte berean, e, Hizkuntza Eskolan, eta azkenean atera nuen Hizkuntza Eskolan. (SE-C, 90/73/76)

Partaide askorentzat **ikaste prozesua erabat lotuta** dago **irakaskuntza formalarekin** eta, sarri, **akreditazioa** atera nahiarekin. Behin irakaskuntza formaleko sisteman sartuta eta euskaltegitik kanpo euskara erabiltzeko aukera handirik izan ezik, erronka eta helburu pertsonal moduan ipintzen da sarri akreditazioa, eta ez beti motibazio instrumentalarekin lotuta (ikus 3.1.2. azpiatala).

Ikasgelatik kanpo giro informal edo naturalean jabekuntza inkonstzientea egiteko aukera gutxi dutenen artean ohikoa da prozesu horretan gorabeherak izan zituztela azaltzea, hots, prozesu malkar, luze eta amaitu bakoa izan dela, mahai-inguru bereko beste emakume honek azaldu duen bezala:

- (2) –Eta, bueno, hasi nintzen oso motibatua, motibatuta hasi nintzen, eta asko ikasi nuen lehen urtean, batez ere... (SE-B 102)
 –Euskaltegi batean? (SE-M1, 103)
 –Euskaltegi batean. Eta ikastaro trinko bat egin nuen, lau ordu egunero, eta, bueno, oso ondo pasatu nintzen, gainera, oso talde majoa zen, eta asko ikasi genuen. Eta bueno gero saiatu nintzen bigarren perfila ateratzea, baina, ba, bueno, ahozkoan geratu nintzen, ez nuen gainditu. Gero, ba, bueno, **desanimatu nintzen**, baina alde berean haurdun geratu nintzen eta, bueno, ja **gauzak konplikatzen hasi ziren**, ja benetan. Eta gainera ni, bueno, senarra egun osoa zegoen kanpoan eta ez neukan inolako laguntzarik, ez zegoen inor laguntzeko, orduan umea jaio zen momentutik ba berarekin egon nintzen egun osoa. / Orduan, bueno ya han euskera utzi nuen, **utzi nion denboraldi luze batez**, eta honela egon zen, o sea, gauza bera errepikatu zen bi aldiz. Ba ni(k) hiru ume dauzkat eta gauza bera gertatu da. Osea, hartu..., bueno, SE-Ck esan duen bezala, **hartu, utzi, hartu, utzi...** Ba, bueno, gauza bera gertatu da, Guadiana bezala, hartu, utzi eta hartu, utzi, eta honela pasatu dira hamazazpi urte. (SE-B: 104/109)

Euskara erabiltzeko aukerak euskaltegitik kanpo oso urriak izanda, partaide hori bezala-koentzat oso erraza da eskolak uzten dituzten momentuan **hizkuntza-gaitasuna galtzea**, edo gutxienez, irudipen hori izatea, **frustrazio handia** sortuz. Testuinguru oz-

topotzaileek hiztun berrien esperientzian asko eragiten dutela azpimarratu behar da. Horietan hizkuntza ikasteko ahalegin handiagoa egin behar da, denbora gehiago behar da eta, beraz, ikasteko prozesua luzeagoa izaten da; gainera, jarrera proaktibo argia izan behar da gero euskara ez galtzeko, ondoko Bilboko emakume honek adierazi bezala: bere hasierako ikaste prozesua kontatzerakoan luzea, korapilatsua eta akreditazioari lotua izan zela azaldu du, agian irakaskuntzatik kanpo erabiltzeko aukera handirik ez zue-
nez bere ahaleginak akreditaziora begira bideratu zituelako.

- (3) Ni Bilbokoa naz, osea, daramat hemen Zeanin hamalau urte, baina bueno, hogeita hamabi ba Bilbon ibili naz. Nire garaian, ni berrogeita sei urte dekodaz, nire garaian ez zegoen ez A, B, C, D, o sea, dana zan gaztelaniaz eskolan, (...) orduan gu San Adriangoa(k) gara, bueno, ni ta gizona be bai, eta orduan, bueno, txikitatik joaten ginen parrokiara, han zegoen euskaltegi bat, ba **Mikel Zarate ikastegian**, eta bueno, pues hara joaten ginen. (...) Eta holan izan zen gure, zelan, gure kontaktua euskeragaz, pues holan, parrokian / Ni(k) gero, eskolan frantsesa ikasi genuen eta frantsesako irakaslea ba animatu ginen batzuei ba, bueno, berak proposatu zigun batzuei **Hizkuntzako Eskolan** Bilbora joateko aurkezten **azterketa** batzuei libre moduen, frantsesez, eta orduan ni han pues aukera ikusi nuen ikasteko gero euskara. Eta jarraitu nuen han... / Hizkuntzako Eskolan, han **urteak**. (...) ni hamalau urte-gaz, edo hamabost edo holan hasi nintzen joaten, eta holan. Eta gero beti izan da, pues, **nire kabuz, ikasten etxean eta aurkezten azterketara**, eta hori. (...) Beti izan da ikasten holan, pues, gero, pues, **perfilak ateratzen**, pues no sé qué ikasten zabiz eta lortu behar dozuz perfilak edo honetarako, eta bueno, pues etxean ikasten eta azterketak prestatzen, holan izan da beti. Osea, ez dakit esan, pero vamos, **hogeita hamar**, yo qué sé, **urteak eta urteak** holan. (ZEA-F, 95-98)

Ikaste prozesuan aurrera pausuak aipatzerakoan Gasteizkoa den beste partaide honek ere irakaskuntza formalari eta akreditazioari lotzen dizkio; berak azpimarratzen duenez, heldutan, zaharragoa zela, euskarari berriro ekin zion laugarren hizkuntza-eskakizuna prestatzeko aukera eman ziotenean:

- (4) Nire **euskara maila** dago **nahiko pobre une honetan**, baina, bueno, ni saiatuko naiz euskaraz hitz egiten. Ni(k) hogeita hamabost urte ditut eta (...) eredu A ikasi nuen. Baina gero institutuan, hamasei urterekin hasi nintzen euskara ikasten **AEK euskaltegian**, ez dakit, agian modan zegoen, hango giroa, bueno, ez dakit, ez dakit baina zeozer esnatu zitzaidan euskararen..., o sea, euskarari begira. (...) Eta gero karrera hasi nintzenean ja hasi nintzen egunero-egunero bi orduz joaten. Nahiko ondo moldatzen nintzen eta lau urte pasatu eta gero, bueno, **Udaberrian**, gero beste euskaltegi batera pasa nintzen, **hirugarren hizkuntza-eskakizuna lortu nuen**. Gainera nahiko erraz, egia esanda. / (...) Gero, **gero igual abandonatu, utxi nuen** ez, baina gero eta gutxiago erabili dut, baina orain dela sei urtez, bueno nik udaletxean lan egiten dut, eta eskaini zidaten **laugarren hizkuntza-eskakizuna ikastea**, eta egon nintzen bi urtez ikasten, eta atera nuen. Eta bueno, nik uste dut **hori izan da nire bigarren eskaintza, edo nire bigarren aukera euskarari begira**. (GA-C, 4/5)

Testuinguru erdaldunagoetan heldutan euskara ikasi duten hiztun berri askorentzat **euskaltegian jarraitzea eta hizkuntza-profilak prestatzea** euskara ikasten eta erabiltzen **jarraitzeko estrategia** izan daiteke: bestela, aukera gutxi dutenez, beldur dira

dakiten euskara galduko ete duten. Izan ere, euskara erabiltzeko aukera gutxi dituzten partaideek, GA-Ck bezala, askotan aipatzen dute haien gaitasunarekiko kezka. Aurreko aipuan ikus daitekeen moduan, partaide horrek bere burua aurkezterakoan eta biografia linguistikoa kontatzerakoan eman duen lehen datua ber **gaitasunaren autopertzepzio eskasa** da.

Beste partaide batzuk, berriz, testuinguru erdaldunagoan bizi izanda ere, **prozesu** arinagoa, eta Krashenen hitzetan «**naturalagoa**», jarraitu dute, haien motibazio indartsu eta izandako jarrera proaktiboari esker, eta gaitasunarekiko horrenbesteko kezka ez dute. Hurrengo testigantza eman duen partaidea hasi euskaltegian hasi bazen ere, laster euskara erabiltzeari ekin zion, H2 ikasteko irakaskuntza formala alde batera utzita, eta euskara komunikazio-tresna hartuta, ikaste prozesu nahikoa labur eta arrakastatsua burutuz:

- (5) Bueno, nire kasuan amama Elosukoa da, hemengoa da, Arabakoa, Legutio aldekoa, eta orduan bera(k) bazekien euskaraz, eta nik txikitan entzuten nion eta, bueno, txikitan berarekin denbora asko ematen nuen eta euskara etzan arrotza niretzako. Berrogeita bi urte ditut eta beraz hasi nintzan, ba, nire amak etzekien euskaraz, nire aitak ere ez, hasi nintzen A ereduari eta A ereduari bukatu nuen COU arte. Baina larogeian, uste det, hamaika urte nituela, ikasgai bezala sartu zen euskara ikastetxean, eta bueno, ba, etzen arrotza, oso erraza egiten zitzaidan eta orduan COU bukatu nuenean, errepikatu nuen COU eta esan nuen, «ba bueno, orain daukat aukera ikasteko». **Urtebete egon nintzan euskaltegian, eta hortik aurrera, ba ez dut gehiago euskara ikasi, bai erabili.** Izan nintzen pixkat **kamikazea**. Hasi nintzen unibertsitatean euskaraz, **karrera euskaraz egin nuen.** (GA-A, 9)

GA-A moduko partaideentzat gaitasuna ez da arazo bat, ez dute sentitzen gaitasun mailako arazorik dutenik eta, izan ere, gaitasun komunikatibo osoa garatu dute, erregistro-aldakortasuna barne. Ikusten dugun moduan, testuinguru oztopotzaileetan ere euskera ikasi ahal da, eta ikasi egiten da, nahiz eta zailagoa izan testuinguru mesedegarrietan baino.

Testuinguru oztopotzaileetan heldutan ikasi duten euskaldunen ikaste prozesua, euskaltegian egindakoa, formala izan da, kasu gehienetan luzea eta aparteko ahalegina eskatu duena. Askok ondo ikasi dute eta erabilerara jauzia erraz egin dute, baina beste batzuen kasuan erabiltzeko aukera urriak gaitasunean oso eragin negatiboa izan du: azken horiek ez dute sentitzen benetako gaitasuna lortu dutenik, edota galdu egin dute euskaltegia utzi ondoren.

Partaideek, ikasteko prozesu ezberdinak ez eze, **esperientzia-mota** ezberdinak ere azaldu dituzte. Batzuk Franco erregimenaren amaieran edo trantsizioaren garaian era-

baki zuten euskara ikastea, horietako gehienak motibazio identitario eta ideologikoak zirela eta (ikus. 3.1.2. azpiatala). Garai hartan euskalduntze prozesuan hasitakoek sarri garai eta giro hartako **balorazio oso positiboa** egiten dute, hurrengo aipua erakusgarri:

- (6) Eta hasi nintzen, gogoan dut, ikasle nintzela, orduan unibertsitatean hasi berria nintzela, udak aprobetxatzearren. Udatan beti egiten nuen zeozer eta uda haietan pues hasi nintzen, (...) garai hartan, pues euskara. Eta gogoan dut joan nintzela lehenengo urratsa egitera Lazkaora **barnetegi** batea. (...) Eta gero Gasteizen bertan, **euskaltegian**, bi orduz egunero. **Izugarri ondo pasa nuen**. Gainera **izugarrizko oroitzapen politxa** dut. Lagunak ordukoak baditut eta mantendu egiten ditut, harremanak ere. Eta ondo pasatzera nijoala. (GA-E, 36)

Partaide horrek bezala, garai hartan euskara ikasten hasitakoek askotan «**parrandak**» gogoratzen dituzte ikaste prozesuaren muinean, hau da, parranda eginez, ikaskuntza eta erabilera oso estu loturik zeudela, zenbat eta gehiago ikasi orduan eta gehiago erabiltzen zutela, eta alderantziz ere, zenbat eta gehiago erabili gaitasun hobea lortzen zutela, baita hiri nahikoa erdaldunetan ere. Gasteizen egindako eztabaida-taldean partaideek ikaste prozesuaren giro hori nola bizi izan zuten azaltzen dute. Oso gaitasun ona lortu duen azken partaideak, aurreko aipuaren egileak hain zuzen, *H2 ikasteko metodo-rik onena murgiltzea* delako aurreiritzia erakusten du, ikasteko modurik onena euskaldunekin ibiltzea dela argudiatuta. Izan ere, bera Gasteiz moduko leku oso erdaldunetan bizi izanda ere, euskara ikasteko aukerak Gasteizen bertan, lagun euskaldunen artean, eta Gasteizetik kanpo, testuinguru euskaldunetan, bilatu zituen, ikaste prozesu arrakastatsua burutuz.

- (7) –Hala ere, gaurko elkarrizketa honetan, bai gogoratu dudala nola ikasten genuen euskara, eta lehen aipatu duzu hori, ezta? **Parrandan, parrandan**, eta orain, ba esaten de-nean euskararen erabilera oso baxua dago, eta orduan aisialdian eta erakutsi behar da, edo erakutsi behar diegu gazteei ondo pasatzen euskara ere egin daitekeela. Ba egia da, **guk parrandan ikasten genuen**, ez dakit **garai bateko giroa** izango zan, baina... (GA-A, 151).
–**Harremanetan gehien bat**, parrandan, bai, adinarekin lotzen dudalako, garai horretan parranda besterik ez genuen egiten... (GA-E, 152)
–Bueno, parrandan, bueno pote batzuk hartzen... (GA-A, 153)
–Hori da, eta jendearekiko harremanetan edo... (GA-E, 154)
–Bai, **Kutxi kaletik, Herriko Taberna**... Ni(k) Jesús Obreron ikasi nuen, «aber benga etorri-ko dira Olabidekoak»..., zen horrela, eta polita zen. (GA-C, 155)
–Nik aitortu behar dut, bestalde, dakidan ingeles gutxia ikasi dudala bertan, Londresen edo gero bidaiatzen, ez Hizkuntza Eskolan. Ikasita dut baina hori da guztiz eratuta, teori-koa. Osea, ikasi, ikasi, eta nik aholkatzen diet ikasleei beti ere hemendik, o sea, zerratzea, **murgiltzea**. (...) Igual Aramaion, baina bestela ere, joango nintzateke nik egiten nuena, pues Zubietan behin egon nintzen, baina Zarautzen ez dakit zenbat udan, Zarautz herri mina naukalako eta bertan euskalduntzera, bertan murgiltzen nintzen, bertako jendeare-kin, edo Oiartzunen, edo..., ez dakit. **Horrela ikasten da benetan**, hanka sartzen ere ikasten da izugarri. Eta da soltatzea eta jatortasuna... (GA-E, 156).

Baina dena ez zen izan esperientzia gozoa partaide guztientzat; **esperientzia gogorrak** ere aipatu dituzte, hizkuntza bat H2 bezala ikasteak dituen zailtasunak eta momentu txarrak azpimarratuz. BI-E partaideak, barneko motibazio ideologiko eta integratzailea izanda ere, ikasteko prozesua gogorra izan zela aipatu du, gaitasun-maila jakin bat akreditatu beharrak ematen duen presioagatik agian:

- (8) Beno, ez dakit, nik kontatu dezaket **niri kostatu zitzaidan asko titulua ataratzea**. Nik berrogeita hamasei urte ditut. Osea, nik ikusten dut, igual jende gaztea..., baña ni zaharra-go naz. Nik euskara ikasi nuen, alde batetik, nahi nuelako, baña gero beste aldetik, baita ere, beno, kondizino laboralagatik, ni irakaslea naiz eta derrigorrezkoa nuen euskara ikas-tea. Eta kostatu zitzaidan asko, oraindik karrera baino gehiago. Ni askotan ni, zientzietako lizentziatua naz, baña **euskera niretzat zen sano gogorra**. (BI-E, 9)

Izan ere, gaur egun lanean egonda euskaltegiko esperientzia zein gogorra den ere aipatu da. Kasu honetan, partaideen lankideek funtzio publikoan lan egiten dute, euskara erabiltzeko aukera oso gutxi dute eta akreditazioa atera behar dute, erreta egonik ere:

- (9) Bai, ze adibidez nire lankide pilo, batzuk joaten dira, osea, lan egiten dute hirurak arte, han bazkaltzen dute eta hiru t'erdietatik bost t'erdiak arte, o sea, seguidito como el paso-doble. Hori ere da, bai, motibazio, bost egun, bi ordu, o sea, gainera batzuk seme-alabak dituzte, o sea... Igual agian erreta egongo dira? Bai, baina «gaur, tía, me toca, Berria, zeo-zer irakurri duzu?». (GA-C, 137)

Akreditazioa atera beharrarekin lotuta, eta batez ere behartuta sentitzen direnen artean, ohikoa da, gainera, **esperientzia negatiboaren** berri ematea, beste baten edo norberaren esperientzia negatiboa, gorroto edo frustrazio-sentimenduetan oinarrituta.

- (10) Ni egon naiz bost urte lau ordu egunero eta, beno, medio año, barnetegi batean euskera ikasten. Ni hasi nintzen, A ereduan, orduan, ni azkenean, ez dakit, hemen bizi naizenez eta filologia ikasi dudanez, gustatzen zitzaizkidan hizkuntzak, orduan azkenean izan da nire erronka, ez bakarrik lanerako, pisu handia da lana, baña nahi dudalako, baña nire inguruan ikusi dudana, barnetegian ikusi dudana, o sea da de, **«en cuanto salga de aquí**, es que vamos, **estoy hasta las narices», cosas de de de odiarlo**. (BI-B, 129)
- (11) Luego, de mayor, sentí curiosidad y me apunté durante la carrera. Las clases empezaban a las nueve y media de la mañana, y yo a las ocho iba a aprender euskera voluntariamente. **Iba contenta hasta que la presión de sacar títulos** dije «no, no soy libre, esto no va bien», entonces me quité. Pero, o sea, mi vocación es ser profesora en la universidad. Es vocación interna, o sea, como sentido de la vida, tal. Entonces, tienes que hacer euskera. Y entonces, fui a euskaltegis otra vez, pero es que **la sensación de que no eres libre** ha sido muy fuerte en mi vida. O sea, vas allí, aunque yo prefería estar en otro sitio, (...) pero por motivación interna, para ser profesora universitaria decidí, bueno, no decidí, decidieron por mí, la sociedad, hacer euskera. Entonces, **con bastante frustración**. (ELK-A, 36).

Esperientziak esperientzia, heldutan euskara ikasi duten hiztun berrien ahaleginak aintzat hartu behar dira. Ikasketa prozesua testuinguru oztopotzailean egin dutenen kasuan euskara erabiltzeko aukerarik ez izateak prozesu hori nabarmen zaildu du kasu askotan, baina hiztun berri askok aukerak sortzeko estrategia oso eraginkorrak erabili dituzte eta prozesu arrakastatsua burutu dute, gaitasun oso ona lortuz.

3.1.1.2. TESTUINGURU MESEDEGARRIAN

Ikaste prozesua testuinguru euskaldunagoan, edo mesedegarri deitu dugun horretan, oso ezberdina izan da: batzuk euskaltegiak gain kalean ere ikasi dute, euskaldun zaharrekin hitz egiteko aukera izan dute eta baita bertoko euskalkia ezagutzeko ere.

Beraz, partaide horien ikaste prozesuan hasiera-hasieratik izan du itzelezko garrantzia erabilerak, hau da, ikaste prozesua eta hiztun aktibo bihurtzeko pausuak oso loturik daude, beste partaide honek azaltzen duen bezala: TO-A 44 urteko tolosarra da, eskolan A ereduan ikasitakoa, eta bere hitzetan, «inoiz ez zuen salto hori eman, erabiltzea». Hamabost urtetik aurrera jende berria («beste zirkulu batekoak») ezagutu ahala, euskara gero eta gehiago erabiltzen hasi zen, eta orduan euskaltegiara joan zen udaran ikastaro trinko bat egitera, «ja arrankatzeko eta beldur hori kentzeko».

Antzeko ikaste prozesua kontatzen dute, adibidez, Zumaia herri euskaldunean bizi diren beste partaide batzuk:

- (12) Nire gurasoak extremeñoak ziran eta nire etxian beti gaztelaniaz hitz egin izan det eta gero nire herria nahiko euskalduna zan, Arrua, hemen bertan dagoela, baina lagunekin beti gaztelaniaz hitz egiten gendun. **Euskara ezagutu nun** gehio, pixka bat gehio **lagunen etxeetara juten nintzanean**, ba gaua pasatzea, edo jolastea, edo... Eta lagunen aitona-amonak, gurasoak ere bai, eta hoiekin ezagutu nun euskara nolabait, eta **belarria jun zitzaidan egiten**. Baina gero ez nun ikasi, eskolan ez nun ezer ikasi. Euskaltegian egin nun saikera bat baina ez nun ezer ikasten ere, osea, iruditzen zitzaidan hori zala paso de tortuga, nolabait, eta **barnetegi** batera jun nintzan eta **han hiru astean eman nun salto izugarria**. Ja handik atera nintzan euskara hitz egiten, hogeita lau urtekin edo izango zan. (ZU-A,10)

Bestalde, heldutan eta testuinguru mesedegarrian bizi direnentzat garrantzi handia dauka hiztun natiboek, **euskaldun zaharrek**, eurretaz duten **pertzepzioak**: norberaren ikasteko esperientzia kontatzerakoan, zer esaten dute partaideek euskaldun zaharren haiekiko jarrera eta jokabideari buruz? Gehienek azpimarratu dute euskal hiztunek orokorrean, eta euskaldun zaharrek zehazki, harrera ona egin dietela. Beste egoera batzuetan (Walsh 2012, O'Rourke 2011a, 2011b, irlanderarako, kasurako) aurkitu diren hiztun natibo edo tradizionalak erakusten dituzten hiztun berri edo ikasten ari diren hiztune-

kiko jarrera kritiko eta mesprezu-jarreretatik aldenduz, gure ikerketan hitzun berriek, batez ere heldutan ikasitakoek, beste euskaldunen jarrera abegikorra, eskertzekoa eta laguntza ematekoa azpimarratu dute, ondoko testigantzan ikus daitekeen bezala.

- (13) Nik uste det lehenau aipatu detela, ez?, oso ondo hasi nintzanean, ya pixkat serio ta hitz egiten eta hori, **euskaldun zaharrak** eta hori, ingurukoak, **con los brazos abiertos**, ez? Prest, eta gainea, ba, **laguntzen, nolabait goraipatzen hori, ta esfortzu hori**, orduan, problemarik gabe. Egia esan, inguruko jendearekin, nere adineko jendearekin ere euskera mota ba, ez, ba batua dala, eta zea, errazago eta adineko jendearekin hitanoa edo dala, ba zailago, ez, ulertzeko eta orduan, bueno, baino haiek ere, beraiekin ere hasi eta zenbait pertsonekin eta hori **oso harreman positiboa**, horregaitik, nik behintzat **oso, oso positibo**. (ZU-F, 356)

Hurrengo partaideak euskaraz jakin barik lagun euskaldunekin unibertsitate-ikasketak euskaraz egitera eta haiekin euskaraz bizitzera joatea erabaki zuen. Murgiltze erabateko hori gogorra izan bazen ere, lagunak laguntzari esker euskara ikastea lortu zuela azaltzen du:

- (14) Nik e bai, nik e bai. Nik kontuan izan nere **apostua** izan zala **pertsonala, baina ez bakarrik pertsonala, taldekoa ere bai**. Haiek ziran, izan ziren **pixkat animatu** ein ziatenak erabakia hartzen, **atzetik beraiek zeudelako**, lagunduko zidatelako, eta nik uste det, nik bestela, zea hartuko nun, ez? Eta nik usten det ba, bueno, ba, beraiek, eta hitz egiten ai naiz beraiek, lagunak, lagunak pixkat pisuan hainbeste urte nerekin bizi izan zirenak, bueno, hoiek parte inportanteena beraiena da. Orduan nik sentido hortan, beraiek euskaldun zaharrak ziren eta **oso harrera ona nerekiko**. (ZU-B, 357)

Beste partaide batzuk ere euskaldunen laguntza aipatu dute, hurrengo kasua adibide:

- (15) –¿Y crees que fue el euskaltegi, o ese ambiente en el pueblo que te ayudó? (ELK-M, 103)
–Sí, la euskaltegi o muy buenos amigos euskaldunes que te apoyan, ante todo te van a apoyar y te quieren. [...] y luego de repente te viene un tío que tú lo tienes cómo..., o sea, en euskera, te viene y dice «hostia, pues **felicidades porque hablas de puta madre...**», aunque no sea verdad, pero para cuando te das cuenta, cuando te sueltas en ese sentido y empiezas a utilizar frases, al final llega alguien que te dice «jo, qué de puta madre». (ELK-D, 104)

Partaideen hitzetan, euskaldun zaharren harrera abegikorra nahikoa ohikoa da: hitzun berriek eurek gogoratzen dituzte haien gaitasun gabeziak (euskara «akademikoezia», «liburukoa» egiten zutela onartuz), baina ez dute gogoratzen euskaldun zaharrek hala agerian uzten zituztela. Batzuetan hitzun berriaren «hutsak» umoretsu hartzen direla esaten da, eta giro atseginean, ari-den-ikaslea mindu edo baztertu barik:

- (16) –Baina nik disfrutatu nun be ikasten, eta nik esate baterako kontziente nintzen jolin ikasten zoazenean edo ikasten zabizenean hanka sartzeak logikoak direla, eta orduen, ba ni ondiño gogoratzen dot ze joaten nintzen tabernara, tabernara holan eta ni(k) apropos

iten nuen, bueno apropos ez, eske nik euskeraz ikasteko kontzientzia guztia hartu nuen, orduen leku guztietan euskeraz iten nuen eta gero jendeak, ba lagunek edo ezagunak zirenean, zirelako **jendea ba gelditen ziren niri begire, eta barreka, eta jo, eta nik be barre iten nuen**, orduen lotsarik ez dot eukin. Eta hori be izan da, ba, zuk esan dozuna lehen, nik ezatu dot beste batzuk eta hasi euskeraz esaten eta, klaro, ikusten badau ondokoa ba barreka hasten dala, ba hurrengoan ez dau iten, «que le den dos duros»... (ZEA-D, 367)

—Ja, ordun presiño hori ez... (ZEA-M1, 368)

—**Nik ez dot jaso presiño hori, edo ez dot sentitu eta ganera gustora egon naz**, nahiz eta askotan astokeriak esan. (ZEA-D, 369)

Ikaste prozesuan euskaldun zaharrekin hartuemon zuzena izan dutenez, testuinguru mesedegarrian ikasi duten hiztun berriak berehala konturatu dira hizkuntza-aldakortasuna desiragarria ez eze beharrezkoa dela eta bertako aldaera («kalekoa») ikasi behar dutela.

- (17) —Eta orduan, bueno ba, esan nuen «hau ja serion hartu behar dot eta ikasi behar dot zelan edo hala». Orduan joan nintzen Bilboko euskaltegi, Gabriel euskaltegi. (ZEA-D, 7)

—Gabriel Aresti. (ZEA-M2, 8)

—Bueno, Gabriel Aresti euskaltegi, ezta? Gero beste, Uribarri ere be bai, gero Bilbo Alde Zaharrean be bai..., bueno, hainbat euskaltegitara joan nintzen eta ba han **ikasi nuen akademikoa zana, noski**. / Bueno, **gero ba kalekoa** ikasi behar, klaro, ze hango euskeragaz hemen Arratien, ba, bueno, **txokantea** da, ezta? Egia da, ikasten dozuna euskaltegitan gero erabiltzeko, ba bueno, esparru hau ez da igual egokiena, beraz, ba bueno, kalekoa, eta bueno, ba horretarako be nahiko **laguntza nuen ba lagunengandik**, ez? Esan nahi dot, nire koadrilan danak ziren **euskaldunak** eta, bueno, ba **baserriko jendea**, gainera, eta horri iten uen, batzutan, batzutan ni nagoela ta batzutan hasten ziren erderaz, ezta? Eta orduan niretzat hori be ez zan gustukoa, ez? (ZEA-D, 9,10)

Kasu batzuetan, batez ere euskaldun zahar alfabetatu gabeen artean, ez bakarrik lagundu, hiztun berria goraipatu ere egiten dela adierazi da, lekuan lekuko aldaerara hurbiltzeaz gain eurek ez duten hizkuntza alfabetatua ere badutelako.

- (18) Bai, haiek be, ze haiek be **konplexu** handixe dakie, nere gizonaren etxien, adibidez, amai-narrebak, aitagarrebak, «zuk dakizu, zuk irakurri», irakurtzeko badan, idazteko badan, «zuk irakurri, zuk idatzi, zuk egin» / **Eurek dakiena ez da ezer**, ez da garrantzitsua, **ez da ona**... Ordun, **zuk dakizune, ikasita edo, zeurea da apur bat politagoa, ze euren erara eixen dozu eta ganera zuk dakizu eurek ez dakiena**, hau da, pelikula bat euskeraz ikusten, edo seme-alabak hezteko momentuan edo... (BE-C, 79-81)

Arestian esanda bezala, heldutan ikasi duten eta testuinguru mesedegarrian bizi direnen artean ere batzuetan euren euskara «nahikoa» ez dela aipatu da, gehienek gaitasun eta jariotasun ona izanda ere. Euskara egunerokoan asko erabili eta euskeraz eroso sentituta ere ohikoa da gaztelaniaz hobeto moldatzen direla adieraztea edo falta zaiena azpimarratzea. Kasurako, ikaskuntza prozesua testuinguru oztopotzailean (Bilbon) baina orain dela hamar bat urte testuinguru mesedegarria (Zeanurira) bizitzen joandako ondoko emakumeak euskara ikasteko prozesuan geratu egin dela eta gaitasuna ez duela hobetzen sentitzen du, nahiz eta egunerokoan orain euskara asko erabili:

- (19) Baina holan, o sea, bai, ni **mugatuta**, o sea, sentitzen naz euskera berba egiten, osea eske nahi ta... Ganera konturatzen naz dela como muga, o sea, **ailegatzen zara puntu bateraino** edo ja, edo banoa berriro ikasten eta no se qué, edo **sentitzen naz como que ez dot aberasten ja**, ez hiztegia, ez ezebez, osea, ahaztuta gauzak gainera. (ZEA-F, 278)

Euskara ikasteko prozesua amaigabea, ari bidean dagoen prozesu etengabea dela aipatzea ohikoa da. Ondoko emakumeak bere ikaste prozesua kontatzerakoan erakusten duen bezala, prozesu hori ez da amaitu, oraindik zerbait falta zaio, bere ustez, *jariotasuna* eta *erraztasuna*:

- (20) Garai hartan ez zegoen talderik zerotik hasteko, eta ordun Bakarka erosi nun. Baina Bakarka-rekin aspertzen nintzen pilo bat, osea, ezin nuen. Eta bueno, egun baten deitu zidaten euskaltegitik esateko programa berri bat, bai, aterako dutela, eta zan auto-ikas-kuntza, hori, Boga-rekin. (...) Baina nahiz eta euskaltegira jun, oso gogorra egin zitzaidan hori, bakarrik sentitzen nintzen (...). Ordun, bueno, jarraitu nuen ba, ba, zer edo zer egiteko, baina bi urtetan egon nintzen hori egiten. Eta gero, bueno ni irakaslea naiz, Donostin egiten det lan, eta ordun esan zidaten posiblea zela, osea, liberazioa lortzea. Eta ordun liberazioa lortu nun eta hiru urtez aritu nintzen jo ta ke euskera ikasten EGA lortu arte. Eta joan den urtean EGA lortu nun. Dena den, nik badakit EGA daukadala baina **jariotasuna eta erreztasuna hitz egiteko oraindik falta zait** pila bat. Baina bueno, han nabil. Eta hori da nire eskarmentua. (TO-B, 32)

Beste partaide batek, gaitasun mugatua dela eta, lanean ez duela euskara erabiltzen esan du (ikus. 4.2.3. azpiatala): «porque no tengo esa seguridad. Son cosas serias, no puedes, que te entiendan mal no te lo puedes permitir» (ELK-F, 148). Edo bere alabari errieta egiteko. Ikus ondoko aipua:

- (21) Aber, tampoco quiero que piense «mi padre es tonto, no sabe expresarse», o sea, yo determinadas cosas o conversaciones las tendré en euskera, otras no, por supuesto, cuando se porta mal o hace cualquier cosa, **eso no le puedo decir en euskera porque meto la pata, no tengo yo esa seguridad.** (ELK-F, 168)

Partaide batzuentzat adierazi nahi duten guztia nahi duten moduan ezin adierazia gaitasun ez nahikoaren seinale da, eta muga bezala aurkezten dute, Zumaiko hiztun hauek bezala:

- (22) –Zuk esaten dezuna neri ere gertatzen zait, eta **muga bat dago**, zea, **ondo** komunikatu nahi dezunian. Nik ere hartzen det, hasten naiz erderaz idazten eta hitz egiten ta bai hiztegia, bai kostrukzioa eta hori askoz zeagoa daukat, ez? Eta euskeraz ere, bai, hortan ai naiz, ai naiz eta pilo bat aldiz jartzen naiz idazten eta, ba hori, nik dakaten ideia, eta batez ere gertatzen zait seme-alabekin. Batzutan komunikatu behar duzula **oso zehatz** zer esan nahi dezun, bestela nahasmena sortzen da. Eta orain ja, alabak pixkat erderaz ya badakila, batzutan, ez, **berriro jo det erderara, orduan, zehatz-mehatz esateko nik sentitzen detena eta ez liatzeko**, hola, euskeraz batzutan ba, juten zaizu burua eta ez dezu asmatzen mensajean, ematen dezu, ba, gaizki, eta gaizki ematen... (ZU-F, 100)
–Eta gutxiago haserretzen zaenean. (ZU-E, 101)

—E?, hori, hori, nire bezalako alaba baldin badaukazu, hola, ez, zehatz-mehatz esan eta bestela... Eta hortan bai, eskemak hor daude, erderazko eskema hoiek. Eta, bueno, alde batetik pozik hartu dezula ya euskeraz ere, gaitasun bat eta hori, baina batzutan akatsa, edo hutsune bat hor sentitzen da. (ZU-F, 102)

Izan ere, gaitasun ez nahikoa dutela azaltzerakoan askotan aipatzen dute gaztelaniaz hobeto dakitela, errazagoa egiten zaiela, euskara egunerokoan asko erabilita ere. ZU-A partaideak, gainera, «amaren hizkuntza»-rekin lotzen du:

- (23) Osea, **mezu baten afinatzeko** eta, bai, bai, noski, nik hobeto adierazten naiz, edo azaltzen ditut gauzak, emozioak direla, edo ez dakit zer, hobeto **gaztelaniaz, askoz hobeto**. Eta askotan ateratzen zait ere konturatu gabe, **nire amaren hizkuntza da nolabait**. Euskera ere erraz ateratzen zait, baina batzuetan gaztelania. Eta gero, euskeraz ari garinian ere, gure lagunaren artean, eta inguruan, nik uste det Zumaian ohikoa dala hori, zuk lehen esan dozuna, nahasten ditugu hizkuntzak, bi hizkuntzetan batera hitz egiten dugu. (ZU-A, 123)
- (24) Eta orduen beti pisu bat deko hizkuntza batek bestea baino handiagoa. Nire kasuan ba igual momentu honetan ez dakit zer esan, baina **igual gaztelaniaz pisu handiagoa deko** euskerak baino, **nahiz eta** ni euskera, euskeraz bizi edo **ia egunero erabili**, behar dodalako, eta bueno, nire ingurue be euskalduna delako, eta erabiltzen dot, eta gusture, eta askotan, ez dakit faseak dagoen edo, baina sentitzen naz euskeraz hitz egiten erosoago edo komodoago eta bestetan erderaz. Idazteko eta, beharbada, edo hitzaldi bat emon behar badot be, esaten badoste, «aber, zelan emongo dozu gai hori **errezagoa?**», ba igual, igual ez, **gaztelaniaz beti errezagoa**. (ZEA-D, 238)

Esanda bezala, gaitasunarekiko kezka, *falta zaiena* azpimarratuz adierazten dena, gaitasun ona edo oso ona dutenek ere plazaratu dute. Beste adibide bat ematearren, gehien bat lagunekin sozializatzen ikasi duen eta beste momentu baten euskaldun zaharrek euskaldun zahartzat hartzen dutela esan duen ondoko partaide honek *hiztegia* eta *gramatika* identifikatzen ditu hobetzeko falta zaizkion alde moduan:

- (25) —¿Consideras que sigues aprendiendo, estás siguiendo aprendiendo de...?, como te has referido a otros amigos, ¿que sigues aprendiendo de ellos del euskera? (M,159)
—Sí, sí, sí. Vocabulario y más también, sí, sí. / No, vocabulario y, pues lo que te decía antes, que yo hay muchas cosas que digo mal, pues el **transitivo y el intransitivo** yo le suelo **pegar algunas patadas** también impresionantes, entonces quiero decir que sí que tengo margen por delante para aprender. (ELK-D, 160/162)

Gaitasun oso handia duten, egunerokoan gehien bat euskaraz bizi diren eta bertako tokian tokiko aldaera eroso erabiltzen duten Bermeo eta Zumaiaiko ondoko partaide hauek ere, ELK-Dk bezala, oraindik badutela zerbait ikasteko adierazi dute:

- (26) Niretzako be bai, esfortzue ein behar, eta ahaztu barik handik pasa garizela eta nik beti diñot ba **euskeraz ikasten ibiliko gaizela bizitza osoan**, nik behintzat, nire bizitza osoan. (BE-C, 154)

- (27) Hala ere **nik somatzen det ikasten ai naizela** eta gero eta, gero eta hobeto, ez? Kontaktu hori, ez, ba gero eta errazago, eta hiztegiaren aldetik, eta sintaxiaren aldetik eta hori, ba bueno, akatsak eta egingo dituzu, baina gaintitu egiten dezula, erabilera behar, ba laguntzen dizu hortan. Orduan, bueno, nik esperantza horrekin, **oraindik asko ikasteko daukat**, ez, eta gainera, bueno ba, pixkat urte pilo bat gogo horrekin, eta behin urrats hori eman ondoren eta hori, pixkat harro ere bai, esaten det, bueno, ba, despegatu naiz eta hemen nago. (ZU, F, 138)

Aipagarria da gaitasunarekiko ardura hauek, hau da, gaitasun objetibo oso ona izanik autopertzepzio hain zorrotza izatea, ohikoagoa dela testuinguru mesedegarrian bizi direnen artean. Horiek euskara erabiltzeko aukera asko dituzte eta beraietaz baliatzen dira. Esan daiteke, agian, egunerokoan erosotasunez eta normaltasunez euskara erabiltzen duten hiztun berri batzuk oso estandar altua dutela xede-gaitasuna zehazterakoan, eredu inguruko euskaldun zaharrak direlako eta haiekin konparatzen direlako. Edozein kasutan, eta 6. kapituluan garatuko denez, hiztun berriek «falta zaienaren» diskurtsoa agertzen dute, baina ezin da modu berean ulertu diskurtso hori testuinguru oso euskaldunean eta erdaldunean.

3.1.2. *Euskara bigarren hizkuntza bezala ikasteko motibazioak*

Jarraian euskara heldutan ikasteko motibazioak aztertuko dira, zehazki, euskara bigarren hizkuntza bezala ikasteari ekiteko orduan gure partaideak erabaki hori hartzera bideratu dituzten arrazoiak. Bigarren kapituluan azaldu denez, euskara bigarren hizkuntza bezala ikasteko motibazioak integratzaileak zein instrumentalak izan daitezke, batetik, eta, bestetik, barnekoak zein kanpokoak.

Gure partaideek askotariko motibazioak izan dituzte. Batzuen kasuan, funtsean motibazio integratzaile eta identitarioak eta barneko motibazioak eragin dute euskara ikasteko erabakia, beste batzuentzat motibazio instrumentalak nagusitu dira. Gainera, motibazioak azken hamarkadetan aldatu egin ei dira: euskalduntze prozesuaren hasieran ikasleak mogiarazten zituen integrazio eta identitatearekin lotutako barne motibaziotik aldentuz orain euskaltegietara hurbiltzen diren ikasleen artean motibazio instrumentalak eta kanpokoak nagusitzen direla aipatu dute euskaltegiko irakasle diren gure partaide hiztun berri batzuk.

Ondorenean gure partaideen artean aurkitutako motibazioak azalduko dira: alde batetik, motibazio integratzaileak, identitarioak barne, eta euskararen barneko balioarekin edo atxikimenduari loturikoak; bestetik, motibazio instrumentalak.

3.1.2.1. INTEGRAZIOAREKIN LOTUTAKO MOTIBAZIOAK

Gure lagineko partaide batzuk **motibazio integratzaileak** azpimarratu dituzte, modu ezberdinetara adierazita: «nire kultura delako» (ZU-E 334), «empecé a darme cuenta de que me perdía mucho» (ELK-D, 64), «herriaren hizkuntza errespetatu behar delako» (TO-E, 117) edo bai helduen zein gazteen artean oso ohikoa den «nire arbasoek egiten zutelako eta galdu zelako» (ZU-E, 334, GA-A, 13).

Motibazio integratzaile argia erakusten duen «**kanpo ez geratzeko**» ideia ere ohikoa da testuinguru mesedegarrian ikasi dutenen artean, hurrengo lgorreko partaide honek oso ondo azaltzen duen bezala:

- (28) Momentu hartan nik beharrezko ikusten nuen euskera ikastea. Osea, nik, eta orain be, edozein lekutara bazoaz ni(k) **bertako hizkuntza** ikusten dot, gustora zein ez, ikasi behar dala. Eta orduan ni, alde batetik bai, oso gustora eta pozik, baina bestela be, ikasi beharrezkoa ikusten nuen, ikastea bertako hizkuntza nik uste dot hori dala ezinbesteko gauza bat. /Osea, **jendeagaz egoteko** eta **hemen bizi nazelako**. (...) Zer pasetan da hemen? Orduan segun non zure ingurue nahiko euskalduna bada, ba orduan ikasiko duzu, eta bestela, oso zaila da. Ez da berdin ba Barakaldon bizi edo Zeanurin bizi, hori argi dago. / ba ni hamasei, hamazazpi urtegaz eta koadrilakogaz, jo, ba askotan egoten nintzen ni **lekuz kanpo**, ze eurek euren hizkuntza euskera zan, eta euren artean, eta **neu bakarri nintzen erdaldune**, beste guztiek, ba, zazpi, zortzi, edo bederatzi ibiltzen baginen han, ba neu bakarria erdaldune. Orduen, logikoa zan euskeraz itea, eta orduen ez nintzen enteraten erdia bez, klaro. Ta batzutan eurek be igual konturatu eta igual hasten ziran nigaitik ba erderaz, eta nik hori be ez nuen gure. Baina, klaro, bestetik esaten nuen «baina eske», batzutan esaten nun «bueno, ba batzutan in dozue, baina ez beti, baina joe, bestela ez dakit nondik doazen tiroak, ez». Eta orduen, ba bueno, beharrezkoa ikusten nuen mila gauzagatik, ez, baina hori niretzat orduan euskera ikastea zan ba, bueno, ba **lorpen naturala**, beharrezkoa zen gauza bat. Orduan, ba, **poztasuna**. (ZEA-D, 133/135/233/366)

Inguru oso euskalduneari bizi izanda, ZEA-D partaideak taldean integratzeko bertako hizkuntza ikastearen beharra sentitzen zuen, ez besteek eraginda, baizik eta berak nahi zuelako (barneko motibazio integratzaile argia).

Familia euskaldunera ezkondu edota herri euskaldunera bizitzen joandako beste partaide batzuk ere «kanpo ez geratzeko» aipatu dute motibazio nagusi bezala. TO-E partaideak euskaldun familia batera ezkondu euskara gutxienez ulertzeko nahia garatu zuen, eta gero erdaldunagoa den Donostiatik euskaldunagoa den Tolosara bizitzen joatean euskara ondo ikasteko erabakia hartu zuen, Tolosan integratzeko beharrezko ikusi zuen-eta:

- (29) Eta handik neukan, hori, **interes hori, ulertzea**, beti zaude mahaian bazkaltzen, horrela-ko bileran zaude eta gehienak hitz egiten due euskeraz eta «zer esan du?», eta horrela-ko gauzak pixkat **ez zitzaidan** hain **gustatu**. / Gero ja neukan, pues, daukat bi ume, jaio ziren, eta aitak beraiekin beti euskeraz, (...) eta nik pentsatu det, ja jarri behar naiz gramatikakin oso ondo, daukagu etxeko lanak, gero daukagu bilerak, gainera etorri ja ho-

nea duela ya bost urte, eta pixka bat gehixau, bost urte daramagu hemen, eta Tolosa da euskerako lekua eta **hemen erderakin bakarrik ezin dugu ibili**. (TO-E, 107/109)

Eztabaida-talde berean, beste tolosar batzuk ere integrazioaren inguruko arrazoiak azpimarratu dituzte: kanpo ez geratzeko eta **euskaldunekiko eta bertoko kulturarekiko errespetu eta konpromisoagatik**.

- (30) – Ez dakit, igual bai, baina oso desatsegina da «ba, barkatu, baina erderaz esan dezakezu? Eske nik ez det ulertzen». Eta niri horrek lotsa ematen zidan eta, ez dakit, kanpo sentitzen zea. (TO-B, 121)
 – Baina zu sentitzen zea, ez bestea, ez besteengandik datorren... (TO-M2, 122)
 – Ez, ez, ez, ez, baina **nik neuk**, ez dakit, beharra hori sentitzen nuen. (TO-B, 123)
 – Baina ni hemengoa izanda ere sentsazio ez hain, osea, beti ulertu dut, baina ez zinan ausartzen pausu hori ematen, baina baita, nahiz eta hemengoa izan, bai **errespetu** eta bai sentsazio hori **behar zenula**, ez egoteko inork esplikazio ematen edo erderaz pasatzen ez zenuelako... Osea, da pixkat **errespetu** eta sentitzea benetan, eske **konpromisu** hori in behar dezula ere **jendearekiko eta hemengo kulturarekiko**, ez? (TO-A, 124)

Integrazio-nahia, dena den, ez da eskusio modura interpretatu behar. Partaideek «kanpo geratzeari buruz» hitz egiten dutenean ez dute azpimarratzen euskaldunek kanpo uzten dituztela, nahita, baizik eta, sarri, TO-Ak esan duenez, hemengo kultura eta euskaldunekiko errespetuagatik, ez dutela nahi eurek euskaraz ez dakitelako besteek erdarara jotzea. Kezka hori, hortaz, gure datu basean agertu diren kasu gehienetan behintzat, ez da kanpotik datorren zerbait, baizik eta partaideek haiek barnean garatu duten nahia:

- (31) **Tampoco cuando no sabía estaba aparte**, porque yo cuando empecé en el Zumaiaiko apenas hablaba en euskera, y **siempre estuve muy integrado en el grupo**, pero no sé, me ha llamado la atención el **ir aprendiendo, yo me sentía mejor también**. (ELK-F, 88)

Barneko integrazio-nahiaren adibide ezin hobea ematen digu beste solaskide batek: hizkuntza-integrazioa izan zen Alicantetik Bermiora bizitzen joan zen BE-Aren lehen egunetik euskara ikasteko eta zekian euskara apurra erabiltzeko motibazio edo arrazoirik handiena.

- (32) Ni Alacant, Alacantakoa e nai, ni nai herri batekue, XXX [herriaren izena], dago barruko mandan, hoge kilometrotara. (...) Han, geuk, nire familie valencianoparlante da, osea, geuk eitxen du valenciano, eta han ez da Katalunia izatin lez, han, Alacanten eta Valencian ta Valenzia ez dau ondiño katalan mailen edo. O sea, dago, erderie, eta gero Valenzia ba bai, ba horrek, baserritarrek, baserritarrek eitxen daue, eta herriekuek eta. (...) Eta klaro, hona etor naian eta konturatu nai, hemen jendia(k) eitxen dau euskera ta, gero Bilbon ez, baina Alacanten berdin, Alacantenkun lez, o sea, bardin bardin. (...) Ba pentsa dot, ba bueno, ba hasikeratan ikasi in bihar dot euskerie, ze **ostantzien honeek jendiek ingo daue geuk eitxen dun moduan**. Osea, nik ikusiten badot jendia erdaraz berbetan, nik ipintxen dot txipe eta **hurrengokoen erdaraz ingo dotsat**. (BE-A, 52)

Baina atal honen sarreran esanda bezala, motibazio integratzailea kanpotik eraginda ere gerta daiteke, hurrengo aipuan ageri den bezala.

- (33) Urte hartan irikitzen zan [Magisteritza] seminarioan euskeraz. Eta nirekin zijoaztenak, **nere lagun kuadrila, denak apuntatu ziren seminarion euskaraz egitea**, eta nik, klaro, nik euskeraz ezta tutik ere ez, **baina bakarrik jutea erderaz egitea corte ematen zian, orduan apuntatu nintzen euskeraz ezer jakin gabe.** / Orduan, pisu baten negoela, porque, claro, inportantea dala lagun kuadrila eta hori, eta garai hartan nagoen kuadrila, pisu batean nagoen, danak euskaldunak, danak magisteritza eiten ari ziranak eta, orduan, pisuan ere euskeraz eiten genun dena, bueno, egiten zuten, nik **a tragar**. Garai hartan, eta gainera **debekatua zegoen erderaz eittea**, orduan, ba, euskaraz ein behar zan. / Kontuan izan nere **apostua** izan zala **pertsonala, baina ez bakarrik pertsonala, taldekoa ere bai**. Haiek ziran, izan ziren **pixkat animatu** ein ziatenak erabakia hartzen, **atzetik beraiek zeudelako**, lagunduko zidatelako, eta nik uste det, nik bestela, zea hartuko nun, ez? Eta nik usten det ba, bueno, ba, beraiek, eta hitz egiten ai naiz beraiek, lagunak, lagunak pixkat pisuan hainbeste urte nerekin bizi izan zirenak, bueno, hoiek parte inportanteena beraiena da. Orduan nik sentido hortan, beraiek euskaldun zaharrak ziren eta **oso harrera ona nerekiko**. (ZU-B, 25/26/357)

Kasu horretan partaidearen euskara ikasteko motibazioa integratzailea dela ez dago dudarik (lagunekin jarraitzea, bai ikasten eta bai bizitzen). Alabaina, hasiera-hasieran kanpotik eragindakoa izan zela esaten du ZU-B partaideak, lagun-taldearen presiopean sortutakoa, beraiek euskaraz egiten zutelako, etxean debekatuta zutelako erdaraz egitea, ez partaideak berak barru-barruan euskaraz egin nahi zuelako. Hala ere, oso arin egin zuen barneko, euskara barik hemen ez zuela ezer «pintatzen» onartzeraino (ikus. beheko (48) aipua)

Ikusi denez, testuinguru euskaldunagoetan komunitatean integratzeko nahia euskara H2 bezala ikasteko motibazio garrantzitsua da, barneko motibazio integratzailea hain zuzen, euskaraz ez jakiteak ez dakar-eta bazterketa, partaideek aipatu dutenez.

Baina motibazio integratzaileak euskaraz gutxi dakiten testuinguruetan, hau da, **testuinguru oztopotzaileetan** ere ematen dira, harremanetarako behar ez badira ere, hurrengo partaideak, euskara ikasteak zer ekarri dion azaltzerakoan, esaten duen bezala:

- (34) —Aber nik, aber, alde batetik euskara gustatzen zaidalako, hori izango litzateke nire saria, baina beste aldetik ba hau bada Euskadi, eta Euskadiko hizkuntza da euskara. Eta momentu batean bere hizkuntza lapurtu zioten, eta ni orain Euskadin bizi naiz eta hori da bere hizkuntza. Eta aber, saria, ba bertako hizkuntza hitz egitea. Osea, hori izango litzateke nire saria. Osea, aber, Kataluniara joango banintz bezala, osea, sartuta egoteko. (SE-B, 319)
—Integratuta egoteko, esan nahi duzu? (SE-M1, 320)
—Edo proiektu honen parte izateko? (SE-M2, 321)
—Batez ere proiektuan, ze integratuta egoteko hemen, Euskal Herrian ez da beharrezkoa euskara. (SE-B, 322)

Sestaon bizi den baina Kataluniakoa den emakume horrek euskara ikasteko izan duen motibazioetako bat integratzailea da, baina ez herri edo inguru euskaldunetan dauka-

tenaren parekoa: sozializatzeko bere inguruan euskara ez dela behar, eta erabili ere gu-txi egingo duela argi dauka, baina, hala ere, euskararen mogimenduaren parte izan nahi du, erabat barnekoa den motibazio integratzailea erakutsiz.

«**Proiektuan**» **integratuta** egoteari buruz berba egiterakoan, aipamen berezia merezi dute, alde batetik, **trantsizio-garaiko giro politikoarekin lotutako motibazioek**, eta bestetik, nazio-identitatearekin lotuta daudenek. Honako hau, lehendabizikoaren adibide ona da:

- (35) Garai baten guk guztixok euskaraz ikasten hasi ginanean eta, bazan, ba beno, ni oso gazte hasi nintzen ikasten, ondino ilegala zanean edo, beno, ilegala ez, baña Franco oraindik hil barik egoala, eta orduan, ba ni hasi nintzen apur bat, ba, esan daigun ba, **morboren** bat edo, baegoan **gauza erdi klandestino** bat egiten gendun, abade ondarrutarr batek emoten euskun klasea eskolaz kanpo eta, eta ba bueno, ba morbo hori pittin bat, baegoan. (BI-C, 11)

Testuinguru erdaldunagoetan bizi diren eta euskara H2 bezala ikasi duten beste partaide batzuk **nazio-identitatearekin eta abertzaletasunarekin** lotzen dute euskara ikas-tekko arrazoiak: hizkuntza jakitea euskal identitatearen osaeran ezinbesteko osagaitzat jotzen da.

- (36) Eta orduan hasi nintzen institutuan, izan zen, institutuan hasi ginen ba Franco hil eta hurrengo urtean, bai?, eta oso, politika giroa oso pil-pilean zegoen. Garai hartan asignatura bere ez zen, baina institutuko irakasle batzuek ematen zuten, nahi izanez gero, zen boluntarioa, eta hor batzuk hasi ginen, interesa genuelako eta apur bat **euskal giro** horretan sartuta, gainera **politikan**, SE-Ak esan duen bezala, igual politikan ya hasten ginen apur bat **abertzaleztat** edo jotzen geure burua ta, «hau ikasi in behar da, bai?» / SE-Ak eta biok esan dugu, guk oso motibazio garbia geneukan, ezta, **integratzeko** eta ezagutzeko, finean, geure herrizat jotzen dugun hori behintzat eta zelan, nik uste dut hori **kontraesana dala abertzale bat euskaraz ez dakiena**, nik ez dut, ez zait buruan sartzen, bai. Gure motibazioa oso garbia zen. (SE-D: 32/302)

Mahai-inguru bereko beste partaide batek (SE-Ak) oso garbi dauka, SE-Dk bezalaxe, abertzalea bazara ezinbestekoa dela euskara eta euskal kulturaren alde egitea, eta, beraz, hizkuntza jakitea.

- (37) Bueno, ni, nere etxean beti bizi izan dogu, ba, zea, **abertzaletasuna**. Orduan, ba, jatorriz, ba, argi dago ba abertzaleztat jotzen, gure burua jotzen dugunok, ba **ez badugu** ba **euskera eta euskal kultura aurrera eramaten**, ba uste dut **ez garela benetako abertzaleak**. Izatez, ba, horixe, ni nere burua abertzaleztat jotzen dut, eta horrexegatik, ba, mundu honetan dago, onerako edo txarrerako, baina tokatu zait horrela bizitzea, eta ni pozik nago, eta... (SE-A, 23)

Motibazio ideologikoa aipatu duten partaideek ezaugarri komun bi dituzte: alde batetik, testuinguru oztopotzaileetan bizi dira eta, beraz, euskararen presentzia euren

komunitate hurbilean ez da oso handia. Bestetik, berrogei urte baino gehiago dituzte eta euskalduntze prozesua 80ko hamarkadaren inguruan hasi zuten. Euskal diasporan euskalduntzea hasi zuen 34 urteko partaide batek ere identitatearekin eta ideologia-rekin lotutako motibazioa aipatu du («por tener raíces vascas» (ELK-B, 124)), arestian zehaztutako bigarren ezaugarria betetzen ez badu ere. Beraz, pentsa liteke testuinguru oztopotzailean, euskara integratzeko beharrezkoa ez denez, aparteko garrantzia ematen zaiola identitateari; testuinguru mesedegarrietan, berriz, ideia hori ez da azpimarratu.

3.1.2.2. MOTIBAZIO INSTRUMENTALAK

Motibazio instrumentalak gutxiagotan aipatu dira eta batez ere irakasle lanetan edo lan bila dihardutenen artean, esparru profesional horretan, besteetan ez bezala, elebidun izan beharra, eta akreditatu beharra, sentitzen dutelako.

- (38) Nik euskara ikasi nuen, alde batetik, nahi nuelako, baña gero beste aldetik, baita ere, beno, **kondizino laboralagatik**, ni irakaslea naiz eta **derrigorrezkoa** nuen euskara ikastea. (BI-E, 9)

- (39) Hori da kontua. Ikasten dugu, nik ikasi dut behar dudalako, **behar dudalako**, gero aparte nahi dudalako, baña batez ere behar dudalako. (BI-B, 78)

Batzuetan motibazio instrumentalarekin batera integratzailea edota barnekoa ageri daiteke, baina beste batzuetan partaideek kanpoko motibazio instrumental hutsagatik ikasi dutela azpimarratu dute.

- (40) Ba ni ikasten hasi nintzen, bueno, **batez ere pues lanagatik** eta hori. Eta bueno, leku askotan eskatzen dizute, eta bueno, garrantzitsua da. / Baina bueno, **nahiz eta derrigorrez** ikasten, bueno, gustatzen zait ikastea. (GA-B: 23/24)

Kasu horiei kontrajarrita, testuinguru oso euskaldunean bizi den partaide batek motibazio integratzailea (berba egiteko) aipatu du, instrumentala (titulua ataratzea) esplizituki baztertuz:

- (41) —Ba hasi nintzen 20 urte gaz edo AEKra, ikasi ein bidot dot euskeraz, neure burua egon da euskeraz ikasi gu'zan dotena, eta beno, hor egin doten. Hasi nintzen eta, ba hori, eitxe-ko. (BE-B, 8)
—Baina titulua ataratako ez. (BE-A, 29)
—Ez, ez, ez, ikasteko, **berba eitxeko, berba eitxeko**. (BE-B, 30)

Euskara kanpoko motibazio instrumental hutsagatik ikasi duen partaideen profilean gehiago sakondu nahian halako bati elkarrizketa bideratua egin zitzaion. ELK-A uniber-

tsitate-irakaslea da, lanpostu hori lortzeko ikasi du euskara, frustrazio handiarekin, berak azaltzen duen bezala:

- (42) De mayor, sentí curiosidad y me apunté [a euskera] durante la carrera (...). Iba contenta hasta que la presión de sacar títulos dije «no, no soy libre, esto no va bien», entonces me quité. Pero, o sea, mi vocación es ser profesora en la universidad. Es vocación interna, o sea, como sentido de la vida, tal. Entonces, tienes que hacer euskera. Y entonces, fui a euskaltegis otra vez, pero es que la sensación de que no eres libre ha sido muy fuerte en mi vida. O sea, vas allí, aunque yo prefería estar en otro sitio, por ejemplo haciendo voluntariado, estudiando inglés, (...) pero por motivación interna, para ser profesora universitaria decidí, bueno, no decidí, **decidieron por mí**, la sociedad, hacer euskera. Entonces, con bastante **frustración**. / Cuanto más avanzas, pues ya es como para hacer EGA, para hacer lo otro, o sea, ya no es aprender, es, pues, en el fondo estar encorsetada por unos títulos, pero es que tiene mucho sentido, porque si no, no tienes el trabajo que yo quiero, (...) yo sí que creía que si quieres ser profesora universitaria en este país, pues tienes que hacer euskera (ELK-A, 28/30).

Baina zein motibazio mota da poteretsuagoa euskara ikasteko? Ez dago zalantzarik barneko motibazioek ikaste prozesua errazten dutela. Euskara ikasteko erabakia kanpoko presioak eraginda hartzen denean, sarri esperientzia negatiboak nagusitzen dira, frustrazioarekin loturikoak, eta indar handia ipintzen da *euskara zaila da* aurreiritzian. Bestalde, bai motibazio integratzaileek zein instrumentalek ikaste prozesu arrakastatsua burutzeko eta gaitasun ona eskuratzeko balio badezakete ere, eguneroko erabilerari begira, ez du ematen motibazio instrumental hutsak eta kanpokoak ez lanetik kanpo ez hizkuntza-eskakizuna duen lanpostuetan ere, euskararen erabilera bermatzen duenik, ondoko partaideak adierazi bezala:

- (43) EGA ateratzen duten irakasleak, **EGA atera ondoren automatikoki erdaldun bihurtzen dira**. (BI-E, 123)

BI-E partaideak etsita azaldu duen ardura, akreditazioa lanerako behar duten askok, kasu honetan irakasle askok, behin hizkuntza-eskakizuna beteta euskara ez dutela erabiltzen behin baino gehiagotan agertu da mahai-inguruetan.

Euskararen balio instrumentala administrazio publikoan edota hezkuntzan lanpostua lortzeko baino ez badago ere, azken urteotan balio hori asko nabarmendu dela azpimarratu behar da, berez euskararen garapenerako ona dena, baina aldi berean arriskutsua izan daitekeena, motibazio instrumental hutsagatik euskara ikasten dutenek ez badute garatzen barneko atxikimendurik. Izan ere, gure partaide hiztun berri diren eta orain euskaltegiko irakasle direnek azpimarratu dutenez, orain euskara bigarren hizkuntza bezala ikasten dutenen artean ohikoa da soilik edo nagusiki motibazio instrumentalak bultzatuta egitea; euskalduntze mugimenduaren hasieran integrazioarekin eta barneko atxikimenduarekin lotuta ohikoagoak ziren motibazioak orain oso ez ohikoak dira:

- (44) Ni oso etsita nago neure lanbidean ikusten dudanagatik, **gero eta gutxiago** dira benetan ikasi nahian etortzen direnak euskaltegira, edo **benetan euskararekiko interesa**, edo kuriosidadea edo dutenak, gero eta gutxiago dira, oso, oso ikasle bakanak dira holakoak. Askok eta ez dute jarrera negatiborik, batzuk bai. (SE-D, 158)

3.1.3. *Euskara ikasteak ekarritako sariak*

Euskara ikasteak zer ekarri dien aipatzerakoan, batzutan gaia berez irtenda eta beste batzuetan ikerlariok nahita galdetuta, partaideek beti ekarpen positiboak mahai-gaineratu dituzte: denek adierazi dute zelanbaiteko asebetetzea edo poztasuna euskara ikasi iza-nagatik.

Mota askotariko sariak aipatu dituzte gure hiztun berriek: batzuk, testuinguru oso euskaldunean bizi direnek, «**harremanak**», «harreman mundua», «jendearekin hurbiltasuna», eta «konfiantza» moduko sariak agertu dituzte.

- (45) –Zer galduko zenukete euskera barik? (TO-M1, 144)
–Bai, **hurbiltasuna**, nik uste det, **jendearekin hurbiltasuna**, ez? (TO-A, 145)
–Bai, batez ere hori. (TO-B, 146)
–Bai, **konfiantza** eta hurbiltasuna, eta pixkat, nik uste, sentsazio hori da, ez? (TO-A, 147)

Beste batzuk, etorkinak direnak hain zuzen, «**hemengoa sentitzea**» aipatu dute, Asturiasekoa den hurrengo partaideak bezala.

- (46) Ni ja hemengoa sentitzen naiz, **baina euskera barik igual ez**. (TO-B, 148)

Etorkinen semea den Usurbilen jaiotako beste partaide batentzat euskaldun bihurtzeak **beste mundu baten, euskaldunen munduan, sartzeara**, lehenago ezagutzen ez zuen munduan sartzeara ahalbideratu dio, *bi munduko egoera* (Amorrortu *et al.* 2009: 50-57) gainditzea, hain zuzen.

- (47) Hombre, ¿el utilizar el euskera en la calle?, para mí al final **conoces otra cultura**, y parece, hablar de culturas parece que no existe, pero sí es real. Yo en Usurbil he conocido un Usurbil, y **desde dentro**, una vez que hablas euskera y funcionas en euskera, conoces otra, conoces otra, otra cultura, conoces otra gente. **Hay mucha gente que hablando en castellano o hablando en euskera es diferente** él también, o resulta más o más agradable, o más..., es diferente. Yo creo que es otro mundo, aprendes otro mundo. Yo creo **que uno que vive en Usurbil sin hablar en euskera no sabe realmente, no se da cuenta de la mitad de las cosas que pasan en Usurbil**, o que se siente en Usurbil, no sé si **fraternidad o relación entre la gente**, no llegas, no llegas a ver el medio de la sociedad, o el medio no sé, si es el medio o es..., no llegas a ver, **no llegas a ver ni la mitad de lo que hay realmente**. (ELK-D,108)

Are gehiago, Errioxakoa den beste partaide batek euskara ikasteak *dena* eman diola adierazi du eta euskara barik ezin duela bere burua Zumaian imajinatu:

- (48) Nik ez det ikusten nere burua hemen erderarekin. Osea, neri erderaz ni Rioja. Esan nahi detena, ni geratu nintzen kasualitatez, esan daitekela ba bueno **neri euskerak dana eman didala, bestela hemen ez nuen ezer pintatzen, ez?**, eta ez, erderaz ikusten det nere burua Riojan, han dakat dana. (ZU-B, 292)

Beste partaide batzuk **maila pertsonaleko sariak** azpimarratu dituzte, batetik, **senti-mendu positiboak**, hala nola, *asebetetzea, harrotasuna, poztasuna*. Sari horien erakusle, familiarteko adineko alfabetatubakoek edozein gestio euskaraz egiteko partaidearen laguntza eskertzen dutelako hartzen du asebetetzea BE-C hiztun berriak; BE-B partaideak, berriz, bertsolariak ulertzen dituelako.

- (49) –Bai, edozertarako, orduan gero juteko notaritzara, edo juteko ez dakit zer **tramite eitxen** banketxera, zeu jutea, eta mediku bat datorrenian azalpenak emoten, zeuk entzutie, ze klaro, **eurek gure dabie euskeraz jaso hori zerbitzua**, baina gero zerbitzua euskaraz datorrenean ez da euren euskarie, normalien, **ez da euren euskarie, ta hori eskertzen da** euren aldetik, eta nik behintzat, **niretzako satisfakziño handie izan da bizitzan hori ikustea eta sentitzea**. Eta batzutan nik komentaten dot igual erdaldun batzukaz edo nagonian, ba bai komentaten dot, «zuek esfortzua egin ze hori ez da izango bakarrik esfortzua ba, lanerako, edo, gero zuen bizitzan jasoko duzue hori, satisfakziño hori eukingo dozue». Esfortzua handia da. (BE-C, 83)
–Bai, hori eta gehixago, hori eta gehixago, entzutia, **bakarrik entzutia bertsolariek eta ulertutie**, hori bakarrik, ya da. Neretzat izan da... (BE-B, 84)

Ondoko Zumaiako partaide honek euskaldun izanda **bizitza aberatsagoa** duela azpimarratzen du, maila pertsonaleko saria duda barik.

- (50) –Nik galdera bat horri buelta emonda. Imajinaten dozue, o sea, euskera jakin barik zeuen bizie edo..., edo zelan aldatuko litzake... (ZU-M2, 286)
–Gaur egungoa, ez, gaizki, gaizki. O sea, imajinatzen det **bizitza tristeago bat** bezala. Osea, nik, hori, ZU-Frekin nago, neri ere **ateak ireki dizkit** mordoa / Nei asko **aberastu dit bizitza**. (ZU-A, 286/319)

Azkenik, **lanpostua lortzearekin lotutako sariak** ere aipatu dira, batez ere irakasleen kasuan, eta horrekin lotuta, partaide batek euskaldun bihurtzeak maila sozioekonomikoan igotzea ekarri diola adierazi du:

- (51) Entonces cuando ya saqué EGA, que hice como ese esfuerzo, ya el título ya lo tengo, ya sabía yo que iba a suavizar la vivencia. Dos, tengo un sueldo bien majo, entonces no es, en mi caso el euskera no es como el de mucha gente que conozco, que al no tener euskera sus trabajos son mucho peores, entonces, yo he librado, al final lo he hecho y he librado. Y también sabía que iba a mejorar mi vivencia. Yo ahora vivo en Getxo. Entonces Getxo, con trabajo y con EGA hecho, mucho más tranquila. Los sentimientos se han suavizado, ya lo sabía /El **euskera es como una herramienta que te vale para cambiar de** lado

[de la margen izquierda a Getxo], o sea para, si el euskera te vale para **cambiar de trabajo y ese trabajo es mejor pagado, pues el euskera es una herramienta que marca clase social.** (ELK-A, 272/286)

Partaide horrek nahi zuen unibertsitateko lanpostua lortzeko derrigorrezkoa zelako soilik ikasi zuen euskara, (11) aipuan erakutsi den bezala, frustrazio handiarekin, barneko motibaziorik ez zuelako eta erabat behartuta sentitzen zelako. Bere kasuan akreditazioa lortzea izan da bere saririk onena, lanpostua ez eze maila sozioekonomikoan igotzeko aukera eman diolako. Irabazitako sariaren ondorioz, euskararekiko ikasteko prozesuan izan duen gaitzespen-sentimendua leundu dela dio.

3.2. Adin goiztiarrean murgiltzean ikastea

Euskara murgiltze partzial edo osoan ikasi dutenek sozializazioan oso goiz izan dute lehen kontaktua euskararekin, Haur Hezkuntzan edo, kasu batzuetan, Irakaskuntza Arautu aurreko haur-eskoletan. Gure datu basean 63 partaideetatik 32k euskara eskolan murgiltzean ikasi dute. Murgiltzean ikasi duten gehien-gehienak datuak jaso zirenean 40 urte beherakoak ziren. Arestian esanda bezala, euskaraz ikasteko erabakia ez dute haiek hartu, euskara «emanda» etorri zaie eta, heldutan ikasitakoek ez bezala, ez dute ahalegin berezirik egin behar izan hizkuntza ikasteko.

Batek baino gehiagok pentsa dezake euskararen etorkizunerako erabat estrategikoa den talde horrek euskara lehen hizkuntza bezala ikasi dutenekin, euskaldun zaharrekin hain zuzen, konparatuta parekotasun handiak izan ditzakeela: hain adin goiztiarrean ikasita, bi edo hiru urterekin, eta arinago batzuetan, ez bakarrik gaitasunaren aldetik, euskararekiko kokapen eta atxikimenduaren aldetik ere hurbil egon litezkeela txikitatik familian hizkuntza jaso dutenengandik. Alabaina, adituek ezberdintasun nabarmenak azpimarratu dituzte familian bi hizkuntza (*Bi Hizkuntzen Jatorrizko Elebitasuna - Bilingual First Language Acquisition*) eta hizkuntza bat familian eta bestea oso adin goiztiarrean, baina beranduago (*Bigarren Hizkuntzaren Jabekuntza Goiztiarra - Early Second Language Acquisition*-De Houwer 2009: 2-7), ikasi dutenen artean. Azken jabekuntza hau jaso dutenen artean euskara H2 bezala ikasi dutenek dituzten hizkuntza-ezaugarri batzuk erakutsi dituzte (Almgren *et al.* 2008, Manterola 2010). Are gehiago, aldaketa nabarmenak topatu dira euskararekiko atxikimenduan, lagunarteko erabileran eta gaitasunean guraso biak, bat, ala bat ere ez euskaldunak dituzten 13-24 urte bitarteko Lasarte-Oriako gazteen artean: hiru aldagaietan guraso biak euskaldunak izan dituztenek emaitza hobeak eta guraso biak erdaldunak izan direnek emaitza eskasena ateratu dituzte. (Jauregi 2013: 62-63).

Gure partaide gazteek ere zenbait ezberdintasun nabarmen azpimarratu dituzte atxikimenduari eta hizkuntza-identitateari edo identifikazioari dagokionez, haien burua euskaldun zaharrengandik bereizteko (ikus. 6. kapitulua).

Orohar, murgiltzean euskara ikasi duten partaideek modu ezberdinetan bizi izan dute euskara ikasteko prozesua, esperientzia batzuetan antzekoak eta beste batzuetan ezberdinak kontatzen dituzte eta haien gaitasunarekiko pertzepzioa ere askotarikoa da: batzuk gaitasun ona dutela pertzibitzen duten bitartean beste batzuei oraindik asko falta zaiela iruditzen zaie. Euskarak haien bizira zer ekarri dien kontatu dutenean, gehienetan moderatzaileek galdetuta, sari askotarikoak aipatu dituzte.

3.2.1. *Murgiltzeko ikaste prozesua eta esperientzia ezberdinak*

Murgiltzean euskara ikasi duten hitzun berrien ikaste prozesuan eta esperientzietan testuinguru soziolinguistikoak berebiziko garrantzia dauka. Ikusiko dugunez, testuinguru mesedegarrian bizi direnek eskolatik kanpo euskara erabiltzeko aukera handiak izan dituzte eta ikaste prozesu eta esperientzia oso naturalak bizi izan dituzte. Horrela, gehienek gaitasun oso ona lortu dute (bai objetiboa bai autopertzibitua), sarri lekuan lekuko aldaerara asko hurbiltzen dira, elebidun orekatu sentitzen dira eta partaide batzuk euskara gaztelania baino hobeto dakitela edo euskaraz ezin badute egin «monoa» sentitzen dutela esateraino heldu dira.

Testuinguru oztopotzailean bizi direnek ikaste prozesua eskolara murriztuta bizi izan dute, askotan haien gaitasunari zerbait falta zaiola sentitzen dute eta batzuk gaur, irakaskuntza arautua amaituta, euskara oso gutxi edo ia inoiz ez dutela erabiltzen esaten dute, 4. kapituluaz azalduko denez.

3.2.1.1. TESTUINGURU MESEDEGARRIAN

Testuinguru soziolinguistiko mesedegarrian bizi izanda euskara ikasi duten gazteek esperientzia naturalagoa bizi izan dute, Krashen-en hitzetan (1981a, 1981b), giro formal (eskolan, murgiltzean) eta aldiberean naturalean (kalean) ikasi baitute. Gure partaideen artean ohikoa da lagunekin eta kalean ere asko, eta eskolan baino are gehiago, ikasi dutela azpimarratzea. Ikus hurrengo partaidearen aipua, non eta norekin ikasi duen zerrendatzerakoan eskola azkenean dator:

- (52) Kanpotik, bueno, kanpotik, nire gurasoak etorri ziren hona, kanpotik etorri ziren, ta bueno, erdaldunak, eta bueno Dima guztiz euskalduna da, herria, ez ziren egon hiru familia baka-
rrik kanpotik etorritakoak izan ginen, eta bueno, ba, eskolan bertan dana euskeraz egiten
zan, kalean, baserritarrok..., osea, auzokideekin, eta orduen ba azkenean, hor ikasi dut nik,
kalean, umeeekin, auzokideakaz eta eskolan. (ZEA-E, 31)

Arestian esan den moduan, egoera horretan dauden partaideen artean oso ohikoa da, baita, gaitasun objetiboa ez eze gaitasunaren autopertzepzioa ere ona izatea, lekuan lekuko aldaerara asko hurbiltzea (ikus. 3.3.) eta elebidun orekatuak direla aldarrikatzea. Are gehiago, batzuk euskara lehen mailako hizkuntza bihurtu zaiela esan dute, hots,

erabileran eta gaitasunean nagusitu dena, euskaraz egin ezik «monoa» edukiteraino edo H1az, gaztelaniaz, nahikoa gaitasuna ez dutela pentsatzeraino:

- (53) Bueno ba ni ere Oiartzungoa naz eta nik euskera ikasi nun e bai ikastolan. Ikastolan sartu nintzen hiru urtekin eta geroztikan dena, batxiler arte, dena euskeraz eman dut eta oin unibertsidadean euskeraz, osea, euskeraz aukeratu dut karrera eitia baino gai batzuk obligatorio ditugu gazteleraz ematea, bestela euskeraz izango zen. Eta **lagunekin e beti euskeraz** hitz egin izan dut, berez, seigarren maila arte edo gazteleraz hitz egiteko **tendenzia** nakan, baina seigarren mailatikan aurrera hasi nintzen **euskera, euskera, euskera** eta **oain gaztelera apenas ez dut ikutzen**, o sea, beti euskera hitz egiten dut, familiaz aparte. (Gazte-DO-E, 50)
- (54) –Bai, adibidez igerten dot bakaziñotan eta joaten naizenean **gurasoekaz ezin dot in berba euskeraz**, eta bueltaten nazenean, bua, egoten naz **mono** bategaz... (Gazte-BI-C, 356)
–Euskaraz egiteko monoagaz? (Gazte-BI-M, 357)
–Bai, edo igual gurasokaz berba egon eta zeozer euskeraz esan eta esan «kaka»... (Gazte-BI-C, 358)
–Bai, hori zergaitik da, euskeraz...? (Gazte-BI-M, 359)
–Igual denbora asko euskera egin barik eta, ez dakit, beti iten dozunez, ba bia'zu zeozer esatea. (Gazte-BI-C, 360)
- (55) Osea, nire gurasoak etorri ziren hona ni jaio baino lau urte lehenago. Orduan ni hemen jaio naz, eta etorri ziren Zeanira apropos nik euskeraz jakiteko, bueno, euren seme-alabak euskeraz jakiteko. Así que sin más, nik txikitatik euskeraz ikisi dot, in dodaz, estudio guztiak egin dodaz euskeraz, kendute urtebete, in behar izan nebala holako ziklo bat, goi mailako ziklo bat, eta in noala **gazteleraz** eta **pasau neuen oso txarto**, osea, nahiz eta famili guztia erdalduna izan, **nik erderaz ez dakit berbaz**, osea, iten doaz hanka sartze batzuk, inkreibleak erderaz, osea, oso txarra. Eta oain, aber, ba gero azkenean ikisten dozu gehiau, gehiau, iten zara zaharragoa eta azkenean iten dozu, baia, **nik ezpaere euskeraz, lagunekaz euskeraz, dana euskeraz**. (ZEA-B, 86)

Ikaste prozesuan izan dituzten esperientziei buruz ez dute asko hitz egin murgiltzean testuinguru euskaldunean ikasi dutenek, seguruenik prozesu ez oso kontzientea bizi izan dutelako, txiki-txikitatik eskolaz aparte eskolatik kanpo ere euskarak oso presentzia handia izan duelako eta, beraz, arestian esanda bezala, «modu naturalean» ikasi dutelako. Alabaina, eztabaida-talde baten ikaste prozesuan umetan eskolan euskaraz ez egiteagatik jasotzen zuten zigorra gogoratu da, minduta (ikus. erabili den lexikoa), eta argi adierazi da txikitan ikastetxean euskaraz egin beharra inposaketa bezala bizi izan dutela:

- (56) Nik adibidez uste det nere eskolan adibidez, osea, D eredua hartuta eta, bueno, euskerako eskola zan, ikastola zan, eta askotan enfokatzen zuten euskerako, ba euskera hitz egitea igual **inposaketa** bat bezala eta azkenean batzuk hartzen genun ba, ez **gorrotoa**, Gazte-DO-Bk esan zuna, baina joe, ba nire lagunekin erderaz hitz iten det, **zergatik hitz egin behar det haiekin euskeraz nik haiekin gazteleraz hitz iten badet?** Ta azkenean jartzen dezu, ez dakit, **barrera** bat bezala edo hola. Eta nik uste det ez dutela hainbeste inposatu behar, in behar dute, ba, ez dakit, pertsonari jakinarazi ez dala gauza, berarentzat hobeto izango dala hizkuntza hori mantentzia eta ikastea. Nik uste dut hori..., ez dakit. (Gazte-DO-C, 107)

- (57) Bai, eta sartu nintzenean gogoatzen naz izan genula txoko bat, hola, aurki batekin, eta jartzen ziguten euskeraz hitz egiten ez genuai hor **kastigatuak**, ze zen, como, ikastolan hitz in behar genun euskeraz, eta klaro, hara heltzen zien ume guztiak eta ume guztiak etxean betidanik gazteleraz, o sea, euskeraz, eta ni iritsi nintzen eta ni eta beste lagun batzuk, eta hor zeon, ikastolan zeon nerekin klasean beste lagun bat gurasoa ere bai gurasoak zirenak eta gu biek esertzen ginen, bueno, hiru urtekin, eta beti onduan, ta eseita, ta hitz egiten ta hola, ta beti gazteleraz, ta ezkutatzen ginen etxeko bat genun ta hor ezkutatzen ginen gazteleraz hitz itea, eta irakasleak beti kastigatu iten zigun eta **oso gaizki pasaten zenun**, ze nahi nun, baina, bueno ez dakit nahi nun, baino ezin nun, o sea, ez nekin. Eta geo, ez dakit, ez naz gogoatzen baina ikasi nun. Ez naz gogoatzen noiz, baina gogoatzen na aurki hortan askotan eoten nintzala kastigatua, **ni ez nekielako euskeraz hitz egiten**. (Gazte-DO-E, 174)

Ohikoena ez bada ere, gure partaideek murgiltzean eta Zumaiakoa moduko testuinguru oso euskaldunean ere euskara ikasi duten hiztun berrien artean gaur euskaraz egiteko gai ez diren gazteak egon badaudela adierazi dute. Bigarren kapituluan aurreratu dugun bezala, testuinguruak hiztunen esperientzia baldintzatzen du baina ez erabat: hiztunek zein saretan parte hartzen duten ere gako garrantzitsua da eta posiblea da testuinguru mesedegarrian ere erderazko sareetan baino parte ez hartzea eta, horren ondorioz, eskola amaituta gaitasuna galtzea.

- (58) –Ba nire kasuan ni, osea, ez banun euskeraz jakingo ikusiko nintzan beste lagun mota batzuekin Zumaian, baina Zumaian bizitzen (...). Eta ni ikusten naiz erderaz biziko nintzala beraiekin, nere famili geto txiki horrekin eta beste lagun mota batzuekin, ez nun eukiko nere gaur egungo lagunak eta, bueno, izugarritzko pena emango zidan (ZU-C, 282)
 –Ta uste dezu badagola holako jendia Zumaian, hain, ze zure adineko jendia eta bakarrik, eske nik uste det baietz, nire adineko jendea, ni Jadarren bizi naiz» (ZU-F, 283)
 –Hogeita lau urtekin? (Zu-B, 285)
 –Koadrila erdalduna, bai. (ZU-C, 286)
 –Eta gaztelaniaz hitz egiten dutela egunero, osea, **bakarrik gaztelaniaz**.» (ZU-F, 288)
 –Euskeraz ikasi ta eskolan eta euren artean erderaz edo zelan?» (ZU-M2, 289)
 –Nere kasuan bezala **familia erdalduna dakaten hoiek erdaldunen artean biltzen hasten badira**, eta uste det Jadarren asko ematen dala. Bueno, nik bistaz ezautzen ditut, ez dakit geo bere eguneroko bizitzan zertaz hitz egiten duen, baina bai joera asko daola erdera eiteko, ba familia erdaldunetik datozen umiak bildu eta hoiek kuadrilla iten baue, hor... Nik suertea euki det euskerako koadrila in detela, baina bestela bai iten dela joera hori erderako koadriletan, ez dakit nola...» (ZU-C, 290)

3.2.1.2. TESTUINGURU OZTOPOTZAILEAN

Murgiltzean testuinguru oztopotzailean ikasi duten askok esperientzia formala baino ez dute izan, eskolari soilik edo gehien bat eskolari loturikoa. Gaitasun aldetik asko eta asko mugatuta sentitzen dira (autopertzepzioa) eta irakaskuntza arautua amaitutakoan galdu egin dezaketelako ardura dute. Hori dela eta, batzuk, kontzientzia hori izanda, estrategiak erabiltzen dituzte ez galtzeko: unibertsitatean euskarazko irakasgaietan izena ematea edo euskaltegira joatea, besteak beste. Haien gaitasun mugaruari buruz hitz egiterakoan, emozioekin loturiko hizkera, adierazkortasuna, lagunarteko hizkera falta dutela aipatu dute sarri. Gainera, normalean gazte horiek ez dira

lekuan lekuko aldaera batera hurbiltzen, Batua edo Bizkaiera Landua baino ez dute erabiltzen eta ez daukate erregistro-aldakortasun handirik. Erregistro formala, eskolan egokia dena, ikasi dute soilik eta lagunartean erregistro hori ez dela egokia konturatzeko dira (ikus. 4.2. euskara erabiltzeko oztopoak). Azkenik, batzuk haien ikaste prozesuan inposaketa sentitu dute.

Aurretik aipatu bezala, testuinguru oztopotzaileko gazte asko oso kontziente dira, irakaskuntza arautua amaitutakoan **euskara galtzea** oso posiblea dela, eskolatik kanpo ez dutelako erabiltzen, ondoko hiztun honek bere ikaskideei gertatutakoa kontatzerakoan adierazi bezala:

- (59) Nik ikasi dut euskaraz ikastolan. Nire gurasoak Errioxakoa eta Asturiasekoa, bata eta bestea, ordun beraiek erabaki zuten hemen jaiota, beraiek nahi zuten nik euskeraz ikastea hasieratik. Orduan ikastolara joan nintzen eta nire lagun guztiek euskaraz dakite, eta beti ikasi dugu batera, hiru urte genituenetik, eta hamazortzira arte, eta gaur egun ere jarraitzen dugu gure artean ba lagun izaten, eta koadrila, esan genezake. **Baña geure artian ez dugu euskaraz egin**, kontatzen dituzu aldiak eta oso gitxi dira, eta guztiok dakigu, eta, ni **igual naz bakarra gaur egun igual euskeraz jarraitzen dudana hitz egiten**. (BI-A, 19)

Izan ere, gure partaide askok ezagutzen dituzte euskaraz gaur egun berba egiteko gai ez direnak, gure laginean sartzen ez den baina gizartean nahikoa presentzia izan dezaken profila, hain zuzen.

- (60) Nik ezagutzen ditut batzuk ikastolan ibilitakoak hamazortzi urte arte, bete arte euskaraz ikasi dutela eta **gaur egun ez dakite euskaraz hitz egiten**, ez dakite, berrogeita bi urte dituzte, nik bezala, eta ez dakite. (GA-A, 209)

Gazteek ez dutenez euskaraz hitz egiten galtzen dutela, hots, gaitasuna murrizten zaiela errepikatzen dute behin eta berriz, adibidez, Bilbo inguruan bizi eta euskara oso gutxi, pertsona jakin batzuekin bakarrik, edo ia ezer ez erabiltzen duten ondoko partaideek:

- (61) —Ikasi nuen D ereduan hamasei urte, batxilergoa... (Gazte-BI-A, 35)
—D ereduan batxilergora ailegatu arte, bai. (Gazte-BI-M, 36)
—Bai, bai, bai. Baina... (Gazte-BI-A, 37)
—Eta gero, eta gero gaztelaniaz batxilergoa? (Gazte-BI-M, 38)
—Bai, gaztelaniaz egin nuen D ereduan egiteko aukera ez zegoelako, eta maila asko galdu nuen bi urte horietan eta orain ere, unibertsitatean ere. (Gazte-BI-A, 39)
- (62) Ba nire kasuan bai, baina egia da, beharbada orain gehiago erabiltzen dudala igual duela lau urte baino, hasi nintzenean lanean, ze lanean, o sea, unibertsitatea utzi eta gero, hor bai erabiltzen nebala asko, ba orduan erabiltzeari utzi nion eta galtzen hasi nintzan. Eta duela urte bat edo bi urte hasi nintzen ya pentsetan seriotan ba horrela jarraitzekotan galduko nebala dana. (Gazte-GE-E, 160)

Euskara galdu dezaketela ikusita, hiztun batzuk estrategiak aurrera eramaten dituzte erabiltzeko aukerak sortzeko. Horien artean, **unibertsitatean irakasgaiak euskaraz hartzea** nahikoa orokortua dagoela esan daiteke.

- (63) Nik karrera ikasi dut Sarrikon euskaraz, eta euskaraz ikasteko arrazoietakoa bat izan zen nik euskeraz mintzatzen jarraitu nahi nuela **eta banekien karrera euskeraz egiten ez banun, galduko nuela dena**. Hori izan zan, nik uste dut, arrazoi nagusia. (BI-A, 150)
- (64) Nik berez hitz egiterako garaian eta ikasterakoan eta guzti oi erosoago sentitzen naiz erderaz iten baino nere buruari ba, ez dakit, **obligatu bezala in nion** [euskaraz irakasgaiak hartzera] **ez ahazteko** eta, ez dakit, **ez dalako gauza bat ahazteko modukoa**, nire ustez. (Gazte-DO-C, 78)

Beste batzuk, berriz, eskolan euskara nahikoa izan dute, berdin zaie alde batera utzi eta galtzen badute, edo ez dira kontziente. Horren adibide dugu irakasgaiak euskaraz aukatzeke bere erabakia eta hori jakindakoan bere lagun ikaskideen erreakzioa kontatzen duen ondoko partaidearen aipua.

- (65) Nere lagunak, adibidez, ni bezala, txikitatik euskeraz hitz egin dute ikastolan baino gero kanpoan, ba gurasoekin ta hoi gaztelaz, eta esan nienean irakasgai batzuk euskeraz hartuko nitula eta euskeraz ai nintzala, gehienak esan zuten «bai, euskeraz?, o sea, hainbeste urte ta gero hitz egiten, ez behartuta, baino, joe, ba kostata eta holan, **euskaraz hartuko dezu?»**, eta esan nien, «ba, bai», da kontzientzia, o sea, **da kontzientzia iza-tea edo ez**. (Gazte-DO-C, 144)

Inposaketa eta horren ondoriozko frustrazioaren ideia hori eztabaida-talde baten baino agertu ez izanagatik, kontuan hartzekoak dira umeengan murgiltzeak, euskaraz komunikatzeko zailtasunak direla eta, sor ditzaken frustrazioak. Ikasle batzuentzat garai hori benetan minduta gogoratzen badute ere, ez dirudi euskararen kontrako jarrerarik sortu duenik. Beste batzuentzat (Gazte-DO-Cren lagunentzat bezala) frustrazio gaindiezinak eragin erabat kaltegarria izan dezake euskararen aldeko hautu pertsonala egiteko, batez ere testuinguru oztopatzailean bizi direnen artean, hau da, ikastetxetik kanpo euskara nekez erabiltzen dutenen artean.

Partaideek **beste estrategia batzuk** aipatzen dituzte: aisialdirako euskarazko ikastaroe-tan izena ematea, euskaltegira joatea, edo euskarazko kontsumoa egitea, hala nola, irakurri, telebista ikusi edo irratia entzutea, besteak beste.

- (66) Nik B ereduak ikasi nuen, (...) eta ikasi nuen hamasei urtera arte euskera. Gero nire garaian ez zegoen aukerarik euskaraz egiteko ikasi nuena, eta orduan ya erdarara pasatu nintzen. Eta bueno ba, denborarekin ba **gero eta urrunago ikusten nuen euskarako ingurua**, ez? Orduan ba **Urtxintxa Eskolan egin nuen begirale ikastaroa**. Saia-tu nintzen lan egiten jende gehiago ezagutzeko eta **euskara berreskuratzeko** berriz. (GA-D, 17)

- (67) Eta gero, adibidez, euskaltegioko lagunekin kalean ikusten baditut ere euskaraz. Klaseak ematen ditugunez euskaraz, ba gero, ohitu gara eta beti euskaraz. Baina, hori, **telebista eta euskaltegia, bestea gazteleraz dena.** (SE-F, 274)
- (68) Ba nik hamazortzi urte ditut, eta bueno, txikitatik ikasi izan dut euskera eskolan, ze D ereduan egon naiz betidanik, eta bueno, normalean nire bizitzan ez dut erabiltzen, bartzuetan nire lagunekin saiatzen naiz hori euskeraz hitz egiten, baina normalean ez dute nahi eta orduan erdaraz dena. Eta bueno, hori, SE-E bezala, **euskara ez galtzeko euskaltegian nago aurten ere, (...), ez dut galdu nahi euskara eta titulua, EGA titulua atera nahi dut,** pentsatzen dudalako ba beharrezkoa dela lanerako eta gauza guztietarako. / Eta nik liburuak bai euskaraz irakurtzen ditut, irratia ere normalean euskaraz, eta telebista ere. / Bueno, nik, bueno, liburuak eta hori, ba, **irakurketa, irakurtzea gustatzen zait, eta irakurtzen dut gaztelaniaz ere, baina euskara ikasteko edo, edo hiztegi gehiago ikasteko,** normalean irakurtzen dut euskaraz. Eta hori, telebista eta irratia, ba irakasleak edo, eduki nuen irakasle bat eta hori zen euskara zale amorratua, eta erakutsi zizkigun hainbat irratia eta hainbat gauza interesgarriak telebistan, eta hasi nintzen ikusten, eta gustatu zitzaidan, eta gehienetan euskaraz entzuten dut. Eta hori asko lagundu dit ze orain, lehen zailagoa zen euskarazko hitzak ateratzea eta, baina orain **irratia entzutean eta telebista entzutean te haces al oído,** eta **orduan errazagoa ateratzen** zaizu. (SE-F, 51/250/252)

Azken partaideak esan bezala, testuinguru ez oso euskalduneko murgiltzeko hiztun berri askok **euskaltegira** jotzen dute sarri, Irakaskuntza Arautuaren prozesu osoa eginda, edo amaitzeaz daudela, gaitasun nahikoa ez duten seinale, askotan akreditazioa ezin dutelako erraz atera. Gure partaideak den Sestaoko euskaltegi bateko irakasle honek bere ikasleen euskara nolakoa den deskribatzen du eta arrazoiak seinalatzen du: eskolatik kanpo ez dute erabiltzen eta horrek gaitasun komunikatibo osoa ez bereganatzea dakar.

- (69) Egia da D ereduan ikasi dutela baina euskararen esperientzia daukatena oso murrizta da, eta **euskara maila oso** apala eta **zuzentasun aldetik huts handiak** dituzte. Klaro, da horregatik, ez dugu euskeraz egiten, klaro ez dute tresnarik euskaraz egiteko, ez dakite ondo, **euskaldun pasiboak** dira neurri handi batean, bai? Ondo ulertzen dute euskera, testu baten aurrean, ez bada oso konplikatua, ze irakurtzeko ohitura oso apala daukate ere, eta testuak baldin badauka ironia puntu bat edo toke dialektal bat, edo egitura konplexu samarrak galdu egiten dira, nik uste dut erderaz ere antzeko gertatzen zaiela. Erderaz ere... Baina erderaz gertatzen bada, nik uste dut are larriagoa dela euskararen kontuan, ze azkenean **euskararekin duten harreman bakarra eskolakoa da.** / Eta hori esan duzu «bai, euskara dakitenek ere euskara ikasi behar dute». **Ez dakite euskara. Ez dira heltzen naturaltasunaren maila** horretara, ez dira heltzen. (SE-D, 69/179)

Beste eztabaida-talde baten, gazte batek, arazoaren garrantziaz jabeturik, eskolan «**hizkera emozionalagoa**» irakastea proposatzen du, testuinguru oztopotzaileko murgiltzeko ikasleek duten erregistro-aldakortasun gabeziari aurre egiteko, nahiz eta onartzen duen egoera normalizatueta hori ez dela izaten eskolaren helburua:

- (70) Bai, bertsolariak, eta esaten zuten [hitzaldi baten] nola haur eskoletan eta ba hori, ba akademikoki erakutsi dutela euskeraz egiten eta, eta hori egoera normal baten ondo le-

goke, ez?, baina nola euskararen egoera anormala den, igual gure eskolak bihurtu behar ditugula anormalak bezala. Eta zentzu horretan da, ba hori, ba **ez irakastea bakarrik akademikoa** dana baizik eta **bizitzako esparrutan ematen dan euskara irakastea**, ba lagunari nola pikatu, ez dakit, albokoari esan zenbait gustatzen zaizun... Holako gauzak ez digutenak erakutsi eta, osea, **bizitza egiten dabenak**. Eta ordun, horregatik esaten nuen **euskararen egoera anormala** da, ba bihurtu ditzagun eskolak anormalak. / **Emozionalagoa** dena irakastea. (Gazte-GE-D, 481/485)

lido beretik, gaitasun ez osoko pertzepzioarekin lotuta, partaide batzuk hiztun legitimo kontsideratzen dituztenek bezala berba egiteko desira adierazi dute, duten gaitasun mailako gabezia azpimarratuz. Zentzu horretan, euren euskarari buruz hitz egiterakoan faltan botatzen dutena, euren **desioak** oso esanguratsuak dira, hutsuneak non aurkitzen dituzten adierazten dutelako. Ondoren datorren aipuan, partaideak leku ezberdinetako euskaldun zaharren aurrean «enbidia» sentitzen duela adierazi du, «haiek hitz egiten duten bezala» berba egin nahi luke berak. Ikus 6.4 atala, hizkuntza legitimitateari buruzkoa.

- (71) Asteburuetan mintzatzen gara ze, hori, monitoretza kurtsuan egoten naz ta, etortzen dira, hori, Bermeotik, ta zuk azaldu duzuna, hain gauza ezberdinak, bueno, mintzatzerakoan ezberdintasun horiek ta erakargarriak dira niretzako, eta **enbidia**, bai, enbidia, **nik holan hitz egin nahi dut**. (SE-E, 203)

3.2.2. *Euskara ikasteak dakartzan sariak*

Euskara ikasteak haien bizira zein ekarpen egin dien kontatzerakoan gazteek aipatzen dituzten sariak askotarikoak dira.

Helduen kasuan bezala, **testuinguru mesedegarrian** bizi diren partaide gazte askok **harremanak, lagunak** aipatu dituzte sari bezala, batzuk euren bizitza euskaraz jakin gabe imajinatu ere ezin dutela egin esateraino.

- (72) **Euskera gabe oain ez det nere burua imajinatzen**, egia esan. Porque nei, bai ikasketan, bai lanian, eske **dana beti euskeran inguruan izan da**, ordun, es que ez det imajinatzen. (ZU-D, 306)

Solaskide batzuk orain dituzten lagunak ez lituzketela izango azpimarratu dute, oraingo lagunak ordeztuz, lagun erdaldun elebakarrak izango lituzketela bakarrik, eta horrekin asko galduko luketela.

- (73) —[Tolosan euskara barik bizitzea] posible, posible da, baina nik uste det txikitatik erderaz eta, hemen Tolosan euskeraz jakinda, ba oain nabilen jendeakin ezinezko izango litzateke eotea, eta izango zan, ba, adibidez, ba igual kanpotar gehiagokin harreman gehiau izatea hemengo jendiakin baino, dena euskera ez jakiteagatik. (TO-D, 137)

—Ordun zeozer galduko zenuke. (TO-M1, 138)

—Nik uste det **asko galduko zala**. / Ba adibidez, zuk ikusten badituzu gazte taldeak eta gertaurretan zaenean euskeraz hitz egiten daudela eta zuk ez duzula tutik ere ulertzen, ba **ez zinake hain errez sartuko hitz egitera**. (TO-D, 139/141)

- (74) —Ba nire kasuan ni, osea, ez banun euskeraz jakingo ikusiko nintzan **beste lagun mota batzuekin** Zumaian, (...). Eta ni ikusten naiz erderaz biziko nintzala beraiekin, nere famili geto txiki horrekin eta beste lagun mota batzuekin, **ez nun eukiko nere gaur egungo lagunak** eta, bueno, izugarritzko pena emango zidan eta **neri euskerak ireki dizkit be bai Zumaian bizitzeko aukera hori**, baina **Zumaian nik nahi deten bezala**, nere familiak bul-tzatu dun bezala. Azkenian beraiek ez due behar euskeraz, ez, hamabost ta dazkae bere ingurua dana erdaldua da eta beraiek bizi dira egunero erderaz, ez due behar ezertako euskeraz, beraien ustetan, eta halaxe bizi dira. Nik uste det halaxe biziko nintzala ez banun euskerak ez bazizkin **ateak irekiko**, biziko nintzan erderaz, beraiekin hemen Zumaian. (ZU-C, 297)

Beste batzuek «**parte hartu ahal izateko**» aipatu dute, euskara ikasi ez dutenak, ZEA-Bren gurasoak bezala, ez direla ondo integratu, askotan «kanpo» geratu direla gogoratuz.

- (75) —Besteok zelan ikusten dozue? Zeozer ekarri dotzue, edo zeozer diferentea euskalduna (izateak)? (ZEA-M1, 345)

—**Parte hartu ahal izatea gehiau** be bai euskeraz badakizu, ez? Adibidez, nik ipinten dot adibide moduen Zeaniko jaiek, ez?, iten bazuz, dauzez hitzaldiek edo antzerkiek, dana da euskeraz. Orduen, bazatoz kanpotik eta nahiz ta koadrila eukin hemekoa, betikoa, euskaldune, **zuk ez badakizu euskeraz igual zaaz apur bet kanpo**, ze ez dozu aituten... / Klaro, horrek egiten dau. Nire gurasoek hori igerten daurie. (...) Baina bai igerten daurie hasieran asko kostau jekela sartzea herrire. Oain igual asko zabaldu da, herriko jendea ez da hain itxie, baia oain hogeita bost urte kostau jaken, eta beti ziren kanpokoak, eta kanpoak, eta honeri euskeraz ez dakienalez, ba ez dotsogu egingo berba, ze azkenean hori igerri zeurien asko nire gurasoek. (ZEA-B, 346/348)

Testuinguru mesedegarriko irakaslea den partaide batek integrazioarekin eta balio instrumentalarekin, biek, lotutako sariak eman dizkiola onartu du:

- (76) —Zer ekarri dotsue zuen izakeran, zuen sentimenduetan euskara ikasteak, euskeraz jakiteak? Edo beste modu batera esanda, ba, hori, imajinetan dozue zuen bizitza euskeraz jakin barik? (ZEA-M2, 342)

—Ba **niri dana, harremanak, lana be bai**, (...) ze Diman, hau euskalduna da eta orduan azkenean ba euskeraz ez jakitea? ba ez dakit, arraroa [egiten] jata niri, ze beti harremanak eta jendeagaz bi hizkuntzetara, edo bertako herriko denda, hau ta bestea, azkenean **zaharraz**, harremana, hori ba euskeraz beti, nire harremana eurekaz **beti euskeraz** izan de. Eta orduan ba, ba ez dakit. (ZEA-E, 343-344)

Diman bizi den partaide horrentzat, euskarak balio integratzailea eta instrumental handia dauka. Alde batetik, oso euskalduna den herrian integratzeko, adineko pertsonekin bereziki; bestetik, irakaslea denez, lanerako ere behar izan du; eta beraz, «dena» eman dio euskara ikasteak.

Testuinguru erdaldunagoetako hiztun berri gazteek ere, testuinguru bereko helduek bezala, integrazioarekin zerikusia duten **identitatea, nortasuna, euskal munduan murgiltzea** aipatu dute sari bezala. Adibidez: «euskal komunitate baten parte izatea», «(euskara) nire identitatearen parte bat da» (Gazte-GE-C, 195-196); «euskarak nortasuna ematen dizu. Ez dut uste pertsona bera izango nintzela euskararekin edo euskera gabe» (Gazte-GE-A, 212); «kultura euskalduna, euskaldun munduan gehiago murgiltzeko» (Gazte-GE-D, 189); «hizkuntza bakoitza errealitatea ikusteko modu bat den legez, bi hizkuntzak jakinda gauzak ikuspuntu ezberdinetatik aztertzea positiboa da» (Gazte-GE-B, 195); «al haber nacido aquí, en Vitoria, en el País Vasco, yo al considerarme vasco, pues el sentimiento del euskera, pues te hace sentirte más vasco todavía» (ELK-G, 206).

Bestetik, sari pertsonalagoak izan daitezkeenak, hala nola, euskaraz jakiteagatik **asebetzea** edo **harrotasuna** aipatu dira:

- (77) «Nire saria edo izan da, **hizkuntza egitea**, ze nik oraindik topatzen dut jendea Euskal Herrian bertan harritzen dena nik euskaraz hitz egiten dudanean (...) eta **orgulloso** edo sentitzen naiz ze besteei pentsatzen dute hori dela **milagro** bat edo». (SE-F, 351)

3.3. Bi prozesuen inguruko hainbat hausnarketa

3.3.1. Gaitasuna gora eta behera

Kapitulu honen hasieran hiztun berrien euskara-gaitasunari buruzko galdera egin dugu, beste batzuen artean. Ikusi dugunez, gai konplexua suertatu da eta komeni da zertxobait gehiago sakontzea eta hausnartzea.

Aurretik esana da, ikerketa honetan euskara gaitasun aurreratua duten hiztun berriek bakarrik hartu dutela parte; alegia, Europako Erreferentzia Marko Bateratuan C1 maila egiaztatuta dutenak (esaterako, EGA, HABE 3 edo Hizkuntza Eskolako 5. maila) edota parte diren egoera komunikatiboetan euskaraz eraginkortasunez jarduteko gauza direla baieztatzen dutenak. Hori horrela izanik, deigarria gertatu daiteke hizkuntza-gaitasunaren gaiak gure partaideen artean izan duen presentzia. Kapituluaren zehar aipatu bezala, gaitasun objektibo edo egiaztatuz gainera, hiztunen gaitasun autopertzibituak ere zeresan handia du gai horretan.

Partaideek euren hizkuntza-gaitasunaren gainean bi modutan jardun dute: alde batetik, euren hizkuntza «maila» izan dute hizpide (alegia, maila horrekin pozik dauden, zailtasunak dituzten, eta hala izatekotan, zein egoeretan...); beste aldetik, «euskaraz hitz egiteko duten moduaren» gainean jardun dute. Bigarren kasu horretan, gaitasuna baino beraien euskara «mota» izan dute mintzagai. Bigarren modu horri dagokionez, ahoskera, erregistro desberdinak erabiltzea, edo euskalkia «euskaraz ondo hitz egiteko du-

dan modua»-ren ezaugarri bezala aipatu dira. Norberaren gaitasunarekiko ikuspegi zabalago horrek, beraien hizkuntza gaitasunarekiko duten asebetetzea hobeto ulertzea ahalbidetzen digu, eta baita ere euskara «ondo hitz egiteko» gehien baloratzen dituzten elementuak ezagutzea.

Hiztunen bizipenen azterketak, hiztun berriek bereganatutako hizkuntza-gaitasun mota xedatzen duten aldagaiak ezagutzera eman ditu.

— Ikaskuntza-erakundeak.

Ikaskuntza-erakunde gehienetan (eskoletan zein euskaltegietan) batua da erakusten den hizkuntza-aldaera.

Ikaste prozesuari dagokionean, eta murgiltze goiztiarrak dituen ontasunak ahaztu gabe, badirudi erabakigarriagoa dela ikaste prozesua (euskaltegian zein murgiltze-eskolan) ikaskuntza-erakundeetatik kanpo eguneroko erabilerarekin sendotzea.

— Testuinguru soziolinguistikoa edota egunerokoan euskara darabilten harreman sareak izatea.

Testuinguru soziolinguistikoak hiru oinarritzko elementu baldintzatzen ditu: eguneroko erabilera-aukerak, hiztun zaharrekin harremanak izatea eta lekuan lekuko aldaera batekin harremanak izatea.

Testuinguru soziolinguistiko oztopotzaileetan ikasi eta bertan bizi diren hiztun berriek euskara ikaskuntza-erakunde formaletan ikasi dute, eta beraz, batua estandarra da ezagutzen duten aldaera. Euskara ohiko hizkuntza den sareren baten (dela lagunartea, dela familia berria, direla lankideak) sartzerik izan ez duten hiztun berri askok sentitu ohi dute jariotasun-maila nahikorik ez dutela, ezta kaleko hizkuntza kolokiala ere. Are gehiago, askok aipatzen dute behin eskola amaitutakoan edota euskaltegia uzterakoan (C1 lortuta, sarritan) gaitasun-maila galtzen hasten direla, baita euskara erabiltzeko dituzten aukera apurretan euskaraz jarduteko konfiantza ere. Egoera horiek muturrekoenak dira, baina ez horregatik bakanak. Halaber, gure datuek aditzera eman dute auzi horretan ez dagoela desberdintasunik euskara umetan eskolan ikasi dutenen eta nerabezaroan zein heldutan euskaltegian ikasi dutenen artean.

Beste muturra ikusi dezagun orain: alegia, euskararen presentzia handia den gunee-tan bizi diren hiztun berriak. Euskararen presentzia handia tradiziozkoa da gunee-tan eta, hortaz, tokiko euskara aldaera dute, baita hiztun zahar kopuru handia ere. Egoera horietan, hiztun berriek, euskara kalean erabiliz, eskolan edo euskaltegian burututako ikasketa finkatzeko aukera izaten dute. Hiztun berri guztiak ez dira berehala sare euskaldunetan barneratzen, baina hala ere, euskara erabiltzeko aukera asko dituzte inguruan. Orokorrean, gunee-tan bizi diren hiztun berriak beraien euskara-jariotasunarekin pozik daudela ikusi dugu. Askok euskalkia ikasi dute, beste batzuk, guztiz ikasi ez arren, ulertu egiten dute eta beren mintzoan euskalkiaren trazuak barneratzen dituzte. Aipatzekoa da, halaber, hiztunotako asko «euskaldun zahartzat» jotzen dituztela. Beste behin, euskara eskolan eta euskaltegian ikasi dutenen artean antzeko esperientziak aurkitu ditugu.

Hurrengo atalean ikusiko dugun moduan, ikaste prozesu eta esperientziek deskribatu ditugunak baino profil anitzagoak definitzen dituzte. Izan ere, erabilera-aukerak testuinguru soziolinguistiko oso oztopotzaileetan ere aurkitu daitezke, dela hitzuna euskara sarri erabiltzea ahalbideratzen dion sareetan barneratzen delako (lagunak, familia berria, lana), dela erabilera-aukerak bere kasa bilatzen dituen oso hitzun proaktiboa delako. Ikusi dugu, hitzun batek euskaraz modu egokian jarduteko behar duena lotua dagoela hitzunak ibili behar duen egoerekin. Hortaz, *gaitasun komunikatiboaren* (Hymes 1972) kontzeptutik abiatuta, hizkuntza-gaitasuna oso «kokatua» (egoeraren arabera) dela esan beharra dago. Alegia, euskararen erabilera oso normalizatua dagoen testuinguruan bizi den hitzunak beharrezko eta egoki duen gaitasuna, ez da euskararen erabilera oso egoera bakan eta zehatzetara murrizten den testuinguruan bizi den hitzunaren berbera izango. Horrek hitzunak behar duen gaitasun «motan» dauka eragina: erregistro desberdinak behar dituen, euskara ahoz edota idatziz erabili behar duen, eta abar.

Gai horren inguruko gakoak «falta zaidanaren diskurtsoa» moduan izendatu dugunak eskaintzen dizkigu. Diskurtso hori oso orokortua dago (partaideen autokritika-maila nabarmena da). Testuinguru erdaldunetan bizi diren hitzun berriek «falta zaidanaren» diskurtsoarekin lotuta gaitasun-maila (erreala edota hautemana), ahozko jariotasuna eta erregistro kolokiala aipatu dituzte; ostera, testuinguru euskaldunetan bizi diren hitzun berriek hitzun zaharren moduan hitz egitea, euskalkia, *hika*, edota aitita-amamek erabilitako esaerak aipatu dituzte, «falta zaidana»-ren ideiarekin loturik.

Kapitulu honetan aditzera eman da, ikaste prozesuek eta inguruabarrek hitzun berrien hizkuntza-gaitasunean eragina dutela, baina baita, gaitasun hori gaitasun-*maila* eta *mota* moduan ulertu beharra dagoela, hitzunaren beharrizan komunikatiboen arabera ezaugarri eta trebezia *kokatuak* aintzat hartuta. 4. kapitulu, gaitasun-mailak eta motak erabileran duten eragina izango dugu aztergai (ikus 4.2.3.) eta 6. kapitulu hitzun berriek euskara-hitzen on edo benetako moduan duten autopertzepzioan duten eragina; alegia, hitzun *legitimo* sentitzeko gaitasunak duen eragina.

3.3.2. *Euskara ikasteko motibazioak eta hitzun berriek aipatutako «sariak»: ondorio orokorrak*

Gure ikerketan partaide diren hitzun berriek euskara ikasteko agertu dituzten arrazoiak eta partaideei euskara ikasteak ekarri dizkien sariak ezagutzeak informazio aberatsa eskaintzen du erabakiok sostengatzen duten balio-moten eta asebetetze handiena eman duten sarien izaeraren gainean.

Ikasteko motibazioak euskara H2 moduan nerabezaroan edo heldutan ikasi dutenen kasuan bakarrik bildu dira. Gehienek 40 urtetik gora dituzte. Partaideok euskara ikasteko erabaki kontzientea hartu dute, murgiltze eremuan euskaldundu diren hitzun berrien kasuan ez bezala, non erabakia gurasoek hartu duten. Galdera egin zitzaion arren, gazte

gehienek ez zuten argi beraien gurasoek zergatik erabaki zuten seme-alabak B edo D ereduan eskolaratzea.

Euskara ikasteak eskaini diena, «sari» moduan definitu duguna, bai jaso dugu partaide guztietan; alegia, euskara ikasteak zer ekarri dien, zer aldatu dien, euskara ikastearen ondorioz beraiek aldatu diren, eta abar.

Atal honetan motibazio eta sarien azpian datzaten balioak izango ditugu aztergai; eta baita hiztunen ikaste prozesuaren, adinaren zein testuinguru soziolinguistikoaren araberaren desberdintasunik dagoen.

Lehenengo ondorio moduan esan daiteke, talde zein testuinguru guztietan aipatu diren balioak anitzak izan direla, identitario, integratzaile eta instrumental bezala sailkatu daitezkeenak. Balio aniztasun hori euskararen indargarri moduan identifikatu daiteke; indargarria orain dela 30 edo 40 urterekin konparatuz, izan ere, garai hartan euskarak ez zuen balio instrumentalik.

Balio integratzaileak berberak dira ikasteko motibazio zein sari moduan adierazita, hau da, pertsonak ikastera mugiarazten dituen eta hiztun berriek, behin ikasita, aipatzen dutena bat datoz: harreman berriak, euskaldunekin harremanak, euskaldun zaharrekin, «kanpoan ez geratzearen» ideia, eta abar. Balio integratzailearen izaera dela-eta, badirudi testuinguru euskaldunetan indartsuagoa dela, batez ere euskarazko gizarte-harremanak normalizatuta dauden lekuetan (esaterako, Tolosan, Zumaian, Zeanurin) eta komunitatean parte hartzeko euskara ezagutzea garrantzitsuagoa den lekuetan. Oso tera, ikaste prozesuaren eta adinaren araberrako desberdintasun funtsezkorik ez dugu aurkitu. Bereziki argigarriak dira, duten indarragatik, euskara gabe zer galduko luketen agertzen duten adierazpenak. Partaide batzuk beraien bizitza ezberdina izango litzatekeela baieztatu dute: euskara gabe beste koadrila baten parte izango liratekeela, zenbait ekintza burutu zein zenbait harreman egiteko aukera galduko luketela, eta abar. Alegia, galduko luketenaren kontziente direla eta euskara ikasi izana asko baloratzen dutela esan dute.

Testuinguru erdaldunagoetan ere harremanak modu positiboan baloratzen dira, baina balio integratzaileak izaera sinbolikoagoa bereganatzen du: euskararen mundura sarbidea izatea baloratzen da, bereziki, euskararen mundu kulturalean parte hartu ahal izatea. Alderdi identitarioari balioa ematen dioten balorazioak dira: euskarak «hemengoago» sentitzen lagundu diela, euskal herritar sentitzen, edo are gehiago, euskal kulturaren parte izaten. Euskal jatorria duten partaideek, gainera, poztasuna erakusten dute arbasoen hizkuntza berreskuratu dutelako, bidegabekeria bat zuzendu edota ongi preziatu bat berreskuratu izan balute bezala. Balio identitarioa testuinguru euskaldunetan ere presente dagoen arren, badirudi balio integratzaile eta identitarioak modu zerbait ezberdinean bizi direla euskarak komunikazio hizkuntza moduan indar txikiagoa duen lekuetan.

Azkenik, partaideen artean euskararen balio instrumentalak presentzia garrantzitsua izan duela aipatu beharra dago. Gazteen kasuan bereziki, euskara jakitea beharrezko

eta baliogarri izan daitekeela baieztatzen duen ideia nahikoa orokortua dago. Gainera, hezkuntza edota herri administrazioa moduko esparruetan lan egiten duten edo egin nahi duten partaideek sarri aipatu dute lanean euskara eskatu izana motibazio garrantzitsua izan dela; beste batzuk diote euskara jakiteak lan bat edo lan hobea lortzea ahalbidetu diela. Nabarmenezkoa da, 40 urte baino gehiago dituzten partaideen artean askok baieztatu dutela beraientzako motibazio instrumental hori ez dela nagusia izan, eta aurretik ere kontzientzia bazutela.

Hasieran esan dugun moduan, partaide gazteek, euskara eskolan ikasitakoek, ez dute beraien erabakiz ikasi. Alabaina, partaide helduak bezala, euskaraz jakiteagatik pozik daudela baieztatu dute. Gure laginean behintzat, partaideek sentimendu positiboak dituzte euskararekiko, eta «asebeteta», «pozik», «harro» sentitzen dira.

Amaitzeko, barne balioek (Aморrortu eta beste 2009) bereganatu duten pisua azpimarratu beharra dago: pertsonaren baitatik, barrutik sortutakoak, norberaren uste sendoek bultzatutakoak eta norberaren balioetatik sortutakoak. Horiek garrantzitsuak dira luzera begira irauteko eta pertsonen jokabideetan eragiteko aukera gehiago eskaintzen dituztelako.

Hiztun berriek esperientzia oso ezberdinak izan dituzte. Ikaskuntza-prozesuaren ondorioz lortu duten gaitasunarekiko zelan sentitzen diren jakitea oso garrantzitsua da, horrek daukan ondorio sozialak direla-eta: alde batetik, erabiltzen duten aldaera baloratzen dutenaren arabera hiztun legitimotzat hartzen dute haien burua, ala ez; erabiltzen duten aldaerak dituen ezaugarri linguistikoen arabera beste hiztunek ere legitimotzat hartzen dituzte, ala ez. Bestetik, haien aldaerarekiko zelan sentitzen diren erabilera erraztu ala oztopatu egingo da: 4. kapituluaren erakutsiko denez, euskara ez erabiltzeko arrazoien artean gaitasun falta dago.

Hiztun berrien legitimitateaz luze jardungo da 6. kapituluaren. Hizkuntza-gaitasunak eta hiztunak darabilen aldaerak, batua ala lekuan lekuko aldaera izan, batetik, eta kaleko hizkera kolokiala erabiltzeko gai den, bestetik, berebiziko garrantzia dauka hiztun berriaren legitimitateari begira.

Jabekuntza-mailako hizkuntza-plangintzari begira, euskal hizkuntza irakasteko programeetan, bai murgiltze-ereduetan bai bigarren hizkuntza bezalakoetan, hiztunei euskaldun legitimo sentitzen laguntzen dieten ezaugarri linguistikoei arreta ipini beharko litzaieke, bereziki, lagunarteko erregistro bat-batekoei eta inguruko lekuan lekuko aldaerari ahozkoan leku berezia eginez.

3.4. Ikaste prozesua kontuan harturik profil ezberdinak

Euskara ikasteko prozesu eta esperientzia ezberdinak eta motibazio eta sari askotarikoak deskribatuta, hiztun berrien profil ezberdinak zehaztuko dira ondoren.

3.4.1. *Profilak zehazteko aldagaiak eta prozedura*

Ikaskuntza prozesua kontuan harturik profil ezberdinak zehazteko erabili den metodoa induktiboa izan da: partaideak taldekatzen joan gara, multzo handietatik txikiagoetara, analisisan talde barruko aniztasuna azaltzeko aldagai gehiago sartzen zen heinean.

Sailkapena egiteko hiru motatako informazioa hartu da kontuan: alde batetik, partaideen ezaugarriak, denek eztabaida-talde edo elkarriketa egin ondoren bete zuten galdesortako erantzunetan bildutakoak; bestetik, eztabaida-taldeetan edo elkarriketa erdi-bideratuetan partaide bakoitzak plazaratutako ideiak eta iritziak, hots, gure kodifikazio-sistemaren bidez kodetutakoak (ikus 2.3.1.); azkenik, hiztun berri bakoitzaren gaitasuna eta aldaera modu objetiboan aztertzen duen aldagaia, 2.4.2.2 azpiatalean azaldu dena.

Ondorenean, profilak zehazteko erabili den prozedura eta aldagaien ordena zehazten da:

- Lehengo, multzokatzeak egiteko erabili den lehen aldagaia **ikaskuntza prozesu-mota** izan da, kodifikazio-diagraman *Zelan* kategoria. Horrela, hiru talde nagusi agertu dira: a) gehien bat heldutan euskalduntze-prozesuan, hau da, euskaltegian, ikasitakoak, b) murgiltze-ereduen bidez hezkuntza arautuan ikasitakoak, eta azkenik c) gehien bat kalean interakzioz edo beste ikaskuntza-modu batera ikasitakoak.
- Bigarren, hiru multzo horien barne-aniztasuna azaltzeko beste lau aldagai sartu dira analisisan: testuinguru soziolinguistikoa eta sareak, gaitasuna, aldaera (euskalkia/batua) eta euskara ikasteko motibazioak. Hortaz, partaideak ikasten hasi ziren momentuan eta izan zuten prozesuan bizitzen egon ziren herriaren **testuinguru soziolinguistikoa** sartu da analisisan, eta partaide bakoitzak zein testuingurutan (mesedegarria, oztopotzailea ala tartekoan) ikasi zuen euskara zehaztu da. Bestetik, hiztunak zenbat **sare euskaldunetan** parte hartzen duen, baina baita, sare horiek esanguratsuak eta egonkorrak diren ere kontuan hartu da. Informazio hori jasotzeko galdesortako informazioa eta, batez ere, partaideek eurek mahai-inguru eta elkarriketetan azaldutakoa erabili da.
- Hirugarren, ikasteko prozesuaren arrakasta ebaluatzeko orduan erabateko garrantzia dauka hiztun berriaren gaitasun-autopertzepzioak eta gaitasun objetiboak, batetik, eta hiztun berria tokian tokiko aldaera batera hurbiltzen den ala Batua egiten duen, bestetik. Beraz, bi aldagai horiek ere, gaitasuna eta aldaera, analisisan sartu dira.
- Laugarren, ikasteko **motibazioei** dagokienez, euskaltegian ikasitakoen kasuan euskara ikasteko motibazioak garrantzi handia dauka eta emankorra suertatu da profil hori azpimultzoetan sailkatzeko. Euskara murgiltzean eskolaren bidez ikasi dutenen kasuan erabaki hori eurek ez dutenez hartu, ezin dira motibazioak erabili euren arteko barne-aniztasuna azaltzeko; bai, ostera, hiztunek euskarari ematen dioten **balioa, euskararekiko sentimenduak, kontzientzia eta konpromisoa**. Aldagai hau elikatzeko informazioa diagramako *Ideologiak* kategoria nagusiko *Balioak* azpikategoria erabili da. Horretaz gain, murgiltzeko partaideen kasuan, euskararekiko balioe-

tan gurasoek eragina izan dezakete haien balioak transmititzerakoan. Hori dela eta, euskarazko hizkuntza-ereduetan seme-alabak eskolaratzeko arrazoiak ere erabili dira analisisan.

Azkenik, profilak zehazteko, profilen analisisan kontuan hartu baziren ere, ez dira erabakiorrak izan ondoko aldagaiak: ikaskuntza-esperientzia eta ikasteko estrategiak.

3.4.2. *Hiztun berrien profilak ikaskuntza prozesuari begira*

Jarraian deskribatuko diren sei profil ezberdin¹ zehaztu dira analisiaren ondorioz (ikusi Ikaskuntza Profilen Diagrama kapituluaren amaieran, 63. orrialdean).

3.4.2.1. LEHEN IKASKUNTZA-PROFILA

Lehen profileko hiztun berriek **heldutan ikasi** dute euskara. Gehienek momenturen baten **irakaskuntza formala** (euskaltegia edota barnetegia) **edo autoikaskuntza** izan badute ere, haien ikasteko prozesuan garrantzi handia eman diote **kalean, interakzioz**, ikasi izanari. Izan ere, profil honetako partaideak **testuinguru mesedegarrian bizi** dira, euskara bidezko integrazioari garrantzi handia eman diote eta ahaleginak egin dituzte sare euskaldunetan sartzeko.

Motibazio integratzaile argia izan dute denek, barnekoa edo hasieran kanpokoia izanda ere oso arin barne bihurtutakoa. **Sarritan aipatzen dituzte euskarak eman dizkieten sariak**, baita galdetu gabe ere, eta sariok koherentzia handia erakusten dute izan duten motivazio integratzaile eta barnekoarekin: euskaldunekiko hurbiltasuna, konfiantza, harremanak, euskaldunen esker ona, euskararen mundua, «dena eman dit euskarak» dira lehen profileko hiztun berriek aipatu dituzten sariak.

Gaitasunari dagokionez, **ona edo oso ona** dutela erakutsi dute, denek 4ko emaitza lortu baitute gaitasun objetiboan eta 3 edo 4 jariotasun objetiboan. Gainera, haien hizkeraren analisi objetiboak **lekuan lekuko aldaera** batera asko hurbiltzen direla erakutsi du. Haien autopertzepzioan ere gaitasun oso ona dute, batzuetan euskaldun zaharren modura hitz egiten dutela esateraino.

Profil honetan 5 partaide bildu dira.

¹ Lagina aukeratzeko gutxiengo gaitasuna Europako Hizkuntzak Irakatsi eta Ebaluatze Markoko maila aurreratua (C1 maila) irizpide bezala ezarri bazen ere, partaide batzuk irizpide hori ez dutela betetzen erakutsi du hizkuntza-azterketak. Bost partaide daude egoera horretan, haietatik hiru datuak jaso zirenean oraindik euskaltegian zeuden eta beste bik amaitu gabe zuten ikaste prozesua edo agian, behin lortutako gaitasuna neurri baten galdua zuten. Partaide horiek 7. profila osatzen dute.

3.4.2.2. BIGARREN IKASKUNTZA-PROFILA

Bigarren profilean multzokatu diren partaideek **heldutan** (batzuk nerabe aroan hasita) **euskaltegian ikasi** dute euskara, eta berrogei urte baino gehiagokoak dira, salbuespen batekin: heldutan etorritako atzerritar batzuk gazteagoak dira baina gainontzeko ezaugarri denak konpartitzen dituzte profil honetako partaideekin. Gainera, **testuinguru mesedegarrian bizi dira edota sare euskaldun esanguratsu** ugaritan parte hartzen dute. Testuinguru oztopotzaileko zenbait partaide profil honetara bildu dira sare euskaldun trinko, egonkor eta esanguratsuak dituztelako, lagun min edo familia-medio. Ikasteko prozesuan euskara asko erabiltzeko aukera izan dutenek kalean ere ikasi dutela aipatzen dute.

Haien **motibazioak askotarikoak** dira: integratzaileak, instrumentalak, kanpokoak, barnekoak, identitarioak. Profil honetan bildu diren partaideek ez dute konpartitzen motibazio mota bat, aniztasun handia dago haien artean. Kasu batzuetan trantsizioaren giro politikoan hasi ziren, motibazio integratzaile, barneko eta aldiberean kanpokoarekin, baina ez beti.

Gehien-gehienek **gaitasun eta jariotasun objetibo ona** (3, erabilitako eskalan) **edo oso ona** (4) dute. **Euskalkia-Batua continuumari dagokionez, danetarik** dago: partaide batzuk, lekuan lekuko aldaera baterako sarbidea dutenek, inguruan aldaera horretako hiztunak dituztelako, asko edo nahikotxo hurbiltzen dira lekuan lekuko aldaerara; beste batzuk, bertako euskara ez dagoen inguruan bizi badira eta ez badute aldaera jakin bat hitz egiten duen hurbileko sarerik, gehien bat Batua egiten dute.

Profil honetan 15 partaide bildu dira.

3.4.2.3. HIRUGARREN IKASKUNTZA-PROFILA

Hirugarren profiletako hiztun berriek **heldutan euskaltegian ikasi** dute euskara baina, lehen profilekoengandik ezberdinduz, **ez dute izan aukera handirik euskara erabiltzeko** batetik testuinguru oztopotzailean bizi ziren eta direlako, eta bestetik azken urteetan behintzat sare euskaldun egonkor esanguratsuetan ez dutelako parte hartzen. Beraz, ikasi dutena gehien bat irakaskuntza formalaren bidez, euskaltegian, ikasi dute —batzuek euskara irakasgai bezala ere ikasi dutela aipatu dute—.

Profil honetako partaideek duten **gaitasun eta jariotasun objetiboa ez da oso ona** (gehien-gehienek 1 eta 2 bitarteko emaitza jaso dute) eta denek **Batua hutsa**, hau da, aldaera lokaleko inolako ezaugarririk gabea egiten dutela erakutsi du egingadako hizkuntza-analisiak. Motibazioei dagokienez, **barneko motibazioa**, trantsizioaren garaiko ideologiarekin lotutakoa, izan zutela adierazi dute profil honetan bildu diren bi partaideek. Dena dela, hain gutxi izanda ezin dira orokortu profil honetako ezaugarriak.

3.4.2.4. LAUGARREN IKASKUNTZA-PROFILA

Laugarren profileko partaideek hirugarren profiletakoekin ezaugarri batzuk konpartitzen dituzte: **euskaltegian ikasi dute** euskara, **testuinguru oztopotzailean bizi dira** eta **ez dute sare trinko eta esanguratsurik**; gainera, **gaitasun eta jariotasun objetiboa ez dute ona** eta haien aldaera ez da antzematen **lekuan lekuko bateko inolako ezaugarriarik**. Hirugarren profiletakoengandik ezberdinduz, **motibazio instrumental eta kanpokoak** izan dituztela adierazi dute. Profil honetan irakasle lanetan diharduten edo lan egin nahi duten lau partaide bildu dira. Beste lau partaide hirugarren edo laugarren profiletakoak direlakoan gaude baina ez daukagu nahikoa informaziorik zeinetan zehazteko.

3.4.2.5. BOSGARREN IKASKUNTZA-PROFILA

Bosgarren profileko hiztun berriek **murgiltze goiztiarrean ikasi** dute euskara, eta gure laginean denek batek izan ezik **30 urte baino gutxiago dute**. Gehienak **testuinguru mesedegarrian bizi** dira eta **sare trinko eta esanguratsuak dituzte**. Badaude erdiko testuinguruan baina sareak dituzten batzuk ere, eta testuinguru oztopotzailean bizi den baina gero eta sare trinko eta esanguratsu gehiago dituen beste partaide bat ere. Profil honetakoek duten ezaugarri komun garrantzitsuenetakoa gaitasuna eta aldaera da: **gaitasun eta jariotasun objetibo oso ona** dute eta **lekuan lekuko aldaerara asko hurbiltzen dira**. Gure lagineko 14 partaide bildu dira profil honetan.

3.4.2.6. SEIGARREN IKASKUNTZA-PROFILA

Profil honetako hiztun berriek **murgiltzean ikasi** dute eta **testuinguru oztopotzaile edo erdikoetan** (euskaldunak %50 baino gutxiagoko herrietan) bizi dira eta **sare euskaldun gutxitan parte hartzen** dute kasu gehienetan. **Gaitasun eta jariotasun objetiboari** dagokionez, **aldakortasun handia** dago: batzuk gaitasun eta jariotasun objetibo ona dute, beste batzuk ez hain ona eta gehienak ez dira hurbiltzen lekuan lekuko aldaera batera. Badirudi profil honetako partaideek duten beste ezaugarri komun bat **euskararekiko atxikimendu epela edo kontzientzia faltarena** dela. 18 partaide bildu dira profil honetan.

3.4.3. Ikaskuntza profilen diagrama

1. PROFILA

- Kalean ikasi.
- Testuinguru euskaldunetan bizi.
- Euskara ikasteko motibazio integrazalea, batez ere.
- Euskalkia badakite.

2. PROFILA

- 40 urte baino gehiago.
- Euskaltegian ikasi.
- Denetariko motibazioak.
- Testuinguru euskaldunetan bizi edota sare mesedegarriak izan.

3. PROFILA

- Euskaltegian ikasi.
- Testuinguru eta sare oztopoztaileak.
- Euskara ikasteko motibazio ideologiko edo barnekoak.

4. PROFILA

- Euskaltegian ikasi.
- Testuinguru eta sare oztopoztaileak.
- Euskara ikasteko trensa edo kanpoko motibazioak.

5. PROFILA

- Gazteak.
- Murgiltze eremuan ikasi.
- Testuinguru euskaldunetan bizi edo sare mesedegarriak izan.
- Euskalkia badakite.
- Euskararekiko sentimendua edota kontzientzia.

6. PROFILA

- Gazteak.
- Murgiltze eremuan ikasi.
- Testuinguru eta sare oztopoztaileak.

7. PROFILA

- Euskara maila nahikorik ez.

Hizkuntza-praktikak: erabilera

Euskararen normalizazioari begira egunerokoan euskaldunek dituzten hizkuntza-praktikak garrantzi handikoak dira. Hitzun berriak, behin hizkuntza ikasita, erabili egin behar du elebiduna izaten jarraitzeko. Partaideentzat erabileraren gaia zentrala da eta luze jardun dute egiten dituzten hizkuntza-hautuei, dituzten zailtasunei eta bestelako gakoei buruz. Kapitulu honetan aurkeztuko ditugun ideiak zuhaitzaren ERABILERA adarretik datoz (ikus 3. eranskina).

Erantzun nahi ditugun galderak honako hauek dira:

- Zeintzuk dira hitzun berriek dituzten erabilera-patroi nagusiak?
- Zeintzuk dira euskararen erabilera errazten edo oztopatzen dituzten faktoreak?
- Testuinguru oztopotzaileetan posiblea da euskararen hitzun aktiboa izatea?
- Zerk ahalbideratzen du testuinguru oztopotzailean hitzun aktiboa izan ahal izatea?
- Zein garrantzi dauka hitzunaren konpromisoak hizkuntza-portaeran?
- Zelako harremana dute hitzun berriek euskaldun zaharrekin?
- Egunerokotasunean hitzun berriek zelako hizkuntza-hautuak egiten dituzte?
- Zein profil ezberdin dago hitzun berrien artean erabilerari begira?

Gauza jakina da azken hamarkadetan euskarak Autonomia Erkidegoan hitzun asko irabazi dituela: euskaldunak 1981ean biztanleen % 21,9 ziren eta egin den azken neurketan, 2011an, %36,5 (Eusko Jaurlaritza 2014). Alabaina, hitzun kopurua asko handitu bada ere, gizarte-agenteei ardura handia dute erabilerak ez duelako egin gora neurri berean (Eusko Jaurlaritza 2013). Izan ere, erabilera Gipuzkoan bakarrik igo da nabarmen (Altuna eta beste 2012). Prozesu berbera Europako beste testuinguru batzuetan ere ikusi dela aipatzeak merezi du (ikus, adibidez, Galeseko kasurako Edwards eta Newcombe, 2005).

Gai hau hiztun mota guztiei begira garrantzitsua izanagatik, are funtsezkoagoa da hiztun berrien kasuan. Horregatik, ezinbestekoa da estrategikoa den talde honek euskara benetan erabiltzen duen ala ez jakitea eta erabiltzera mogiarazten dituzten gakoak, eta erabilera oztopatzen dutenak, zeintzuk diren argitzea.

Orohar, ikerketako partaideek erabilera-patroi ezberdinak erakusten dituzte. Partaide batzuk **egunerokoa euskara asko** erabiltzen dute, erdara baino gehiago: testuinguru mesedegarrian bizi dira, hala nola Bermeo, Zeanuri, Tolosa edo Zumaian eta sare euskaldun trinko eta esanguratsu askotan parte hartzen dute, sare intimoak barne, familia garrantzitsuena izanik. Haietako batzuk, gainera, «euskeraz bizi direla» ere esan daiteke, kasu gehienetan euskararen erabileraren aldeko jarrera proaktibo argia erakutsiz, kapitulu honetan erakutsiko denez.

Beste partaide batzuk **ele bitan bizi dira**, euskara ez eze erdara ere asko erabiltzen dute haien egunerokoa: batzuk, tarteko edo testuinguru oztopotzailean bizi direnak, sare euskaldun esanguratsuak dituzte, batez ere familia edo lana; beste batzuk, testuinguru soziolinguistiko mesedegarrian bizi dira, baina sare esanguratsu batzuetan gaztelania erabiltzen dute eta, beraz, haien eguneroko bizitzan gaztelania ere presentzia handia dauka, adibidez familia barruan.

Azkenik, partaide batzuk **gehien bat gaztelaniaz bizi dira edo ez dute euskara ia erabiltzen**. Holako partaideak, euskara gutxi edo oso gutxi erabiltzen dutela esan dигutenak, testuinguru guztietan aurkitu ditugu, baita, kasurako, Zeanuri moduko testuinguru mesedegarrietan bizi direnak, nahiz eta gure laginean gutxi diren.

Testuinguru oztopotzailean bizi diren partaideen artean, batzuk ia inoiz ez dute euskara erabiltzen; beste batzuk erabilera-eremu jakin eta bakanak dituzte; eta beste batzuk, benetako harreman-sarerik ez izanik, gutxiengo erabilera bermatzeko aukerak aprobetxatzen saiatzen dira.

Ondorenean, kapitulu honen aurkibidea ematen da.

4.1. Erabilera azaltzeko gako garrantzitsuenak: testuingurua eta sareak

4.1.1. Testuinguru soziolinguistikoa

4.1.2. Sareak

4.2. Erabilera baldintzatzen duten beste gako batzuk

4.2.1. Gaztelaniaren presioa oro har

4.2.2. Ohitura

4.2.3. Gaitasuna

4.2.3.1. Helduak

4.2.3.2. Gazteak

4.3. Proaktiboa edo erreaktiboa izatea: agentibitatearen garrantzia

4.4. Hiztun aktibo bihurtzea

4.5. Egoera elebidunen kudeaketa: hizkuntza-hautuak

4.5.1. «Euskaldun zahar» eta hiztun berrien arteko harremanetan egiten diren hizkuntza-hautuak

4.5.2. Erdaldunen presentzia

4.5.3. Jarrera proaktiboa erakusten duten hizkuntza-hautuak

4.5.4. Euskararekiko jarrera errektiboa erakusten duten hizkuntza-hautuak

4.5.5. Ele bitan aritzea: bakoitzak berea

4.5.6. Kode-alternantzia

4.6. Erabilera kontuan harturik profil ezberdinak

4.6.1. Profilak zehazteko aldagaiak eta prozedura

4.6.2. Hiztun berrien profilak erabilerari begira

4.6.2.1. Lehen erabilera-profila

4.6.2.2. Bigarren erabilera-profila

4.6.2.3. Hirugarren erabilera-profila

4.6.2.4. Laugarren erabilera-profila

4.6.2.5. Bosgarren erabilera-profila

4.6.2.6. Seigarren erabilera-profila

4.6.2.7. Zazpigarren erabilera-profila

4.6.2.8. Zortzigarren erabilera-profila

4.6.3. Erabilera profilen diagrama

4.1. Erabilera azaltzeko gako garrantzitsuenak: testuingurua eta sareak

Azpiatal honetan, partaideek eurek haien erabilera azaltzeko eman dituzten gakoak aurkeztuko dira. Gakoak askotan euskara erabiltzeko oztopo bezala azaldu dituzte partaideek, nahiz eta zenbait kasutan, gainditu daitezkeen edo, hobeto esanda, haiek gainditu dituzten zailtasun modura. Oztopoak gainditzeko erabiltzen dituzten estrategia ezberdinen berri ere eman digute.

4.1.1. Testuinguru soziolinguistikoa

Testuinguru soziolinguistikoaren aldagaia oso presente dago eztabaidetan. Lehengo eta behin, partaide denek, testuinguru oztopotzaile zein mesedegarrian bizi direnak, testuinguruaren garrantzia azpimarratzen dutela esan behar da: testuinguruari buruzko balorazioak egiten dituztenean, euren ingurukoa zelakoa den esaten dute, eta askotan testuinguru ezberdinak konparatzen dituzte. Dena dela, testuinguru oztopotzailean bizi direnek garatu dituzte bereziki testuinguruak euskara erabiltzeko dakartzan zailtasunen inguruko ideiak.

Askotan testuinguru ezberdinak konparatzen dira, hala nola, Zeanuri eta Portugalete edo Zeanuri eta Galdakao, herri bakoitzeko testuinguru soziolinguistikoak euskara erabiltzeko oso aukera ezberdinak eskaintzen dituela azpimarratzeko:

- (78) Niretzako da, lehen esan dotena, da non bizi zaren hartzen dau kontuten. Nik igual hemen [Zeanurin] gehiau erabilten dot euskeraz baina nire lehengusuek, Portugaletekoak, dekogula adin berdine (...) ba ze amaitu zeuen institutua, hasi zen erderaz ikisten eta ja galdu dau. Ordun nierzako, nik gehiau, osea, euskeraz gehiau egiten dot Galdaokoko batek baino. (ZEA-B, 324)

Testuinguruaren garrantziaren erakusle, askotan, ez hiztun berriek bakarrik, euskaldun zaharrek ere bizi diren herri euskaldunetik beste herri erdaldunago batera joanda, bereziki Bilbo hirira joanda, gaztelaniara jotzen dutela azpimarratu da:

- (79) Eta bertoko [Bermioko] bategaz igual autobusian edo juan euskeraz, ailega Bilbora eta bertan Moyuan ja erderaz. (BE-C, 109)

Izan ere, Bermeoko euskaldun horien kasuan bezala, badago partaideen artean herriak euskaldunagoak eta hiriak erdaldunagoak diren pertzepzioa, erabilera ezberdina azaltzen duena:

- (80) **Hiritarrok gehiago gaztelaniaz eta herritarrok gehiago euskeraz** / Bai, adibidez hiri batean gehiago, jende gehiago dago eta haien artean komunikatzeko bilatzen dituzte hizkuntzarik handiena edo erabiliena, eta askotan hemen adibidez gaztelania da, eta herrietan jende gutxiago dago eta han sortu da euskara, eta erabiltzen dute. (Gazte-DO-A, 385/390)

Hiria erdalduna dela pertzepzioarekin lotuta, euskararen aldeko jarrera oso proaktiboa duen partaide honek adierazi bezala, Bilbo moduko lekuetan ere euskaldunak aurki ditzakezu lehen berba euskaraz eginda:

- (81) Badakizu zer pasaten dan? Neuk pentsaten dot, Bilbon jende gehixenak eitxen dau erderaz, baina ez dau emoten hori pausue lehenengo berbie euskeraz eitxea, ze sorpresa handiak hartzen dozuz. Zu zoaz leku batera eta eitxen dozu euskeraz, ba, leku pilo batean erantzuten dotsue euskeraz. Leku pilo bat, ez nago esaten tabernak eta gaez, ze hori be bai, baino bueno... dendetan eta kalien. (BE-B, 106)

Partaideek eurek konturatzen dira testuinguruaren garrantziaz, bai ikaskuntza prozesurako bai erabilerarako. Horren adibide argia da ondoko partaideak herri euskaldunean lana aurkitu izanagatik egin duen balorazioa: «suerte handia» izan zuela, Bilbon lana aurkitu zuten bere ikaskideek ez bezala.

- (82) Eta esaten det **suerte**a ere bai zeren nerekin ibilitako batzuk, talde berdinean, ba ez zuten igual hainbeste suerterik izan, ba bueno, Bilbo baten lana aurkitu zutelako, edo Naparrun

ere bai, eta, bueno, nahiz ta klaseak euskeraz eman, erderaz egiten zuten bizimodu normala, normalago, edo familiarrago eta ikusten da pixkat galdu bezala. **Niri, aldiz, tokatu zitzaidan zonalde honetan**, zonalde honetan, bai Zestuan, Azpeitin, Zumaian, euskaldun zonaldea da eta orduan, ba bueno, hementxe ibili naiz. (ZU-B, 32)

Testuinguru oztopotzailean bizi direnek, berriz, zailtasun gehiago bizi dituzte. Alde batetik, txikitatik ez dutenez harreman estuetan, lagunekin, erabiltzen, gero ez dira euskaraz eroso sentitzen, hurrengo gazte honek azaldu bezala:

- (83) Adibidez bera bizi den lekuan, Busturia, Bermeo eta hortik ba jendea, ba txikitatik hitz egiten du euskaraz lagunekin eta adibidez nire, **ni ezkerraldekoa naiz eta hor ez da euskera hitz egiten lagunekin inoiz ere**. Horrexegatik, azken finean ohitura daukazu euskerara..., txikitatik hasten bazara euskera hitz egiten, ba erosoagoa sentitzen zara, ohitura daukazu lagunekin euskeraz hitz egiteko, eta, klaro, azken finean ohitura hori ez badaukazu, ba gero hasterako orduan edo hitz egiterako orduan, ba, **kostatzen zaizu** eta..., horrexegatik. (Gazte-BI-E, 29)

Gainera, askotan euskal «girorik» ez dagoela kexu dira; are gehiago, Sestao moduko herri baten euskaraz egitea zein markatua eta ez ohikoa den azpimarratu du partaide batetik, baita euskarazko hizkuntza-ereduetan ikasten ari diren umeentzat ere:

- (84) Nik anekdota bat kontatu nahi dut. Aurreko egunean hurbildu nituen umeak klaseraino eta zeozer esan nion andereñoari euskaraz eta, bueno, umeen aurretik, eta bapatean esan zuen ume batek **«jo, qué morro, la madre de XXX [ume izena] y XXX [ume izena] sabe hablar en euskera»**. (SE-C, 292)

Partaide gazteago batzuk ere bere herrian, Trapagaranen, eskolako lagun euskaldunekin ere zein arrotza egiten den euskaraz egitea esan dute, lagunek jokabide hori gaitzesteraino:

- (85) —«Pero qué andas...», zu Trapaganera joaten zara, hasten zara euskeraz hitz egiten eta esaten dizu koadrilako batek «pero ¿qué andas tú hablando en euskera?», como oso arraroa ikusten dute. (Gazte-BI-E, 327)
—Nahiz eta jakin euskeraz hitz egin. (Gazte-BI-F, 328)
—Eta nire koadrilakoek ia denok D ereduan ikasi dute, eta euskaldunak sentitzen dira, eta hemengoak dira..., baina, klaro, oso arraroa ikusten dute y les suena muy mal hablar en euskera. (Gazte-BI-E, 329)

Testuinguru soziolinguistiko oztopotzaileak, halaber, zailtasun handiak sortzen ditu norberaren identitatea adierazteko, eta euskara gutxi erabiltzera, gaztelaniara jotzera, bultzatzen du:

- (86) Orduan, euskal giroan ez nagoenez, ez dakit, **zailtasun gehiago daukat** nere barruko **sentimendu euskaldun hori ba azaltzeko**. Adibidez, ez dut, bueno, ez dut ia-ia ezer euskeraz

irakurtzen, irratia bai, entzuten dut, egunkarietako, ba artikulua bai irakurtzen ditut, erosten dut Berria eta irakurtzen dut, baina orokorrean nere bizitza erdalduna da, zoritarrez. Nahiz eta arlo batzuetan euskara eta euskal kultura bultzatu, baina orokorrean, batez ere giro honetan, ezker alde honetan, ez dakit..., **horrek bultzatzen zaitu ba erdara egitera**. Eta hori da nere kezka, nere burua txarto jotzen dudana gauzaren bat. (SE-A, 25)

Sestaon bizi den partaide horrek, sare batzuk baditu ere, ez dira oso trinkoak eta zailtasun handiak ditu euskara erabiltzeko. Hori dela eta, estrategia batzuk garatu ditu gutxiengo erabilera bermatzeko, adibidez, egunkaria irakurtzea eta euskal kulturaren inguruan diharduten taldeetan murgiltzea, jarduera horietan euskara erabiltzeko aukera egoten delako. Estrategia hori, aisialdia edo kultura-kontsumoa euskaraz hobestea ohi-koa da Gasteiz eta Sestao moduko testuinguru oztopotzailean.

Illo beretik, Gasteizekoa den eta bertan lan egiten duen beste partaide honek bere hirian arrotz sentitzen dela dio, aurreko aipuan ematen diren arrazoi berberak medio, hots, ezin duelako euskara eroso erabili:

- (87) Gasteizen, baina, askotan **arrotz sentitzen naiz neure hirian** bertan euskaraz normaltasunez hitz egiten ez delako, edo nik normaltasunez hitz egiten ez dudalako. (GA-E, 173)

Azkenik, testuinguru soziolinguistiko oztopotzailea dela eta lagunartean ez denez erabiltzen, etorria edo erraztasuna, gaitasun komunikatibo osoa azken finean, garatzen ez delako kezka ere agertu da, partaide gazte honen aipua adibide (ikus baita gaitasuna euskara erabiltzeko oztopo, 4.3.3. azpiatalean):

- (88) Bai, niri gainera gertatzen zait bera(k) esan duen moduan, ba ni Trapagararen bizi naiz, eta bueno, ez du inork kalean hitz egiten, orduan bai konturatzen zarela ba **hitz egiten formalki**, ba agian ez, **baina gero la fluidez**, ez dakit nola esan, ba bai nabaritzen dela nork hitz egiten du kalean lagunekin, nork ez, eta hori, asko gainera. (Gazte-BI-F, 16)

Testuinguru mesedegarrian bizi direnek arestian aurkezturiko testuinguru soziolinguistikoari buruzko balorazioez aparte ez dute adierazi bestelako kezkarik edo arazorik, testuinguruak berak euskarazko erabilera bultzatzen duelako. Euskara egitea normala dela konstatatzen da:

- (89) **Adibidez Oiartzunen ohitura dau euskeraz hitz egiteko eta han gazteleraz** hitz egiten du-nai, bueno, ez da, raroa da, **raro iten dizu**, norbait juten da kaletikan ta igual gazte talde bat gazteleraz aitzen dezu ta gehiou txokatzen dizu, ez?, **euskeraz ohikoagoa** da. Ta igual Donostin kontrakoa, Donostin kontrakoa pasaten da, Donostin ikusten dituzu euskeraz ta raro iten dizu, ta gazteleraz normala. (Gazte-DO-E, 64)

Testuinguru mesegarriaren eragin positiboa auzi ezberdinetan agertuko da kapituluaren zehar.

4.1.2. Sareak

Arestian, 2.4.2.2. azpiatalean azalduta bezala, euskara erabiltzeko aukerak aztertzerakoan testuinguru soziolinguistikoaz aparte harreman-sareak hartu behar dira kontuan. Partaideek sareak zeinen garrantzitsuak diren oso presente dute, baita testuinguru mesedegarrian ere. Tolosako ondoko partaide honek, kasurako, oso ondo azaldu du nola joan zen bera, ikaskuntza-prozesuan aurrera egin ahala, sare euskaldun berrietan euskara erabiltzen, euskara babestuta zegoen «zirkulo» ezberdinetan sartze, eta bere sareak trinkotzen. Bere iritziz, horrek berebiziko garrantzia izan zuen bere ikaskuntza-prozesuaren arrakastan eta erabilera indartzen, euskarak bere erreperatorioan erabateko leku eta garrantzia hartu arte:

- (90) Bai, bueno, ja pixkanaka-pixkanaka ja hasten zea eta bueno, «oso ondo hitz iten'zu, bueno, ez dakit zer, eta azken finean ohitura bat da, gimnasia bat da, ez, eta bueno euki **behar dezu zirkulo bat ba hasteko beldurrik gabe hitz egiten**, / eta azkenen, gero, ba irakurtzen, euskaltegitik ere pasa nitzan, bueno, pixkanaka-pixkanaka bazoaz ba, bueno, erretzen ba etapa batzuk, ez, pausu batzuk ematen eta... Gero nere emaztegaz, nere emaztegaz oain, ba euskeraz hitz egin zun betidanik, bere familian ere, ordun beste zirkulu baten sartzen zea ere eta, bueno, hor betidanik denak... / [Eta Altzo herri txiki oso euskaldunera joanda bizitzera] Baina, bueno, erronka bat, hurrengoan ja honekin hitz egitea, aber, ulertzea zer bait, ze euskeraz badakit baina gero honekin hitz egitea, hau zaila. Dire pausuak, (...) azken finean da zirkulu hori apur bat apurtzea eta beste dimentsio baten sartzea eta esatea «bueno, **hemen badaukat hitz egitea, honekin, honekin, honekin**», eta orduan hasten zea hitz egiten, hori da. (TO-A, 13/15/127)

Partaide horrek harreman berrietan ohitura-hizkuntzatza euskara ezartzeko beti euskaraz egiten du (TO-A, 11). Tolosakoa moduko testuinguru mesedegarrian erraza da zirkuloen eta «lehen berba euskaraz» estrategiak erabiltzea, euskara gero eta solaskide gehiagorekin harreman-hizkuntza bihurtzeko. Testuinguru oztopotzailean, berriz, euskaldunak egonik ere, sare egituratu nahikorik ez egoteak eta elkar ez ezagutzeak erabilerara asko murrizten duela adierazi dute partaide batzuk:

- (91) Jende asko gara, baina ez gara, gure artean, ba ez dago sarerik, ez dago... Ni beti harritzen naiz, beti ezagutzen duzu jende berria, eta ikusten dezu jende asko(k) dakiela baina, ba-koitzak bere bizitza egiten du eta... Baina ni seguru nago **gure artean guztiok ezagutuko bagina, euskara entzungo zan Gasteizen askoz gehio**, ba, ez dakit, sei elkarriketatik bat, ba sei elkarriketatik bat. (GA-A, 51)

Hala ere, testuinguruak ez du erabat baldintzatzen hitzun batek izango dituen sareak. Testuinguru oztopotzailean, aukera gutxiago egonik ere, euskara asko erabili daiteke egunerokoan, sare euskaldun trinko eta esanguratsuak direla medio. Ikus Getxon bizi den emakume honen ekarpena:

- (92) En mi trabajo es casi todo en euskera. Solamente con gente que igual todavía no lo sabe, entonces hablo en castellano, pero en el trabajo en general, el 95%, el 95% de todo es

en euskera. Luego en mi casa, con mi compañero es todo en euskera. Y, bueno, castellano poco. Pero es que en general, la verdad que hablo poco castellano. (ELK-B, 156)

Bestalde, testuinguru mesedegarrian sareak egitea erraza izanagatik, posiblea da gaztelania hutsez bizitzea. Zumaiaiko partaide honek kontatu digun moduan, bere lehengusu-lehengusinak esaterako, gaztelaniaz bizi dira:

- (93) —Azkenian beraiek [bere lehengusu-lehengusinak] ez du(t)e behar euskeraz, ez, bere ingurua dana erdalduna da eta **beraiek bizi dira egunero erderaz**, ez du(t)e behar ezertako euskeraz, beraien ustetan, eta halaxe bizi dira. (ZU-C, 297)
—Ta uste dezu badagola holako jendia Zumaian, zure adineko jendea? (ZU-F, 298)
—Koadrila erdalduna? Bai. / Nere kasuan bezala familia erdalduna daka(t)en hoiek erdaldunen artean biltzen hasten badira, eta uste det Jadarren [Zumaiaiko auzo bat] asko ematen dala. Bueno, nik bistaz ezautzen ditut, ez dakit geo bere eguneroko bizi-tzan zertaz hitz egiten duen, baina bai joera asko daola erdera eiteko, ba familia erdaldunetik datozen umiak bildu eta hoiek kuadrilla iten ba(d)u(t)e, hor... Nik suertea euki det euskerako koadrila in detela, baina bestela bai iten dela joera hori erderako koadriletan. (ZU-C, 299 / 305)

Bigarren kapituluan (2.4.2.2.(c)) azalduta bezala, gure partaideek aipatu dituzten sare-rik garrantzitsuenak **familiak, lagunek eta lankideek osatutakoak** dira. **Familia** oso eraginkorra da euskarazko erabilera bermatzeko. Hiztun berria, familia propioa osatzeko, bikotekide euskaldun zahar baten bidez, familia-sare euskaldun esanguratsuan sartu daiteke. Zalantza barik, sare horiek oso garrantzitsuak dira hiztun aktibo bihurtzeko. Ondoko partaidea familia euskaldun batera ezkondu eta Bermeora joan zen bizi-tzen, aldi berean, sare trinko eta esanguratsu askotan sartuz:

- (94) Ordun, gaur egun euskera da nire hizkuntza lehentasunarako, euskerak edozertan, eta seme-alabagaz be bai, nik dakot alaba eta semie, harremana euskerazkoa da, nire seme-alaben ama hizkuntza euskera da, **nire gizonak euskeraz eitxen dau, gizonaren partez be bai familia osoa**, orduan erderaz eitxen dugu nire familiarekin, nire partekoekin, gaur egun, normalien, bai telefonoz, bai, eurengan gaguzenean, bai eurek datozenien, orduan geuretzako arrotza edo, arraroa dena edo, ba nire familia edo nire munduagaz kontaktuan gauzenean. Eta bueno, **gaur egun**, ba, ba, **normaltasunez euskerarekin**. Baina, klaro, prozesua izan da, urtetako prozesua izan da. (BE-C, 16)

Gasteiz moduko testuinguru oztopotzailean ere norberaren familia, bikotekidea edo ne-barrebak, ere euskaldundu daitezke eta harreman-hizkuntza aldatu, ondoko partaideak erakutsi duen bezala:

- (95) Bikotearekin ezkondu, bikoteak nik baino gutxiago zekien [euskaraz], baina hala ere aha-legindu zan, eta **azkenean gure arteko hizkuntza euskara bihurtu zan**, seme-alabak izan, haiek ere ama-hizkuntza bezala euskara, eta hortik aurrera ba, bueno, gehien bat gurean hitz egiten da euskara familian. Ez bakarrik gure etxean, ba, **arreba batek ere badaki**, semeak ere, eta orduan, ba bueno, **ba etxeko hainbat lagunekin euskaraz egiten degu guztia**. (GA-A, 15)

Azken partaide horren kasuan bezala, posiblea da familia erdaldunean harreman-hizkuntza aldatzea eta familia-sarea euskalduntzea (ikus. baita 4.2.3. azpiatala). Kasu horietan aipamen berezia merezi du seme- alabekiko sareak. 5. kapituluaren erakutsiko denez, hiztun berri askok familian euskara transmititzea erabaki dute eta modu horretara sare garrantzitsu eta oso esanguratsua sortu dute, ez bakarrik seme-alabei begira, baita euren erabilera bermatzeko ere.

Lagunen sareak, zalantzarik gabe, oso eraginkorrak izan daitezke erabilerari begira, bereziki hiztun gazteentzat, lagunek nerabearoan duten garrantziagatik. Gure ikerketako gazte batzuk lagunartean euskara baino ez dute erabiltzen eta beste batzuk, berriz, ia inoiz. Ikus ondoko bi kasuak: Gazte-BI-C Arratian bizi da eta Gazte-GE-A Getxon. Garbi dago testuinguru soziolinguistikoak, beste arrazoen artean, asko eragiten duela gazteen lagun-sareetan harreman-hizkuntza ezartzerakoan:

(96) Nik **beti eiten dot euskeraz koadrillan** eta danok eiten dogu euskera, ze inoiz ez dogu iten erderaz. Igual baten batek esaten dau lelokeriren bat erderaz, baina... (Gazte-BI-C, 105)

(97) Eta gero lagunekin, justu lagun konkretu batzuekin bai, gehiengoak dakigu euskeraz baina **batzuek hitz egiten dute eta beste batzuek ez**. (Gazte-GE-A, 133)

Azkenik, **lana**. Lana ez da eremu pribatua baina erabilerari begira garrantzitsua da bertan ematen dugun denboragatik eta, gainera, lankideekin harreman oso esanguratsuak egin daitezkeelako. Eremu hau oso berezia da, egunerokoan euskara asko erabiltzen duten batzuentzat euskarak lanean lekuri ez daukan bitartean, gutxi erabiltzen duten batzuentzat euskara erabiltzeko eremu bakarra edo ia bakarra delako, adibidez, Sestaon bizi den neska honentzat:

(98) Eta euskera normalean ez dut erabiltzen, **euskera lanean erabiltzen dut batez ere**, ze irakaslea naiz, hori XX [izena] ikastetxean, ta, ta hori, umeein, besterik ez. (SE-E, 33)

Sare-motaz aparte, **sare horiek zelakoak diren** ere kontuan hartu behar da, erabileran zelan eragiten duten aurreikusi nahi bada. Sareen hizkuntza nagusia euskara izateaz aparte, beste ezaugarri batzuk ere bete behar ditu hiztun baten sare-multzoak eraginkorrak izateko: sare kopurua, hiztunarentzat esanguratsua, intimoa izatea, eta egonkorra, aktiboa izatea. Ezaugarri hauek ondorengo adibidearen bidez erakutsiko dira:

(99) –Baina koadrilarekin edo... (SE-M2, 35)

–Ez, erdaraz beti. (SE-E, 36)

–Euskaldunak dira? (SE-M2, 37)

–Bai, baina erdara erabiltzen dugu. Hori bai, erabiltzen dut euskera izekorekin, bera Bermeokoa dalako eta beti euskaraz hitz egiten duelako, ta amumarekin, baina ja gitxi, así que, hori... (SE-E, 38)

SE-E partaideak aurreko bi aipuetan adierazi bezala, euskara gutxi erabiltzen du, batez ere lanean, eta umeekin, ez lankideekin. Ezin esan daiteke hiztun horrek sare aktibo esanguratsu asko dituenik. Duen familia barruko sarek bakarra ez da oso aktiboa, izekoarekin, eta biok bakarrik daudela, noizean behin baino ez duelako euskaraz egiten. Momentu honetan aktiboen daukan sarea lan eremuari dagokio. Hala ere, bere ikasleak oso txikiak dira eta urterik urtera aldatzen doaz. Hortaz, partaide honentzako euskarak ez dauka lekurik benetan esanguratsu, trinko eta aktiboak diren sareetan¹, familia hurbi-lak (gurasoak eta neba, bere kasuan) zein lagunek osatutakoetan.

Sare trinko eta esanguratsurik ez duten hiztun berri batzuk **euskara erabiltzeko estrategia moduan sare berriak egitea** erabiltzen dutela azpimarratu behar da; nahita, modu konstzientean, eta oso jarrera proaktibo handia erakutsiz erabili daiteke estrategia hori, adibidez lagun berri euskaldunak bilatzea:

- (100) – Bai, bai, ari gara **lortzen**, holan, taldetxo euskalduna egiten. (Gazte-GE-C, 101)
– Horrek esan nahi du koizientea eta nahita egin duzula, ahalegina egin duzula, ezta? (Gazte-GE-M1, 104)
– Edozein hizkuntza minorizatuan izango da, ez, baina euskararen kontuan **ahalegina** dala, eta **aukera** dala, eta egin behar dozuna **esfortzu handia** hortik ateratzeko eta **aukerak egiteko**, ez?, ez da bat ere erraza. Ordun, ba, badago eremu bat, oraindik lagunak ditut gazteleraz egiten doguna, baina beste batzuk, eta berriak batez ere, euskaraz egiten doguna, orduan, bueno, poliki-poliki. (Gazte-GE-C, 115)
– Orduan lagun euskaldunak topatu dituzu. (Gazte-GE-M1, 108)
– Hori da. (Gazte-GE-C, 109)
– Eta **kontzienteki bila joan zara?** (Gazte-GE-M1, 110)
– **Bai**, pixkat bai. (Gazte-GE-C, 111)

Beste batzuk, berriz, **benetako sareak egitea oso zaila** ikusten dute, baina gutxiengo erabilera bermatzeko **beste estrategia batzuk** erabiltzen dituzte, adibidez, seme-alaben andereñoi beti euskaraz egitea:

- (101) Ni saiatzen naz ba andereñoekin beti euskaraz hitz egiten. Bueno, haiek badakite ba nik euskara dakidala, baina bueno, niretzat, hori, ahalegin handia da, zeren, bueno, ez dut erreztasunik, eta beldur naz akatsaren bat sartzeaz. (SE-C, 82)

Sare trinko, esanguratsu eta aktiboen faltan, erabilera-aukerak sortzeko beste estrategia batzuk aipatu dira, hala nola, lehen hitza beti euskaraz egitea, merkataria euskaldunen zerrenda egitea, euskarazko kultura kontsumoa egitea, adibidez zinema, antzerkia edo bestelako kultura-saioetan euskarazko ekitaldietara joatea, edo euskaldunen dendak edo tabernak hobestea. Adibidez, Gasteizko mahai-inguruan erabilera-aukerak ugaltzeko holako estrategia batzuk aipatu dira:

¹ Aipatzekoa da, sareen ezaugarri hauek denak bereiztea bereziki lagungarria izan da erabilerari begirako hiztun berrien profilak zehazteko orduan.

- (102) –Baina da modurik, edo da modu bakarra euskarak irauteko. Nik badaukat lagun bat sartzten den denda, taberna, leku guztietan lehenengo hitza euskaraz. (GA-A, 163)
 –Militantea. (GA-E, 164)
 –Bai, **bilatzen ari dana da euskaldun bat**, eta ez dakit apuntatzen duen, baina behin batean egin zuen Geu Gasteizen artikulua bat eta erakutsi zuen Dato kalean zenbait dendetan euskaraz egiten da, ni harrituta gelditu nintzala. Hasten zen, ez dakit zer, Goiaren ondoan dagoen denda honetan euskalduna dago, JGn, bestian... (GA-A, 165)
 –Gida bat euskeraz (GA-E, 166)
 –Bai, eta da modu bakarra. (GA-A, 167)
 –Hori komenigarria izango litzateke egitea, euskara gida. (GA-D, 168)

Estrategia hauek sare trinko eta egonkorrak egiteko balio ez badute ere, oso baliogarriak dira testuinguru oztopotzailean erabilera-aukerak ematen dituztelako. Halako testuinguruan euskara erabiltzeko aukerak bilatzen dituztenen artean *praktika-komunitateak* (Meyerhoff 2002) sortu daitezke: jardueraren baten inguruan kideak biltzen dituen helburua euskaraz berba egitea da, adibidez, Bilboko Kafe Antzokian sortzen diren ekimenen inguruan.

Gure subjektuek argi eta garbi berretsi dute testuinguru soziolinguistikoaren garrantzia. Haatik, ikusi dugunez, testuinguruak ez du guztiz baldintzatzen hiztun berrien esperientzia: haien gizarte-sareek garrantzi handia dute, testuinguruaren eragina neutralizatzen dituztena. Euskaldunen ehunekoa txikia izan eta ohiko hizkuntza gaztelania den inguruetan ere (esaterako, Vitoria-Gasteizen edo Bilbo Handian) posible da euskal hiztun aktiboa izatea, lagun talde euskaldunak edukiz gero, etxeko hizkuntza euskara izanez gero edo lanean euskaraz eginez gero. Hurrengo ataletan, hizkuntza erabiltzeko jautzia emateko orduan eragina duten beste elementu batzuk aztertuko ditugu.

4.2. Erabilera baldintzatzen duten beste gako batzuk

Testuinguru soziolinguistikoa eta norberaren sareez gain, badaude beste aldagai batzuk erabileran eragina dutenak: **gaztelaniaren presioa, ohitura, eta hiztunaren gaitasuna**. Normalean partaideek ohitura edo gaitasuna aipatzen dutenean oztopo bezala aurkezten dute, baina ez da beti horrela zertan izan. Ohiturari dagokionez, hiztun berri askok gaztelania ezarri dute harreman hizkuntza eta oso zaila egiten zaie aldatzea; beste batzuk, berriz, euskara ezartzea lortu dute. Eta gaitasunari dagokionez, gaitasun gutxiko hiztunentzat gaitasun-falta euskara erabiltzeko oztopo argia da, baina gaitasun onekoentzat hori ez da arazo. Ideia hauek jarraian garatuko dira.

4.2.1. *Gaztelaniaren presioa oro har*

Gaztelaniaren presioa handia dela aipatu dute partaide askok, testuinguru oztopotzailean bizi direnek ez ezik mesedegarrian bizi direnek ere. Gainera, testuingurua gora behera, euskara erabiltzeko norberaren esku dagoena ere askotan ez dugula egiten azpimarratu da, alperrak garelako edo errazenera jotzen dugulako, batez ere lan eremuan:

- (103) –Badakozu ba igual zure biharra badakozun, zera, liburuek edo zelan, euskeraz, ba igual ikasten'zu, igual, edo ez da(k)it, edo behar ba'zun zeozer, bai erabilgarrie, zeozer zure beharrarako, ta euskeraz, ba igual ateraten'zu, baina eske **dana erderaz dau**, osea, eta **erderaz dagoen lez...** (BE-A, 302)
–**Errezena**, errezena. **Alperrak gara**. (BE-B, 303)
- (104) Baña esan gura dotena da beste elementu bat igual kontuan hartu ez doguna da eguneroko bizitzan **praktikotasune**, edo emankortasune, **operatibidadie**, osea, egoera konkretu batzutan, geure planteamendua ez da zuk lehen aipatu duzun militantzixe, euskeraren aldeko postura kontziente bat egingo dodala, ez da berezko joera bat, baizik eta operatibidadie, errezena zer da? Egoera konkretu honetan, **zer da errazena?, lan gitxien eskatuten dostana?**, zer da? (BI-C, 215)

Gaztelaniaren presioa, bai testuinguru soziolinguistikoan (hiztun kopuruan) zein hizkuntzak daukan prestigio handian (gizarte mailako garrantzian) antzematen da, laun euskaldunek gaztelaniara pasatzeko duten joera erakusle, partaide gazte honek adierazi bezala:

- (105) **Galdakaon bez ez da iten euskera askorik**, asike igual koadrilako batzukaz bai iten dozu euskeraz eta beste batzukaz ez hainbeste, igual beste batzuk ja pasaten dira erderara, ba ez dakit, lar arin edo, eta ordun ez dau emoten hor denborarik beragaz euskeraz berba egiteko edo. Eta azkenean be bai igual **gaztelaniak igual garrantzi handiago dekonez**, ba igual besteak be bai pasaten dire gaztelaniara. (Gazte-BI-B, 81)

4.2.2. *Ohitura*

Arestian esan bezala, partaideentzat erabilera-praktikak azaltzeko beste gako garrantzitsu bat hizkuntza-ohitura da, hau da, norberaren sareetako pertsona jakinekin, euskara ala gaztelania ezarri den harreman-hizkuntza modura. Izan ere, ohiturei buruz hitz egiten denean oso gutxitan aipatu da pertsona batekin hizkuntza biak izatea harreman-hizkuntzak, nahiz eta askotan aipatu den hizkuntza-kudeaketan pertsona batzuekin gaztelania eta euskara biak erabiltzen direla. Hortaz, ohitura-hizkuntzaz hitz egiten denean pertsona jakin batekin *gehien bat* erabiltzen den hizkuntzaz edo *eurak bakarrik ari direnean* (kanpoko eraginik gabe) hobesten duten hizkuntzaz ari direla interpretatu behar da.

Harreman berriak egiterakoan zein hizkuntzatan hasten diren solaskideak, hizkuntza horretan jarraitzen dela esan dute partaide askok eta, gainera, **oso zaila dela hizkuntza hori aldatzea**. Gaztelaniaz hasitako harremanek gaztelaniaz jarraitzen dute baina euskaraz hasitakoek euskaraz jarraitzen dutela ere askok aipatu dute:

- (106) Lagun batzuekin **ohitzen baldin bazara euskaraz** egiten ja hortik aurrera **beti euskaraz** egiten duzu beraiekin, beste batzuekin berriz, nahiz eta jakin ba, agian ez duzu inoiz egin eta ez dugu haiekin egiten. (GA-A, 12)
- (107) Segun eta nola ezagutzen duzun pertsona bat, ba aurrerantzean, ba mantentzen duzu hori itxura, ba **euskeraz ezagutzen dozun pertsona batekin normalean joera naturala da beti euskeraz egitea, eta alderantziz**, osea, erdaraz ezagutu badozu... Hori ere bai igertzen da. (BI-C, 30)
- (108) Eta ni horretan konturatu naiz, gero Sestaon bada jendea, Sestaon euskaraz ezagutu du-dana, batez ere XXX [SE-A partaidearen izena], esate baterako, edo beste lagun batzuk etorri direnak gero, **eta hoiekin harremana euskaraz egin dugunez betidanik, beti egiten dugu euskaraz**. Eta niri oso zaila egiten zait haiekin erderaz egitea. Askotan taldean dagoenean jendea ere euskaraz dakiena, nik haiekin egiten dut euskeraz normal, normal, ezin dudalako horrekin erderaz egin. (SE-D, 143)

Gainera, harremana zenbat eta estuagoa izan are zailagoa egiten da harreman-hizkuntza aldatzea azken partaideak azpimarratu duen bezala:

- (109) **Zenbat eta hurbilago izan harreman bat, zailago da gero hizkuntza aldatzea**. Eta batzuk dira beti-betiko lagunak, gero euskara ikasi dugu bakoitzak bere bidetik, eta oso zaila egiten zaigu euskarara pasatzea. / Eta nik uste dut hori dala arazoa, askotan harremanak, eta sareak, eta hizkuntz ohiturak zein diren. Hori oso zaila da aldatzea. Eta hori, zenbat eta hurbilago izan harreman, are zailago. (SE-D, 140/144)

Harreman-hizkuntza aldatzea zaila dela onartuta ere, batzuk ez dute gainditu ezineko oztopo bezala antzematen; izan ere, zenbaitek familia barruko harreman estuetan ere, nebarreben artean hain zuzen, aldatu egin dute. Hona hemen adibide bat:

- (110) **Nire anaia eta bion artean beti gazteleraz ein deu, biak ikasi arte**. Orain biak bizi gea Zumaian, **eta oin gure harremana euskeraz** da, hola. Eta inoiz erderaz hasten bagea, eta pixkat raro, bai, ja, bai, bai jendekin eta nik ohitura hoiek aldatu ditut, ja euskeraz, eta orain erdera oso, oso, oso gutxi, kanpo(r)a, laneko ez dakit zer, ez bada, kanpora jun behar dezula eta hori, baina hemen, Zumaian behintzat gehien, gehien, ba euskeraz. (ZU-F, 117)

Testuinguru mesedegarrian bizi diren hiztun berri batzuk harreman-hizkuntza aldatzeko oztopoa askotan «euskaldun zaharrak» eurak direla azpimarratu dute:

- (111) **Jendea ohitute dau zugaz hizkuntza baten berba iten**, eta, niri pasa jat, esate baterako, neuk ez nekien euskeraz eta erderaz iten nuen, orduen ikasi nuenean, edo ikasten ibili be bai, nik gogoratzen dot igual tabernara sartu eta (...) **nik eskatu euskeraz eta berak erantzuten eustan erderaz**, diot «joer baina zuk euskeraz (eg)istezu niri», «nik ezin dotsut zuri euskera egin», eta holan pasaten jatan jende askogaz, «baina aber, mesedez, ni euskeraz nabil iten, ez dakitelako eta ikasi nahi dot, eta zuek erantzuna erderaz iten dostazue, jolin, baina mesedez», eta holan ibili behar izan nintzen, jendeari «aber, mesedez, in...», **«joe, eske nik zuri urteetan erderaz egin dotsut eta orain ez doste urtetan zuri euskeraz berba itea»**. Eta hori izan da urteetan. / Nire emakumea, ba bueno, ba beragaz hasi nintzenean nik ez nekien, ezta?, euskeraz, eta orduan ba gure harremana be bai zen erderaz. Eta gero ikasi eta gurean, eta berak erantzunak niri erderaz, «jo, hau itzela, jo ni Malagan jaioa eta zuek Dimeko ez dakit nongo baserrian eta neu(k) zuri eskatu behar euskeraz iteko». (ZEA-D, 110/112)
- (112) Nik bizi izan dotena behintzat da neuk **eskatzea «mesedez neuri euskeraz egin, egin mesedez euskeraz, bai, ba'kit zuk dakizula gaztetan edo, txikitxen edo, neure aite ezagutute, bakizu zuk ba nik familien edo giroa erdaldune edo izan da, baina mesedez»**, edadeko jenderi batez be, «mesedez», bai, nik euskeraz eta eurek erderaz erantzun, eta nik euskeraz eta... Ni esfortzua eitxen, kriston esfortzua eitxen ta eurek erderaz. «Mosedez, neuri euskeraz». (BE-C, 95)

Hizkuntza-ohituraren garrantziaz jabeturik eta aldatzea oso zaila dela iritzita, harreman berrietan euskara ezartzeko ahalegin kontzientea egiten dute batzuk euskararen aldeko ohitura finkatzeko **estrategia** modura, eta euskararen aldeko jarrera proaktiboa erakutsiz:

- (113) Azken finean hasten zea batzuekin hitz egiten euskeraz, eta bueno, normalen jarraitzen'zu erderaz hitz egiten betidanik erderaz hitz egin dezuenekin, baina bueno, ja gero **lagun berriekin edo jende berriekin, badaezpada ere, lehenengo gauza euskeraz**. (TO-A, 11)

Antzeko estrategia buruan, BE-A partaideak, Bermeoko jendearekin harreman-hizkuntza euskara ezartzeko, aldatzea oso zaila delako, euskara arin-arin ikastea erabaki zuen, bertara bizitzen joateaz batera:

- (114) Ni Alacant, Alacantekoa e'nai(z), ni nai(z) herri batekue (...). Han, geuk, nire familie valencianoparlante da, osea, geuk eitxen d(og)u valencianoz (...) eta hona etor naien (...) ba bihar eitxeko (...) ba pentsa dot, ba bueno, ba **«hasikeratan ikasi in bihar dot euskerie, ze ostantzien honeek jendiek eingo daue geuk eitxen du(gu)n moduan»**. Osea, nik ikusten badot jendia **erdaraz** berbetan, nik ipintxen dot txipe eta hurrengokoen erdaraz ingo dotsat. (BE-A, 52)

Bestalde, aipamen berezia merezi du **murgiltzean ikasi duten eta testuinguru oztopotzailean bizi diren partaide gazteen kasua**: txikitan ohiturak gaztelaniaz ezartzen dira, ez oso modu kontzientean, eta gero harreman horietako hizkuntza aldatzea oso zaila da:

- (115) Guztiok ikasi dogu euskeraz beti, beti, beti, beti. (...) Eta ez dakit moda bat den, edo moda bat zen, ez dakit, hamar urte genitunean, eta hamasei urte genitunean baita, baña **ohitura**, nire ohitura beti izan da **gaztelera hitz egitea**. (...) Baña beti, beti, beti, beti, patioan eta klasean baita gure artean hitz egiterakoan, beti gaztelera. Eta bueno, gero, ikastolatik irten eta gaur egun ere beti hitz egin dugu gaztelera. **Eta ez da** euskararekiko, ez dakit, **zailtasuna** daukagulako (...) baña ez daukagu ohiturarik, ez daukagu. Osea, **geure arteko hizkuntza kulturala eta harremanetarakoa gaztelera da**. (BI-A, 23)
- (116) Eske ni adibidez, nere kuadrila txikitatik daukat, ez?, eta ohitura dakagu erderaz hitz egitea, eta nik kuadrilarekin jarraitzen det, eta ordun ba, **ohituragatik jarraitzen deu erderaz** hitz egiten, eta **oain hogeita bat urtekin derrepente esatea «benga, denak euskeraz hitz eitea», ba arraro** izango zen, ez? Eta ordun ba, ez det planteatu baino, ez dakit. (Gazte-DO-B, 245)
- (117) –Gustatuko litzaidake baina lagunekin eta horrela ez dago aukerarik. Eta ohiturak aldatzea, be bai, ez da erraza. / Bai, batzuk bai [euskaldunak dira], baina eske **betidanik txikitatik hitz egin dugu gaztelaniaz eta arraroa da euskeraz** hitz egitea orain. (Gazte-GE-D, 167/171)
 –Bai. Saiatu zarete inoiz? (Gazte-GE-M1, 172)
 –Bai, batzutan bai, baina hori, hasten garela eta bueno, minutu batzuetan ja hasten gara gaztelaniaz hitz egiten, eta ja está. (Gazte-GE-D, 173)

Partaideek **gaztetan ohiturak gaztelaniaz ezartzeko arrazoiak** azaltzerakoan hiru osagai hauekin lotuta daudela ikusi da: **testuinguru oztopotzailea, euskara-eskola irudia eta kontzientzia-falta**. Batetik, testuinguru oztopotzailean bizi direnez, beraien inguruan euskaraz hitz egitea ez dela ohikoa esaten dute (ikus 4.1.1ean (85) aipuan). Gauza jakina da gazte horiek aukera oso murriztak dituztela ikastetxetik kanpo euskara erabiltzeko. Gainera, kontuan hartu behar da hiztun horiek ez dutela euskaldun oso asko inguruan eta, beraz, erabilera-aukerak are gehiago murrizten direla. Bestetik, gazte askok euskara eskolarekin lotzen dute eta azpimarratzen dute eskolatik kanpo ez dutela kontsideratu ere egiten euskaraz egitea.

Testuinguru horietan ikaskideekin harremanak ez dira euskaraz ezartzen. Ikus dezagun azken ideia horretaz partaide gazte batek esandakoa: umetan egin zituen harremanetan, kontzientziarik ez zeukan eta, gaztelania ezarri zen harreman-hizkuntza, baina helduagoa izan denean egin dituen harremanetan modu kontzienteagoan jokatu du eta, kasu batzuetan, euskara ezarri da harreman-hizkuntza:

- (118) Nik unibertsitatean egin nituen lagunekaz euskaraz egiten dut, ba Markinako bat, Azpeitiko bat, Azkoitiko bat, Zarautzeko bat, eta normaltasunez hartzen duzu. Baña, ez dakit, **bost urte, sei urte dituzunean, horrelako, ez dakit, horrelako jarrerak edo jokabideak ez dituzu barneratzen eta ez dakizu benetan zelako papera jokatu duen hizkuntzak zure bizitzan**. Eta hartzen duzu, ez dakit, horrelako rol bat, eta **gaztelera hasten zara erlazio izaten eta gero hori aldatzea...** (BI-A, 32)

Ez da ahaztu behar, alabaina, seguruenik BI-A partaideak eskolan egin zituen lagun gehienak bere moduko hiztun berriak zirela eta unibertsitatean egindako batzuk, aipatu

dituenak behintzat, etxeko euskaldunak. Izan ere, harreman-hizkuntza ezartzerakoan askoz errazago da euskaldun zaharrekin euskara hobestea (ikus 4.5.1 (142) eta (143) aipuak).

BI-D partaide gazteak, BI-Ak bezala, ezberdintasuna ikusten du eskolan hasi diren harremanetan eta unibertsitatean hasi direnen artean: lehengoetan gaztelania ohitura-hizkuntza ezarri zen eta holan geratu da, eta bigarrenetan, batzuetan behintzat, ezarri den hizkuntza euskara izan da, eta hizkuntza horrek dirau harreman-hizkuntza bezala:

- (119) Ohitura kontua da hori, ezta? Gura dot esan, neuri bere bai, pasetan doste, ikastolan ikasi nebala euskaraz eta beraz, nire klasekide guztiak eta, beraz, nire koadrilako pertsona guztiak badakigu euskaraz, baña inoiz ez dugu gure artean euskaraz berba egin. Eta **ohitura kontuagatik gaur egun arraroa izango litzateke gure artean be bai euskeraz** egitea. Halanda be, irten nintzanean unibertsitatera, eta nahiz eta gaztelaraz egin karrera, ba **hor topatu nauzen beste pertsona euskaldunak** bere bai, eta **horrekaz euskaraz hasi nintzen berbetan eta orain arte**. Horiekin arraroa izango litzateke gaur egun adibidez gaztelaniaz egitea. (BI-D, 29)

4.2.3. Gaitasuna

Gaitasuna edo gaitasun falta erabilerarako gako garrantzitsua da. Gaitasun ez nahikoa dutela sentitzen dute hiztun berri askok, eta hori euskara erabiltzeko oztopo handia dela. Helduek ere aipatzen badute ere, harrigarria da zenbat gaztek aipatu duten gaitasunarekiko kezka.

4.2.3.1. HELDUAK

Ikus dezagun lehendabizi helduek erakutsi duten gaitasuna dela-eta segurtasun-eza. Batzuk zeregin batzuetarako, berezituak edo garrantzitsuak direlako, eta duten gaitasun murriztua dela eta, **gaztelaniara jotzen dutela** azpimarratu dute. Esaterako, administrazioarekin eta hizkera administratiboarekin zerikusia duten zereginak:

- (120) Ni ondiño nago hemen leku guztietan ez dut eitxen berba euskeraz, **ni banuen [banoa] udaletxera** eta in bi'dot berba ba, konzejal bategaz edo tekniko bategaz, ni **gaztelaniaz, ia ez badut ulertzen zeozer garrantzitsua eta ez nai(z) fidatzen...** (BE-D, 309)
- (121) —Baina azkenean zu juten baldin bazara Haziendara **gauza garrantzitsua**, zuretzat e, egiteko edo azaltzeko, zein hizkuntza erabiltzen duzu? (ZEA-A, 240)
—Baina hori da ja hizkuntza tekniko dalako, eta orduan zelan ez dozu menperatzen legeak eta dekretuak, eta horiek guztiek, joe, euskeraz oso zaila da gainera, eta ikasi dogunok, gure ikasketa guztiak erderaz egin dogunok be, ba, ba, atera kontue. (ZEA-D, 241)
—Nik **behintzat beti garrantzitsua baldin bada**, niretzat, garrantzitsua, oso garrantzitsua, **erderaz, erderaz eta erderaz**. Gero bai, igual hemendik, ez dakit zer eskatzeko, edozein

gauza, pues igual bai euskeraz, baina garrantzitsua baldin bada... / Igual badaki euskeraz, igual euskaldun zaharra da, baina nik ez diot ematen oportunitaderik hitz egiteko euskeraz. (ZEA-A, 242/244)

lido beretik, gauza garrantzitsua bada gaztelaniara pasatu behar dela aipatu du beste partaide batek, berarentzat euskaraz berba egitea oraindik ere erronka delako bere **gaitasun mugatuagatik**:

- (122) Niretzako euskera ikastea da, osea, **hitz egitea da erronka, eguneroko erronka**, zeren zeoz **garrantzitsu** bat gura dudanean, **behar dot erderaz esatea**. (ZEA-F, 99)

Gaitasunarekin batera **beste oztopo asko** ageri daitezke aldiberean, Sestaoko hurrengo emakume honek oso ondo laburbiltzen duen bezala: testuinguru soziolinguistikoa («ez dago girorik»), gaztelaniaren presioa, sare trinko eta esanguratsu falta, gaitasuna dela eta konfidantza eta erraztasun-eza, erosotasuna eta erdaldun elebakarrak edo euskara gutxi dakitenak beti inguruan, senarra barne:

- (123) —Erabiltzen dut, lanean, batez ere, ba, hitz egiten nahiko gutxi, batez ere idazten / Gero, ba, hemen, **Sestaon**, nik uste **dut ez dagoela giro euskalduna. Oso zaila da hitz egitea**. Alde batetik, bueno, ba alfertasunagatik, guztion alfertasunagatik. Hemen, Sestaon badago jende askok euskara hitz egiten duena, baina ez dute, ez dugu erabiltzen / Nik erabiltzen dut umeekin... / Nire umeekin. Nik baditut bi ume, eta haiekin bai, **baina nire senarrak ez daki**. Ordun, ba etxean oso zaila da ba elkarriketa bat eukitzea. Ta gainera, ba umeak txikiak direnez, ba, hombre, ba elkarriketa gozoak, ba ez ditugu. / Ni **saiatzen naz ba andereñoekin** bati euskaraz hitz egiten. Bueno, haiek badakite ba nik euskara dakidala, baina bueno, niretzat, hori, **ahalegin handia da**, zeren, bueno, **ez dut erreztasunik, eta beldur naz** akatsaren bat sartzeaz. / Gero, ba, koadrilan, ba, adibidez, nik badakit jende, osea, lagun batzuek bada-kite euskara, baina gero beste batzuek ez dakite. Ordun, azkenean, ba erderaz. / Eta gero askotan gertatu zait, bai lanean, bai kalean, **hasten zarela euskaraz hitz egiten, baina amaitzen erdaraz**. (SE-C, 77-84)
- Eta hori zergaitik izaten da? (SE-M2, 85)
- Ba nik uste dut, hori, **erosotasunagatik**, badago beti zerbait nahiko zaila egiten zai-gula, hori, ba euskeraz esatea, eta, bueno, azkenean **hasten zara euskararekin eta amaitzen zara erdararekin**. (SE-C, 86)
- Denak, osea, euskaldunak, zure modukoak edo...? (SE-M2, 87)
- Bai, nire modukoak, nire inguruan oso jende gutxi dago euskaldun giroan bizi dena. Ba, adibidez nire koinatuak badaki euskara (...) eta nik haiekin ba saiatzen naz euskaraz hitz egiten, baina azkenean **oso zaila da**, badaude hortik, ba nire ahizta, nire senarra, nire ama, edo, ba... (SE-C, 88)

4.2.3.2. TESTUINGURU OZTOPATZAILEAN BIZI DIREN GAZTEAK

Partaide gazteek kezka handia erakutsi dute gaitasunarekiko eta euskara ez erabiltzeko arrazoi garrantzitsu bezala gaitasun mugatua aurkeztu dute, batez ere testuinguru oztopotzaileko murgiltzeko gazteek. Kontuan hartu behar dugu hiztun berri

gazte gehienek murgiltze ereduak ikasi dutela euskara eta askorentzat hori euskara erabiltzeko eremu bakarra izan dela. Gauzak horrela, oso momentu kritikoa da hezkuntza arautua amaitzen duten unea. Eskolaz kanpoko erabilera ez badute garatu (testuinguru oztopotzaileetan gehienek kasua hori da) bat-batean euskara erabiltzeko aukerarik gabe geratu daitezke. Hiztun-mota horretan erabilera eta gaitasuna erabat lotuta daude, eta askok esan dute gaitasuna murriztu daitekeela momentu horretan.

Azpiatal honetan ideia horiek zelan adierazten dituzten aurkeztuko da eta, motibazio eta konpromisoaren arabera zelako estrategiak baliatzen dituzten egoera horri aurre egiteko.

Batetik, gazte askok **gaitasun ez nahikoa izateagatik jotzen dute gaztelaniara**. Ikus ondorengo bi aipu hauek, bat Trapagarangoa den gazte batena da eta bestea Galda-kaoko gazte batena:

- (124) Nire koadrilan, adibidez, gertatzen dena da jendea, uste dut, **ez dela erosoak sentitzen euskeraz** hitz egiten, askoz erosoago sentitzen dela gaztelaniaz hitz egiten, zeren ez dakite oso ondo gauza batzuk esaten, (...) eta **horrexegatik ba ohitura izan da gaztelaniaz** hitz egitea ba txikitatik, eta horrexegatik hitz egiten dugu gaztelania. Niri, adibidez, ere bai unibertsitatean gertatzen zaidana da, ba, noizbehinka ba arbelara irten behar naizenean ba zerbait hitz egiteko edo, zertxobait(i) buruz, edo power-point bat esplikatuko behar dudanean edo, ba esaten dut «lo voy a preparar», ¿sabes?, **eske ez daukat konfiantza** nigan, ¿sabes? Horrexegatik, eta, eta beti, eta gainera nire klasekideek ba ere bai, osea, euskaldunak dira eta batzuk Gernikakoak, beste batzuk ba Bermeokoak, baina, klaro, gure artean gaztelaraz hitz egiten dugu, eta beraiek noizbehinka esaten didate «bua, la has preparado, has metido una gamba...», klaro, eske azken finean nik ez daukat konfiantza asko euskeraz hitz egiteko. (Gazte-BI-E, 195)

- (125) Bai, [lagun] danak hemengoak gara baina **batzuk ez dekien hainbeste erreztasunik** edo, eta orduan ba arin pasaten dire gaztelarara. (Gazte-BI-B, 85)

Ikusi den bezala, partaide gazteen gaitasun-falta adierazteko *erreztasuna* (erreztasun falta), *erosotasuna* (erosoago gaztelaniaz), *konfiantza* (konfiantza falta) adierak erabili dituzte.

Ondoko partaide honek euskaraz ahalegina egin behar izatea (*kostatzea*), eta **gaztelaniaz hobeto sentitzea** aipatu ditu gaitasun faltaren erakusle, bere hizkuntza-biografia txiki honetan ikus dezakegunez:

- (126) Nere gurasoak Erreterin bizi ziren, ez?, eta zazpi urte, zazpi urte, joe, bete ondoren ba Donostira etorri nintzen. Txikitatik ikastola batean egon naiz eta batxilergoa ere euskaraz egin nun, eta gero unibertsitatean ja klase guztiak erderaz egin ditut, igual uste det euskararik pixkat, gorrotoa ez, baina **kosta egiten zait euskara hitz egitea eta idaztea**, ez? Eta lagunekin, adibidez, erderaz hitz e(g)ite det eta nere ingurunean gaztelaniaz hitz iten

det eta orduan idazterako garaian eta hitz egiterako garaian hobeto sentitzen naiz gaztelaniaz egiten. Euskara gustatzen zait eta hori guztia, baina hobeto sentitzen naiz erderaz hitz egiten, errezagot egiten zaidalako. / Ez, ez daukat arazorik baina, ez dakit, **hobeto sentitzen naiz erderaz**, errezagot egiten zait. (Gazte-DO-B, 33/82)

Hiztun berriek askotan **lotsa, konplexua edo ez ulertzeko beldurra** sentitzen dute eta horrek konfidantza kentzen die eta erabileran ondorio negatibo garbia dauka. Sentimentu horien arrazoen artean gaitasun «ez-oso» dago baina ondokoak ere aipatu dituzte: euskalkia ez ezagutzea (eta, ondorioz, euskaldun zaharrei ez ulertzeko beldurra) edota eurek batua baino ez jakitea eta hori gabezia moduan sentitzea (ikus. 6.3.2.), ondoko gazteek adierazi bezala:

(127) Nire klasean daude ba Gernikako, Bermeoko jendea, eta hitz egiten dutenean, ba bueno, imposible. / **Ez da ezer ulertzen, bueno, nik ez dut ulertzen**. (Gazte-BI-G, 20 /22)

(128) Nik batua ikasi dut eta askotan gertatu zait hitz egitea euskaraz eta [besteek niri] begiratzeari horrela en plan «joe, baina zuk batueraz egiten duzu, **hori ez da euskera**». / Bai, edo igoal gipuzkeraz hitz egiten dutenek, unibertsitatean. Eta orduan, joe, **sentiarazten zaitu beste maila baten zaudela**. (Gazte-GE-D, 349/351)

Euskara familian ikasi dutenekin egindako mahai-inguruetan ere irten da gai hori. Hiztun berri gazteek euskaldun zahartzat hartzen dituztenen aurrean askotan erdarara jotzen dute lotsagatik:

(129) Bai, eta **txikitu iten dire**, ze zuk oso ondo dakizu, badakixe XXX-ek [Zahar-BI-D partaidearen izena] oso ondo itxen dabela eta esaten dabe «**jo, es que, buff, nahi dot** XXX-ri [Zahar-BI-D partaidearen izena] **erderaz egin**». (Zahar-BI-E, 64)

(130) Be bai pasaten da baina **euskaldun berriek** be bai **askotan dekie lotsa**, osea, nik adibidez, nik klasean, osea, asko nekien euskeraz, eta esan dotsue, «joe, he ganado tal..» eta dekie lotsa pentsetan, ez baina..., niretzako euskaldun barri bat niri euskeraz eixie, osea, osea, niretzako oso ona da. (Zahar-BI-F, 75)

Baina gaitasuna ez da oztopo murgiltzean ikasi duten partaide guztientzat: batzuk **hizkuntza bietan gaitasun ona** dutela adierazi dute eta, beraz, haientzat, gaitasuna ez da oztopo, erabilerarako gako garrantzitsu baino, adibidez ondoko partaide birentzat:

(131) –**Ni bietan moldatzen naiz ondo**, ze ikusten det, joe, txikitatik eitzen erderaz einetz gero, pues no sé, ja como que barneratua dakat, eta gero euskeraz, ba, urtekin ta ikasten jun naiz eta ordun antzekoa be bai eta ondo, problemik ez dakat, así que... (Gazte-DO-F, 157)

–Ni berdin be bai, **gatzeleraz ta euskeraz berdin zait**. Irakurri bai, beti gatzeleraz gehio egin dut, berdin zait euskeraz o gatzelaniaz. (Gazte-DO-D, 159)

Arestian esan den bezala, gaitasuna eta erabilera erabat lotuta daude, Donostiako gazte hauek esan duten moduan:

- (132) –Bai, pixka bat bai [muga bezala ikusten dut euskara], ze daukazu hizkuntz bat, gaztelania dela oso, oso sartuta, eta beste hizkuntzetan, ez bakarrik euskera, ingelesez edo frantsesez aritzean **lehenengo pentsatzen duzu gaztelaniaz** eta gero ba pasatzen duzu beste hizkuntzara eta askotan arazoak daude, **edo ez duzu esan nahi duzuna esan** esaten edo... (Gazte-DO-A, 240)
- Ba nik uste dut hoi hasieran dala. Osea, nik igual adibidez hasieran, karrera hasieran hasi nintzanean euskarazko irakasgaitan ba bai, jo, kostata, baino azkenengo urtean, hirugarren mailan ikusten det ja ez naizela hasieran bezala pentsatzen, eta ez dakit, **erreztasun gehigo dakatela hasieran baino**. Nik uste det dala, ez dakit. (Gazte-DO-C, 241)
- Ohitzen zara. (Gazte-DO-A, 242)
- Bai. (Gazte-DO-C, 243)
- Ohitura eta praktika. Hizkuntza bat hitz egin behar da, bestela gutxinaka-gutxinaka hitzak eta galtzen dira.** (Gazte-DO-B, 244)

Ikasle horiek konturatu dira erabilerak haien gaitasuna hobetu duela. Erabilera mugatua denean, alabaina, gazte asko **gurpil zoroan** sartuta ikusi ditugu: **euskara zenbat eta gutxiago erabili gaitasuna gero eta gehiago murrizten zaie, eta gaitasuna zenbat eta gehiago murriztu oztopo handiago bihurtzen da:**

- (133) –Nire koadrilan gutxienez gertatzen dena da hori, lehen esan duguna, ba **ez dugunez hitz egiten gure artean, komunikazioa gero eta gehiago erraztu ez, kontrakoa.../ zaildu egiten dela**, ba nik uste dut hori dela arrazoirik nabarmenena, zeren hasten zara... (Gazte-BI-E, 173/175)
- Ez daukazuela erraztasunik, hori izango litzateke? (Gazte-BI-M1, 176)
- Hori da, hori da, nire ustez **hori da gauza garrantzitsuen euskara ez hitz egiteko**. (Gazte-BI-E, 177)
- Bai, niri gainera gertatzen zait bera(k) esan duen moduan, ba ni Trapagaranen bizi naiz, eta bueno, ez du inork kalean hitz egiten, orduan bai konturatzen zarela ba hitz egiten formalki, ba agian ez, baina gero la **fluidez**, ez dakit nola esan, ba bai **nabaritzen dela nork hitz egiten du kalean lagunekin, nork ez**, eta hori, asko gainera. (Gazte-BI-F, 16)

Gauzak horrela, erabilera gaitasuna ez galtzeko estrategia bihur daiteke. Hiztunaren motibazio eta konpromisoaren arabera erabiltzeko eremu edo aukera berriak bilatzen dituzte, besteak beste, unibertsitate ikasketak euskaraz egitea, euskaltegira joatea, euskarazko kultur-kontsumoa (ikus. 3.2.1.2.).

Gogoratu testuinguru mesedegarrian bizi diren gazte gehienek gaitasun oso ona dutela. Hurrengo partaideak euskaraz gaztelaniaz baino hobeto dakiela esan du:

- (134) Nik txikitatik euskeraz ikisi dot, in dodaz, estudio guztiak egin dodaz euskeraz, kendute urtebete, in behar izan nebala holako ziklo bat, goi mailako ziklo bat, eta in noala **gazte-leraz eta pasau neuen oso txarto**, o sea, nahiz eta famili guztia erdalduna izan, **nik erde-**

raz ez dakit berbaz, o sea, iten doaz hanka sartze batzuk, inkreibleak erderaz, o sea, oso txarra. Eta oain, a ver, ba gero azkenean ikisten dozu gehiau, gehiau, iten zara zaharragoa eta azkenean iten dozu, baia, nik ezpaere euskeraz, lagunekaz euskeraz, dana euskeraz. (ZEA-B, 86)

4.3. Proaktiboa edo errektiboa izatea: agentibitatearen garrantzia

Ikusi denez, hiztun berriek bizi dituzten zirkulantziak askotarikoak dira. Kasu batzuetan euskara erabiltzeko mesedegarriak dira, beste batzuetan erabilera oztopatzen dute. Alabaina, partaideen esperientziak aztertuta, egoerarik mesedegarrienean ere euskara erabiltzeko aukerak baliatzen ez dituenik aurkitzea posiblea da, eta alderantziz ere, hiztun berri batzuk, egoera zailenean ere, oztopoak gainditzeko modua aurkitzen dute. Gakoa agentibitatean datzala ematen du, hau da, hiztunak jarrera proaktibo ala errektiboa hartzeko daukan aukeran (ikus. 2. kapitulua).

Gure analisiak zera erakutsi du: egoera mesedegarria denean euskara erabiltzeko, sareetan parte hartzeko eta euskaraz bizitzeko jarrera proaktiboa ez dela hain beharrezkoa, baina egoera zenbat eta oztopotzaileagoa izan orduan eta jarrera proaktibo handiagoa izan behar duela hiztunak euskara erabili ahal izateko. Aurreko azpiatalean oztopoak azaldu dira: euskarak presentzia urria duen testuingurua, harreman-sare euskaldun gutxi edota ahulak izatea, gaztelaniaren presioa gizartean orohar, gaztelania erabiltzeko ohi-tura eta hiztunaren gaitasun ez-osoia. Jarrera errektiboa duten hiztun berriek ez dute lortzen oztopo horiei aurre egitea; jarrera proaktiboa dutenek, berriz, estrategiak garatzen dituzte zailtasunak gainditzeko eta euskara erabiltzeko aukerak sortzeko. Kasu batzuetan testuinguru oso oztopotzaileetan ere zelanbait «euskeraz bizi» daitekeela ikusi dugu. Ikus ditzagun bi kasu: testuinguru mesedegarrian jarrera errektiboa duen partaide batena eta testuinguru oztopotzailean jarrera proaktiboa duen beste batena. Emaitza kasu bietan antzekoa da: hiztun biek egunerokoan euskara asko erabiltzen dute, baina batean eta bestean egin behar den ahalegina eta konpromiso-maila oso ezberdinak dira.

Alde batetik, Tolosa moduko testuinguru mesedegarrian nahikoa da jarrera errektiboa izatea euskara asko erabiltzeko:

- (135) Gero ja pixkat urteak pasata ta hola zeozer gehiau hasi naiz euskeraz hitz egiten, ba sartuta nago monitore bezela eta **monitore taldeakin eta umeekin euskeraz** hitz egite de(g)u. Geo gure **koadrilan**, besteek, ni ez, baina besteek dira **familiakin euskeraz** eta beti, **ordun** gehienetan euskeraz hitz egite deu, batzutan erderaz, baino..., klaro, lehenau esaten nizu-nagatik, zeagatik, ohituragatik hasi ginan erderaz gure artean, baina bueno, oain gure tal-den sartu da gehiau euskera, eta orduan, eta ordun ba euskeraz ba gehiau erabiltzen deu, ba azkenean, ba hori, gauza, **kaletikan oin gehiau erabiltzen detela euskera**, eta batez ere, **batez ere gure monitore talden, ze azken hoi beti euskeraz** da, ze..., ta umeekin, ta dena, baina beti hoi, esaten dizut, **etxian beti erderaz, ta anaiakin, nahiz ta nie anaia(k) jakin euskeraz, beti anaiakin erderaz**, azkenean etxean ohitura hoi sortu zaigu, eta ja aldatzeko zaila. (TO-C, 65)

Tolosan bizi den eta murgiltzean euskara ikasi duen hiztun horren kasuan, zirkuntantziak oso mesedegarriak izan dira: testuinguru soziolinguistikoa oso euskalduna da eta kalean ere asko hitz egiten da euskaraz. Azken aldian monitore talde baten sartu da eta horrek euskararen erabilera areagotzea ekarri du. Gainera, bere lagunak familiarik ikasitakoak dira eta euskaraz egiteko joera dute. Nahikoa da berarentzat jarrera erreaktiboa izatea eta testuinguruari erantzutea euskara asko erabiltzeko; izan ere, berak ez du euskararen aldeko inizatiba hartu, kanpotik etorri zaio egoera ezin mesedegarriagoa.

Aitzitik, testuinguru oztopotzailean bizi diren hiztun berri askok eurek bilatzen eta sortzen dituzte euskaraz hitz egiteko aukerak. Ikaskuntza prozesuan zehar izan dituen aukera denak aprobetxatu ditu Hegoamerikan euskara ikasten hasi eta Euskal Herrian amaitu zuen partaide honek:

- (136) Era tener tan pocas posibilidades de usarlo, y entonces era, era tan poco el tiempo que tenías para usarlo, que bueno, lo tenías que usar porque si no, porque mañana ya no había. Entonces era, «bueno, se termina el Barnetegi, voy a tener cero posibilidad, **si no lo uso ahora ¿cuándo lo uso?**» / También cuando venimos aquí veníamos a pasar determinados meses, entonces, o sea, yo por lo menos no vine a perder el tiempo a hablar en castellano. La primera vez que vine era como «**vengo a hablar todo lo que pueda, a aprender**». (ELK-B, 202/212)

Behin ikasita, eta euskaldunak herritarren %27 baino ez diren Getxo herrian bizi izanda ere, jarrera proaktibo handia izaten jarraitu du gure partaideak, erabiltzeko aukera denak aprobetxatu eta berriak sortzeko. Ondoko estrategiak erabiltzen ditu: ezezagunari beti euskaraz egitea, euskaldunak dauden denda eta tabernetara joatea, edo euskaraz hitz egiten den giroan murgiltzea. Gainera, sare esanguratsu eta aktibo oso garrantzitsuak egin ditu: bai bikotekidearekin bai lanean, harreman-hizkuntza euskara da. Bere jarrera proaktiboari esker Getxon «euskeraz bizitzea» lortu duela esan daiteke:

- (137) La verdad es que hablo poco castellano. (ELK-B, 159)

Garbi dago, euskara hizkuntza gutxitua izanik, benetan indarra duen jarrera-mota proaktiboa dela, benetako ahalegina eskatzen duena. Baina nondik datoz jarrera proaktiboak? Jarrera proaktiboetan euskararekiko konpromisoa ikusten da (ikus. 2. Kapitulua), hots, euskararen alde ekintza jakinak burutzeko prestutasuna. Konpromisoa hiztunek euskararekiko dituzten ideologia eta balioetan oinarrituta dago: gure ikerketan jarrera proaktiboa dutenek euskararekiko balio oso indartsuak izaten dituztela ikusi dugu, hala nola, balio identitarioa, integratzailea edota barneko motibazioa. Holako partaide batzuk familiaren hizkuntza berreskuratu nahi izan dutela edota hizkuntzari identitate kultural edo nazionalen garrantzi handia ematen diotela aipatu dute; beste batzuk herri euskaldunengan integratzeko edo benetan nahi izan dutelako ikasi dutela. *Euskara galduko ete den* ideologia ere agertu da jarrera proaktiboa dutenen artean.

Hurrengo azpiatalean azalduko diren hizkuntza-hautuetan eta familia barruan hartutako politikan (5. Kapitulu) ere antzeman daitezke jarrera proaktiboa erakusten duten ebatsiak, besteak beste, euskaldunekin beti euskaraz egitea, familian euskara H1 bezala transmititzea edo bikotekidearekin euskara harreman-hizkuntza bihurtzea. Partaide bakoitzak egin dituen hizkuntza-hautuak, erabilera-oztopoak gainditzeko estrategiak eta, oro har, jarrera proaktibo eta erreaktiboa erakusten duten erabakiak bereziki garrantzitsuak izan dira erabilera-profilak zehazteko orduan, 4.6. azpi-atalean erakutsiko denez.

Testuinguru soziolinguistikoa garrantzi handiko faktorea da erabilerari begira, baina ez da bakarra. Beste faktore hauek nabarmendu behar ditugu: gizarte-sare esanguratsuak edukitzea, ahal dela emozionalak (familia eta lagunak), eta euskara erabiltzeko jarrera proaktiboa izatea. Bi faktore horiek euskara erabiltzeko aukerak ematen dizkiete hiztunei eta hiztun «aktibo» bihurtzen dituzte, inguruko zailtasunak gorabehera, ikerketa honek erakutsi duenez.

Beste faktore batzuei dagokienez, gaztelaniaren presioa euskara normalizatzeko bidean dagoen hizkuntza gutxitua izatearekin lotuta dago, eta pentsatu behar da presio hori gutxituz joango dela euskarak presentzia irabazi ahala. Hizkuntza-ohiturei eta euskaraz egiteko gaitasunari dagokienez, uste dugu gogoetan hartu beharreko gaiak direla eta neurriak hartu beharra dagoela. Kontuan hartuta zein zaila den jendearekiko harreman-hizkuntza aldatzea, hausnartu behar dugu ba ote den modurik inguru erdaldunetako umeen arteko harremanak euskaraz ere izan daitezkeen. Zer argibide ematen digute euskara lagunen arteko erabilerara ekarri duten gazte eta helduek? Hizkuntza-gaitasunari dagokionez, berriz ere berretsi dugu zein garrantzitsua den gai sentitzea: beren euskara mailarekin eta motarekin gustura dauden hiztunek joera handiagoa dute euskara erabiltzeko; hiztun berri askok, ordea, ez dute uste hiztun «osoak» direnik eta aitortzen dute euskaraz ez dutela erraztasunik eta ez direla eroso sentitzen. Honenbestez, zera galdetu behar da: zer aldatu beharko genuke euskararen irakaskuntzan? Zer beste sozializazio-gune bultzatu beharko genuke ikaskuntza-prozesua aberasteko? Berriz ere azpimarratu behar dugu zein estu lotuta dauden gaitasuna eta erabilera.

4.4. Hiztun aktibo bihurtzea

Kapitulu honetako aurreko ataletan gure partaideen erabilera-patroi ezberdinak eta erabilera azaltzeko gakoak azaldu dira. Testuingurua, sareak, gaztelaniaren presioa, ohi-tura, gaitasuna eta hiztunaren jarrera proaktibo/erreaktiboak eguneroko erabileran eragin handia dutela erakutsi da. Atal honetan jadanik azaldutako gakoak eta ideiak berriro agertuko dira baina ikuspegi ezberdin batetik: gure partaideek hiztun aktibo bihurtzeko prozesua zelan bizi izan duten, lortu duten ala ez, eta euren bizitzaren zein momentu-

tan eman dituzten hiztun aktibo bihurtzeko urrats garrantzitsuak ikusiko dugu. Izan ere, hizkuntza-plangintzari begira, erabilerarako gakoak identifikatzeaz gain, garrantzitsua da jakitea hiztun aktibo bihurtzeko eragile eta momentu posibleak zein izan litezkeen, ahal izanez gero horietan esku hartzeko. Gogoeta hau egiteko, *mudaren* kontzeptuaz (González eta beste, 2009) baliatuko gara.

Muda edo *mudantza* (katalanez «aldaketa») adierak bizitza-zikloan ohiko gertaera den izaki baten itxura fisiko edo ezaugarrietan aldaketa izateari egiten dio erreferentzia (Pujolar eta beste 2010). Muda linguistikoa gertatzen da pertsona batek lehen hitz egiten ez zuen hizkuntza bat bere hizkuntza-errepertorioan sartzen duenean, edo lehen pertsona edo egoera jakin batzuetan erabiltzen zuen hizkuntza aldatzen duenean, azken honi guk ohitura-aldaketa deitu diogu. Kasu batzuetan lehen hizkuntza alde batera utz badaiteke ere, hori ez da horren ohikoa. Gehienetan hizkuntza berria eta lehen hizkuntza, biak, erabiltzen dira².

Aldaketa-momentu horiek lagungarriak dira hizkuntza-erabileran aldaketak egiteko, baina muda ez da beti hizkuntza gutxituaren aldekoa; batzuetan *alderantzizko muda* ere gerta daiteke hizkuntza nagusiaren alde. Bestalde, muda batzuetan bat-batean gertatu badaiteke ere, oso ohikoa da urratsez -urrats gertatzea, hau da, muda txikiak kateatzea.

Aldaketa hauek bizitza-momentu jakinetan gertatzen dira; izan ere, aldaketa dakarten bizitza-momentuek, sarri, erraztu egiten dute bigarren hizkuntza erabiltzen hastea, baina baita alboratzea (*alderantzizko muda* deitzen dena). Katalunian, katalan mudarako egokiak izan litezkeen ondoko bizitza-momentuak zehaztu dira (González eta beste 2009; Pujolar eta beste 2010; Pujolar eta Puidgevall 2015): 1. eskolan, lehen hezkuntzan; 2. bigarren hezkuntzan; 3. unibertsitatean; 4. laneratzean; 5. familia berria osatzerakoan; 6. guraso bihurtzerakoan.

Gure ikerketan benetan hiztun aktibo bihurtzeko momentu erabakigarrienak honako hauek izan dira (Puidgevall eta beste agertzeko):

- 1) Testuinguru oso euskaldun batera bizitzen joatean.
- 2) Bikote euskaldun batekin hasterakoan.
- 3) Guraso bihurtzerakoan.
- 4) Sare berrietan edo jarduera berrietan sartzerakoan, hala nola, lagun berriak, lan-kideak, familia politikoa egiterakoan edota aisialdiko jarduera berrietan hasterakoan.

² *Neofalanteen* kasua (O'Rourke eta Ramallo 2011, 2015) izango litzateke hori: familiatik kanpo galegoa ikasi duten eta haien burua neofalantetzat dutenek lehen hizkuntza kontzienteki ordezkatzan dute, galegoa baino ez erabiliz egoera guztietan.

- 5) Eta bereziki garrantzitsua, kontzientzia hartzean, euskara erabiltzea norberaren erantzukizuna dela barneratzean. Azken hau bizitzaren edozein momentutan gertatu daiteke.³

Gure partaideen artean batzuk **hiztun aktibo bihurtu dira**, aipatutako momentuez baliatu dira erabilera areagotzeko. Zenbaitek, gainera, muda-mota ezberdinak kateatu dituzte eta esan daiteke *erabateko muda* egin dutela, neurri handi baten euskaraz bizi direla esateraino. Holako hiztunak testuinguru mesedegarrian ugariagoak badira ere, testuinguru oztopotzailean ere aurkitu ditugu. Azken hauek sare esanguratsu asko dituzte, familia barne, kontzientzia handia dute, jarrera proaktibo nabaria erakutsi dute eta oso ondo sentitzen dira haien gaitasunarekiko, «benetako euskaldun». Ikus hurrengo aipua:

- (138) Eta hortik aurrera ba, bikotearekin ezkondu, bikotea(k) ni baino gutxiago zekien, baina hala ere ahalegindu zan, eta azkenean gure arteko hizkuntza euskara bihurtu zan, seme-alabak izan, haiek ere ama-hizkuntza bezala euskara, eta hortik aurrera ba, bueno, gehien bat gurean hitz egiten da euskara familian. Ez bakarrik gure etxean, ba, arreba batek ere badaki, semeak ere, eta orduan, ba bueno, ba etxeko hainbat lagunekin euskaraz egiten degu guztia. (GA-A, 10)

Baina hiztun aktibo bihurtuta ere, partaide batzuk prozesu hori gogorra izan zela aipatu dute. Ikus 57 urteko Bilbon bizi den partaide baten kasua, adibide bezala:

- (139) Nik kontatu dezaket niri kostatu zitzaidan asko titulua ataratzea. (...) Nik euskara ikasi nuen, alde batetik, nahi nuelako, baña gero beste aldetik, baita ere, beno, kondizino laralagatik, ni irakaslea naiz eta derrigorrezkoa nuen euskara ikastea. Eta **kostatu** zitzaidan asko, oraindik karrera baino gehiago. Ni askotan ni, zientzietako lizentziatua naz, baña euskara niretzat zen **sano gogorra**. Gero euskara ikasi ondoren, familia, **suerte** eduki nuen, **familia euskalduna**, osea bueno, andrie euskalduna, eta horren aldetik euskalduna, baña bizkaieraz, eta hori niretzat izan zen **oztopo** bat, ze nik dena batua ikasi nuen, eta gero bizkaiera, ba bueno, semearekin batuaz egiten dot, berak batua egiten du, baña bueno, nirekin behintzat. (BI-E, 9)

BI-E partaidearentzat ikasteko prozesua gogorra izan bazen ere, familia euskaldun batera ezkontzeak benetan muda egiteko aukera eman zion: lehendabizi bikotearekin hasi zenean, eta gero, semea izanda, beragaz euskaraz berba egitea erabaki zuenean. Era berean, irakaslea izanda, lanean hastea muda egiteko beste bizitza-une garrantzitsua izan zen.

Beste hiztun askok, alabaina, **ez dute lortu hiztun aktibo bihurtzea**, hau da, aipatutako momentuetan ez dute muda egin. Horien artean batzuk pena eta frustrazio handiarekin bizi izan dute egoera; beste **batzuk**, berriz, **ez daude bereziki arduratuta**. Azken horien artean ohikoa da euskararekiko oso kontzientzia gutxi eta jarrera erreak-

³ Dena dela, azterketa kuantitatiboan mudarako momentu horiez gain beste batzuetaz ere galdetu da (ikus 8.2.4.5).

tiboa izatea, edota euskara arrazoi instrumental hutsak bultzatuta ikasi izana. Hau gazteen artean nahikoa zabaldua dago (ikus 9. Kapitulu). Ostera, **pena eta frustrazioa sentitzen dutenek** euskararekiko kontzientzia eta atxikimendua ohi dute, baita zelanbaiteko jarrera proaktiboa ere, baina hala ere, ez da muda gertatu. Azter dezagun hurrengo kasua.

GA-C Gasteizeko emakumea da. 1980ko hamarkadan hasi zen euskara ikasten, motibazio integratzaile eta ideologikoei bultzatuta. Garai hartako ikasketa prozesua eta esperientzia gogoratzerakoan asebetetzea, poza aipatzen ditu eta prozesu hori aisialdiarekin oso modu positiboan lotzen du. Gerora, berriz, ez du sare euskaldun esanguratsurik garatzeko aukera izan eta, ondorioz, oso gutxi erabiltzen du euskara, bere iloba txikiarekin eta lanean baino ez, eta azken esparru horretan gutxi. Muda egin ezinak egon eza (dama eta txarto sentitzea) sortzen dio, hurrengo aipuak erakusten duen bezala:

- (140) Nire giroa erdalduna da. Lanari begira ni saiatzen naiz baina jendea(k) paso egiten du. Hemen nire lankideek, **zaila, da, zaila, da,** (...) euskarara pasatzea da plus bat eskatzea, eta jendea ez dago prest. Orduan, (...), **damutzen naiz, gaizki sentitzen naiz,** uste dut gehiago egin dezakedala euskarari begira, baina ez daukat aukera handirik. (...) Bilobarekin euskeraz bakarrik hitz egiten dut, (...) eta gero nik, adibidez ba adibidez lanean beti, osea, telefonoa hartzen dudanean beti esaten dut «Haurtzaintza Zerbitzua, bai esan?» osea, beste aldetik euskaraz hitz egiten badu, nik jarraitzen dut euskaraz. Baina normalean jendea(k) hemen ez du erabiltzen. (...) Hori da nire, ez dakit nola esaten den euskaraz baina, **caballo de batalla**, dakigunok ez dugula bultzatzen. (GA-C, 6-8)

Kasu honetan kontzientzia eta jarrera proaktiboa egonik (Gasteizen euskara erabiltzeko hartzen dituen estrategietan ikusten da) ez da nahikoa erabilera ziurtatzeko. Are gehiago, beste hiztun askori gertatzen zaion bezala, erabilera ezak gaitasuna galtzera eraman du hiztuna, arestian esanda bezala, eta horrek are txarrago sentiarazi du.

Beste hiztun batzuk euskaldun bihurtzeko prozesuan izan dituzten atzera-aurreak azpimarratu dituzte. Sestaon bizi den Kataluniar emakume honek hamazazpi urteko ikaste prozesu luzean bizi izan dituen **atzera-aurreko** muda momentuak azaldu ditu:

- (141) Hasi nintzen **oso motibatua**, motibatuta hasi nintzen, eta asko ikasi nuen lehen urtean / euskaltegi batean. Eta ikastaro trinko bat egin nuen, lau ordu egunero, eta, bueno, **oso ondo** pasatu nintzen, gainera, oso talde majoa zen, eta asko ikasi genuen. /Eta bueno gero saiatu nintzen bigarren perfila ateratzea, bainan, ba, bueno, ahozkoan geratu nintzen, ez nuen gainditu./ Gero, ba, bueno, **desanimatu** nintzen, baina alde berean haurdun geratu nintzen eta, bueno, ja gauzak konplikatzen hasi ziren, ja benetan./ Orduan, bueno ja han euskara utzi nuen, utzi nion denboraldi luze batez, eta honela egon zen, osea, gauza bera errepikatu zen bi aldiz. Ba ni hiru ume dauzkat eta gauza bera gertatu da. Osea, hartu..., bueno, (...) , hartu, utzi, hartu, utzi... Ba, bueno, gauza bera gertatu da, Guadiana bezala, **hartu, utzi eta hartu, utzi**, eta honela pasatu dira hamazazpi urte / Momentu honetan (...) hemen, Sestaon ja, pues hori, bakarrik umeekin etxerako lanekin erabiltzen dut euskara. Nire aldetik, ba irakurtzen dut, eta bueno, saiatzen naiz mantentzea, baina eguneroko bizitzan ia-ia ez da agertzen, bakarrik, ba, hori, etxerako lanekin.. (SE-B, 102/104/105/106/109/125)

Erabileraren inguruko auzian berebiziko garrantzia dauka hiztun berriek hiztun aktibo bihurtzea lortzen duten. Erronka horri erantzuteko erabilerarako motibazioak, eragileak eta momentu giltzarriak identifikatzea inportantea da. Ikusi dugun bezala, pertsona askok nahi lukete hiztun aktibo bihurtu. Merezi du talde honi laguntza eskaintzea. Aldi berean, gazte askok, hiztun aktibo ez izanaz aparte, interes gutxi erakutsi dute euskararekiko. Horiei begira, kontzientzia eta euskararekiko atxikimendua garatzeko neurriak hartu beharko lirateke.

4.5. Egoera elebidunen kudeaketa: hizkuntza-hautuak

Aurreko ataletan azaldu dugu zer faktorek baldintzatzen duten orokorrean gure subjektuen euskararen erabilera. Ikusi dugunez, komunikatzeko hizkuntza nagusia euskara den lekuetan hiztunek euskara erabiltzeko aukera gehiago dituzte; entzuten den hizkuntza ia bakarra gaztelania den inguruetan, berriz, euskara erabiltzeak «arraroa» ematen du (ikusi 4.1.1. (85) aipua). Baina une bakoitzean zer hizkuntza erabili erabakitzea neurri handi batean egoera zehatz bakoitzari lotuta dago: solaskideak elebidunak badira, «negoziatu» egiten da zer hizkuntza erabili eta nola. Orain ikusiko dugunez, gure subjektuek solaskidea aipatzen dute batez ere, eta talde-elkarriketetan, entzuleak; bertan negoziatioak gertatzen dira, hiztunen gaitasunaren eta nahiaren arabera (Auer 1995), bai eta egokitze-prozesuak ere (Giles eta beste 1991; Bell 1984).

Horrela, azpialt honetan egoera elebidunen kudeaketa zelan egiten den azalduko da, hau da, elkarriketako partaideak elebidunak izanda, zelako erabakiak hartzen dituzten: euskara ala gaztelania erabiltzea, ala biak, eta zeintzuk diren erabaki horien zergatiak. Sridhar-i (1996) jarraituz, interesatzen zaiguna zera da: gizabanako elebidun edo elea-niztunek, hizkuntza bat baino gehiago erabil dezaketela kontuan hartuta, «nork erabiltzen duen zein hizkuntza norekin eta zertarako».

Hori hausnartu dute gure subjektuek, eta zer arrazoi dituzten hizkuntza bata ala bestea erabiltzeko egoera desberdinetan.

4.5.1. «Euskaldun zahar» eta hiztun berrien arteko harremanetan egiten diren hizkuntza-hautuak

Gure partaide askok esaten dutenez, orohar, hiztun berriek joera handiagoadute «euskaldun zaharrekin» euskaraz egiteko eta solaskidea hiztun berria bada gaztelaniaz egiteko. Beste aldagai batzuk egon badaitezke ere, joera horiek oso orokortuta daude, geroago erakutsiko denez. Beraz, familian ikasitakoen presentziak eragin positiboa dauka orohar:

- (142) [Unibertsitatean] nire klasean zeuden euskaldunak, beno, euskaldunak denak, esan nahi dut, baña euskaldun barriak eta euskaldun zaharrak. **Euskaldun zaharrek egiten zuten klasean eta klase kanpoan euskeraz, eta nik euskaldun zaharrekin klase barruan eta klase kanpoan euskeraz.** Baña euskaldun barriak ginenok klase barruan egiten genuen euskaraz eta kafetegira joaten ginenean, eta ostegunetan, ez dakit, poteora joaten ginenean alde zaharrera ostiralean klaserik ez zegoelako, erderaz. Eta zer? / Eta gaur egun aurkitzen gara eta batzuetan, nik **euskaldun zaharrak direnekin**, adibidez, Markinako lagun bat daukat, eta berarekin egoten naizenean **beti egiten dut euskeraz...** (BI-A,151/153)
- (143) Ni betidanik egon naiz osea erderaz hitz egiten duten lagunekin eta azkenin hoi, ez dakit, erain iten dizu hitz egiterakoan, baino... Hombre ja, ba, **pertsona batzukin ba baldin baki-zu pertsona hori euskeraz iten dula bere etxian** ta normalean, ba saiatzen zea **berarekin e bai euskeraz** hitz egiten, baino erderaz dakien batekin ai bazea, osea, nik uste det, azkenean erderaz hitz eiten bukatzen dezula. (Gazte-DO-C, 60)

Hiztun berrientzat euskaldun zaharrekin aritzean «naturala» da «euren» hizkuntzan egitea; pentsatu dezakete euskaldun zaharrak erosoago sentituko direla. Hiztun berriekiko harremanetan, berriz, beste elementu batzuk sartzen dira jokoan, askotan oztopotzailak direnak, adibidez, ohiturak, euskeraz egitea «arrotza» egitea, gaitasun falta, eta orohar, bi solaskideak gaztelaniaz erosoago sentitzen direla pentsatzea.

Hori horrela izanik ere, konfidantza-falta, lotsa edo euskaldun zaharrak ez ulertzeko beldurak gaztelania erabiltzera ekar dezake hiztun berria.

Hizkuntza-plangintzan komeni da sentimendu negatibo horiek aintzakotzat hartzea eta indargabetzeko neurriak hartzea. Halako hiztunentzat hizkuntza-ohiturak aldatzea eta euskara hutsean aritzea oso zaila dela kontuan harturik, ahalbideratu beharko litzateke hizkuntza bitan aritzea. Horrela, gutxienez, harremanean euskara presente egingo da kasu batzuetan, eta beste batzuetan harreman-hizkuntza apurka-apurka aldatu egingo da.

Jakina, «euskaldun zaharren» jarrera ere oso garrantzitsua da. Beste ikerketa batzuetan natiboen berriekiko meziprezu-jarrerak aurkitu badira ere (Walsh 2012), gure ikerketan ez da bereziki azpimarratu holakorik. Alderantziz, partaide batzuk erabilera-praktiketan euskaldun zaharrek modu positiboan eragiten dutela azpimarratu dute.

- (144) Muy buenos amigos euskaldunes que **te apoyan**, ante todo te van a apoyar y te quieren. (...) y luego de repente te viene un tío que tú lo tienes cómo..., o sea, en euskera, te viene y dice «hostia, pues **felicidades porque hablas de puta madre...**», aunque no sea verdad, pero para cuando te das cuenta, cuando te sueltas en ese sentido y empiezas a utilizar frases, al final llega alguien que te dice «¡jo, qué de puta madre!». (ELK-D, 104)

Partaide gehienek euskaldunen jarrera abegikorra azpimarratu badute ere, gerta daiteke, arestian esan bezala, bestea gaztelaniara pasatzea solaskidea hiztun berria dela konturatzenean, hiztun berrien zailtasunak ikusita, adibidez:

- (145) Gero euskaldunak askotan, **guk hitz egiten dugunean, euskaldun berriok, pasatzen dira erdarara**, jo, nik ez dakit den «jo, ¡qué mal hablas!», horrelako kontua delako, edo erraztasuna... errazteko bidea. (BI-B, 431)

Beste kasu batzuetan, solaskidea bertokoa ez dela konturatzean eta euskalduna ez dela pentsatzen duelako pasatzen da gaztelaniara, hurrengo hiru aipuetan ikusten den moduan.

- (146) –Neuri pasa dast, neuri pasa dast hemen **kanpotarra zarelez, egin bi'tzuie erderaz**, eta zuk kontestau euskeraz, eta beütuten'tzuie..., como, hau zer, eta ganera,» eta ganera geure lez, zu nungu zara ba?» Bai, bai, holan, como... (BE-B, 96)
 –Niri pasa dast ba, / han Bedaronan / han gaoz taberna baten ta bertako morroi bategaz berbetan, bertako, ja holan nagusidze, ja gizon nagusi bategaz berbetan eta holan, eta horregaz berbetan ba igual, eztaít, ordu erdi, edo gehiau, eta preguntau dost, galdetu dost, «zeu nongoa za, Bermeotarra zara, edo...?». «Bai, Bermeotarra nai, bueno, ni jaio naién han Alicanten, **ni Alicanteku nai», zu, segituan erdaraz**. (BE-A, 97/98/99)
- (147) Neri, oain estereotipo kontu hori gogoatu naiz anekdota bat gertatu zitzaidan (...) jun nintzen anbulategira [Tolosakoan] eta (...) nere ondon, hango mahaian ba ez dakit zer paper eskatzeko edo, eta zegon **emakume bat beltza** ume koxkor beltz batekin besotan, eta zijoan ordu hartzea edo, ez?, eta ni negon kuriosidadez, aber honek ze iten dun, ze susmoa nekan euskalduna zala, iten zitzan ezaguna, eta hau, eta ni jun nintzen eta atenditu zidan euskeraz, eta bueno, «itxoizazu pixkat», Bale oso ondo. Atzetikan zeon hau, eta **beak in zun euskeraz eta besteak iten zion erderaz**, eta honek iten zion euskeraz, eta besteak erderaz. Eta ni joko hortan, «baina euskeraz ari da», besteak ezin zun sinisten euskeraz aitzen zitzaiola, eta nik esan nion beltzari, euskaldun beltzari, «ze umea porru inda dago, ezta?, «bai, bai sukarrakin dago». (ZAHAR-TO-A, 383)
- (148) Azken urteotan beste fenomeno bat bizi behar izan dugu gizarte mailan, ez eskoletan bakarrik, baña gizarte mailan oro har, eta da **ikasle etorkinen fenomeno**a. Ordun, Lea-Artibain, incluso, nik ikusi dotena da patiora irtenda, institutueta edo ikastetxeetan eta, berdin publiko zein pribatueta e, ba baldin badagoz ikasle batzuk euskeraz oraindik ez dakitenak berehala ikasiko dabe, baña oraindik igual ez, heldu berriak diralako, edo dena dalakoagatik, edo gaizki menperatzen daben beste batzuk, **joera naturala da erderara pasatie**, bestiena be bai, euskaldunena be bai. (BI-C, 15)

Kanpoko inguruko aurreiritziak oso kaltegarriak dira euskararen erabilerari begira; izan ere, askok etorkinei zuzenean gaztelaniaz egiteko ohitura dute. Euskal Herrira gero eta etorkin gehiago datozela kontuan harturik eta euskal hiztunen komunitatean integratu ahal izateko, ezinbestekoa da euskaldunek aurreiritziak gainditu eta oztupoak ez ipintzea.

Hiztun berri batzuk kontatu dute zelako ahaleginak egin behar izan dituzten euskaldun zaharren joeraren kontra borrokatzeko, aurretik ezarritako ohiturak direla-eta, 4.2.2. atalean ikusi den bezala.

4.5.2. Erdaldunen presentzia

Erdaldunen presentziak eragin handia dauka hizkuntza-hautaketan. Bi hizkuntzetan ari-
tzea posiblea bada ere, partaide askok oso zaila egiten zaiela eta normalean **gaztela-
niaz amaitzen** dutela adierazi dute. Zailtasunak direla eta, horrek aparteko ahalegina
eta jarrera proaktiboa eskatzen du. (Ikus. 4.5.3.)

- (149) Ba koadrilan, ba adibidez, (...) lagun batzuek badakite euskera baina gero beste batzuek ez dakite, ordun **azkenean ba erderaz** / Askotan gertatu zait bai lanean bai kalean **hasten zarela euskeraz hitz egiten baina amaitzen erderaz** / nik uste dut hori erosotasunagatik. (SE-C, 83/84/86)

Erosotasunaz aparte, gaztelaniara pasatzeko joera azaltzerakoan, «**Euskaraz egitea he-
ziketa txarrekoa da parekoak euskaraz ez badaki**» aurreiritziak eragin handia dauka (Amorrortu eta al. 2009: 182, 254-255; Amorrortu eta Ortega 2011), hurrengo aipuan ikusten den bezala.

- (150) –Igual gaoz euskeraz berbetan, igual bera euskaldune da, edo zeu, ta pasaten du erde-
raz berbetan, berak ulertzeko, edo **edukazinoagatik**, ze han berdin pasaten da, osea, igual
gauz geuk biok, edo laurok, edo gehienok berbetan hizkuntza baten, eta **bategatxik danok
pasa in bihar gara...** BE-A, 59)
–Hamen izaten da, hamen izaten da sei gehi bat zazpi da, baia erderaz, osea, sei euskal-
dun, erdaldun bat, zazpi erdaldun. (BE-B, 60)
–Holan, holan da. Baina Alicanten berdin-berdin pasaten da valencianogaz, osea, eske
ostantzian bestea, **edukazioagatik**, ez dait zer. (BE-A, 61)

Aurreiritziarekin lotuta, beste arrazoi batzuk ere eman dira erdaldunen presentzian gaz-
telaniara jotzeko: «borde ez agertzeko», «bestea baztertuta ez sentitzeko», «besteak
ulertzeko». Hurrengo aipuak dira horren erakusgarri:

- (151) Nik holakoetan, eta erderaz hasten banaiz, beti izaten da pixkat hola, ba, ez dakit, zuk
diozu, ba **bestia baztertuta ez sentitzeko**. Osea, esan nahi det, berak ez pentsatzeko guk
euskeraz ai geala bea baztertzeke, ez? Eskatu gabe, ba bueno, ba zu honea etorri zea, hau
Frantzia edo Alemania izango balitz, ba chico, o chica, eta eiten dezu ba pixkat hola, ba
igual irudi zea bat ere bada, ez esateko gero, ba, «es que, estos vascos» ez dakit zer, ez da-
kit zer, juten zea hara eta inork... Katalanekin eta gertatzen dan bezala, han askoz gehiau
hitz egiten da, hainbeste kuidorik gabe eta aitzen da hori, «es que estos catalanes», eta
berdin zaizu, ba nik, badakizu erderaz, zergaitik ez dezu egiten? Eta baten bat baldin ba-
dago, ba izaten da hola, pixkat, **bera baztertuta ez sentitzeko** eta gu ere gure zea babes-
teko nolabait. Esaten degu, «**gu ez gea, ez gea hain borde** eta ez ezerrez». Gauza hoiek
kontutan hartzen degu. (ZU, F, 264)

- (152) Baina, klaro askotan gertatzen da igual talde batetan **lau pertsonak badakite euskeraz iten, beste bik ez**, eta orduan, ba, egin behar duzu, **gaztelaniaz hitz egin behar duzu, besteak ulertzeko**. (Gazte-GE-C, 107)

Erdaldunak aurrean, beste aukera bat da **euskaldunei euskaraz eta erdaldunei erdaraz** egitea. Normalean elkarriketa gurutzatuak izaten dira. Partaide honek azaltzen duen bezala, egoera berean, bazkaria prestatzen, elkarriketa bat baino gehiago daude, batzuk euskaraz eta beste batzuk erdaraz. Kasu honetan erdalduna den izekoaren presentziak ez du aldatzen euskaldunen hizkuntza-hautua. Partaideak, gainera, oso modu positiboan baloratzen du:

- (153) Neri adibidez gustatzen zait asko, porque neri, nere gurasoak kanpokoak zian, baino, berak esan dun bezala, familia guztia etorri zan, ordun nere familia Zarautzen dago, Oñatin daude, hemen daude, eta ikustia, hori asko gustatzen zait, ni Zarautzera joten naizen **nire izekokin ari naiz erderaz hitz egiten, nere lehengusua etortzen da, euskeraz jarraitzen**, «¿Qué, tía?» «que no, que pongas los macarrones», «ba Lander, zer moduz eskola?», ta dagon **nahasketa ta da natural, natural, naturala, hori pilo bat gustatzen zait**. Eta hori bultzatia, ta gero Ermura joten naiz eta oain dana ume txikiak diala, lehengusu txikiak euki dituztela, danei euskeraz iten diet. Batzuk geatzen dia hola, baina danak esaten die, «bai, bai, zuk in euskeraz, in euskeraz, porque bestela gu bakizu». Baina adibidez Zarautzen bai gero, lehengusuak eta euskeraz iten duela lagunaren artean ta, asko gustatzen zait. Etxia ailegau ta bere aitakin euskeraz, amai de repente erderaz, ta, nahasketa hori ikustea hain naturala eta hain, neri asko gustatzen zait. Ta hori ateratzen zaigula normal, ta ez da inor ez ofenditzen, ez «zertan ai diran», o «erderaz hitz egin hemen», o, ez, da, normala da, baina eske **normala da hola hitz egitea. Ta neri hori asko gustatzen zait**. (ZU- D, 318)

Ontzat hartu behar dira hiztun horrek deskribatzen dituenak bezalako elkarriketa elebidunak. Kasu askotan, euskara bakarrik erabiltzeko modurik ez badago, taldean badirelako euskaraz egiten ez duten pertsonak, euskara erabiltzea aurrerapausoa da gaztelania hutsa erabiltzearen aldean. Euskarak azken hamarkadetan izan duen garapenak hiztun-profil berriak ekarri ditu, eta horien artean badira gaitasun mugatua dutenak eta hiztun pasiboak (hitz egin ez baina ulertzen dutenak), eta halakoekin euskaraz egin daiteke.

4.5.3. *Jarrera proaktiboa erakusten duten hizkuntza-hautuak*

Euskara erabiltzeko aukeretan kanpoko osagaiek (testuinguruak, harreman-sareek) garrantzi handia badute ere, norberaren jarrera ere erabakiorra da. Horri «agentibitatea» deitu diogu (2.4.2.2. (h)): jarrera proaktiboa ala errektiboa izatea (ikus 4.3 ere bai). Hiztun batek zailtasunen aurrean, amore eman gabe, aktiboki aukerak bilatzen eta sortzen dituen jarrera proaktiboa dauka. Beste batzuk testuinguruaren arabera jotatzen

dute, euskalduna bada euskaraz eta erdalduna bada gaztelaniaz. Hori dela eta, testuinguru mesedegarrian euskara asko erabiltzea erraza da aparteko ahalegina egin gabe. Baina testuinguru oztopotzailean jarrera proaktiboa egon ezik euskara ez da erabiltzen. Jarrera proaktiboa duten hiztunek holako estrategiak erakutsi dituzte: lehen berba euskaraz, ezezagunari euskaraz, solaskidea euskalduna dela jakina beti euskaraz, hiztun pasiboari euskaraz, erdaldunak eta euskaldunak talde berean egonik lehenei erdaraz baina bigarrenari euskaraz. Hurrengo lerroetan estrategia bakoitzeko aipuak bilduko dira adibide moduan.

— «**Lehen berba euskaraz**» estrategia, ezezagunari barne:

- (154) —**Nik beti iten dot euskeraz**, eta ez badaki, ba esango doste «ez dakit euskeraz», ez jat kostetan ezebez, baina... (Gazte-BI-C, 156)
— Bai, baina normalean zure lehenengo berba, **Bilbo baten be**, ba euskeraz itea. (Gazte-BI-M1, 157) (Esti)
— Bai. (Gazte-BI-C, 158)

— **Euskaldunekin beti euskaraz, erdaldunak egonik ere:**

- (155) Nik **nire konpromisoa hori izan da, dakienakaz euskeraz egingo dot**, osea, baina bueno, ba azkenean igual gaoz koadrila bat, lau edo hiruk ez daki euskeraz, eta beste laurok daki-gu, ordun nik beragaz berba iten dotenean ba euskeraz egiten diot, eta berari zeozer esan behar badiot ba gazteleraz, osea, eta hor gabiz. (ZEA-C, 70)

— **Solaskide euskalduna gaztelaniaz aritzen bada ere, ez egokitu, hau da, euskaraz jarraitzea:**

- (156) **Denak euskaldunak bazarie**, hor egin beharko zen, nik gaur egun egunero egiten dudana, ahalegina. Eta ahalegina **da euskaldun batek erderaz egiten duenean nik bueltatu erantzuna euskeraz**. Eta horrela, horrela [irakasle] klaustroetan lortzen da benetan erderaz ez egitea. Bestela da, ni nabil esaten nire esparruan, baña zuen kasuan antzeko-parecido da, antzeko-parecido. Zuk baduzu lagun bat, zuk badakizu bera euskalduna dela, ba beno, mesede baino gehiago egiten diozu euskeraz egiten badiozu, euskeraz egiten badiozu, zer erantzungo dizu? gaztelaniaz? (BI-E, 48)

— **Gaitasun mailako zailtasunak dituenari ere euskaraz**, askotan bere ikaskuntza prozesuan laguntzeko asmoz:

- (157) **Niri behin pasa dastena hori baina berak gu izanda, osea, berak esanda, «neuk erderaz ingo'tsut ze neure euskera maila oso bajua da** eta, ez dut kontrolatzen, **baina zuk mese-dez euskeraz jarraitu** ze nik ulertu eitxen dot baina ez dot egingo berba». Klaro, badaukazu bat non ulertzen duzu baina ez zara gai.../Eta gero da zeozer puntuala, konkretua, zugaz ez banaiz egongo inoiz bez gehiau, ba orduan berdin dost. Oin, **zugaz egongo banai(z) urtero, ba ja ordun egongo nai(z) ni euskera eitxen, zuk erderaz jarraitu eitxen eta egunen baten hasiko zara**, klaro, neu ez nai hasiko inoiz erderaz, **zugaitxik**, ordun, **hori esfortzu bai ingo dot** zugatxik, egunen baten hasiko zara euskeraz. Baina pertso-

na batzugatxik hori esfortzua nik ez dot eitxen. Kantsa nai, ja itxi dot holan, imposible.
(BE-C, 365/370)

Arestian esan den bezala, jarrera proaktiboak aparteko ahalegina eta konpromisoa eskatzen du eta ez da erraza egoera guztietan. Bere bizitzan oso jarrera proaktibo militantea duen partaide hau ahaleginik egiten ez dutenekin ez da saiatzen, jadanik «nekatuta»-dago eta:

- (158) Ni hortan, bai, benetan, ba erderaz datorrena eta **erderaz gura dauena, nik erderaz itxen'tzat, e'nai kantsaten**, ze datorrenak ez badau gure euskeraz egin eta berak ez badau behar ezetarako geure euskerie edo euskeraz, ba berak galtzen dau, ni e'nai kantsaten, ba momentu batian bai, sasoi batian bai.. (BE-C, 258)

Estrategia horiek guztiek nolabaiteko kontzientzia eta konpromisoa eskatzen dute, hots, jarrera proaktiboa; ona litzateke halako jarrera orokortzea eta normalizatzea euskal gizartean.

4.5.4. *Euskararekiko jarrera erreaktiboa erakusten duten hizkuntza-hautuak*

Arestian aipatu den bezala, gure partaide hiztun berri batzuk euskararekiko jarrera erreaktiboa erakusten dute egiten dituzten hizkuntza-hautuetan, hots, inguruko zirkulantzietara egokitzen dira. Horrek esan nahi du zailtasunen aurrean ez dutela aktibo jotzen euskara erabiltzeko.

Ikusi dugunez **testuinguru soziolinguistikoak** eragin handia dauka. Hurrengo aipuan erakusten da jarrera erreaktiboa duen hiztun honek Zarautzen eta Bilbon modu ezberdinean jotzen duela:

- (159) Euskera entzuten badot saiatzen naz euskeraz berbetan bere bai, dena kontestuaaren araber. (BI-D, 457)

Arestian jarrera proaktiboa duten partaideek egoera elebidunak zelan kudeatzen dituzten ikusi da. Orain antzeko egoeretan jarrera erreaktiboa dutenak gaztelaniara pasatzen direla ikusiko da.

- (160) Gero, ba, koadrilan, ba, adibidez, nik badakit jende, o sea, lagun batzuek badakite euskara, baina gero beste **batzuek ez dakite. Ordun, azkenean, ba erderaz.** (SE-C, 83)

Euskararen moduko egoera gutxituan dagoen hizkuntza bat erabiltzeko argi dago jarrera proaktiboa beharrezkoa dela. Alabaina, testuinguru oso mesedegarrian nahikoa izan daiteke jarrera erreaktiboa. Jakina, euskara erabiltzeko zenbat eta oztopo gehiago izan orduan eta jarrera proaktibo handiagoa beharko da.

4.5.5. *Ele bitan aritzea: bakoitzak berea*

Ele bitan aritzea, hau da, hizkuntza biak solasaldi berean erabiltzea, uste baino ohikoa goa da. Modu ezberdinetara egin daiteke: bakoitzak hizkuntza baten jarraitu edo bestela solaskide batek amore eman. Kode-alternantzia ere oso ohikoa da (ikus. 4.5.6).

Egoera elebidunen kudeaketan, hizkuntza-hautua egiteko egiten den «negoiazioan», normalean elkarriketa hizkuntza baten ematen ba baina kasu batzuetan hiztun bakoitzak berea egiten du, batek euskaraz eta besteak gaztelaniaz. Hori gertatzen da euskararen aldeko jarrera proaktiboa duten hiztunen kasuan. Alabaina, egoera hori deserosoa izaten da:

(161) Eta nolabait, **biolentoa** dela beste pertsona batekin beste hizkuntza baten egitea. (BI-D, 52)

(162) –Berak eitxi [egitea] dakola erderaz. **Nik zeitxik in bi'dot erderaz?** Berak ez daulako gure? Esan, «in berba euskeraz»? (BE-B, 359)

–**Baia ez da naturela.** (BE-A, 360)

–Pentsa ez dela momentu batena, dala pertsona bat eukingo dozula igual batzarretan, edo eukingo duzula alboan beti, edo... (BE-C, 361)

–Baina berdine, berak ulertuten banauen eta neuk ulertuten ba'tsaten... (BE-B, 362)

–Ja, bai, bueno, bai. Zeozer **arraroa** da baina bueno, bai. (BE-C, 363)

–Bai, arraro da, arraro da, berak ez badau gure, nik ze eitxea gure badoten? Osea, nik ez dot gure be erderaz eitxea, zeatxik in bedot? Dau tailer bat TELP hori eitxen dauena. / Bai, bai, ez banauen ulertuten euskeraz, bai pasako nai [erderara], **baina ulertuten banauen, nik ez dut ikusten inongo arazorik, euskeraz neuk eta berak erderaz.** (BE-B, 364/365)

Gaztelaraz jarraitzea normaltzat hartzen den bitartean, euskaraz jarraituz gero batzuk inposaketa moduan hartzen dute. Beste batzuk, berriz, gaztelaniaz jarraitzea hartzen dute inposaketa bezala:

(163) Bai. Gero badago jendea, adibidez, osea, nik neukan lagun bat klasean euskera hitz iten zula eta berari igual **erderaz hitz egiten zenion eta bera(k) euskeraz erantzuten zizun** eta hurrengo, beti euskeraz, orduan azkenean esaten dezu, «jo, pues, erantzungo dit euskeraz», **osea, berak inposatzen zun**, osea, oso ondo iruditzen, osea, bera (?) eta «pues ni euskera hitz egiten det zurekin, osea, berdin zait nola erantzun, erderaz erantzuten badidazu,

nik euskeraz jarraituko det». Baina jeneralki, nik uste det, euskeraz dakitenak erderaz egiten dutela. (Gazte-DO-B, 444)

- (164) –Eta euskaldun, euskaldun, osea, bueno, euskera egunero erabilten dauenak uste duzu inposaketa hori, ideia hori bizi dabela horren egunerakoan?, hau da, «gaztelera inposatzen dostie niri, nire egunerokoan», edo euskeraren kasuan bakarrik emoten da? (Gazte-DO-M2, 329)
- Ez, osea, gaztelera e bai, nik uste dut berdina dala. (Gazte-DO-B, 330)
- Bai, batean zein bestean. Osea, berdin du zeinetan, baina ene ustez hizkuntza bat, berdin zein, osea, dena delakoa, **ezin da inposatu**, ez hizkuntza bat, ez ezer. Osea, ezin da. Hoi, norbaitei inposatzen badiozu zerbait, ja nazkatuko dio. (Gazte-DO-E, 331)
- Juten bazea denda batea eta erderaz hitz egiten badiozu eta euskeraz erantzuten baizu, gaizki hartuko duzu, eta al revés, o sea, berdina, joaten bazea denda batea eta euskeraz hitz egiten badiozu... (Gazte-DO-C, 333)
- Ez da preferentziagatikan hizkuntza bat delako, euskera espeziala delako edo gaztelera espeziala delako, ez, baizik inposaketak berak gaizki sentatzen du. (Gazte-DO-E, 334)

Euskararen egoeran dauden hizkuntzen kasuan hori eta nagusia (gaztelania) ez daude maila berean eta horregatik gutxituarentzat egoera beti da kaltegarria. Ikus hurrengo aipua:

- (165) **Ez dia konturatzen bestia behartzen ai dila.** Hori, ejemplo tipikoa, lagun batek ez dakiela hizkuntza bat eta Inglaterran baldin bazaude, ba ikasiko dezu ingelesez, baino beste danak ez dute hitz egiten, klaro, erderaz ez dakitelako, baino bueno, baino ez dakit, **hemen batek ez baldin badaki, dana trastornatzen du, beste danak erderaz hitz egiten du.** Eta pertsona horrek ez daka bat ere oztoporik gizarteratzeko eta hitz egiteko eta lagunak izateko besteekin. Eta beste danak galtzen juten dira zeozer. (ZU-E, 248)

Ikusi dugun moduan, balorazio negatiboak eta deserosotasuna direla-eta bakoitzak hizkuntza bana egitea ez da ohikoa. Alabaina, salbuespenak badira eta aztertzeak merezi du:

- (166) Jardunaldi batean gertatu zitzaigun gauza berezi bat. Hor zeuden, ez, izan zan agente sozio ekonomikoekin, jardunaldi batean, eta antolatu genituen sala ezberdinak, batzuetan dana gaztelera egiteko eta beste batzuetan euskeraz egiteko. Momentu batean mahai batean, ez dakit, ba hori, bost, sei, zazpi pertsona zeuden **eta danek euskeraz ulertzen zuten**, baina beraien artean antolatu ziran eta pertsona batek nahiz eta euskeraz ulertu, ez zuen bere burua eroso ikusten edo sentitzen euskeraz hitz egiteko, ulertzen zuen baina hitz egiteko kapaza ez zan ikusten, eta nahi zuena, batez ere nahi zuena, espresatzeko. Orduan, talde horretan ibili ziren **bi ordutan hitz egiten batzuk euskeraz eta beste bat edo bi pertsonak gaztelera. Oye, ¡problema barik!** / Eta denek ulertzen zuten eta gainera inor ez zan hara hurbildu, ez dakit... alternatiba hori proposatzeko, **beraien artean erabaki zuten** horrela lantzea. Eta hori izan zen gauza **super polita**. (BI-A, 326/328)

Elkarrizketa horretan partaide batzuk euskaraz hitz egiteko zailtasunak zituzten, hau da, hiztun pasiboak ziren baina ulertu ulertzen zutenez bakoitzak nahi zuen hizkuntzan egin zuen.

4.5.6. Kode-alternantzia

Diskurtso-atal berean, solaskideak elebidunak izanda, hizkuntza batetik besterako egiten den aldaketari kode alternantzia deitzen zaio. Kode-alternantziak funtzio asko izan ditzake (Gumperz 1982; Auer 1998) baina nagusiki funtzio-mota bi zehaztu dira: batetik, *egoerarekin lotutakoak*, hau da, egoeran aldaketa bat gertatzen denean sorturikoak, adibidez, partaide berri bat solasaldian sartzean; bestetik, *diskurtsoarekin lotutakoak*, adibidez baliabide estilistiko bezala hizkuntza batetik bestera pasatzean. Euskararen kasuan batez ere ondoko bi hauek ikerlarien arreta deitu dute: gaitasun mugatuagaitik ala arrazoi estilistikoak direla eta, adierazkortasuna edo beste baliabide erretoriko bat bezala. Muñoa (2002), Ibarra (2011) and Lantto (2014) ikerlariak erakutsi dute euskara-gaztelania kode-alternantzia bigarren motako arrazoiak askotan ageri direla.

Oso praktika ohikoa dela dakigun arren, kode-alternantziaren gaia mahai-inguru gutxitan agertu da. Hala ere, agertu denetan, elkarriketatuek asko egiten dutela baieztatu dute, bai gaitasun mugatuak eragindakoa baita hizkuntza-aldakortasunak eragindakoa ere:

- (167) Eta **gero euskaldun berriak garenok** batzuetan elkartzen garenean, ez dakit, bi ordutan edo hiru ordutan egoten gara elkarrekin, eta **de repente hasten gara euskeraz, gero gazteleraz**, gero euskeraz berriro, gero gazteleraz berriro... Eta normaltasun osoz egiten dugu. (BI-A, 157)
- (168) Euskara ere erraz ateratzen zait, baina batzuetan gaztelania. Eta gero, euskeraz ari gari-nian ere, gure lagunaren artean, eta inguruan, nik uste det Zumaian ohikoa dala hori, zuk lehen esan dozuna, nahasten ditugu hizkuntzak, **bi hizkuntzetan batera hitz egiten dugu**. (ZU-A, 123)

Euskaldun zaharrek ere kode-alternantzia asko egiten dute (ikus baita Lantto 2014). Hala ere, azken horiek modu ezberdinean eta arrazoi ezberdinakaitik egiten ei dute:

- (169) –Ez, eske hori, **euskaldun zaharrek be egiten dabe** beraien artean be bai, praktikotasu-nagatik, praktikotasunagatik momentu puntual batzuetan, eskerrak puntualak direzela, baina momentu puntual batzuetan erderara pasa, eta normaltasun osoz eitxen dabe. Zu bazoaz Gernikara asteleheneko merkatura, eta baserriko jendea ikusiko'zu horrela eitxen, beraien artean, euskeraz, normalean euskeraz egiten, baina igual espresio konketuren bat, edo ba, ez dakit, beste batek esandako gauza bat esateko, edo milaka gauza esateko **erderara pasatzen dira normaltasun osoz**. (BI-C, 437)
- Baina XXX** [BI-C partaidearen izena], zuk desberdintasuna ikusten duzu non dagoen, ezta? **Haiek euskaldunak dira, haiek pentsatzen dabela euskeraz**. Baina hori ikusten ba-duzu Barakaldon, edo ikusten baduzu Algortan edo San Inazion, berdin-berdin ez dela asuntoa. (BI-E, 438)

Elkarriketa horretan antzeman daitekeenez, BI-E partaidearentzat kode-alternantzia euskaldun zaharrak ala hiztun berriak egin, arrazoia ezberdina da: «euskaldun zaharrek euskaraz pentsatzen dute», H1 bezala euskara dutelako eta, beraz, ama-hizkuntzaren ideologiaren arabera, ez dute gaitasun mailako arazorik. Hiztun berriek egiten duten kode-alternantzia, berriz, gaitasun-faltarekin lotzen du BI-E partaideak.

Gaitasun falta dela eta, beste partaide batzuk horrekin lotzen dute beraiek egiten duten kode-alternantzia, heldutan bigarren hizkuntza bezala euskara ikasi duen hurrengo partaideak bezala:

- (170) **Nere arazoa da asko jotzen detela erderara.** Eta bueno, ba, prozesua ezberdina izan da, ja hemezortzi urtekin hasi noizean behin klase batzuk, geo ez dakit zer, geo kuadrilan batzuk euskaldunak ziran, beste batzuk erdaldunak, batzuk hasi ginan euskeraz ikasten, baina geo lau gauza esan ta segituan erderara, **eta girua da erdalduna edo erderara jotzekua.** Batzutan biltzen bagea batzuk ba euskeraz hitz eiten deu, baino ez asko. Ta ordun, nik gabezi handiak ditut, bai esplikatzeko. Hemen, kuadrilan ere askotan gauza pixka bat sakontzen hastan bada, ni segituan juten naiz erderara, bestela, ba, edo, bueno, ba isildu behar naiz edo **ez naiz espresatzen**, ez bueno, **ez dakat, erramienta horiek**, bueno, ni... (ZU-E, 147)

Beste batzuk gauza puntualen bat hobeto adierazteko, «mezuan afinatzeko», kode alternantzia puntualak egiten dituzte:

- (171) **Osea, mezu baten afinatzeko** eta, bai, bai, noski, ni hobeto adierazten naiz, edo azaltzen ditut gauzak, emozioak direla, edo ez dakit zer, **hobeto gaztelaniaz**, askoz hobeto. Eta askotan ateratzen zait ere konturatu gabe, **nire amaren hizkuntza da** nolabait. Euskerara ere erraz ateratzen zait, baina batzuetan gaztelania. Eta gero, euskeraz ari garinian ere, gure lagunaren artean, eta inguruan, nik uste det Zumaiaren ohikoa dala hori, zuk lehen esan dozuna, nahasten ditugu hizkuntzak, bi hizkuntzetan batera hitz egiten dugu. (ZU-A, 123)

Orain arte aurkeztu diren adibideetan kode-alternantzia modu negatiboan baloratzen dela esan daiteke. Izan ere, gaitasun-faltarekin lotzen dute kode-alternantzia eta partaide askok haiek ez dutela egiten edota ez dela egin behar adierazi dute. Beste batzuk, berriz, erregistro kolokialetan, diskurtso estrategia bezala, egiten dutela onartu dute, txantxak egiteko, adibidez, eta ondo baloratzen dute, humore, adierazkortasunarekin eta «hizkuntzarekin jolastearekin» lotuta. Ikus dezagun, adibidez, elkarriketa egin zitzaion ELK-B partaidearen ekarpena:

- (172) –¿Sueles mezclar los idiomas, o participar, o hacer conversaciones bilingües, mezclando euskera, castellano? (ELK-M, 237)
–Sí, sí, sí, igual no en el trabajo, no, claro (...). Pero sí, sí luego, o **con mis amigos, o con mi pareja, sí suelo**, lo típico, por ejemplo, pasar frases hechas de mi castellano y hacer itzulpen literal al euskera, o decir algunas cosas, no sé, mezclar alguna cosa, eso sí. Pero bueno, es un poco, no cuando estoy, en general, **no cuando estoy trabajando**, no cuando es-

toy en una cosa así, como formal, pero sí, sí mezclo. Y eso es, sí me pasaba, o sí me pasó cuando aprendí en Argentina, bueno en Uruguay Argentina, **y cuando vine aquí la primera vez, que tenías como super compartimentados, el euskera por un lado, y el castellano por otro, y no mezclaba**, no mezclaba ni palabras del castellano, de mi castellano en euskera, ni hacía..., estaban super separados, como en dos cajoncitos. Y cuando vine a vivir aquí, me sentía un poco rara porque no mezclaba nada, y ni una erdarakada, ni un no sé qué. / Entonces, no usaba ninguna, era super, como super de..., **parecía como un entzumen del euskaltegi**, que hablan super perfecto, (...) sí es verdad que a veces mezclo alguna cosa, o bueno, sobre todo el tema del humor. (ELK-B, 238/248)

—¿Y cómo ves eso?, ¿como algo incorrecto o algo...? (ELK-M4, 249)

—Va, no le doy mucha vuelta. Creo que, no, también forma parte de... (ELK-B, 250)

—Del habla popular. (ELK-M4, 251)

- (173) —Sí, del habla popular, y de **mi habla popular**, y por qué no decirlo, **que hay espacio para mezclar**. (...) no me preocupa en la vida normal y corriente mezclar un poco del castellano aquí o... No sé, igual hay gente que lo lleva mucho más al extremo, como que habla la mitad y la mitad, y está todo el tiempo mezclando, y una frase en uno y otra frase en otro, y otro, eso tampoco lo hago, pero bueno, que es un poco, es un poco la realidad que hay y está bien que, no sé, que el idioma sea rico y aprender otro tipo de palabras también que sean en euskera y tal, que sean como más..., no olvidarse de las que hay, pero bueno, tampoco, bueno, si hay palabras que se ponen de moda, o sea, las usamos todos, no se puede ir tan en contra de la corriente porque igual es, o sea, es aburrido, **también hay que divertirse y jugar con lo que hay**. (ELK-B, 252)

Partaide horrek kode-alternantzia, erregistro formaletan, hala nola lanean, ez du egoki antzematen baina bai, berriz, erregistro kolokialetan eta, gainera, gaitasun-faltarekin lotzen dutenengandik urrunduz, berak kode-alternantzia egitea gaitasuna handitzearekin etorri zaiola argi utzi du: ikaskuntza-prozesuren hasieran ez zen gai erregistro aldakortasunik erakusteko eta erregistro kolokialetan formaletan bezala erabiltzen zuen euskara «perfekto», nahastu gabeko, hori. Gaitasun komunikatiboa handitu ahala, erregistro kolokialetan egokia den aldaera, hizkuntzak nahastuz, arau preskribatzailea apurtzen duena hain zuzen, ikasten eta erabiltzen hasi zen hizkuntzarekin jolasteko beharrezkoa den gaitasun-mailara ailegatu zenean, hain zuzen.

Zentzu berean gazte-hizkera deskribatzerakoan lagunarteko erregistro kolokialetan gazteek erabiltzen duten aldaera propioa, kode-alternantzia ezaugarria duena, hain zuzen, gazte horientzat kode transgresorea izan daitekeela erakutsi dute ikerlari batzuk (Amo-narriz 2008, Anaut 2010).

Azpiatal honetan erakutsi denez, partaide batzuk ez dute begi onez ikusten gizarte eleanitz askotan ohikoa den egoeraren arabera hizkuntza batetik bestera etengabe pasatzea, eta are gutxiago elkarriketa berean, solaskide denak gutxienez elebidun pasiboak izanik, bakoitzak hizkuntza bana modu sistematikoan erabiltzea. Halako egoerek deserosotasuna sortzen dute hiztun, berri zein zahar, gaitasun oneko zein ez hain handiko, askoren artean. Arrazoiak ezberdinak izan daitezke: alde batetik, *elebakartasunaren ideologiak* hizkuntza bat baino gehiago aldi berean erabiltzea, hizkuntzen arteko interferentzia «txarra» dela pentsatzera eramaten du hiztun asko. Bestetik, euskararen egoera ahulaz jabetuta dauden euskaldunak sarri beldur dira halako egoeretan, gaztelaniaren presioa dela-eta, euskara beti izango dela galtzaile, edo *Spanglish* moduko hizkuntza misto bat sortu daitekeela, eta, horren ondorioz, euskara bera betiko galdu (Sarasola 1997: 8). *Euskara galduko ote den ideologiak* zerikusi zuzena dauka iritzi horietan. Alabaina, askotan hiztun horiek ez dira konturatzen gaitasun mugatuko hiztunen kasuan zein onuragarria izan daitekeen momentu puntualetan gaztelaniara jotzea, berriro euskarara itzultzeko. Euskara erabiltzeko oraindik babes behar duenarentzat ezinbestekoa da gizarte-zigorrik gabe aritu ahal izatea. Are gehiago, elebidun pasiboekiko elkarriketetan elebitan aritu ezik, hau da, bakoitzak bere hizkuntzan, gaztelaniara jo behar da guztiz. Beraz, ele bitan aritzea euskara erabili ahal izateko estrategia bakarra izan daiteke batzuentzat euskara erabiltzen hasteko babes-egoerak bilatzeko orduan.

Gazteek egoera kolokialetan lagunartean egiten duten kode-alternantziari dagokionez, gainontzeko hizkuntzetan bezala, gazteek euren identitatea adierazten duen aldaera propioa behar dute, beste taldeengandik bereizteko erabil dezaketena. Erresistentzia-ekintza hori naturaltasunez hartu behar da gizartean eta ez da komeni zigortzea.

Kasu guzti horietan beharrezkoa da egoera kolokialetan jarrera preskriptibistegiak ekiditea.

4.6. Erabilera kontuan harturik profil ezberdinak

Lagineko partaideen erabilera-patroiak, gakoak eta hizkuntza-praktikak deskribatuta, erabilera-profilak deskribatzeari ekingo zaio hurrengo.

4.6.1. *Profilak zehazteko aldagaiak eta prozedura*

Partaideen profilak azaltzeko erabili den lehen aldagaia **erabilera-zenbat** kategoria izan da. Hiru erabilera-maila zehaztu dira: euskara asko erabiltzea («euskaraz bizi» direnak barne), *nahikotxo* erabiltzea eta *ezer ere ez edo gutxi* erabiltzea. Partaideak hiru kategoria horietan sailkatu dira ondoko informazioa kontuan hartuta: alde batetik, mahai-inguruetan eta elkarriketetan partaideek haien erabilerari buruz esan dutena, zehazki, ERAB-zenbat, ERAB-testuinguru situazionala eta ERAB-Kudeaketa bezala kodetu den informazioa eta, bestetik, galdesorta idatzian erantzundako erabilera orohar eta erabilera-sareak.

Hizkuntza erabiltzeko aukerak neurri handi baten **testuinguru soziolinguistikoak** ematen dituenek, aldagai hau erabili da partaideak sailkatzeko bigarren irizpide bezala: Testuinguru mesedegarrian bizi direnak (+%60 euskalduna: Artea, Bermeo, Busturia, Zeanuri, Dima, Igorre, Tolosa, Zumaia, Oihartzun, Usurbil); tarteko testuinguruan (%30-60: Donostia, Galdakao, Lasarte-Oria, Errenteria); eta testuinguru oztopotzailean bizi direnak (–%30: Bilbo, Getxo, Sestao, Trapagaran, Erandio, Leioa, Gasteiz). Azkenean tarteko testuingurukoek eta testuinguru oztopotzailekoek antzeko esperientziak dituztela ikusi da. Testuinguruaz aparte, profilak egiteko hirugarren aldagai moduan partaideak dituen euskarazko **sareak** erabili da. Sare trinko eta esanguratsu asko, gutxi ala bat ere ez ezberdindu da. Azken hori, partaideak berak mahai-inguruan edo elkarriketa bideratuan esan duenetik eta horien amaieran betetako informazio soziodemografikoa batzeko galdesortan idatzitakotik batu da.

Ondoren, laugarren aldagai bat erabili da profilak zehazteko: **jarrera proaktiboa ala erreaktiboa** dutenentz eta **atxikimendua**, «Balloak» kodean aurkitutako informazioa gehi beste kategoria batzuetan kodetutakoa, beti ere partaide bakoitzak euskararekiko zein balio eta jarrera erakusten duen argitze aldera.

4.6.2. *Hiztun berrien profilak erabilerari begira*

Lagineko partaideak 8 profilen inguruan bildu dira erabilera-zenbat, testuinguru soziolinguistikoa, sareak eta jarrera proaktibo/erreaktibo aldagaiak erabilita (ikusi Erabilera Profilen Diagrama kapituluaren amaieran, 102-103 orrialdeetan).

4.6.2.1. LEHEN ERABILERA-PROFILA

Lehen profilaren inguruan bildu diren partaideek egunerokoan **asko erabiltzen** dute euskara eta batzuk «euskaraz bizi» direla ere esan daiteke. **Testuinguru mesedegarrian** bizi dira eta **sare trinko eta esanguratsu** asko dituzte, euskaldun zaharrek osatutakoak askotan. Haien hautuetan euskararekiko **kontzientzia eta atxikimendu** handia antzematen da eta euskararen aldeko **jarrera proaktibo** argia.

Gainera, profil honetan bildu diren partaideak ondoko beste ezaugarri komun hauek dituzte: **gaitasun eta jartotasun objetibo ona edo oso ona** dute, gehienak asko hurbiltzen dira **inguruko lekuan lekuko aldaerara**; euren kasuan ikaste- eta erabilera-prozesuak oso lotuta daude, hau da, ikasi ahala gero eta gehiago erabili dute eta erabiltzeak ondo ikastea ekarri du. Azkenik, euskarari **balio integratzaile** handia ematen diote, baita batzuk identitarioa ere. **Berrogei urte baino gehiago** dute; **heldutan ikasi** dute euskara, **euskaltegia eta kalean**.

Hamabi partaide bildu dira profil honetan.

4.6.2.2. BIGARREN PROFILA

Lehen profilaren ezaugarri denak betetzen dituzte, salbu eta adina eta euskara ikasteko modua: bigarren profilakoak **40 urte baino gazteagoak** dira eta euskara **murgiltzean** ikasi dute. Gainontzean, **asko erabiltzen** dute euskara, **testuinguru mesedegarrian** bizi dira eta **sare trinko eta esanguratsuak** dituzte, euskararekiko **kontzientzia eta atxikimendua** dute eta **jarrera proaktiboa** erakutsi dute. Gainera, **gaitasun eta jartotasun objetiboa ona edo oso ona** dute, denak hurbiltzen dira **lekuan lekuko aldaerara** eta askok balio integratzaile eta identitarioa ematen diote euskarari.

Zortzi partaide bildu dira profil honetan.

4.6.2.3. HIRUGARREN PROFILA

Hirugarren profileko partaideek **asko erabiltzen** dute euskara, **testuinguru mesedegarrian** bizi dira eta **sare trinko eta esanguratsuak** dituzte. Baina, **ez** dute euskararekiko **kontzientzia eta atxikimendu** handirik eta euskararekiko **jarrera erreaktiboa** dute: testuinguru mesedegarrian bizi direnez, testuinguruari erantzunda asko erabiltzen dute baina zalantzazkoa da testuinguru oztopotzailean euren hizkuntza-hautuak euskararen aldekoak izango liratekeen. Profil honen inguruan bildu diren partaideek beste ezaugarri komun bat dute: **gazteak** dira eta **murgiltzean** ikasitakoak.

Hiru partaide bildu dira profil honetan.

4.6.2.4. LAUGARREN PROFILA

Laugarren profileko partaideek euskara **gutxi edo oso gutxi erabiltzen** dute, **testuinguru mesedegarrian** bizi badira ere. Ez dakigu benetan euskarazko sare trinko eta esanguratsurik duten. Talde hau anitza da motibazio eta euskararekiko atxikimenduaren aldetik; kontzientzia izanda ere batzuk sentimendu epeldua dutela esan dute. Haien artean komuna da **gaitasun objektibo eta subjektibo** (autopertzepzioa) **ertaina** izatea.

Bost partaide bildu dira profil honetan.

4.6.2.5. BOSGARREN PROFILA

Bosgarren profileko partaideek **euskara asko edo nahikotxo erabiltzen** dute, **testuinguru oztopotzailean** bizi badira ere. Izan ere, **sare esanguratsu batzuk** dituzte, familia edota lanaren eremuan. Halaber, euskararekiko **kontzientzia handia** dute eta euren hautuetan **jarrera proaktibo** handia erakutsi dute. Euren ezaugarri komunak hauexek dira: **gaitasun eta jaritasun objektibo ona edo osa ona**, euskararekiko **balio identitarioa** dute, nahiz eta modu ezberdinean formulatu, askotan familia barruan harreman-hizkuntza aldatu dute eta etxeko euskaldunek osatutako sare trinkoak dituztela pentsa dezakegu. Gure laginean profil honetara bildu diren denak **helduak** dira, euskara H2 bezala ikasitakoak; hau da, gure laginean testuinguru oztopotzailean bizi den, sare euskaldun esanguratsu batzuk dituen eta proaktiboki euskara asko erabiltzen duen murgiltze ereduan ikasitako gazterik ez dago.

Sei partaide bildu dira profil honetan.

4.6.2.6. SEIGARREN PROFILA

Seigarren profileko partaideak **testuinguru oztopotzailean** bizi dira eta **euskara gutxi** erabiltzen dute, normalean eremu bakarrean (lanean, seme-alabekin, lagun jakinekin) baina eremu horretan euskararen erabilera erabat bermatuta egon gabe. Euren hautuetan jarrera proaktiboa (tamaina ezberdinean) edo erreaktiboa erakusten dute, adibidez, umeei beti euskaraz egiten dietela esan dute, administrazio publikoan edo komertzioetan «Hemen euskaraz» kartela egonez gero beti euskaraz egiten dutela, edota lanean euskaraz egiten saiatzen direla.

Halaber, hurrengo ezaugarri komunak dituzte: euskararekiko **atxikimendua** dute eta **pena edota frustrazioa** sentitzen dute euskaraz gehiago ez egiteagatik eta askok gaitasun eta jaritasun ertaina dute. Talde honetan **gazteak zein helduak** daude eta baldintza mesedegarriagoak izanez gero euskararen aldeko apustua egingo luketela pentsa daiteke.

Hamahiru partaide bildu dira profil honetan.

4.6.2.7. ZAZPIGARREN PROFILA

Profil honetako partaideek oso **gutxi edo ezer ez dute erabiltzen** euskara. **Testuinguru oztopotzailean** bizi dira eta euskararekiko **kontzientzia handirik ez** dute, jarra proaktiborik ere ez, ezta errudun sentimendurik euskaraz ez egiteagatik.

Ezaugarri komun hauek dituzte: euskara **murgiltzean** ikasi dute baina ikaskideekin harreman-hizkuntza beti izan da gaztelania eta gaztelania baino ez, eta **euskara-eskola irudia** konpartitzen dute. Batzuk euskara erabiltzea gustatuko litzaiekela esaten dute baina euskararen erabilera ekarriko duen inolako ekintzarik ez da antzematen beraien hautuetan. Askok euskarari balio instrumentala atxikitzen diote eta batzuk balio identitario epela.

Hamabost partaide bildu dira profil honetan.

4.6.2.8. ZORTZIGARREN PROFILA

Zerbait edo nahikotxo erabiltzen dute, **testuinguru oztopotzailean** bizi badira ere. Sare trinko eta esanguratsu gutxi dituzte eta **modu erreaktiboan** jokatzeko dute. **Behartuta** sentitu dira euskara ikastea erabaki dutenean eta erabili, kanpoko presioagatik erabiltzen dute, lanean adibidez.

Profil honetan gure lagineko partaide bakarra bildu bada ere, uste dugu gizartean presentzia nabaria izan dezakela profil honek.

4.6.3. Erabilera profilen diagrama

1. PROFILA

- 40 urte baino gehiago.
- Euskara euskaltegian eta kalean ikasi.
- Euskara asko erabili.
- Testuinguru mesedegarrietan bizi.
- Sare asko eta esanguratsuak.
- Euskararekiko kontzientzia eta atxikimendu handia.
- Euskarari balio integratzaile eta batzuk identitarioa.
- Euskararen aldeko jarrera proaktiboa.
- Jariotasun eta gaitasun handia eta askok tokian tokiko aldaera.

2. PROFILA

- 40 urte baino gutxiago.
- Euskara murgiltze ereduan ikasi.
- Euskara asko erabili.
- Testuinguru mesedegarrietan bizi.
- Sare asko eta esanguratsuak.
- Euskararekiko kontzientzia eta atxikimendu handia eta balio integratzaile eta batzuk identitarioa.
- Euskararen aldeko jarrera proaktiboa.
- Jariotasun eta gaitasun handia eta askok tokian tokiko aldaera.

3. PROFILA

- Gazteak.
- Euskara murgiltze ereduan ikasi.
- Euskara asko erabili.
- Testuinguru mesedegarrietan bizi.
- Sare asko eta esanguratsuak.
- Euskararekiko kontzientzia eta atxikimendu handirik ez.
- Euskararekiko jarrera erreaktiboa.

4. PROFILA

- Euskara gutxi erabili.
- Testuinguru mesedegarrietan bizi.
- Talde anitza motibazio eta euskararekiko sentimenduen aldetik.
- Gaitasun objektibo eta subjektibo ertaina.

5. PROFILA

- Helduak.
- Euskara asko ala nahikotxo erabili.
- Testuinguru oztopotzailean bizi.
- Sare esanguratsu batzuk.
- Euskararekiko kontzientzia handia.
- Euskara erabiltzeko jarrera proaktiboa.
- Gaitasun eta jarioetasun ona.
- Euskararekiko balio identitarioa.

6. PROFILA

- Gazteak zein helduak.
- Euskara gutxi erabili.
- Testuinguru oztopotzailean bizi.
- Jarrera proaktiboa edo errektiboa.
- Euskararekiko atxikimendua eta erabileraren urriagatik frustrazioa.
- Gaitasun eta jarioetasun ertaina.
- Baldintza mesedegarrietan euskararen aldeko apustua.

7. PROFILA

- Euskara erabilerarik ez edo ia.
- Testuinguru oztopotzailean bizi.
- Euskararekiko kontzientzia handirik ez, ezta jarrera proaktibo eta errudun sentimendurik.
- Euskara murgiltze ereduak ikasi baina klasekideen harreman hizkuntza gaztelania.
- Jarrera errektiboa, nahiz eta batzuk euskara gehiago erabili nahi.
- Askok euskarari tresna balioa atxiki.

8. PROFILA

- Zerbait ala nahikotxo erabili kanpo presioagatik.
- Testuinguru oztopotzailean bizi.
- Sare trinko eta esanguratsu gutxi.
- Euskara ikasteko behartuta sentitu.

Familia hizkuntza-politika

Familiaren eremua, pertsonarentzat daukan balio emozional, intimo eta esanguratsuegatik, bereziki garrantzitsua da euskararekiko atxikimendu eta erabilerari begira. Kapitulu honetan familia barruan hizkuntzak zelan kudeatzen diren eta euskara seme-alabei transmititzeko dauden eredu ezberdinak zeintzuk diren argitu nahi da. Hemen agertuko diren ideiak arbola edo diagramaren *Hizkuntza-praktikak: erabilera* eta *Hizkuntza-praktikak: transmisioa* adarretatik datoz.

Erantzun nahi ditugun galderak hauexek dira:

- Zeintzuk dira hiztun berrien familia barruko erabilera patroia nagusiak?
- Zein hizkuntza hobesten da euskaldundu diren hiztun berrien familia hurbileko kideen artean? Senitarteen arteko harreman-hizkuntza aldatu daiteke?
- Zeintzuk dira transmisio eredu nagusiak? Zeintzuk dira ohikoagoak?
- Gurasoak diren hiztun berriak euskara H1 bezala transmititzen ari dira? Gazteek familian transmitituko dute euskara? Zeintzuk dira hori egiteko gakoak?
- Zein dira familia barruan hartzen diren erabakiak bideratzen dituzten ideologiak?

Familia barruko hizkuntza-praktikak bereziki interesgarriak dira gure partaide hiztun berriek euskara ikasi ondoren ohiko harreman estuenetan zein puntutaraino egin duten *bere* erakusten dutelako. 4.2.2. atalean erakutsi denez, harreman estuetan ohitura-hizkuntza aldatzea zaila da eta hiztun berri denek ez dute lortu, batzuetan etxeko batzuk euskaraz ez dakitelako, eta beraz, haiekin euskaraz egitea ezinezkoa delako, baina beste batzuetan etxekoak (neba-arrebak, seme-alabak edo bikotekidea) euskaldunak izanda ere, gaztelaniaz ezarritako ohitura aldatzea gainditu ezineko oztopo antzematen delako, edo planteatu ere ez delako egiten.

Gainera, seme-alabekiko harremanetan erabiltzen den/diren hizkuntzek eragin zuzena dute transmisioan. Izan ere, seme-alabekiko erabilera-hautuetan transmisio-eredua eta familia-politika antzeman daiteke eta, gainera, ohikoa da seme-alabak izateko garaian erabakitzea hizkuntzei dagokienez familia-politika zein izango den, zelanbaiteko hausnarketa baten ondoren sarri. Erabaki hori hiztun berrien kasuan bereziki garrantzitsua da.

Galdesorta kuantitatibo baten bidez egindako ikerketa batek (Villanueva 2013) Bilbo inguruko testuinguru oso oztopotzaileen (%20 baino gutxiago euskalduna den testuinguruan) bizi eta D ereduan ikasi duten 138 guraso hiztun berrien artean %73k seme-alabekin bakarrik daudenean euskaraz baino ez dietela egiten erakutsi du; beste %23k bai gaztelaniaz bai euskaraz egiten dietela erantzun du. Euskararen garapen eta normalizazioari begira, emaitza positiboa erakusten du ikerketak. Alabaina, zuhurtziaz hartu behar da datu hori: guraso hiztun berrien artean seme-alaben familia barruko transmisioan euskara H1 bezala transmititzeari ematen dioten garrantzia erakusten du, zalan-tzarik gabe, baina gogoratu behar da gurasooi galdera zuzen eta bakarra egin zitzaiela, argazki finkoa (momentu bateko ustea edo desioa) ematen duela eta, hortaz, familia barruko hizkuntza-kudeaketak ezaugarri dituen konplexutasunak ezkutatuta egon daitezkeela.

Ikuspegi ezkorragoa erakutsi du beste ikerketa kuantitatibo batek (Jauregi 2015): horrek Lasarte-Oriako 13-24 bitarteko D ereduan ikasi duten 162 gazteri egindako inkestako datuak ditu oinarri. Ikerketak erakusten duenez, euskara familian guraso biek transmitzeak, batek bakarrik egiteak ala familian ez transmititzeak eragin zuzena dauka horiek duten gaitasun-maila, erabilera eta euskararekiko atxikimenduan. Euskara familian, eta guraso biek ikasi denean ageri dira emaitzarik onenak hiru aldagai horietan; eta emaitza eskasena eskolan bakarrik ikasi denean. Datu horiek D ereduan bakarrik euskara ikasitako hiztun berriek euskara familian transmitituko dutela zalantzan jartzera darama ikerlaria.

Egoeraren konplexutasuna kontuan izanda, beharrezko ikusten dugu datu kuantitatiboak kualitatiboekin osatzea eta transmisioaren gaiari Familia Hizkuntza-Politikaren ikuspegitik heldzea, hurrengo atalean azalduko den bezala.

Ondorenean, familia barruan egiten diren hizkuntza-praktikak aurkeztuko dira. Batetik, partaideek eurek bezala euskara ikasi duten neba-arrebekiko harremanetan, bikoteki-dearekiko harremanetan eta seme-alabekiko harremanetan zein hizkuntza erabilera-patroi ezberdin erakusten duten. Bestetik, azken taldearekin lotuta, euskararen garapenerako bereziki garrantzitsua den familia-transmisio eredu ezberdinak zeintzuk diren. Zehazki, ezinbestekoa da jakitea ea euskararen hiztun berriak euskara familian H1 bezala transmititzen ari diren edo, gazteen kasuan, transmititzeko prest dauden, eta zein oztopo edo zailtasun antzematen duten.

Kapitulu honetako azpi-gaiak honako hauek dira:

5.1. Transmisioa eta Familia Hizkuntza-Politika

5.2. Familia barruko hizkuntza-kudeaketa

5.2.1. Neba-arreben artean, batez ere gazteen kasuan

5.2.2. Bikotekidearekin

5.3. Familia barruko transmisio-ereduak

5.3.1. Familian euskara baino ez da transmititzen

5.3.2. Familian hizkuntza biak transmititzen dira

5.3.3. Familian euskara ez da transmititzen, baina bai H2 bezala hezkuntzaren bi-dez

5.3.4. Euskara H1 bezala transmititzeko arrazoiak eta zailtasunak

5.3.5. Euskara H2 bezala transmititzeko arrazoiak

5.3.6. Gazteek hobesten dituzten transmisio-ereduak

5.1. Transmisioa eta Familia Hizkuntza-Politika

Hizkuntza gutxituak biziberritzeko saioen testuinguruan *belaunaldien arteko ama-hizkuntzaren transmisioa* muinean ezarri dute adituek, euskararen testuinguruan Sánchez Carrión (1987) eta nazioartean Fishman (1991) aintzindariak, besteak beste. Azken honen ustez (1991: 113), hizkuntza gutxitu bat biziberritzeko etxe edo familiako esparruan erabilera bermatzea da gakorik garrantzitsuena, diglosia egonkorra gutxienez izan nahi bada, edo beste modu batera esanda, berarentzat ez da posible hizkuntza bat mantentzea familian transmititzen ez bada. Fishmanen teoria kritikatu bada ere (ikus O' hlfearnáin 2013 kritiken laburpen baterako), eta familia ez den beste transmisio-modu batzuk egon daitezkeela onarturik, garbi dago familia-politika eta praktikak oso garrantzitsuak direla hizkuntza gutxituak biziberritzeko, eta baita ere hiztun berriek rol garrantzitsua dutela familian hizkuntza gutxitua sartzeko.

Baina familia-transmisioa ez da modu bakarra euskara moduko hizkuntza ahul bat berreskuratzeko. Lasarte-Orian euskararen transmisioaren inguruan egindako ikerketa etnografiko batek (Hernández 2007: 23) familia eta komunitatearen arteko loturetan ipini du indarra. Euskara aztertu du komunitatearen adierazpen-mekanismo eta inguruarekin erlazionatzeko tresna bezala. Horrek sortzen baititu hizkuntzaren transmisioa bermatzeko oinarritzko baldintzak.

Illo beretik, Nafarroan berriki egindako ikerketa batek (Kasares 2014) transmisioaren kontzeptua kritikatu du, hizkuntza familia barruan belaunaldiz belaunaldi, hutsik egin barik, pasatzen dela iradokitzen duelako. Horrela, beste ikerlari batzuk (Schieffelin eta Ochs 1986) hasitako bideari jarraituz, *sozializazioaren* kontzeptua hobesten du Kasaresek, gizartearen, hau da, komunitatearen rol eragilea aldarrikatuz. Izan ere, transmisioa etenda euskara familia mota ezberdinetan nola berreskuratu den (*berrestekamendua*) aztertu du ikerketa horrek, eta gurasoen hizkuntza-gaitasuna eta guraso horiek seme-

alaben sozializazioaren aurrean dituzten jarrerak, jokaerak eta egiten dituzten hautuak kontuan harturik hiru familia-mota zehaztu ditu:

- *familia euskaldunbeteak*: euskararen transmisioan belaunez belauneko etenik bizi izan ez dutenak; kide guztiak dira euskaldunak.
- *familia euskaldun ez-osoak*: haurrak euskaldunak dira baina gurasoak eta aitita-ama-mak euskaldunak zein erdaldunak.
- *familia euskaldunberrituak*: kide euskaldunak azken belaunaldian baizik ez dituztenak; umeak baino ez dira euskaldunak.

Kasaresek argia transmisioaren ikuspegi ohikoak baztertu dituen azken familia-mota horretan ipintzen du, hizkuntza familia-transmisioa gurasoen esku utzi beharrean indarra haurrengan ipiniz, familietan euskara haurren bidez sartu baita euskara kasu askotan.

Dudarik gabe transmisioa ulertzeko modu berria da bai Hernándezek bai Kasaresek egiten dutena. Izan ere, lehenak *Familia Hizkuntza-Politikaren* kontzeptua hobesten du (Hernández 2015) familia barruko transmisioari dagokionez. Bere ustez, euskararen etorkizunari begira hain garrantzitsua den familia barruko transmisioan eragin ahal izateko ondo ezagutu behar dugu familietan ematen den Hizkuntza-Politika, zehazki, zein diren familiakideek dituzten hizkuntzarekiko uste eta iritziak eta hizkuntzarekin eta, batez ere, egoera elebidunaren aurrean zein hizkuntza-hautaketa egiten duten. Lan honetan bat egiten dugu planteamendu horiekin. Jarraian, familia barruan egiten den hizkuntza-kudeaketa eta aurkitu ditugun transmisio ereduek ezberdinak aurkeztuko dira eta familia-ebatsi horiek zein ideologiek eragiten dituzten azalduko da.

5.2. Familia barruko hizkuntza-kudeaketa

Familia barruko hizkuntza-kudeaketa aztertzeko hiru harreman-mota aztertuko dira. Batetik, gure partaide diren hiztun berriek eurak bezala hiztun berriak diren neba-arrebekin zein kudeaketa egiten duten (5.2.1); bestetik, bikotekidearekin zein hizkuntza/k hobesten dituzten (5.2.2). Harreman-mota bi horietan familia barruan harreman-hizkuntza aldatzea batzuentzat zein zaila den eta hiztun berri askorentzat guraso erdaldunen presentzia euskara erabiltzeko gako oztopotzaile handia dela erakutsiko da. Azkenik, hurrengo atalean (5.3) seme-alabak dituztenen kasuan gurasoek euren artean zein hizkuntza/k erabiltzen dituzten eta seme-alabei zein/tzuk transmititzen ari diren eta zergatik azalduko da.

5.2.1. Neba-arreben artean, batez ere gazteen kasuan

Hiztun berriek neba-arrebekin zein hizkuntza-hautu egiten duten oso garrantzitsua da, bereziki, neba-arreba denek euskara murgiltzean ikasi duten gazteen kasuan. Txiki-

txikitatik euskara ikasi badute ere, askotan gaztelania izaten da harreman-hizkuntza bakarra edo nagusia, batez ere testuinguru oztopatzaileetan:

- (174) Gero, nire ahizparekin batzutan euskaraz eta beste batzutan, adibidez, gazteleraz, baña batez be gazteleraz. (BI-A, 25)

Gurasoekiko harremana gaztelaniaz izanik, neba-arrebak euskaldunak izanagatik, ohikoa da familian gaztelania nagusitzea, **gurasoak ez baztertze**ko ideia hautu horren oinarrian dagoela, hurrengo partaideak azalduta bezala.

- (175) Anaiakin batzutan bai, beste batzutan ez, etxeko giroagatik **eta gurasoek ez dutelako ulertzen** (Gazte-GE-A, 127)

- (176) Askotan pentsaten dabe horrek gurasoek, igual anai ba, adibidez nik dekot anai txiki bet, eta, bueno, txikitatik esan dostie aber anaiagaz zergaitik ez dodan..., osea, biok badakigu euskeraz ta aber **zeaitik etxean ez dou iten barbarik euskeraz**. Baina bueno, aber, haiek be bai, osea, haiek ez dakie, ez dakie euskeraz, eta orduan **ba bildurra edo lotsa** ematen dau ba etxean egotea eta anaiagaz edo berba iten euskeraz ta gero sartzen da ama habitaziñora edo, eta ez dau ezebez aituten, asi que... (Gazte-BI-C, 114)

Azken aipuko familiako guraso biak erdaldun elebakarrak izanda ere, euskararen aldeko jarrera positiboa transmititu diete semeei, aipuan bertan partaideak esaten dueenez, eta gurasoek anaiak euskaraz berba egitera animatzen dituzte. Gainera, Gazte-BI-Ck ikastolan eskolaratzeko gurasoen arrazoiak azaldu dituenean, batetik, balio identitarioarekin lotu ditu eta haiek ikasteko aukerarik ez zutelako izan egin zutela adierazi du. Hala eta guztiz ere, gurasoen jarrera aldekoa izanagatik, anaiak deseroso («bildurrez edo lotsaz») sentitzen dira gurasoen aurrean euskaraz egiten, kanpo uzten dituztelako.

Baina neba-arrebeekin harreman-hizkuntza gaztelania izatea testuinguru oztopatzaileetan ez ezik, testuinguru mesedegarrian ere, edota beste hizkuntza-hautuetan jarrera oso proaktiboa erakutsi duten partaideen artean ere, ohikoa da. Horien kasuan, interesgarriak dira ematen dituzten arrazoiak, testuinguru oztopatzailean bizi direnek erabiltzen dituzten berberak, hain zuzen: **ohitura eta gurasoekiko errespetua**. Ikus ditzagun Tolosako eta Zeanuriko gazte batzuen ekarpenak honetaz:

- (177) Etxian beti erderaz, ta anaiakin, nahiz ta nie anaiak jakin euskeraz, beti anaiakin erderaz, azkenean etxean **ohitura** hoi sortu zaigu, eta ya **aldatzeko zaila**. (TO-C, 65)

- (178) Niri be pasetan jat, adibidez, nire nebea, dekot neba lau urte gazteago dana, eta be bada euskaldune, biak hemen jaiok **baina ohitu gara etxean erderaz itera**, eta orduan beragaz beti iten dot erderaz, nahiz eta biok bakarrik egon, erderaz iten dot. Baina, adibidez, **bagaoz herrien, bera bere lagunekaz eta ni nireakaz, euskeraz iten dotzet, baina ostantzian, beti erderaz**. Ba in geinke perfectamente bion artean euskeraz, baina igual amak eta aitak

ulertuko ez daurien, **respetoagatik** edo, ba txikitatik ohitu gara erderaraz egitera ba, oain, ez dakit, ez jata urtetan euskeraz egiten. (ZEA-B, 121)

Gurasoekiko errespetua sarri aipatzen da familiarteko euskaldunekin gazteleraz egiteko arrazoi moduan, eta behin gaztelania harreman-hizkuntzatzat ezarrita, ohitura hori aldatzea zaila dela. Zeanuri edo Zumaia moduko testuinguru mesedegarriko herrietan bizi diren gazteen kasuan, neba-arrebekin bi hizkuntzak erabiltzen dituztela aipatu da: etxean gurasoekiko errespetuagatik gaztelania, eta kalean, herri horietan gazteen artean ohikoa denez, euskara.

- (179) Nere gurasoak lana dala-ta etorri zian emigrante bezala honea lanea, bat dator Gaztelatik eta bestea Extremaduratik. Orduan etxean guk beti erderaz, eta eskolan, besterik ez, euskeraz. Orduan, iritsi etxea eta euskeraz ezin, ama eta aitak ez zuelako ulertzen, beaiek ez dakie euskaraz oaindik, dijoazte hemen berrogei bat urte eta, ez due nahi, ez daka inolako interesik, eta orduan **gu etxea iristen ginanean euskara ezin zan in**, ahizpa eta nere artean, eta **gu biok euskeraz eskolan, kalia da dana** / Bai, gehien bat gurasoekin eta baldin bagaude, ba azkenian errespetu, beraiek hala esaten zigut txikitik, **errespetua dala-eta** ezin genduala beaien aurrean euskeraz ein. Eta holaxe jarraitzen deu. Eta nere ahizpa eta nere artian etxian e bai jarraitzen deu erderako... (ZU-C, 34/35)

- (180) Nire ahizpa, joe, beti elkarrekin, (...) beti, eta adibidez berekin, **etxean oain biok bakarrik bizi gea eta askotan euskeraz ai gea**, eta igual erdera aldatzen gea eta, baina da inkoniziente, segun zertaz hitz egiten ari garen o lo que sea, baina nik, nere ahizpa Carmen deitze'a, eta nik erderaz deitzen diot, Mamen porque txiki txikitatik nola erderaz iten nun eta ez zitzaizen ateratzen Carmen esatia, ba Mamen... Ta oain euskeraz hitz egiten detenean Carmen deitzen diot euskeraz, baina es que erderaz baldin banaiz berekin eta deitu behar baldin baiot Mamen ateratzen zait...¹ (ZU-D, 49)

Azken bi kasu horiek interesgarriak dira neba-arrebekin euskara ere erabiltzea ekarri dutelako, *mudarik* zailena erakusten dutelako: familiartekoen artean hizkuntza-ohitura aldatzea eta euren errepertorioan euskara ere sartzea. Murgiltzean eta giro mesedegarrian bizi diren gazte batzuek aparte, heldutan euskara ikasitako batzuk ere gai izan dira nebarrebekin harreman-hizkuntza aldatzeko, euskararen alde, bai Zumaia moduko testuinguru mesedegarrian bai Bilbo moduko testuinguru oztopotzailean ere, hurrengo aipuek erakusten dutenez:

- (181) **Nire anaia eta bion artean beti gazteleraz ein deu, biak ikasi arte**. Orain biak bizi gea Zumaian, **eta oin gure harremana euskeraz** da, hola. Eta inoiz erderaz hasten bagea, eta pixkat raro, bai, ja, bai, bai jendekin eta nik ohitura hoiek aldatu ditut, ja euskeraz, eta orain erdera oso, oso, oso gutxi, kanpoa, laneko ez dakit zer, ez bada, kanpora jun behar dezula eta hori, baina hemen, Zumaian behintzat gehien, gehien, ba euskeraz. (ZU-F, 117)

¹ Partaideen konfidentzialitatea dela eta benetako izenak aldatu ditugu.

- (182) Nire familixen aldiz danok gara, beno, jaiotzez erdaldunak, familia eta, danok, baña, ba beno, euskera ikasi, arrazoi ezberdinengatik, edo zaletasunagatik, edo gogoagatik, edo lanagatik, neure kasun bezala, eta gaur egun badirez **bi arreba eta anaia bat, eta beraiekaz beti euskeraz**, osea, **geure artean beti euskeraz itxen dogu, beti**. Hombre, anaia bizi da Azkoitian, normal, arreba bat bizi da Baztanen, ere bai nahiko gune euskalduna, baña **beste arreba bizi da hemendik gertu, Bilbotik gertu, gune ez euskaldunien**, baña horri ohiturari, ez dakit, egia esan ez naz akordetan noiz hasi ginen hori egiten... (BI-C, 26)

5.2.2. *Bikotekidearekin*

Bikotekidearekiko harremanean ezartzen den hizkuntza zein edo zeintzuk diren eragin handia dauka hiztun berriak euskara erabiltzeko aukeretan eta bereziki garrantzitsua da seme-alabei zein hizkuntza transmitituko zaien erabakitzeke orduan, 5.3. atalean azalduko denez.

Bikotekideen arteko hizkuntza-praktikak aztertzeke lehendabizi bikotekidea elebiduna ala elebakarra den kontuan hartu behar da. **Bikotekidea euskaldun zaharra** izanez gero, sarri euskara familia-hizkuntza nagusi bihurtu da, nahiz eta bikotekideen artean gaztelania ere erabili:

- (183) Ez, bueno ba gehien... aber, badaoz momentuak edo be bai, ezta? Orduen guk alaba bi dekuz eta alabakaz egin dogu euskeraz, noski. Baina gero, bueno, **badauz beste momentu batzuk ba erdera be erabilten dogula**, orduan, segun eta batzutan ez dakizu zergaitik **urten iten dotzu**, daoz detalle batzuk, ez dakit... (ZEA-D, 116)

Aipuan ZEA-D partaideak adierazi bezala, seme-alabei euskara transmititzea erabakita ere, eta haiei gehien bat edo beti euskaraz egin arren, ohikoa da bikotekidearekin hizkuntza biak erabiltzea. Izan ere, partaide askok esan dute, nebarrebekin bezala, bikotekidearekin hizkuntza-ohitura aldatzea zaila dela (ikus. 4.2.2) eta ez dutela harreman-hizkuntza aldatu, edo hizkuntza biak erabiltzen dituztela.

Bikotekide biak hiztun berri direnean, hizkuntza aldatu duenik badago, Gasteizke partaide hau bezala.

- (184) Eta hortik aurrera ba, bikotekideekin ezkondu, **bikotekide nik baino gutxiago zekien, baina hala ere ahalegindu zan, eta azkenean gure arteko hizkuntza euskara bihurtu zan**, seme-alabak izan, haiek ere ama-hizkuntza bezala euskara, eta hortik aurrera ba, bueno, gehien bat gurean hitz egiten da euskara familian. Ez bakarrik gure etxean, ba, arreba batek ere badaki, semeak ere, eta orduan, ba bueno, ba etxeko hainbat lagunekin euskaraz egiten degu guztia. (GA-A, 10)

Alabaina, gure laginean gehiago dira bikotekideen artean gaztelaniaren aldeko hautua egiten jarraitzen dutenak.

- (185) Gizona eta ni, osea, gu erderaz ezagutu egin gara, osea, **gure hizkuntza naturala, gu bion artean erderaz** da, baina bueno, etxean egiten dogu euskeraz eta hori, baina bueno, gero gure artean zeozer hori, pues **erderaz irtetzen jaku** osea esatea. (ZEA-F, 109)

Azkenik, **bikotekidea ez euskalduna edo gaitasun urrikoa** denean, espero daitekeen, gaztelaniak jarraitzen du bikotearen harreman-hizkuntza izaten, nahiz eta familian hizkuntza biak transmititu, kasu honetan euskara transmititzearen erantzunkizuna gure partaide hiztun berriaren esku egonik.

Hurrengo atalean erakutsiko denez, transmisio-ereduak zehazterakoan guraso diren bikotekideen arteko hizkuntza-hautuak kontuan hartu beharrekoak dira.

Azpmarratzekoa da hiztun berri batzuen familietan hartzen den euskararen aldeko hizkuntza-politika: nebarreben artean eta bikotekidearekin harremanaren hasiera-hasieran ezarritako hizkuntza aldatzea zailena dela aintzakotzat hartuta, euskararekiko konpromiso handia erakusten du hizkuntza-ohitura aldatzeak eta guraso erdaldunek ere euren presentzian seme-alabek euskaraz jardutea bultzatzeak.

5.3. Familia barruko transmisio-ereduak

Familia barruko transmisioa azaltzeko eredu ezberdinak erabili dira, adibidez Romaine (1995: 183-188), zeinek gurasoen H1, komunitateko hizkuntza eta gurasoek erabilitako hizkuntza-estrategia kontuan harturik, sei transmisio-eredu ezberdin zehazten dituen; besteak beste, gure artean ere ematen diren *One parent-one language* (*Guraso bakoitzak hizkuntza bana*, normalean bakoitzak bere H1) eredu eta *One language-One environment* (*Hizkuntza bat-Inguru bat*, guraso biek familiatik kanpo nagusia ez den hizkuntzan hitz egiten die seme-alabei).

Segidan, gure partaide gurasoen artean aurkitu ditugun transmisio-eredu ezberdinak aurkeztuko dira. Aintzakotzat hartu beharrekoa da kasu guztietan guraso bat behintzat hiztun berria dela. Hurrengo taulak ikerketa kualitatiboak aurkitu diren transmisio-ereduak biltzen ditu. Posible ez diren aukerak grisez markatuta daude; aukera bat ixaren bidez markatuta dagoenean gure laginean ez dugula aurkitu esan nahi da baina posiblea dela gizartean egotea.

2. taula

Transmisio-ereduak gurasoetarik bat gutxienez hiztun berria izanik

Transmisio ereduak familian	Hizkuntzen presentzia familian (gurasoen hizkuntza erabilera)	Beste gurasoaren H1	
Euskara baino ez da transmititzen (Ikus. 5.1.1.)	Erdararen presentzia oso urria da edo ez dago: familia-hizkuntza euskara da	<i>Euskaldun zaharra</i>	v
		<i>Hiztun berria</i>	v
		<i>Erdalduna</i>	
	Bikotekidearekiko harreman-hizkuntzak euskara eta gaztelania dira, maila ezberdinean	<i>Euskaldun zaharra</i>	v
		<i>Hiztun berria</i>	v
		<i>Erdalduna</i>	
	Bikotekidearekin harremana gaztelaniaz da	<i>Bikotea zaharra</i>	v
		<i>Biak berriak</i>	x
		<i>Erdalduna</i>	
Hizkuntza biak transmititzen dira (Ikus. 5.1.2.)	Guraso bakoitzak hizkuntza bana transmititzen du (batzuetan gaitasunak baldintzatua)	<i>Euskaldun zaharra</i>	x
		<i>Hiztun berria</i>	v
		<i>Erdalduna</i>	v
	Guraso biek hizkuntza biak (biek ondo) transmititzen dituzte	<i>Euskaldun zaharra</i>	x
		<i>Hiztun berria</i>	x
		<i>Erdalduna</i>	
Euskera ez da familian transmititzen (Ikus. 5.1.3)	Erdera egiten dute guraso biek, bai haien artean eta baita seme-alabei ere	<i>Euskaldun zaharra</i>	x
		<i>Hiztun berria</i>	x
		<i>Erdalduna</i>	v

5.3.1. Familian euskara baino ez da transmititzen

Guraso diren partaide batzuk familia barruan euskara baino ez transmititzea erabaki dutela adierazi dute, hau da, politika elebakarra hautatu dutela. Ebatsi horren arrazoia seme-alabek euskara ondo ikasiko dutela bermatzea da, eta askotan aipatzen da, euskarak gizartean presentzia urria duenez, gaztelaniaren presioa konpentsatzeko hartu dela politika elebakarraren aldeko erabakia.

- (186) **Gaur egun saiatzen naiz euskeraz bizitzen, ba, arlo guztietan, saiatzen naiz, zentzu guztietan.** Ordun, gaur egun euskera da nire hizkuntza lehentasunarako, euskerak edozer-

tan, eta **seme-alabagaz be bai**, nik dakot alaba eta semie, harremana euskerazkoa da, nire seme-alaben ama hizkuntza euskera da, nire gizonak euskeraz eitzen dau, gizonaren partez be bai familia osoa(k), orduan erderaz eitzen dugu nire familiarekin (...). **Orduan geuretzako arrotza edo, arraroa dena edo, ba nire familia edo nire munduagaz kontaktuan gauzanean** / gaur egun, adibidez nik, seme-alabak euki dodazanetik batez be, argi dakot lehentasuna euskerak ez badako, erderara jotzen dabe. Eta txikitxen nik pentsaten dot euren mundua ahalik eta **gitxien erderagaz kontaktua da hobeto, eurentzako hobeto**. (BE-C, 17/453)

Familian euskara baino ez transmititzeko erabakia testuinguru oso euskaldunean eta bikotekide euskaldun zaharra izanik hartu zuen BE-Cek. Arestian esanda bezala, baldintza zailagoak izanda, alegia, Gasteiz moduko testuinguru oztopotzailean eta bikotekidea ere hiztun berria izanik, hartu dute beste batzuk erabaki bera, ondoko partaideak bezala:

- (187) Bikotearekin ezkondu, bikoteak nik baino gutxiago zekien [euskaraz], baina hala ere aha-legindu zan, eta **azkenean gure arteko hizkuntza euskara bihurtu zan, seme-alabak izan, haiek ere ama-hizkuntza bezala euskara**, eta hortik aurrera ba, bueno, gehien bat gurean hitz egiten da euskara familian. Ez bakarrik gure etxean, ba, arreba batek ere badaki, semeak ere, eta orduan, ba bueno, ba etxeko hainbat lagunekin euskaraz egiten degu guztia. (GA-A, 15)

Kasu horretan GA-A partaideak eta bere bikotekideak haien arteko harreman-hizkuntza aldatzea hautatu zuten, eta ondoren izan zituzten seme-alabei euskara baino ez zieten transmititu familia barruan. Zentzu batean eredu hori *Hizkuntza bat-Inguru bat* (Romaine:1995) eredutik hurbil dago: familian gizartean presentzia urria daukan hizkuntza erabiltzen eta transmititzen da, sarri, besteak beste, hizkuntza gutxitura duten sarbidea konpentsatzeko asmoz. Alabaina, euskararen kasuan transmisio-eredu hori ez da erabat berdina, umeek eskolaren eremuan ere euskara erabiltzen dutelako.

Seme-alabei familia barruan euskara baino ez transmititzea erabakita ere, euskara eta gaztelaniaren presentzia ezberdina egon daiteke familiaren eguneroko harremanetan: kasu batzuetan, aurreko aipu bietan bezala, **erdararen presentzia oso urria edo hutsaren hurrengoa da**, familiagunean erdaraz egitea arrotza izateraino. Normalean familia horietan partaide hiztun berriaren bikotekideak H1 euskara izaten du eta hiztun berria den gurasoak bere H1 transmititzeari uko egin dio; beste kasu batzuetan guraso bikotekide biak dira hiztun berri, aurreko aipuetan erakutsi den bezala.

- (188) Erderaz eitzen dugu nire familiarekin, nire partekoekin, gaur egun, normalien, bai telefonoz, bai, eurengan daguzenean, bai eurek datozenien, **orduan geuretzako arrotza edo, arraroa dena edo, ba nire familia edo nire munduagaz kontaktuan gauzanean** / ze nik **nire aite itxi aitxe dot elkarrizketatik kanpo, kontzienteki**. Nire aitxek, gu berbetan gauzanean bera ez da gelditzen, bera kanpo geratzen da, eta seme-alabegaz be bai, momentu baten euki izan dot nik aitxe esaten «**kontuz ze ez dauie jakingo erderaz**

ondo, kontuz ze ume hauek ez dau egiten ez erderaz, nigaz ez dauie berba eitzen». Eta claro, nire aitxe egon da total zera, momentu batean, ume txikitxu izan dizenien, eta «aitete ekarri ez dakit zer», ta ez dut ulertzen, «¿me dices por favor?», ta imiek [umeak] ba ez, ez zauen jakiten. Eta hori **erabaki pertsonala izan zan, ez erakustea erderaz**, ze claro, nire aitzentzako, ba bai, erakutsi euskeraz, oso ondo, baina erderaz be. Eta hori erabaki bat izan zen momentu baten ba pentsatu nauelako ba ez, erderaz badakie, erderaz ingo dabie, ez, nigandik ez dabie jasoko erderie, egunen baten bai, egunen baten bai / Koinata bat dakot Madrilgoa, nire neba ezkondu da Madrilen eta bizi da Madrilen, eta orduan eurek dauzenian, ba **mahaian gauzenian edo familia giroan gauzenian euskeraz hitz egitea da batzuk kanporatzea, argi eta garbi, nahi izanda, nahi izanda.** / gaur egun, adibidez nik, seme-alabak euki dodazanetik batez be, argi dakot lehentasuna euskerak ez badako, erderara jotzen dabe. Eta txikitxen nik pentsaten dot euren mundua ahalik eta **gitxien erderagaz kontaktua da hobeto, eurentzako hobeto** (BE-C,17/ 429/440/453)

- (189) Agian entzuten dezu hori, ba hori, esaldi ospetsu hori «¿qué estaréis diciendo?», eta zuk beti esan behar diezu, «ba zuei buruz ezer ez». Nik uste dut horretarako jendea ere, ba, estakit, ohitu behar dala euskara entzuten eta. Zu ez duzu inoiz molestatu nahi, ez? Agian ba zure ama erdalduna da eta hori esaten dizuna **zure ama da. Baina berak badaki zure hizkuntza ere badala eta onartu behar du**, eta onartzen du. Pixkat batzutan agian, agian, ez dakit, nire aitari, nire amari agian gogorra egiten zitzaien hasieran, baina, ez nuen horrela somatu, nik uste det, haiek ere batzutan saiatzen dira, badakizu nolakoak diren aito-na eta amonak, ba «ura», eta horrelako hitzak esaten umeei. (GA-A, 11)

Familiartekoak kanpo uztearen ideia umeen familia-transmisioaren testuinguruan agertu da batik-bat: badirudi umeei euskara ikastea jokoan badago, sakon hausnartuta etorritako familia-politika dela eurekin beti (edo ahal den guztietan) euskaraz egitea, euskara familian babesteko, hain zuzen, nahiz eta askotan beste hizkuntza ere erabili familian, guraso diren bikotekideen artean adibidez, hurrengo erakutsiko denez.

Aurreko atalean (5.2.) esanda bezala, beste familia batzuetan, seme-alabei euskara bakarrik transmititzea erabakita ere, **bikotekideen artean bai euskara eta bai erdara erabiltzen dira**. Hau da, hizkuntza biak dira bikotearen harreman-hizkuntzak, edo erdara gehien bat eta, beraz, seme-alabei beti euskaraz egiten badiete ere, horiek etxean gaztelania ere entzuten dute. Kasuotan, eta 4.2.2. atalean azaldu den bezala, harreman intimoetan, eta batez ere bikote-mailan, harreman-hizkuntza aldatzea partaide batzuentzat oso zaila da. Ikus baita ondoko aipua:

- (190) Bai, nik ere semeak dauzkat eta egia da, bueno, semeekin, nere kasun, beti euskeraz hitz egiten det, beti, beti. Igual emaztearekin ez, igual bere garaian hasi ginelako ba erderaz euskeraz eta euskeraz erderaz eta bueno, erderaz hitz egiten dugu askotan. Baina nahiz eta gure artean erderaz hitz egiten, semeekin beti euskeraz hitz egiten deu. (TO-A, 40)

Norbaitek pentsa dezake bikotekidea euskaldun zaharra denean **guraso bakoitzak hizkuntza bana ereduak (bakoitzak bere H1)** indarra har lezakeela, elebitasun goiztiararren abantailak direla-eta. Alabaina, gure laginean ez da horrela gertatu, guraso dire-

nen artean behintzat (ikus. beherago gazteen intentzioa transmisioari begira). Jarraian, bikotekide euskaldun zaharra duten partaideek horren inguruan egin dituzten hausnarketak azalduko dira.

- (191) Bi alaba dazkat (...) txikiak zirenean, bai, guk etxean euskeraz egiten genun, XX [emakume izena] eta biok, eta batzutan XX [emakume bera]k esaten zidan, **«zuk zergatik ez diozu egiten erderaz?» «Ez, erdera ikasiko dute», nire familia osoa** han bizi da, Riojan, «ez, baina, hara juten direnean», eta egia da, txikiak zirenean juten ziren hara, abuela, y la abuela, osea, ez zion ulertzen nere amari, **eta tragu txarrak** pasatu izan ditugu, baina erderaz ikasi du, telebista dala, kalia dala, lagunak dirala, ikasiko du ondo, o sea que... Orduan, eta bueno, **nik dudarik ez**, ez dakit ondo edo gaizki egin deten baina hortan dudarik ez det izan. (ZU-B, 150)

Bikotekideak umeei gaztelaniaz egitea proposatu zion arren, Errioxakoa den ZU-B partaideak uko egin zion bere H1 transmititzeari gaztelania familiatik kanpo ikastea bermatuta zutelako. Mahai-inguru berean, erabaki bera hartu zuen beste partaide batek zalantza erakusten du ez ete duten ebatsi okerra hartu, hizkuntza biak transmitituta, seme-alabek ama-hizkuntza bi izango zituztelako:

- (192) Umeekin eta hori beti... bueno, **zalantza**, ez? Klaro, ikusten dezu, aita alemana baldin bada eta ama euskalduna, aitzak egingo dio alemanez seguraski eta amak euskeraz, eta umiak biak ikasiko ditu. Hemen zalantza, eta alabakin, ba, txikitatik, euskeraz. Ta, oso arrarua da, bueno, oain berak hitz egiten dula pixkat eta horrela ya soltura, eta irakurtzen du gainera asko, ez, orain arazo, baina beti zalantza horrekin, nik nola egin behar nun alabakin? **Nik dakaten gaitasunarekin erderaz, joe ba lagunduko nioke pilo bat**, eta bueno, utzi det pixkat aber eskolan... baina ez dakit hori nola hartuko dun. Alaba argia da eta gainera hizkuntzekin eta hori ematen du ondo moldatzen dela, eta ez dugu arazorik eukiko, ez hori ikasteko, segura aski inglesa ikasteko ezta ere, gustatzen zaio, baina bai zalantza hori. Nik ez det egin beste, normala dan bezala, ez, aita eta ama hizkuntza ezberdinak hitz egiten dutenian, ez, ziurtatzeko ume horrek ba gero ja irabazita dauka bi ama hizkuntza eukiko ditula, ez? (ZU, F, 148)

Gurasoen motibazioez aparte, testuinguru oso euskaldunak *Euskara bakarrik* transmisio-eredua burutzeko mesedegarriak dira, ze halakoetan umeei gaztelaniaz egitea politikoki ez zuzena izan eta txarto ikusita egon daiteke, hurrengo Zumaiaiko partaideak aditzera emanda bezala:

- (193) Baina ez dezu in agian Zumaian **gaizki ikusita dagolako** erderak, **umiei erderaz** oso, oso arraroa eta gainera gaizki ikusiko zan, esango zun, jakinda euskeraz, «ze ba eiten dio erderaz ume batei edo?» Porque alemanen edo inglesan kasuan ez da gertatzen **estigma** edo hori. (ZU-C, 149)

Pertsonarentzat ama-hizkuntzak daukan garrantzia kontuan harturik, deigarria da guraso hiztun berriek haien ama-hizkuntza transmititzeari uko egitea. Euskararekiko konpromiso aparta erakusten du horrek. Erabaki horren oinarrian ideologia (uste, iritzi) asko daude: alde batetik, euskara hizkuntza gutxitua eta bere erabilera normalizatua ez izanik, etxe edo familiaren eremua euskararako babes bakarretakoa dela pentsatzea; bestetik, gaitasun-maila ona bermatzeko, hots, umeek ondo ikas dezaten, eta maitatuko eta berarekiko atxikimendu handia izango dutela segurtatzeko lehen hizkuntza, hau da, familian ikasitako hizkuntza, izan behar dela pentsatzea. (Ikus 6.3.1.ean Ama-hizkuntzaren ideologia).

5.3.2. *Familian hizkuntza biak transmititzen dira*

Euskara familian transmititu beste hizkuntza batez batera ere egin daiteke, normalean gaztelaniarekin. Beste gurasoa euskaldun zaharra izanik, bakoitzak hizkuntza bana transmititzea (beraz, hiztun berriak gaztelania) gure laginean ez da agertu, arestian esanda bezala. Hala ere, holako kasuak egon daitezke gizartean. Transmisio-eredu honetaz datu gutxi ditugunez, ezin dezakegu behin betiko joerarik azaldu ezta sakondu ere gurasoek eredu horri jarraitzeko dituzten arrazoietan; hala ere, agertutako kasuak ondorenean aurkeztuko dira.

Guraso biak hiztun berriak direnean ez da ez-ohikoa familian bi hizkuntzak transmititzea, *guraso bakoitzak hizkuntza bana* moldearekin edo biek hizkuntza biak, euskera eta gaztelania, seme-alabekin erabiltzea.

- (194) [Nire emaztea] euskaldun berri da, baina beti erderaz, beragaz beti erderaz, eta umea-gaz beti euskeraz. Bai, **umea nigaz beti euskeraz eta amagaz beti erderaz**, beti. (ZEA-A, 141)

Guraso bakoitzak hizkuntza bana moldea **beste gurasoa erdalduna** denean ohikoa da. Ezinbestean bikotekideak gaztelaniaz egiten du seme-alabekin eta euskara familian transmititzearen ardura guraso hiztun berriaren esku geratzen da.

- (195) Nik etxean euskeraz erabiltzen dot umeekin, eh, gero **senarrak ez daki** ta bueno, ba txikiak izan direnean, ba bai, ba berantzat errezau delako esaldi motzak eta gauza konkretuek, baina gero egiteko berba holan, dialogo bat edo holako elkarrizketa bat, ba ezin dau. Eta orduan, ba bueno, ba **beragaz egiten dot erderaz baina gero umeekin euskeraz**. Eta umeak ni..., o sea, zuzentzen dira nigana, ba euskeraz, euskeraz, bai. (ZEA-E, 40)

5.3.3. *Familian euskara ez da transmititzen, baina bai H2 bezala hizkuntzaren bidez*

Guraso diren partaide bakan batzuk euskara seme-alabekin gutxi edo ez dutela erabiltzen adierazi dute, salbu eta **erabilera «enblematikoa»** egiteko (esaterako, «Etorri hona», «Egun on», «Ondo pasa» eta halakoak esateko) edo funtzio jakin bat betetzeko, hala nola, etxeko lanekin laguntzeko. Hala egiten dutenak testuinguru oso oztopotzaileetan bizi dira, ez dute euskara erabiltzeko sare ez trinkorik ez esanguratsurik, normalean bikotekide erdaldun elebakarra dute eta gehien-gehienetan gaitasun mugatua dutela perzibitzen dute (Ikus 5.3.4.). Hurrengo partaideak, esate baterako, beste hautu batzuetan jarrera nahikoa proaktiboa erakutsi badu ere, familian euskaraz egiteko egin behar duen aparteko ahalegin hori nahiago duela ez egitea adierazi du:

- (196) Ni en casa, pues con mi mujer, aunque me lo dice, y a ella le dicen que sería bueno, y también para la hija, que habláramos en euskera en casa, yo reconozco que yo no sé si... probablemente es por..., bueno, pues, también es **esfuerzo el hablar el euskera, supone esfuerzo que hago diariamente**, tanto en la universidad, como a nivel político, digamos, y pues la verdad **que cuando llegas a casa** te gusta, a mí por lo menos **me gusta un poco estar pues ya relajado**. (ELK-C 186)

5.3.4. *Euskara H1 bezala transmititzeko arrazoiak eta zailtasunak*

Gure partaide guraso hiztun berrien artean euskara familian transmititzeko arrazoiak askotarikoak dira baina kasu gehienetan barneko atxikimenduarekin lotuta daude. Familian galdu zen hizkuntza **berreskuratze**ko eta seme-alabek **H1 bezala izate**ko arrazoiak sarri aipatu dira. Bigarrenarekin lotuta, gurasoek seme-alabek euskararekiko atxikimendua garatzea eta berau maitatzea gura dute.

- (197) Niretzako garrantzitsuena zan. Euskara **nire hizkuntza** bezala e'nuen txikitatik, e'nekien, gero ikasi nuen eta niretzako garrantzitsuena zen etxian seme-alabek euskaldunak izatea, **ama hizkuntza** euskara izatea, nolabait amama(k) zuen hizkuntza hori eta nire amak etzuen, ba, guk **errekuperatzea**. (GA-A, 13)
- (198) Nik hala ere, nahiz ta geo zailtasunak eta hori dana, nik nahi nun XXkin [alabaren izena] euskeraz hitz egin berak **maitatzegatikan**, bere **ama hizkuntza eukitzegatikan** horrela, «nere amak eta nere etxian hau hitz egin deu», ez bakarrikan ikastolan hitz egin dala, herrian hitz egiten dala eta «ni euskalduna naiz eta hau hitz egiten det», baizik eta **propio** bezala eta maitatua bezala edukitzea. (ZU-E, 153)

Bestalde, askotan azpimarratu da baita, **gaztelaniaren presioa dela-eta, konpentsatzeko estrategia** moduan hobestu dela euskara familian.

- (199) Nik, seme-alabak euki dodazanetik batez be, argi dakot lehentasuna euskerak ez badako, erderara jotzen dabe. Eta txikitxen nik pentsaten dot euren mundua ahalik eta **gitxien erderagaz kontaktua da hobeto, eurentzako hobeto** (BE-C, 453)

Euskara familian transmititzeko zailtasunak ere aipatu dira, bai transmititzen ez dutenen artean, eta batzuetan baita, euskara transmititzea erabaki dutenen artean ere. Haietatik garrantzitsuena **hizkuntza-gaitasun mugatua** izatea da. Guraso batzuk mugatuta sentitzen dira seme-alabei euskara transmititzeko haiek dituzten baliabide urriak direla eta. Hala ere, batzuek hizkuntza bakarraren aldeko apostua egin dute, jarrera oso proaktiboa erakutsiz:

- (200) Nik badakit..., pero **nire umeak inoiz ez dabe entzun** bez euskeraz, hiztegi bat, osea **hiztegi nolabait ni erderaz eukin dodana**, eske **ez badaukat ni euskeraz ezin diot**, inoiz ez dabe entzun etxean, nik ez dakidana, orduan. Haiek ikasiko dabe porque bueno haiek txikitatik ikasi dabe eta haien ikasketak euskeraz ingo dabe, baina, ba etxean, ni, ba gu, vale, aha-lerinak, ze beti euskeraz egiten dogu etxean, baina mugatuak, o sea, hori nahi ta nahi ez holan da. (ZEA-F, 271/273)

Kasu horretan partaidea kezkatzen duena bere seme-alabek jasotzen duten etxeko *inputa* da, etxean jasotzen duten euskara-eredua: berak euskararen hiztegi urria izanda bere seme-alabek ez dutela sekula izango berak bere H1ean, gaztelanian, daukan **hiztegi-maila**.

Gaitasunarekin lotuta, atzeko kezka zeukan datuak jasotzeko orduan haurdun zegoen, jarrera oso proaktiboa erakutsi duen eta etorri bidean dagoen semeari, zalantza barik, euskara transmititzea erabakita zeukan beste emakume batek. Alegia, **ume-hizkuntza**, hau da, umeei hitz egiteko erregistroa falta duela:

- (201) En general sí [me siento cómoda con mi nivel de euskera], **lo que sí me pasa**, por ejemplo, que bueno, (...), para temas formales, o de amigos, o tal, uso euskera y no tengo ningún problema ¿no? Pero, por ejemplo, ahora estoy embarazada, o con mi sobrino, que tiene dos años y medio, sí noto que me faltan herramientas. Es una experiencia que no se aprende..., bueno, una experiencia, o hay términos, o canciones, o formas del idioma que, claro, nunca las he vivido, ni las he aprendido, entonces, ahí sí siento que tengo como un **agujero**. / sí he vivido con gente que habla en euskera y he pasado diferentes experiencias, pero **nunca he vivido con una madre con un niño pequeño al lado para ver cómo le habla**. En castellano sí porque, porque has tenido hermanos, primos, tal, eso se vive. Y por ejemplo en eso sí tengo como un **agujero** que, bueno, ya veremos... Pero sí, eso, en ese sentido. (ELK-B, 224/230)

Baina hiltun berri askorentzat seme-alabei euskara H1 bezala transmititzeko zailtasunak handiagoak dira. Ikus dezagun datuak jasotzeko momentuan haurdun zegoen beste emakume baten egonezina. Berak euskara transmititu nahi die bidean datozen seme-alabei, baina konstzientea da dituen oztopo ugariak: gaitasun mugatua dauka, **erraztasunik** ez du berba egiteko eta **bikotekideak ez daki** euskaraz. Gainera, testuinguru oso oztopotzailean bizi da eta ez dauka sarerik lan-eremutik kanpo.

- (202) Nik daukadan **kezka**, o sea, da, nire seme-alabekin nola hitz egingo dudana. O sea, vamos, **nik naturalki ez dut hitz egiten**, hitz egiten dut gero eta gehiago ikastola batean nagoelako eta errespetuagatik eta gustatzen zaidalako, pues euskeraz hitz egiten dut. Baina nire egoera etxean, adibidez, **nire mutilak ez daki ezer**, bueno daki, kaixo, agur eta ura. Eta nik pentsatzen dut, askotan planteatzen dut, nik nahi dudana da nire seme-alabak jakitea euskeraz, gainera nik dakidanez, pues haiek laguntzen didate, eta elkarrekin. Baina nire senarrak ez badaki euskeraz. Hori da batzuetan jo pues elebiduna izateko **nola antolatu egoera hori, etxean dagoen egoera**. (BI-B, 406)

Guraso hiztun berriek seme-alabei euskara H1 bezala transmititzeko egiten dituzten ahalginak nabarmentzekoak dira. Umeak txikiak diren bitartean gaitasun ez-nahikoa dutela sumatzen duten guraso asko seme-alabekiko harremanean euskara lehenesten saiatzen dira. Hala ere, umeak adinean gora joan ahala hizkuntza-baliabideen falta gero eta arazo handiago bihurtzen da askorentzat eta apurka-apurka gero eta gehiago jotzen dute gaztelaniara, euskara soilik enblematikoki edota xehe jakinetarako, adibidez, etxeko lanekin laguntzeko, erabiliz.

Halako kasuetan ezinbestekoa da guraso hiztun berriek euskararen gaitasuna garatzen jarraitzea. Horregatik, hizkuntza plangintza-neurriak diseinatu behar dira umeak kozkortzen diren bitartean guraso horiek euskararen aldeko hautua egiten jarraitzeko aukera izan dezaten.

5.3.5. *Euskara H2 bezala transmititzeko arrazoiak*

Euskararen normalizazioari begira familiatik kanpo, H2 bezala, transmititzeak ere badu bere garrantzia. Hori da gure lagineko partaide gazte gehienek izan duten transmisio-eredua. Mahai-inguruetan eta elkarriketa bideratuetan murgiltzean ikasi dutenei beraien gurasoek hori egiteko zein arrazoi izan zuten galdetu zitzairen. Atal honetan euskara H2 bezala transmititzeko arrazoiak aurkeztuko dira, H1 bezala transmititzeko arrazoiekin konparaketa egiteko asmoz.

Guraso erdaldunek seme-alabak euskarazko hizkuntza ereduetan eskolaratzeko dituzten arrazoiak, gurasoek eurek azalduta bezala, integratzaileak zein instrumentalak izan daitezke (Amorrortu eta Ortega 2009). Kasu honetan, gure partaide hiztun berri gazteek ematen digute gurasoen arrazoiak berri.

Aipatutako arrazoiak artean, euskara H2 bezala ikasteko motibazioekin ikusi den bezala (ikus. 3.1.2.), batzuk **instrumentalak** dira eta beste batzuk integratzaileak. Lehengoen artean, seme-alabek lana bilatzeko orduan aukera gehiago izatea:

- (203) Bueno, ni adibidez. Ni **haur hezkuntzan hasi** nintzen, eta gero ikastetxean, eta gero **karre-ran ere euskeraz** ikasi nuen, ikastolan baino gehiago, eta uste dut ba nire gurasoek ikusi zutela behar bat zegoela, ez?, ba gero heldua nintzenean eta hemen **lan egin nahi edo behar banuen**, ba euskera behar nuela, eta horregatik uste dut aukeratu zutela. (Gazte-GE-D, 12)

- (204) Gurasoek ez dakite euskaraz, baina, hori, ba, D ereduan apuntatu zidaten nahi zutelako, etorkizunera begira nahi zuten ni euskara jakitea ba **hobeto bizitzeko** edo. (SE-F, 53)

Beste batzuen erantzunetan, esan daiteke, **integrazioarekin eta identitatearekin** lotutako arrazoi bat antzeman dutela gurasoen erabakian:

- (205) Bai, ze aitak uste du **hemengoa izanik** euskara **jakin behar dudala** eta **erabili behar dudala** / Ni eske **etxean beti** esan da Euskal Herrikoa izanik euskaraz jakin behar duzu. (SE-E, 40/345)

Are gehiago, partaide batek dio, bera jaio aurretik, bere guraso erdaldunek herri euskaldun batera bizitzen joatea erabaki zutela, ondoren etorriko ziren seme-alabek euskara ikas zezaten:

- (206) Nire gurasoak etorri ziren hona ni jaio baino lau urte lehenago. Orduan **ni hemen jaio naz**, eta **etorri ziren Zeanuri apropos nik euskeraz jakiteko**, bueno, euren seme-alabak euskeraz jakiteko. (ZEA-B, 86)

Beste guraso batzuk familian berreskuratzea erabaki zuten, haien gurasoak euskaldunak izanda, eurek ez zutelako ikasi; seme-alabek **berreskuratzearen** zelanbaiteko kontzientzia badutela esan daiteke:

- (207) Ba nere kasuan, bai nere **aitona-amonak** aman aldetik eta bai aitaren aldetik **euskaldunak** ziren, edo dira, eta justo haien belaunaldian ba, ez dakit, euskerak salto bat eman zuen eta haiek erdaldunak. Ordun, lehengusu-lehengusinak eta denok euskeraz ikasi dogu eta uste dut izan dala **familiaren erabaki bat** ba hori, ba pixka bat **berreskuratze**ko galdu dana, ez?, bietatik, eta holan. (Gazte-GE-C, 10)

H2 bezala transmisio-ereduaren alde egin duten gure partaideen gurasoen kasuan, asko errepikatzen da, baita, beraiek ezin izan zutenez euskara ikasi, edo ikasi nahi luketenez, gutxienez seme-alabek ikastea erabaki zutela, askotan euskarari balio intrumental edota integratzailea ematen zaion argitu gabe:

- (208) Franco garaian edo ezin zanez ba euskeraz ein, eta nire gurasoek bez ez dabie eukin, (...), nire aita lgorrekoea da eta bertan bez ezin izan eban ikasi eta, eta orduan ba igual horregatik, ba, ez dakit, pentsa bien ba ni ikastolara sartzee (Gazte-BI-B, 79)

Azkenik, gaur euskararekiko atxikimendu eta kontzientzia handia duen eta oso herri euskaldunean hazi den partaide batek bere gurasoek kanpoko motibazio argia izan zutela azpimarratzen du: beste aukerarik ez zegoelako, hots, herriko ikastetxean aukera hori besterik ez zegoelako:

- (209) Nik galdetu nion amai eta, gurasoei galdetu nien a ver zertikan sartu zidaten D ereduan, hasteko Oiartzunen **ez daolako beste aukerarik**, D eredu bakarra do. (Gazte-DO-E, 161)

Laburbilduz, integrazioa eta identitatearekiko arrazoiak oso sarri ageri dira bai H1 bai H2 bezalako transmisio-eredua aukeratu dutenen artean: familian berreskuratzeko, edota identitate nazional edo kulturean hizkuntzak garrantzia daukalako. Baina euskara H1 bezala transmititzeko ereduan barneko balioak nagusitzen diren bitartean H2 ereduan, barnekoak, kanpokoak zein balio instrumentalak agertu dira.

5.3.6. *Gazteek hobesten dituzten transmisio-ereduak*

Aurreko ataletan erakutsi denez, guraso hiztun berrien artean familian euskara bakarrik edo nagusiki transmititzea oso ohikoa da. Seme-alabarik ez duten gazteei, izatekotan, zein hizkuntza transmitituko luketen galdetu zaie, haien intentzioak jasotzeko. Helduekin gertatu bezala, gazteen artean ere hiru ereduak agertu dira. Batzuk **euskara baino ez** luketela transmitituko adierazi dute, gaztelania kalean edota familia handian ikastea segurtatuta dagoelako:

- (210) Nere seme-alabei **euskeraz hitz eingo nien eta gero kalen edo bakit fijo erdera ikasi-ko'uela**, asike nik nere etxetik / gero ikastolan ta D ereduan. Eske azkenian **erdera leku danetan** ikusten da. (Gazte-DO-F, 271/273)
- (211) Nik, nola badakiten **nere gurasoekin gazteleraz**, edo familiakin gazteleraz ingo dotela, **pues niekin euskeraz**, kasu hori, holan biak ikasten dituzte. (Gazte-DO- E, 277)
- (212) Bai, **nik hasteko euskara sartuko nioke, ze gero gaztelaniarako toki asko daude, gaztelania ez dute galduko**, osea, ikasiko dute asko. Arrisku gehiena daukana uste dut euskara dela. Beraz euskara indarrekin sartzea ba ona. (Gazte-DO-A, 288)

Aurreko aipuetan ikusten denez, gazteen artean, helduen artean ez bezala, euskararen transmisioari buruz hitz egiterakoan gaztelania ere aipatzea oso ohikoa da. Are gehiago, gazte batzuk **hizkuntza biak transmititu** nahi lituzketela azpimarratu dute, hurrengo partaideak bezala:

- (213) **Nik biak erakutsiko nizkien hasieratik.** / nere lehengusina, adibidez, bere aitak ez daki euskeraz eta bera amak bai eta berak txikitatik, osea, jaio zenetikan bi hizkuntzak erakutsi zizkioten, ta **biek perfektu** ikasi zitun. (Gazte-DO-D, 274/301)

Mahai-inguru ezberdin bitan **Guraso bakoitzak hizkuntza bana** planteamendua plazaratu da baina iritzi kontrajarriak erakutsiz: batzuk planteamenduaren egokitasuna defendatu dute, guraso biak euskaldunak izanda ere:

- (214) Baina igual adibidez zure mutilak edo euskeraz iten badu ta, ez igual biok euskeraz ez hitz egiteagatik, ba igual **batek euskeraz eta besteak erderaz** edo. (Gazte-DO-C, 78)
- (215) –Eta adibidez zuek imajinatu dozue mutil laguna. (Gazte-DO-M2, 279)
 –Nire mutil laguna(k) erderaz hitz egiten du eta. (Gazte-DO-C, 280)
 –Osea, berak erderaz eta zuk euskeraz, adibidez. (Gazte-DO-M2, 281)
 –Bai, ume bat izatekotan, ba bai, nire intentzioa hori izango zan, bai. (Gazte-DO-C, 282)

Beste batzuk, testuinguru oztopotzailean bizi direnak gainera, gaztelania beti nagusituko dela azpimarratu dute eta, beraz, familian euskara babestu beharra dagoela:

- (216) –Uste dut ba bikotea izan behar dela euskalduna, bestela, ba, amak egiten badizu euskeraz baina zure aitak ez, ba pixka bat, ez dakit... Eta... (Gazte-GE-D, 315)
 –Orduan, bai, **amak iten badizu eta aitak ez**, zer gertatzen da? (Gazte-GE-M1, 316)
 –Klaro, eske uste dut azkenean ba gaztelaniak, **gaztelania bihurtuko dela zure hizkuntza**, ze, klaro, bi gurasoek, o sea, gurasoek badakite biek gazteleraz baina euskeraz bakarrik batek, beraien artean hitz egingo dute gazteleraz, orduan ba, ez dago oreka egongo, eta bueno, niri gustatuko litzaidake, baina hori da, a saber. (Gazte-GE-D, 317)
 –Bai, a saber, baina bueno, esan nahi dut egoera, ze imajinatzen ari gara, ezta?, egoera balitz ume bat eukiteko zaudetela eta zuen bikotekideak ez dakiela, ze, bueno, hori da planteatzen duzuen arazoa, orduan zer erabakiko zenukete? (Gazte-GE-M1, 318)
 –Ba saiatzea, igual be bai ipuinak kontatzea eta horrela, igual errazago egiteko, baina **zaila izango litzateke**. (Gazte-GE-D, 319)

Ilido beretik, gazte askok euskara **H1 bezala transmititzeko zailtasunak** azpimarratu dituzte, sarri gainditu ezineko oztopo bezala, esate baterako bikotekidea ez izatea euskalduna. Hurrengo erantzun hauek intentzio epela erakusten dute:

- (217) –Momentuz urrun, baina, bai, bai gustatuko litzaidake, baina, klaro, bikote gauza bat da eta ez dakit, faktore asko daude tartean. Orduan, bikote bat bilatzen duzunean ez duzu bilatzen euskera. (Gazte-GE-C, 323)
 –Badago jendea, e?. (GAZTE-GE-C, 324)
 –Badago jendea egiten duela? Nire ustez horrek diot ze nik nire partetik, adibidez, ba dana jarriko dot hori horrela izateko, **baina** ez dakit non amaituko dan edo nogaz amaituko dan. (Gazte-GE-C, 325)
 –Bai, baina zure erabakia behintzat... (Gazte-GE-M1, 326)
 –Bai, nire partetik bai, hori da, hori da. (Gazte-GE-C, 327)
 –Edo bestela saiatuko zinateke..., bueno gaur egun ume gehienek ikasten dute, gehien-gehiak, ezta?, eskolaren bidez hori ja gutxi gorabehera segurtatuta daukagu. (Gazte-GE-M1, 328)
 –Bai, hori bai, baina beste gauza bat da hori, **erabiltzearena, eta hori, eta momentuz ez, ez dakit...** (Gazte-GE-C, 329)

–Bai, erabilerarako oztopo handia ikusten duzue bikotekideak ez jakitea. Hori da? (Gazte-GE-M1, 330)

–**Bai, hori da.** (Gazte-GE-C, 331)

Mahai-inguru berean, beste gazte batek intentzio ez oso argia erakutsi du:

(218) Ba ni ere saiatuko nintzateke, baina klaro, oraindik oso urrun dago asuntoa eta ere ia non amaitzen dugun, esan nahi dut, orain gauzak dauden moduan ere, dauden bezala, bost urte barru kanpora joan beharra banaiz lan egitera, ba, ba ya se verá.. Saiatu, saiatuko nintzateke, eta kanpoan biziko banintz ere, saiatuko nintzateke gutxienez gauza batzuk nire semeek ulertzea euskeraz edo, claro..., baina ez dakit. (Gazte-GE-B, 337)

–Bai, garrantzia emango zenioke? (Gazte-GE-M1, 338)

–Bai, gutxienez ulertzea edo **pixka bat jakitea, fijo. Hori ya gero oso ondo ikastea, edo lo que sea, ya zailago ikusten dut**, baina ni saiatuko nintzateke gutxienez. (Gazte-GE-B, 339)

Bestalde, euskara **H1 bezala transmititzeko arrazoiak** azaltzerakoan, partaide gazte batzuk helduek emandako arrazoiak aipatzen dituzte, hala nola, atxikimenduarekin lotutako identitate-mailako arrazoiak:

(219) Hombre claro, claro [nire umeari transmitituko nioke]. Ba, a ver, ni, bera esan duen arazoez ados nago, azken finean ba euskera, ba, beste idioma bat da, no sé qué, baina nik azken finean euskalduna sentitzen naz, eta niretzat ba hemengo idioma euskera da, o sea, nik transmititu nahi dudana ba hori, ba euskera izango da, bueno. (Gazte-BI-E, 131)

(220) Euskaldun iten doskune euskera dalako, ez? (Gazte-BI-C, 133)

(221) Hizkuntza dalako, gure hizkuntza dalako, ez? / hasiera batetik ba nik ez dudana izan aukera hori, ba seme-alabek izatea. (Gazte-GE-C, 311/313)

Aipatu den beste arrazoi bat seme-alaben H1 euskara izates da, eta horrela gaitasun hori bereganatu dezaten:

(222) Nik uste dut hori, etxean euskeraz hitz egiteak seme-alabantzako eta euskera maila hobetuko dela, porque gero eskola joaten direnean eta, ba etxeko euskera daukate eta ez zaie hainbesteko zailtasunik eta jartzen. (TO-D, 296)

Hala ere, batzuk helduen artean agertu ez diren beste arrazoi batzuk plazaratu dituzte, balio instrumentalarekin edo kanpoko presioarekin lotutakoak, hain zuzen. Batzuetan arrazoi instrumentalak aipatzen dira; ondoko aipuan gure laginean oso gutxitan agertuagatik ere gizartearen maiztasun handiagorik egon litekeen arrazoi instrumental hutsa ageri da:

(223) –Zuretzat inportantea izango litzateke transmititzea, seme-alabak izatekotan?

—Bueno, a ver nola esan... bere interesean, **por su interés**, osea, por su bien, **pues bai**, bai, orduan bai, bueno, **niri gustatzen zaidalako, ba ez**. Porque nik pentsatzen dut ba Gasteiz ondo dago erdalduna eta ez da beharra hori normalizazioa. (GA-B, 30)

Azkenik, gazteen artean oso ohikoa da **«Hizkuntza bitako diskurtsoa»** deitu dugun ideia edota **«Zenbat eta hizkuntza gehiago hobe»** aurreiritzia aipatzea etorkizuneko seme-alabei euskara familian transmititzeko arrazoi bezala. Lehenari dagokionez, eta arestian atal honetan bertan adierazi den moduan, oso ohikoa da euskararen transmisioari buruz hitz egiterakoan hizkuntza biak (euskara eta gaztelania) aipatzea eta, are gehiago, batzuen artean hizkuntza biak familian transmitituko dituztela aurreikustea.

Bigarrenari dagokionez, aurreko ikerketa batek erakutsi zuen bezala (Amorrortu *et al.* 2009: 176-178), erdaldunen artean nahikoa zabalduta dago elebitasuna eta eleaniztasuna aberasgarriak direla eta lehenak bigarrena errazten duela pentsatzea. **«Zenbat eta hizkuntza gehiago hobe»** aurreiritzia erdaldunak euskarara hurbiltzeko mesedegarria izan badaiteke ere, kontu handiz hartu beharreko diskurtso-mota ere izan daiteke, euskara sarri ez baita lehenesten hizkuntza-aniztasuna aipatzen denean, eta horrek euskararen egoera gutxituaz hausnarketa falta erakutsi dezake. Ikerketa honetako gazteek sarri aipatu dute «zenbat eta hizkuntza gehiago hobe» aurreiritzia. Ikus ditzagun adibide batzuk:

(224) Bai, eta garrantzitsua ikusten badugu, adibidez, ingelesa jakitea, edo frantsesa, edo bestelako hizkuntzarik, ere, euskera ere. (Gazte-BI-A, 134)

(225) —Nik biak erakutsiko nizkien hasieratik. (Gazte-DO-D, 274)

—Bi hizkuntzak. (Gazte-DO-M1, 275)

—**Gero ta hizkuntza gehiago, hobeto.** Eta nik nere amari ere eskertzen diot, gero ya, inguruan edo... (Gazte-DO-B, 276)

(226) —Ni esan det, geroz eta hizkuntza gehiago, hobeto. (Gazte-DO-B, 284)

—Bai, baina zuk pertsonalki umeei... (Gazte-DO-M1, 285)

—A, nik badakit euskeraz hitz egiten, zergatik ez? Bai, bai. (Gazte-DO-B, 286)

(227) —Zuretzat inportantea da zure seme-alabek jakitea, elebidunak izatea? (Gazte-GE-M1, 302)

—Bai. **Trilingüe** izatea, ez dakit nola esaten den, baina askoz hobeto. (Gazte-GE-F, 303)

(228) Oain gazteak askoz ere gehiago mugitzen dira munduan eta Espainian, osea, igual lehenau ez zen hainbeste, ez zien bidaiak egiten ta, oain, adibidez, ba lan egiteako garaian ta, inposatzen badezu Euskal Herrian bakarrik euskera hitz egitea, ba arazo asko izango genitun gero ya handiago zarenean Espainian lan egiterako garaian. Imaginatu Madril, ne ustez bi hizkuntzak jakin behar dia eta garrantzitsua dala, eta geroz ta hizkuntza gehiago, hobeto, ingelesa, eta frantsesa eta... (Gazte-DO-B, 524)

Harrigarria suertatzen da gazteek «hizkuntza bitako diskurtsoa» eta «zenbat eta hizkuntza gehiago hobe» aurreiritzia hainbeste aipatu izana. Badirudi, ideia horiek adierazi dituztenean ez direla jabetu ukipen egoeran dauden hizkuntzek ez dutela estatus bera, eta ezin daitekela pentsatu euskara beste hizkuntzak dauden baldintza beretan dagoenik. Helduengandik ezberdinduz, gainera, hizkuntzen balio instrumentalari garrantzi handia ematen diote gazte askok.

Era berean gazte batzuk haien intentzioari buruz hitz egiten dutenean euskara familian transmititzeko intentzio argia baino zailtasunak azpimarratzen dituzte. Hori gazte batzuk duten jarrera errektiboarekin lotuta egon daiteke. Izan ere, zortzigarren kapituluan erakusten denez, gazte batzuk euskararen egoeraz duten kontzientzia txikia da, eta erakusten duten konpromiso-maila ere nahikoa epela dela esan daiteke. Euskararekiko jarrera epelaren beste adierazle bat izan daiteke, beraz, familian benetan euskara transmititu nahi dutela konbentzimenduz ez erakustea.

Hizkuntza-ideologiak eta identitatea

Aurreko kapituluetan hizkuntza ikasteko prozesuak, hiztun berrien euskararen erabilerak eta haien transmisio-ereduak jorratu ditugu. Kapitulu hau bestelakoa da; izan ere, ez ditu aztergai bizipenak edo jokabide behagarriak, «hizkuntza-ideologiak» baino. Woolard (1998) eta Bres (2014) kontuan hartuta, partaideek euskararen etabere aldaeren, elebitasunaren eta, azken finean, hizkuntzarekin lotutako guztiaren inguruan dituzten uste eta balioak sartzen ditugu termino horren barruan. Hizkuntza-ideologiak gizarte batean dabilen konstruktua sozialak dira: gizartean sortu, barneratu eta zabaltzen dira eta auzitan ere ipintzen dituzte gizarteko kideek. Hizkuntza-ideologiak aztertzeko, gizarteak hizkuntzez eta haien erabileraz zer balio eta uste partekatzen dituen ikertu behar dugu. Halako balio eta usteak hain izaten dira hedatuak, non guztiz onartu ohi baitira «zentzuzkoak» edo egia frogatuak balira legez, oinarri zientifikorik duten edo ez duten erreparatu gabe. Hizkuntzaren gaineko balio edo uste bera duten pertsonen ideia berberekin eusten diote uste horri eta modu berean mintzatzen dira hartaz; hau da, baliabide diskurtsibo (termino, metafora, etab.) berak erabiliz; beraz, posible da balio eta uste horiek aztertzea.

Gure ikerketan, subjektuen hizkuntza-ideologiaren inguruko ideiak kodetzeko, lehen mailako kode bat erabili da: *Ideologiak*, eta hiru azpikode: *Balioak*, *Hizkuntza-identitatea* eta *Normalizazioa*. Hor bildutako ideiak era askotakoak dira: euskarari eta gaztelaniari ematen zaizkien balioak (instrumentala, integratzailea, barnekoa edo kanpokoak. Ikusi 2.4.2.2. atala), euskararen identitate balioa bereziki; euskararenganako sentipenak; euskarari eta gaztelaniari lotutako irudiak; batuari eta euskalkiei esleitutako balioak; euskararen egoerari eta normalizazio prozesuari buruzko iritziak; eta hiztun berrien hizkuntza-identitatea (hots, nola definitzen duten beren burua euskal hiztun gisa, zer hiztun mota direla uste edo sentitzen duten). Kapitulu honetan, euskararen eta bere aldaeren balioak aztertzen dira eta, bereziki, hiztun berrien hizkuntza-identitatea. *Hizkuntza Normalizazioa* azpikategoria ez da emankorra gertatu eta ez da aparteko atal batean aztertuko.

Hona hemen zer galderari erantzun nahi diegun:

- Zer balio lotzen zaio euskararen aldaera bakoitzari? Hiztun berri askok batua besterik ez dutela ikasten kontuan izanik, horrek badu eraginik euskal hiztun moduan duten bizipenean?
- Nola identifikatzen dute hiztun berriek beren burua euskal hiztun gisa? *Euskaldunberriak* direla uste dute ala beste kategoría batzuk erabiltzen dituzte beren burua definitzeko? Nola interpretatzen dituzte gizartean euskal hiztun motak izendatzeko dabil-tzan kategoriak?
- Nola balioesten dute beren burua euskal hiztun berriek? Hiztun onak direla uste dute? Zerk eragiten du haien autokontzeptuan?

Kapitulu honen irakurketa errazteko, hona hemen atal eta azpiatalen zerrenda:

6.1. Batuaren eta tokian tokiko aldaeren balioak

6.1.1. Euskararen aldaerak: sarrera

6.1.2. Partaideen karakterizazioa hizkuntza-aldaera kontuan hartuta

6.1.3. Batuera eta euskalkiei lotutako balioak eta funtzioak

6.1.3.1. Euskalkien balioespen positiboa

6.1.3.2. Batuaren balioespenak

6.1.3.3. Euskara batuaren eta euskalkien funtzioak

6.1.3.4. Batua eta tokian tokiko aldera, biak al dira beharrezko?

6.1.3.5. Euskalkia ala erregistro informala? Euskalkia ala jarioa?

6.1.4. Batua-*euskaldunberriena* eta euskalkia-*euskaldun zaharrena*

6.1.5. Zer hizkuntza-aldaeretan mintzatu, halako identitatea hartu

6.1.6. Euskararen aldaeren prestigioa eta legitimitatea

6.2. Hizkuntza-identitatea: sarrera

6.2.1. Euskal hiztunen hizkuntza-identitatea aipatzeko erabiltzen diren terminoak

6.3. Zer hiztun mota naiz? Euskal hiztun berrien hizkuntza-identitatea

6.3.1. Zer euskal hiztun mota naiz? *Euskaldun zaharra* ez, behinik behin

6.3.2. Zer euskal hiztun mota naiz? «*Euskaldunberria* naiz»

6.3.2.1. Beren burua *euskaldunberri* izendatzen dutenek identitate hori justifikatzeko ematen dituzten arrazoiak

6.3.2.2. Beren burua *euskaldunberri* definitzen duten pertsonen partekatzeko dituzten ezaugarriak

6.3.3. Zer euskal hiztun mota naiz? «Ni ez naiz *euskaldunberria*»

6.3.4. Eta *euskaldunberria* ez banaiz, zer euskal hiztun mota naiz? «*Euskalduna* naiz»

6.3.4.1. Bere burua euskaldun definitzen duten pertsonen partekatzen dituzten ezaugarriak

6.3.5. Hizkuntza-identitate profilen diagrama

6.4. Kategorien interpretazioa: hizkuntza-identitatea eta legitimitatea

6.5. Hiztun-kategoriak eta haien euskarri diren ideologiak auzitan

6.5.1. *Euskaldunberri / euskaldun zaharra* ohiko dikotomia zaharkitua dago6.5.2. *Euskaldunberri* terminoa auzitan

6.5.3. «Euskaldunberria naiz eta ez dit axola»

6.5.4. *Euskaldun zahar* kategoria auzitan6.5.5. *Euskaldun zaharra*-euskalkia vs.*euskaldunberria*-batua loturen haustura: H1 batua duten *euskaldun zaharrak*6.5.6. Ama-hizkuntzaren ideologiaren haustura: zein da benetako *euskaldunaren* bermea, ama-hizkuntza ala hizkuntzaren erabilera?

6.6. Kategorien arteko mugikortasuna

6.6.1. Bizitzan zehar kategoria batetik bestera mugitu

6.6.2. Identitate bat edo beste hartu inguruabarren arabera

6.1. Batuaren eta tokian tokiko aldaeren balioak

6.1.1. *Euskararen aldaerak: sarrera*

Partaideek luze eta zabal hitz egin dute euskararen aldaerez: batzuetan, haien gaineko iritziak emateko; beste batzuetan, beren aldaera deskribatzeko. Batetik, eztabaida-taldeetan mintzatu dira horretaz beren kabuz eta, bestetik, banakako elkarrizketetan berriaz eskatu zaie zer aldaera darabilten deskribatzeko. Subjektuek argi eta garbi bereizi dituzte batua, batetik, eta «*tokian tokikoa*», «*herriko euskara*», «*bertokoa*» edo «*euskalkia*» izendatu dutena, bestetik. Haiek adierazitako ideiak *Aldaera* koderak bildu dira.

Testuinguru euskaldunean, aztergai dugun konturako pertinenteak diren hiru aldaera mota ditugu: tokian tokiko aldaerak eta euskalkiak; euskara estandarra edo batua, 60ko hamarkadaren amaieran sortua eta, beraz, gaztea; eta gaztelania, 80ko urteetan euskara biziberritzeko prozesua hasi arte hizkuntza ofiziala zena eta bakarra erakundeen esparruan. Horri erantsi behar diogu bizkaierak ere baduela aldaera estandarra, *bizkaiera landua*¹, zenbait erakundetan, Labayru Fundazioan kasurako, helduen alfabetatzean erabili dena, euskarazko hezkuntzaren hasieratik ikastetxe batzuetan komunikatzeko aldaera moduan erabili izan dena (batua Bigarren Hezkuntzan lantzen da), baita irrati batzuetan (Herri Irratia eta Bizkaia Irratia) eta zenbait argitalpenetan ere (*Kili Kili* haur aldizkari os-

¹ Zelanbait, bizkaierak, literatur tradizioa edukita, bere estandarizazio bidea egin zuen eta hala joan zen *bizkaiera landua* esan zaiona sortuz. 1983ko argitalpen honetan finkatu zen: Arejita, Eguzkitza, Iraola eta Uriarte, *Bizkaieraren idatzizko arauak. Deklinabidea eta aditza*. Ikusi halaber Bizkaieraren Ataria (Bizkaiko Foru Aldundia eta Labayru Ikastegia (2010).

petsuan, esaterako, gaur desagertuta badago ere). Euskara biziberritzeko prozesua euskal lurraldeko hizkuntza-aldaeren funtzioak, erabilerak eta balioak berregituratzeko saio erraldoia da (Urla eta beste, moldiztegian). Hau da, batuak gaztelaniaren hainbat funtzio ekarri behar dizkio euskarari, ustez tokian tokiko euskalkiek hartu behar ez zituzten edo ezin zituzten funtzioak.

Euskara oso ugaria da aldaera dialektaletan. Euskalki nagusiei tokian tokiko hainbat eta hainbat hizkera gehitu behar zaizkie (Azpeitiko, Arratiako, Bermeoko eta abarreko hizkerak), eta euskal hiztunek komunitate jakin bateko kide izatearekin lotu ohi dute hizkera horietako bakoitza. Aurrerago ikusiko dugunez, askok halako hizkerak dituzte benetako euskaratzat eta elkartasun-, integrazio- eta identitate-balioak partekatzen dituzte. Bestalde, hizkuntza estandarra, batua, hizkera berria, denen amalgama izan zedin sortu zen (hortik datorkio izena, batua) (Villasante 1980, Urla 1993); hortaz, esan liteke sorretatik beretik dela berariaz «anonimotasun» balioz jantzitako aldaera (Woolard 2008), denen hizkuntza izateko eta ez inorena bereziki, denon euskararen eta hizkuntza ofizialaren funtzioak hartzeko diseinaturia. Batua da hezkuntza sisteman gehien erabiltzen den aldaera eta, ondorioz, hiztun berri gehien-gehienek ikasten dutena, bai euskaltegietan, bai derrigorrezko hezkuntzan. Beraren garapenagatik eta funtzioengatik, batuari oso beste-lako balioak esleitzen zaizkio: hizkuntza estandarra, ofiziala, akademikoa, *lingua franca*.

Euskal elkarteetan dabilzan hizkuntza-aldaerak ez dira neutroak edo esanguragabeak; aitzitik, hainbat balio, sentimendu eta funtzioekin lotuta daude. Balio, egokitasun edo prestigio handiagoa edo txikiagoa dute hizkuntza-merkatu baterako edo besterako (Bourdieu 1991). Aldaeren gaineko pertzepzio horiek haien hiztunei ere esleitzen zaizkie eta, ondorioz, euskal hiztun berriak darabilen aldaerak eragin nabarmena izan dezake bere hizkuntza-identitatean, hau da, hiztun moduan bere buruaz duen iritzian (ona, benetakoa edo, alderantziz, gabeziaduna, artifiziala, akastuna... Ikusi 6.3.). Orain, euskararen aldaera bakoitzarekin lotutako balioak eta funtzioak deskribatuko dira.

6.1.2. *Partaideen karakterizazioa hizkuntza-aldaera kontuan hartuta*

Eztabaida-taldeetan eta elkarriketetan parte hartu dutenen deskribapenez gain, haien hizkuntza-aldaeraren datuak jaso dira bi prozeduraren bidez: batetik, partaideek galdetegian egindako autoebaluazioaren bidez eta, bestetik, ebaluatzaile bik egindako analisiaren bidez. Galdetegian, batuaren, bizkaieraren, gipuzkeraren edo beste euskalkien ezagutza maila (*Ulertzen dut* eta *Hitz egiten dut*,) deskribatzeko eskatzen zitzairen mailaketa honen arabera: *Ondo*, *Zerbait* edo *Ezer ere ez* (Ikusi 1. eranskina). Ebaluazio objektiboan, berriz, batuaren edo euskalkiaren erabilera honela kalifikatu zen: 1 = batua «koloregabea» (hau da, euskalki kutsurik gabea); 2 = batua gehienbat (hau da, batua baina euskalkiaren ezaugarri batzuekin); 3 = euskalkia gehienbat (baina batuarekin nahasita) eta 4 = euskalki hutsa.²

² Ebaluazio hori ezin izan zen egin banakako elkarriketetan bakarrik parte hartu zutenekin, elkarriketak gaztelaniaz egin zirelako.

Euskara eskolan edo euskaltegian ikasi duten euskal hiztun berri gehienek euskara estandar batua ikasi dute. Bestalde, Bizkaian badira bizkaiera batua, *bizkaiera landua*, ikasi dutenak, dela ikastetxean, dela beste erakunderen batean, Labayru Fundazioan kasurako. Baina tokian tokiko hizkeran mintzatzen diren partaide gehienek kalean ikasi dute eta ia inork ez du modu formalean ikasi aldaera hori. Hona hemen gure partaideen euskararen aldaeren ezagutza eta erabilera laburturik:

Oro har, partaideen euskalkiaren erabileraren gaineko autoebaluazioa eta analisi objektiboa bat datoz. Eztabaida-taldeetan parte hartu duten ia erdiek (% 46,42), 25 pertsonak, diote ondo mintzatzen direla beren tokiko euskalkian. Ebaluazio objektiboa kontuan harturik, ehunekoa bi puntu altuagoa da; hau da, % 48,24k hitz egiten dute euskalkiren baten edo ia-ia. Ehuneko 48,24 horri bizkaiera estandarizatuz mintzatzen diren bi partaideak gehitu behar zaizkio, hots, beste % 3,6. Adin taldeei dagokienez, apenas dagoen alderik; gazteen artean (30 urtetik behera) zein helduen artean (30 urtetik gora) euskalkian mintzatzen diren hiztunak erdiak dira, gutxi gorabehera.

Euskal hiztun berrien errealitate soziolinguistikoa, berriz, guztiz erabakigarria da euskalkiaren ezagutzarako eta erabilerarako. Ebaluazio objektiboaren arabera, gure ikerketako partaideen artean oso herri euskaldunetan (herritarren % 60tik gora euskaldunak) bizi direnen % 84k hitz egiten dute euskalkian. Ehuneko hori %67ra jaisten da tarteko alde soziolinguistikoetan (herritarren %30-60 euskaldunak), eta herri oso erdaldunetan (herritarren %30etik behera euskaldunak) %8 baino ez dira euskalkian mintzatzen. Dena dela, partaide gehienek (%82), euskalkian hitz egin ez arren, euskalki bat edo batzuk ondo ulertzen dituztela diote.

Batuari dagokionez, batek izan ezik partaide guztiek esan dute ondo ulertzen dutela eta %85ek ondo hitz egiten dutela. Haatik, ehunekoa desberdina da bizilekuko alde soziolinguistikoaren arabera: alde oso *euskaldunetan* batuan gai direnen ehunekoa %78 da; alde oso erdaldunetan, aldiz, %92. Hortaz, datu horiek eta euskalkien erabileraren datuak elkartuta, gure ikerketako hiztun berriak euskararen aldaeren arteko desberdintasunez jabetzen dira eta gehienek bidialektoduntzat dute beren burua, estandarra eta bere tokiko euskalkia jakinik.

6.1.3. *Batuari eta euskalkiei lotutako balioak eta funtzioak*

Atal honetan, partaideek batuaz eta tokian tokiko hizkerez egindako balioespenak eta bakoitzari esleitzen dizkieten balio eta funtzioak aurkeztuko ditugu.

6.1.3.1. EUSKALKIEN BALIOESPEN POSITIBOA

Ez dugu euskalkien balio negatibo bakar bat ere aurkitu; alderantziz, partaideek euskalkien **oso balioespen positiboak** egiten dituzte, salbuespenik gabe.

Balioespen onak egin dituzte bai euskalkiren baten mintzatzen direnek, esaterako Oihartzungo neskak beheko lekukotasunean (229), bai batua hutsez berba egiten dutenek, adibidez, Sestaoko neskak bigarren lekukotasunean (230):

- (229) Nei **pila gustatzen nau** entzutia eta nere klasean badaude pare bat eta **kriston pila** gustatzen zat, eta beraiek berdina esaten dute, ze gaude denetik ibiltzen gea, Bizkaikoak, hemengo euskalki jakiten ditugunak eta batua, eta batuakoak beti denak esaten digute hoi **enbidia** gustatuko zigun bizkaitarrez edo euskalkin batean hitz egitea, behintzat jakitea, ze **polita** da. Hori esaten digute. (Gazte-DO-E, 227)
- (230) Asteburuetan mintzatzen gara ze, hori, monitoretza kurtsoan egoten naz ta, etortzen dira, hori, Bermeotik, (...) hain gauza ezberdinak, bueno, mintzatzerakoan ezberdintasun horiek ta **erakargarriak** dira niretzako, eta **enbidia**, bai, enbidia, **nik holan hitz egin nahi dut**. (SE-E, 203)

SE-Ek aipatzen duen «enbidia» sentimendu hori beste partaide batzuengan ere nabari da:

- (231) [Niri gustatuko litzaidake] **leku bateko euskeraz egitea**, lagunekin egunero euskeraz egitea, ba lotsarik gabe euskeraz egitea. (Gazte-BI-E, 317)

Sestaon bizi den katalan honek (232) ordezkapen bat egin zuen unibertsitatean. Bera-
rentzat erronka handia izan bazen ere, euskararen hainbat aldaerarekin kontaktua edu-
kitzea nabarmentzen du esperientzia haren gauzarik positiboenen artean:

- (232) Hori **mundiala** zen. Ez, bueno, alde batean asko sufritzen duzu, baina beste alde batean oso polita zen Letra Fakultatean nengoenek, ba Euskal Herriko jende..., o sea, leku desberdinetako jendea zegoelako. Eta **oso polita** zen. Niretzat oso esperientzia polita zen, ba hori, Nafarroako jendea entzutea, Iparraldeko jendea entzutea... O sea, ba hori, bere, ez dakit nola esan, acento... Ba niretzat **oso interesgarria** zen. (SE-B, 123)

Ematen du oso zabalduta dagoela euskalkiak **aberasgarri** direla **euskararentzat** eta **gorde behar** direla, ez direla galdu behar. Partaide hau haratago doa: galduko balira hizkuntzaren «erdia» galduko litzatekeela dio:

- (233) Baie, baie, arrazoie dakoizu, baina nik ezin diot, ez dot pentsaten in biher dala kendu hori, **batua ikastie, ondo dao, baia baktza berana**, ostantzian galduko da, **ostantzien galduko da euskara erdixe**. / Osea, hori da **aberastasuna**. (BE-B, 139 / 140)

6.1.3.2. BATUAREN BALIOESPENAK

Batuaren gaineko balioespenetan, ordea, denetariako iritziak daude: batetik, partaideek onartzen dute estandarra jakitea baliagarria dela eta aitortzen diote «denon hizkuntza» izateko funtzioa; baina askok uste dute ez dela benetako euskara eta «artifiziala», «hota», «aspergarria», «plastikozkoa», «liburukoa», «formala» edo «akademikoa» dela

diote, hiltun gutxiko beste hizkuntza batzuetako aldaera estandarrekin gertatzen den bezala (Dorian 1981, 1994; O'Rourke eta Ramallo 2011):

- (234) Euskera batuaz hitz egitea hemen [Tolosan] iruditzen zait, osea, oso **hotza** edo oso, lagun batek esaten dit, **plastikozko euskera** bezala. (TO-A, 209)
- (235) Nik adibidez ikasi det txikitatit batua, baina gero hitz egiterakoan batua **aspergarria** egiten zait, **aspergarria**, da **oso zuzena**, oso. / **Formala da, ta, ta, ta**. Eta adibidez, ba bizigarri pixkat ematen badiozu, ba da alaiagoa bezala. Adibidez ni(k) deuzket koadrilan batzuk **herri txikitakok**, eta ja dakite hikaz hitz egiten. Eta oain goaz txapeko hontan ba hitz egiten dute hikaz, eta nik adibidez hikaz erantzuten diet, badakidalako **pixkat**, eta hor, ba, **gauza hoiek ez zaizkit egiten hain, hain aspergarriak**. / porque batua egiten zait oso zuzena, oso pausoz pausoka, para-para-para... (TO-D, 241 / 243)

Euskara batuaren halako deskribapenek, goiko paragrafoek esaterako, bi oinarrizko balio adierazten dituzte: batetik, benetakotasun falta (ez da benetakoa eta ez da bizia) eta, bestetik, esleitzen zaizkion funtzioak, arlo formalari eta akademikoari lotuak.

Hiztunek aldaeren gaineko balioespenak bereganatzen dituzte. Hemen argi ikusten dugu batua bakarrik ikasi duten hiltun berriek balioespen horiek darabiltzatela.

- (236) Esaten dute hori, euskera batua ez **dela euskera ia-ia**, dela **invento raro bat**. / Eta guk esaten diegu, «**hori da ikasi dugun euskera**» (Gazte-GE-A, 282/383)
- (237) Ni bai, ni sentitu naiz..., bueno, igual orain berdin zait, osea, hori etiketa bat da eta... Baina, gainera nik batua ikasi dut eta askotan gertatu zait hitz egitea euskaraz eta begiratzeari horrela en plan «**joe, baina zu batueraz egiten duzu, hori ez da euskara**». Eta esan didate, eh» / [euskaldun zaharrek] edo igual gipuzkeraz hitz egiten dutenek, edo, horrela, unibertsitatean... Eta ordua, joe, **horrek sentiarazten zaitu**, ez dakit, ba hori, **beste maila batean zaudela**. (Gazte-GE-D, 349 / 351)

Getxoko Gazte-GE-Dk argi eta garbi adierazten du «beste maila batean» sentitu dela (beheragoko maila batean, ulertzen da) benetako euskararekin lotzen den aldaeran ez mintzatzeagatik, batuaz hitz egiteak benetako euskal hiltuna izateko aukera ukatuko balio bezala.

Ez dugu honelako kasu askorik aurkitu, alegia, partaideak esatea zuzenean aurpegiratu diotela batuaz egitea; baina bai ikusi dugu euskalkian egitea edo ez egitea badela hiltun berriek beren burua benetako hiltuntzat hartzeko faktoreetako bat. Horrek adierazten du batuaren eta euskalkien gaineko balio horiek barneratuta eta zabalduta daudela euskal gizartean. 6.3. eta 6.4. ataletan sakonduko dugu horretan.

6.1.3.3. EUSKARA BATUAREN ETA EUSKALKIEN FUNTZIOAK

Profil guztietako partaideek aipatu dute zer funtzio esleitzen dieten batuari eta tokian tokiko hizkerari; gainera, *bidialektodunek*, hau da, bi aldaerak (batua eta euskalkia) era-

biltzen dituztenek bakoitza zertarako erabiltzen duten ere deskribatu dute. Haien ideietan ikusi da funtzio banaketa argia dagoela eta honetara laburbil daiteke: batuarenak, guztion hizkuntza, erregistro formala eta hizkuntza idatzia; euskalkienak, erregistro informala, ahozko hizkuntza eta komunitatea komunikatzeko modua. Pertsona bidialek-todunek zorrotz bereizten omen dituzte erabilera horiek. Batuaz bakarrik mintzatzen diren hiztun berrien kasuan, batzuk gustura daude darabilten aldaerarekin eta aski-tzat dute beren beharrianetarako; beste batzuek, oster, ez direla hiztun «osoak» uste dute.

Partaideek batuarekin lotutako funtzioez hitz egin dute. Funtzio horietako batzuk lehen funtziotik datoz, alegia, euskara estandarra izatetik, eta inork ez du funtzio hori kolokan jartzen; beste kasu batzuetan, batuari aipatzen zaizkion funtzioak tokian tokiko aldaera tradizionalei kontrajarrita identifikatzen dira. Hona hemen funtzioak banan-banan, aipuz hornituta:

— Batua, denon hizkuntza

Partaide guztiak bat datoz batua lingua franca dela, denon euskara, beste euskalki batzuetako hiztunekin hitz egiteko erabili behar dela eta erabiltzen dutela, ulertzeko arazo-rik gerta ez dadin.

(238) Iparraldean ere, topo egin tipo batekin, erderaz ez dakiet a ezer, eta Gasteizko bat eta Baionako batek ulertzen euskararekin. Oraindik harritzen nau hori. (GA-A, 181)

(239) Eta ez baduzu ulertzen esaten dizute batuan eta ya está. (Gazte-DO-D, 223)

(240) Ze azkenean, euskera batua, bueno, komunikabideetan, egunkarietan eta holako... **danok ulertzeko erabiltzen da hizkuntz hori.** (ZEA-E, 153)

— Hiztun berriekin, batuaz

Euskalkia erabiltzen duten hiztun askok esan dute euskaldunberritzat hartzen dituzten hiztunekin batuaz egiten dutela, uste dutelako euskalkian ez dietela ulertuko edo haien hizkerara moldatzearren.

(241) Nik oin dela bost urte edo hasi nintzen berba lagun talde baten eta gaur egun, ba bene-tan esfortzua da, neure aldetik be, ba oinarrizko mailan dauzenei, ba batuaz eitzea, ze kla-ro, saiatzen naiz batuaz hitz egiten, eurek hori baino ez dakie, **orduan eurek ba batuaz hitz egiten dute ba, astiro**, ta esfortzu handixe da euren aldetik, eta orduan ni be bai saiatzen nai...» (BE-C, 147)

(242) Nik hezkuntzan egiten dot lana, eta orduan Gasteizen nagonen beharren, han, han bai ez dakiela euskera, ezebe. Eta klaro, askotan igual txikiekin berba egiten nik nire erara, eta «honek ez du aituko ezebe», **eta pasaten naz batueraz, ba pixka bat aitzeko**, ez?, **eurek ulertzeko.** (ZEA-E, 151)

— Batua esparru eta egoera formal eta akademikoetan

Partaide guztiek identifikatzen dute batua aldaera formal eta akademikoarekin. Gainera, hiztun bidialektodunek ere adierazi dute funtzio horietarako batuaz baliatzen direla, Zeanuriko gazte honek, esaterako:

- (243) Batuaz ikasi dot ze liburuak beti egon dire batuaz. Igual klasean iten dozu Arratieraz **bai-na azterketak eta dana batuaz** iten dot. (ZEA-B, 158)

Euskaldun zaharren eztabaida-taldeetan ere funtzio bera ematen zaio batuari eta askok aitortu dute batura aldatzen direla erregistro formal eta akademikoan:

- (244) Bai, eta gurasoen bileretan, adibidez, beti, ba ofizialtasun bat eman behar badiot zerbaiti, beti, hitz egingo dizut..., bueno, saiatuko naiz behintzat. (Zahar-TO-F, 180)

— Batua hizkuntza idatzia eta euskalkia ahozko hizkuntza

Funtzio bereizketa hori oso zabalduta dago, hiztun bidialektodunen artean batez ere: batuaz idazten dute, baina euskalkiaz baliatzen dira ahozko komunikazioan.

- (245) Holan esaten da, baina gero idatzi, beste modu batean idatzi behar duzue.(...) Egunkari-xetan eta hola gauzetan agertu behar direz modu baten denok ulertzeko. Baina gero, berba eitzen, batek bere moduan. (BE-D 146)

- (246) Euskalkian, hobeto: Oiartzueraz (...) Hitz egiten hasten baldin banaz, batuan ezin dut, ez naz kapaz, ze Oiartzunen erabiltzen ditugun hitz batzuk ez dakatenak zer ikusirikan beste hitzekin ta... / Nik ez, eta EGako azterketan ere hitz egitekoan hasieran saiatu nintzen batuan eta ezin nun, osea, saiatu nintzen baino eta esan zidaten, «hitz egin dezakezu zure euskalkian», porque ikusten zuten osea gai banaz, ze idazteko orduan dana batuan iten dut, baino hobeto espresatzen naz nere euskalkian, bestela gauzak bi aldiz pentsatu behar ditut esan baino lehen. (Gazte-DO-E, 213/215)

- (247) Idatziz beti batuaz. Unibertsitatean... aurkezpenak... nik in dot nire euskeran, ni(k) eske batuaz iten badot, ingo dot txarto. Nik hobeto, hobeto azaltan naz Arratieraz. (ZEA-B, 160)

Azken hizketa zatietan ikusten dugun moduan, hizkuntza erabiltzeko orduan batzuetan kontraesanak gertatzen dira; izan ere, hiztun berri batzuek zailtasunak dituzte egoera formal eta akademikoetan batua ahoz erabiltzeko. Hori inguru soziolinguistikoko oso euskaldunetan baino ez dugu aurkitu, kasurako Zeanurin, Tolosan eta Zumaian. Pentsa liteke hezkuntza-sistemak lortu duela euskaraz bizi diren eta euskalkia darabilten gazte horiek benetan bidialektodunak izatea, batua eskolan ikasten baitute. Haatik (gehiago sakondu beharko litzateke baina), ikusi dugunaren arabera eta haiek aitortzen dutenaren arabera, gazte askok dituzte zailtasunak ahoz batuaz egiteko. Horretan, inguru beretako euskara H1eko hiztunen antzekoak dira, Tolosako eztabaida-taldean nabarmendu zenez:

- (248) —Aurkezpenak ja hoi beste gauza bat da, ze daukazu idatzia eta gero idatzia memorizatzen' zu, baino, baino zure, zure... Ja, batu, batua ere oso ez da ateatzen, eh, beti jaten' zu zeozer, edo ja horreta jotzen' zu. (Zahar-TO-E, 138)
—Eta batua noiz erabiliko zeunkie zuek? (Zahar-TO-M1, 148)
—Inoiz (ez). (Zahar-TO-B, 147)
—Nik batua..., ni batua irakurterako... / Irakurterako eta idazterako, bestela... (Zahar-TO-E, 148 / 150)
—Hitz egiteko ez, sekulan ez? (Zahar-TO-M1, 151)
—Ez, inoiz (ez). (Zahar-TO-B, 152)

— Euskalkia, «kalerako» eta harreman informaletarako

Lotura hori oso indartsua da oso inguru euskaldunetan bizi diren hiztunen artean. Halaxe ikusten dute euskara umetan kalean ikasi duten gazteek, baina baita nagusitan ikasi dutenek eta inguru horietara bizitzera joan direnek ere, Tolosako partaide honek kasu:

- (249) Euskaltegian ikasi ondoren (ahalegin handia, trinkoak...), nire alabak zazpi urte ditu eta zuzentzen dit. Ni saiatzen naiz batua hitz egiten eta berak ja badaki Tolosako moduan hitz egiten, «ama, horrela ez da esaten; ama, beste moduan; ama, zuk ez duzu euskera ondo ikasi» [...] **Daukagu gu[k] batuako modua eta berak dauka kaleko modua eta ez da hain... batzutan ez da hain berdin, antzekoa ez dauka**». (TO-E, 110)

Partaide honek euskaltegian ikasi eta gero Bermeora joan zen bizitzera eta orain dio kaleko erregistrarako euskaltegian ikasitakoa «desikasi» egin behar dela:

- (250) **Kalekoa ikasi eta erabiltzeko, euskaltegikoa desikasi behar:** Klaro, ikasi, zuk esan dozuna, ikasi'zu berbetan, ahaztuten'zu ikasten dozuna eta ostabere atateko perfilek edo, ostabere ikasi...» (BE-B, 31)

Eta alderantziz: titulua lortzeko, kalean ikasitakoa desikasi behar da. Bi lekukotza horiek argi eta garbi erakusten digute hiztunek nolako desberdintasunak hautematen dituzten batuaren eta tokiko hizkeraren artean, baina ez hori bakarrik: baita bakoitza zer esparrutan erabiltzen den ere.

- (251) **Beharrezkoa zen titulu bat edukitzie eta orduan ostabere desikasi kalekue.** / Nik egiten dotena(k) oin ez dau balixo? (BE-C 16/21)

Euskaldun zaharrekin egindako eztabaida-taldeetan luze eta zabal aritu dira tokian tokiko aldaeraren balioaz. Denak bat zetozen lagunen artean oso arraroa dela batuaz egitea.

- (252) —Eta gazte batek zuen artean batuaz iten badau? (Zahar-TO-M1, 127)
—Arraroa da. (Zahar-TO-B, 128)
—Oso, oso arraroa da. (Zahar-TO-E, 139)
—Koadrilan, esate baterako, edo poteoan, bueno, poteo ez dakit zuek egiten dozuen... Lagun artean batua in ezker, arraroa da? (Zahar-TO-M1, 130)

- Arraroa da. (Zahar-TO-B, 131)
- Eta zelan hartuko zeunkie zuek? (Zahar-TO-M1, 132)
- Nik seguru asko ez nioke batuan erantzungo. Lehengo inpaktua, osea, inpaktu iten duten, baina berak batun hitz egiten baldin badu, nik ez nuke jakingo nola erantzun batun, segur aski, lagun arten, giro baten batua..., ez dakit. (Zahar-TO-E, 133)
- Nik bere bereizten det, irakasle bati zuzenduta baldin badijoa imail bat lan bat bidali behar dalako edo, batua, baino, lagun arten..., hitz iten deten bezala. (Zahar-TO-E, 245)

Tokiko hizkerari komunitatean integratzeko balio handia ematen diote eta, iradokitzen dutenez, euskalkia funtsezkoa da hiztun berria *euskaldunen* elkartean integratzeko. Hala dio, besteak beste, Tolosan bizi den eta euskara familian ikasi duen emakume honek:

- (253) Bueno gainera erregistro bat gehiago suposatzen du, ez? Oseake, zergatik ez, ez? Osea, da pixkat ba beste... da plus bat gehiago. Osea, nondik abiatzen zean, ba batzuk abiatuko di(r)a, igual gaizki dau planteamendua, baina, bueno, euskaltegitan abiatzen dira ikastea ba nolabait, ba bueno, euskera batutik, ez?, eta hortik gerturatzen dia gero, zenbat eta gehiago gerturatzen zea azkenean **euskalki batera, ba integratuagoa zaude**, ez?, lortu dezu pixkat ba beste pausu bat gehiago. (Zahar-TO-F, 307)

Hemen deskribatutako funtzioak oso zabalduta daude partaide guztien artean, nola batuz egiten dutenen artean hala bidialektodunen artean, baina kontuan izan behar da, erabilerari dagokionez, funtzioen bereizketa hori bakarrik dela posible hiztun bidialektodunen artean, haiek baino ez baitute aldaera hautatzeko gaitasuna goian aipatutako egoera eta funtzioen arabera. Batuz soilik mintzatzen diren hiztun berrien kasuan, dilema handia ageri da: funtzioen banaketaren jakitun dira, baina ez dute banaketa hori gauzatzeko hizkuntza baliabiderik. Hala ere, hiztun berri guztiek ez dituzte modu berean hautematen beharizan horiek eta inguru soziolinguistiko guztietan ez da ohikoa euskalkiaren erabilera. Jarraian aztertuko dugu kontu hori.

6.1.3.4. BATUA ETA TOKIAN TOKIKO ALDAERA, BIAK AL DIRA BEHARREZKO?

Partaide guztiak bat datoz **batua beharrezkoa** dela, euskaldunek batua jakin behar dutela gaur egun, hain zuzen ere euskal gizartean dituen funtzioengatik. Hala adierazten dute bi lekukotza hauek:

- (254) Trabajar con mucha gente que está aprendiendo batua, y tal, y bueno, no tengo ningún complejo en hablar en batua. Pero sí se nota, o sea, sí noto que hay gente que tiene como..., que sí siente eso de «yo no hablo bizkaiera, no hablo tal, entonces mi euskera no sé qué...», pero bueno, también **los que hablan bizkaiera, mucha gente tiene complejos de «ay, porque yo no hablo batua»**. (ELK-B, 188)
- (255) [Hablando sobre los euskaldun zaharras] En la mayoría de los casos yo les he intentado mostrar a personas mayores y demás respeto a su dialecto, a su forma de hablar, o lo que han aprendido desde la cuna, les he dicho que eso no lo tienen que perder, y yo creo que ellos también, la mayoría, pues han entendido el esfuerzo de un euskaldunberri, que se muestra ante ellos no con ningún aire de superioridad por saber batua, o saber escribir, no,

no, no, no, porque yo creo que **una persona batua que no intenta acercarse al resto de los dialectos, pues es un euskaldun cojo, y un euskaldun zaharra que se piensa que con el bizaiera al fin del mundo, pues es un euskaldun cojo en el siglo XXI también.**» (ELK-J, 165)

ELK-J partaideak iradokitzen du xxi. mendeko hiztun osoa, ez «errena», batuan eta euskalkian mintzatzen dena dela edo, behintzat, euskalkira hurbiltzen dena. Lehenago ikusi dugu guztiek balioesten dituztela euskalkiak eta batuaz bakarrik hitz egiten duten askok «inbidia» ere badietela euskalkian egiten dutenei. Baina zer puntutaraino bihurtzen da beharrian balioespen positibo hori? Gure datuen arabera, inguru soziolinguistikoa da gakoa: tokiko aldaera dagoen eta erabiltzen den lekuetan, aldaera horrek balio integratzaile handia eta euskalkien hizkera biziaren balioa du; horregatik hiztun berri askok ikasten dute, neurri batean behintzat:

- (256) Bueno, gero ba **kalekoa ikasi behar**, klaro, ze hango euskeragaz [batua] hemen Arratien, ba bueno, txokantea da, ezta? Egia da, **ikasten dozuna euskaltegietan** gero erabiltzeko, ba bueno, **esparru hau ez da igual egokiena**, beraz, ba bueno, kalekoa. (ZEA-D, 10)

Inguru erdaldunagoetan, euskaldunen ehuneko handia batuaz mintzatzen diren hiztun berriak izanik —Bilbon eta Gasteizen, esaterako— ez da halako beharrianik somatzen. ELK-B (257) partaideak —Algortako gaztea, C2 mailaduna (HABE 4)— argi adierazten du euskalkia ikasteko beharrian bizilekuari lotuta dagoela:

- (257) Si viviera, me imagino que si viviera en un pueblo que se use bizkaiera, ahí me pondría mucho más las pilas para aprenderlo mejor. Sí me gustaría saberlo, pero como no lo sé, y como no lo escucho constantemente, digo, «bueno, y para qué me voy a poner a hablarlo, si en realidad, es que no lo escucho». En Lekeitio sí me pasaba, que lo escuchaba todo el tiempo, entonces, había verbos y cosas que las empecé a cambiar, porque digo, no voy a ser la rara que, que tenga que..., no sé, que diga las cosas diferentes, si todo el mundo habla de determinada manera, nada, se te van pegando las cosas para facilitar un poco la comunicación, y para facilitar todo. Pero si en general el medio es el que hay. (ELK-B, 192)

Honaino euskalkiaren balio integratzaileaz esandakoak. Baina, gainera, aldaera dialekta-len funtzio argien artean lagunen arteko erregistro informala gorpuztea dago. Nola egiten diete aurre hiztun berriek euskararen erabilera informalei?

6.1.3.5. EUSKALKIA ALA ERREGISTRO INFORMALA? EUSKALKIA ALA JARIOA?

Euskalki-aldaera erregistro informalarekin, lagunen arteko hizkerarekin lotzen bada ere, uste dugu hiztun berri askok beren errepertorioan faltan dutena ez dela euskalkia, erregistro informala erabili ahal izatea baino; kasu askotan hori ere ez: nahiko lukete jario onean egitea berba, Bilboko neska honek adierazten duenez:

- (258) Eske nik pentsatzen dut berdin dela bizkaieraz edo batuaz hitz egitea, kontua da **erraztasunez eta ondo hitz egitea**. Ez da..., claro que gustatuko litzaidake, ba, bizkaiera jakitea, baina batueraz hitz egiten ondo badakit, hori ja da euskera, badakizu hitz egiten. (Gazte-BI-C, 333)

Dilema hein batean konponduko litzateke batuan oinarritutako erregistro informaleko hizkera erabiliz gero, baina batuaz ez da erregistro informalik garatu. Euskara eta batua normalizatzen diren neurrian baliteke batuaren erregistro informalak sortzea.³

6.1.4. *Batua euskaldunberriena eta euskalkia euskaldun zaharrena*

Oso kontu hedatua da batua *euskaldunberriekin* lotzea eta euskalkiak *euskaldun zaharrekin*, Getxoko gazte hauek adierazten dutenez. Haatik, Gazte-BI-C (261) partaidearen erantzunean ikusten dugu identifikazio hori kolokan jartzen hasita dagoela; izan ere, gazte hau konturatuta dago badirela hiztunak euskara batua lehenengo hizkuntza moduan jaso dutenak:

- (259) Ba adibidez, adibidea, Lekeition adibidez ba jende dana, **danek euskeraz ikasi dabe baina etxean**, euskeraz pentsatzen dabe, eta dana euskeraz egiten dabe. Eta orduan beharbada **bizkaiera iten dabenak ba bide hori ere eraman dabe, ikasi dabe etxetik** ba hasieratik. Eta batua, batua nire ustez, hori, hizkuntz garbia moduan ikusten dugu, edo perfektu moduan, eta hori ja modu akademikoan ikasten da, ez etxe batetan. (Gazte-GE-E, 429)
- (260) Nik bizkaieraz edo gipuzkoeraz egiten dutenak ikusten ditut euskaldun zahar moduan. / Eta gero batuan egiten dugunok edo, euskaldunberriak. (Gazte-BI-A 266/268)
- (261) Eske igual badau jendia Bilbokoa *euskaldun zaharra* dana, bere gurasoak batua in daurienak eta, ez dakit, **ez dut uste bizkaierak edo mugatuten dauenik euskaldun zahar edo euskaldun berri** izatia» (Gazte-BI-C, 272)

Jendeak *euskaldun zahartzat* jotzen dituen euskal hiztun berriak batuaz mintzatzen ez direlako jotzen ditu halakotzat eta horrek argi erakusten du lotura hori zenbateraino dagoen sustraituta. Halaxe ikusten da lekukotza honetan: BI-Ck luzaroan Gernika aldean lan egin duen irakasle eta ikuskatzaile batek, kontatzen du *euskaldun zahartzat* hartzen dutela. Taldeko partaide batek argitzen dio arrazoiak: batuaz egiten ez duelako, «*gernikeraz*» egiten duelako (ez du esaten «bizkaieraz» egiten duela).

- (262) —Urte mordo, urte asko emon dodaz, esan bezala, Gernika, Gernika inguruan, eta gero Lea-Artibaitik, eta lana dela-eta, eta nik ikusi dot be bai hangoen erreakzioa, eta hainbatetan **harritu egiten dira jakitean euskaldunbarrixa nazela**. / Galdetzen dostixe, zu euskaldun zaharra zara, **igual berba eixeko era**, edo ez dakit, ez dakit. / Izan leike doinua, izan leike hiztegia... (BI-C, 178 / 182/184)
—Batueraz ez duzulako egiten. (BI-A, 185)
—Ni Gernikara joan nintzen eta hasi nintzen, eta berehala ere bai, ba ez euskaraz egiten, **gernikeraz eitxen**, edo... (BI-C, 186)

³ Euskaldunen elkarriketa-estrategien inguruko ikerketa batzuek erakutsi dute bat-bateko erregistroetan berrikuntza interesgarriak sortzen ari direla, zehazki, euskara-gaztelania kode-alternantziaren erabilera (Amonarriz 2003, 2008; Anaut 2010, Lantto 2014).

—**Ez du egiten batua**, egiten du... eske ez da berdiña. (BI-E, 187)

—Gernikeraz egiten, edo...Lekeitioko ikasle batzuk ere bagenituen, eta bueno, ba nolabait kutsatuta, eta berehala moldatu nintzen horretara. Eta orduan, handik gitxira, ba, ez dakit, ba jendea hasi jatan galdetzen, hasiera batean, ea euskaldun zaharra nintzen, eta ezetza emoterakoan, batzuk, bai, harritute. Zergatik? Ba beno, nik pentsatzen dut, ba beno..., **ni pozik, pozik eta harro**, ba bai, bai **noski**. (BI-C, 188)

Hiztunak hori modu positiboan balioesten duela argi geratzen da bere sentimenduak deskribatzeko moduan: «ni pozik eta harro, noski».

6.1.5. *Zer hizkuntza-aldaeratan mintzatu, halako identitatea hartu*

Euskararen aldaeren balioei buruzko hausnarketa erren geratuko litzateke aldaera batean edo bestean egiteak pertsonaren identitatean nolako eragina duen aztertu barik. Izan ere, hiztun bidialektodunentzat aldaera batean edo bestean egitea beste pertsona bat bihurtzea da. Bilboko *euskaldun zaharren* eztabaida-taldean, batuaren eta euskalkiaren balio eta funtzioen azterketak argi erakusten du hizkuntza-aldaerek nolako lotura duten identitatearekin.

(263) —Eske [batueraz] **ez naz ni**. (Zahar-BI-A, 204)

—**Bi pertsona bihurtzen** zea euskeriaz. (Zahar-BI-E, 212)

Illo horretan, oso esanguratsua da ELK-A (264) hiztun berriaren gogoeta. Unibertsitateko irakaslea da eta arrazoi instrumentalengatik ikasi du euskara. Beraren helburueta-rako, batua guztiz egokia da, baina ikus dezagun nola azaltzen duen ez duela euskalkirik ikasteko interesik: euskalkia ikasteak beste pertsona bat bihurtuko luke, bestelako euskal hiztun bat.

(264) **Es que mi historia es otra**, entonces yo creo que, o sea, poder enriquecer el euskera con elementos sí, pero **no tengo que hacer como que soy otra persona**, nunca voy a poder ser como esta profesora porque, o sea, esa forma de hablar que tiene, ni de escribir, que es súper de casa, es que mi casa es otra casa. Entonces, no pasa nada, la suya es así, y me resulta bonito, pero la mía es otra cosa, no tengo que hacer que soy otra persona. /Yo lo que quiero es hablar el euskera que hable, pero dar mis clases bien, comunicarme bien, poder comunicarme con la gente que habla. [...] Pero no, yo no me apuntaría a un cursillo de, pues de otro dialecto, no. ¡Anda que no tengo que aprender cosas para hablar bien el batua!, como para meterme a otra cosa. (ELK-A, 180/182)

6.1.6. *Euskararen aldaeren prestigioa eta legitimitatea*

Aurreko ataletan erakutsi dugu partaideek funtzio desberdinak esleitzen dizkietela batuari eta euskalkiei. Esan liteke bata zein besteak balioesten dituztela, baina funtzio

desberdinetarako. Partaideen iritziz, euskalkiek aberastasuna ematen diote euskarari eta hizkuntzaren aldaerarik benetakoenak dira; batua, berriz, beharrezko ikusten dute, baina artifizialago, ez «benetako euskara». Hainbat hiztun berri euskalkian mintzatzen direnei «inbidia» dietela adierazi dute eta horrek argi erakusten digu euskalkiak hiztun berriek nahi dituzten baina batzuentzat eskuraezinak diren balioekin identifikatzen dituztela. Interesgarria da auzi horretan gehiago sakontzea, izan ere, pentsa liteke hiztunek benetako euskalduna izatearen gainean duten autopertzepzioarekin lotuta dagoela. Azter ditzagun, bada, hizkuntzen balioei buruzko zenbait kontzeptu, gure hiztun berrien usteen atzean dauden ideologiak hobeto ulertzeko.

Gutxiengoen hizkuntzen aldaeren autoritatea eta legitimitatea azaltzeko orduan, Woolard-ek (2008) elkarrekiko lehian dauden bi balio-ardatz proposatzen ditu: «anonimatu» (*anonymity*) balioa eta «benetakotasun» (*authenticity*) balioa. Hizkuntzen aldaera estandarraren legitimitatea eta autoritatea aldaera anonimoa izatean datza hain zuzen ere, guztiena da eta ez da inorena eta, ondorioz, guztiz egokia da hizkuntza komun eta ofizialaren funtzioak betetzeko. Beste aldean, tokian tokiko hizkerak, dialektoak, herri-hizkuntzak (bernakularrak), tinko errotuta daude haietan mintzo diren komunitateetan eta hizkuntzaren benetako aldaera bizitzat hartu ohi dira. Ikusi dugunez, gure partaideek batuari esleitzen diote hizkuntza «anonimo»aren balioa eta tokian tokiko hizkerei benetakotasunaren balioa. Hortaz, ez da harritzekoa batuari «artifizial», «hotz» edo «aspergarri» iriztea eta herri-hizkuntza jatortzat, benetakotzat hartzea; prestigioa eta legitimitatea balio horietan dautza.

Balio horiek daude jadanik deskribatu ditugun batuaren eta tokian tokiko hizkeraren arteko funtzioen banaketaren oinarrian. Baina euskara ez da hizkuntza normalizatu bat eta euskaldunak ez diren eskualdeetan bizi diren hiztun berrien artean dago hori agerian: halako hiztunen kasuan batua da darabilten euskararen aldaera bakarra. Funtzio guztietarako erabiltzen duten ala zenbait funtzio gaztelaniarekin partekatzen dituzten sakonago aztertu beharko litzateke. Dena dela, esan liteke hiztun berriek barneratuta dituztela deskribatu ditugun balioak (ziur aski oso zabalduta daudelako euskal gizartean) eta balio horiek eragin handia dutela haien hizkuntza-identitatean. Hurrengo ataletan helduko diogu aztergai horri.

6.2. Hizkuntza-identitatea: sarrera

Zer dela eta dio Trapagaraneko hiztun batek «*txikituta*» sentitzen dela «*euskaldun zaharrekin*» hitz egiten duenean? Zer dela eta dio euskaraz gai den hiztun batek, bere hizkuntza-errepertorio aktiboan euskara duen pertsona batek, «*euskaraz dakiela*» baina ezin duela bere burua «*euskaldun*»tzat hartu? Zergatik gertatzen da hiztun batek bere burua *euskaldunberri* gisa definitzea behin eta berriro eta beste batek, berriz, bere burua *euskaldun* ikustea? Nolako profila dute beren burua «*euskaldun zaharren*» pareko ikusten duten hiztun berriek? Halako galdera guztiak estu lotuta daude «*Nolako euskal hiztuna naiz?*» itaunarekin. Partaideek nola ikusten eta deskribatzen duten

beren burua sarri atera da eztabaida-taldeetan eta horrexegatik ikertu da banakako elkarrizketetan ere galdera zuzen baten bidez. Partaideek interes handia erakutsi dute kontu horiek beste partaideekin aztertzeke eta haien gogoeta eta justifikazioak kalitate handikoak izan dira, oso landuak. Sortutako diskurtso ugaria aztertuta ulertu ahal izan dugu nola dauden lotuta gure partaideen hizkuntza-identitatea, identitate horri esleitutako balioak eta, kapitulu honetan bertan ikusiko dugunez, euskal *benetako* hiztun sentitzea edo ez sentitzea.

Hizkuntza-identitatea da subjektuek hiztun-kategoriekin, kasu honetan euskal hiztunen kategoriekin egiten duten identifikazioa (Ortega eta beste 2013, 2014, 2015). Hizkuntza-identitateak gizartean eratu eta negoziatzen dira, gizarte-interakzioaren bidez, ez dira nozio finkoak. Bucholtz eta Hall (2004: 369) autoreek diotenez, «ez dira egoera objektiboak; aitzitik, prozesu fenomenologikoak dira, gizarte-interakziotik sortuak» (gure itzulpena); izan ere, egokiagoa litzateke «identifikazio» terminoa erabiltzea «identitate» baino, kontzeptuaren dinamismoa harrapatzearen. Hizkuntza-identitatearen eraketan bi osagai daude: hiztunak nola hautematen duen bere burua eta besteek nola hautematen duten. Hizkuntza-identitateek termino edo «etiketa» jakinak ekartzen dituzte eurekin. Kasu honetan, partaideek euskal gizartean zabaldua dauden etiketak erabili dituzte: *euskaldun zaharra*, *euskaldunberria*, *euskalduna*; eta horiekiko kokatu dira bat edo beste bere eginez, denak baztertuz, edo beren identitatea definitzeko modu berriak asmatuz.

Pentsa liteke hizkuntza-identitatea zaila dela antzematen, bizitza-biografia edo hizkuntzaren erabilera ez bezala, ezin delako ez behatu ez azaldu zenbat, noiz, non eta norekin gisako datuekin. Aitzitik, eztabaida-taldeetako partaideek sakon aztertu nahi izan dute elkarren artean nola «ikusten duten beren burua» eta nola «sentitzen diren», eta taldean sortutako diskurtso ugarian aukera izan dugu identitatea aztertzeke, behin eta berriz aipatutako gaiak eta ideiak identifikatuz. Gainera, taldeetan hiztun berrien profil desberdineko partaideak egon direnez, aukera egon da azterketa kontrastean oinarritzeko. Hori oso aberasgarria izan da partaideentzat eta, zalantzarik gabe, hemen aurkeztu ditugun datuen kalitaterako ere bai.

Hiztun-kategoria batekin edo besterekin identifikatzeak, norberarentzat hizkuntza-identitate bat edo beste hartzeak, badu ondorio? zer eratako ondorioak ditu? Ikerketa honetan egiaztatu da partaideen autopertzepzioek eta hizkuntza-identitateak pisu handia dutela euskal hiztun berriek elebitasuna bizitzeko moduan eta hiztun *on* sentitzeko edo ez sentitzeko. Hiztun batzuk ez dira sentitzen benetako euskaldunak eta ez dute konfiantzarik zenbait egoeratan eta hiztun jakin batzuekin euskara erabiltzeko. Bada, hizkuntza-identitateen azterketak argibideak ematen dizkigu hiztun berrien esperientzia elebiduna eta euskararen erabilera ulertzeko. Gainera, azterketa honek euskal gizartean dabilzan hizkuntza-ideologiak azaleratzeko ere balio izan du, besteak beste, euskaldun zahar/euskaldunberri dikotomiaren gainekoak eta zerk egiten duen hiztun berri bat benetako euskaldun.

6.2.1. *Euskal hiztunen hizkuntza-identitatea aipatzeko erabiltzen diren terminoak*

Hainbat termino dabilta gizartean eta erakundeetan euskal hiztunen profilak izendatzeko. *Euskaldun zaharra*, *euskaldunberria* eta *euskalduna* dira gizartean errotuenak eta gure partaideek ere horietara jo dute sarrien beren burua identifikatzeko edo ez identifikatzeko orduan, baina baita «etiketa» horien baliotasuna ukatzeko ere zenbaitetan. Partaideen identitateei buruz hitz egin aurretik, tarte bat hartuko dugu termino bakoitza kontestualizatzeko.

Euskarak gizartean ondo finkatutako termino bat du hiztun berriak izendatzeko eta horretan berezia dela esan dezakegu. *Euskaldunberri* terminoa, hizkuntza biziberritzeko mugimenduan hedatu eta finkatu bazen ere, 60ko urteetatik aurrera batez ere, ez zen orduan sortu; XIX. mendearen amaieratik da ezaguna «euskara haurtzaroaren ostean ikasi duen pertsona» izendatzeko (Artetxe eta Kintana, 2014). 60-80ko hamarkadetan, *euskaldunberriarekin* lotutako profila honako hau zen: hizkuntza euskaltegian ikasten zuen pertsona gazte edo heldua. *Berri* kontzeptu horri kontrajarrita, beraz, *euskaldun zaharra* izango zen «betidanik» euskaraz egiten zuen pertsona. Dikotomia horrek muga zehatzak zituen ama-hizkuntzari, euskara ikasteko moduari eta adinari dagokienez. Haatik, EAEko egoera politiko eta soziala aldatu egin da eta euskal hiztunen profil berriak agertu dira, batez ere hezkuntzan murgiltze-ereduak guztiz hedatu direnetik, eta horrek euskal hiztunen profil berriak sortzea ekarri du. Gauzak horrela, itaundu behar genuke ea horren ondorioz euskal gizartean *euskaldunberriaren* kontzeptua aldatu den eta ea euskal hiztun motak izendatzeko terminoen berreraketa gertatu den.

Euskaldun terminoari dagokionez, jatorriz, «euskara duen pertsona» esanahi du eta, horrenbestez, euskararen hiztuna. Baina terminoak bigarren esangura hartu du berriki: «euskal herritarra», hitzari euskal identitate politikoa edo kulturala itsatsiz, gazteen artean eta EEBBetako diasporan batez ere. Gazteen identifikazioez hitz egiten dugunean itzuliko gara berriro terminoaren esanahi bikoitz horretara.

Terminoen kontestualizazioa osatzeko, erakundeen erabilerak aztertuko ditugu orain. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika Saileko Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzak hiztun-profilak definitu ditu, bi aldagai nagusi oinarri hartuta: ama-hizkuntza (H1) eta euskararen jakite-maila. Gure ikerketarako, euskaraz «ondo» mintzatzen diren hiztunak sailkatzen duten kategoriak dira interesgarri. Hiztunak honela sailkatzen dira: *euskaldun zaharrak* (H1 euskara hutsa duten jatorrizko euskaldunak), *jatorrizko elebidunak* (jaiotzetik elebidunak, hau da, familian euskara eta gaztelania jaso dutenak) eta *euskaldun berriak* (H1 euskara ez den hizkuntza bat duten euskaldunak)⁴.

⁴ Gainera, III eta IV Mapa soziolinguistikoen «BILA» indizean (Eusko Jaurlaritza 2005 eta 2009 hurrenez hurren), beste kategoria batzuk erabili dira euskaraz egiten ez dutenak edo ondo egiten ez dutenak aipatzeko: «*partzialki euskaldun berriak*» (H1 gisa gaztelania jaso zuten eta euskaraz ondo egiten ez duten hiztunak), «*partzialki erdaldunduak*» (H1 gisa euskara jaso zuten baina neurri batean gaitasuna galdu dutenak), «*guztiz erdaldunduak*» (H1 gisa euskara jaso zuten baina euskarazko gaitasuna guztiz galdu duten hiztunak) eta «*erdaldun zaharrak*» (H1 gisa gaztelania jaso eta euskara batere ikasi ez duten hiztunak).

Ikusten dugunez, «ama-hizkuntza» aldagaia funtsezkoa da sailkapen horretako profilen definizioan. Aurrerago ikusiko dugu nolako pisua duen elementu horrek gure partaideek bereganatzen dituzten identitateetan.

6.3. Zer hiztun mota naiz? Euskal hiztun berrien hizkuntza-identitatea

Gure partaideek termino hauetara jo dute: *euskaldunberri*, *euskaldun zahar* eta *euskaldun*; baina beste modu batzuetara ere deskribatu dute beren burua, hala nola *erdalduna*, *trebetasun gabeko euskalduna*, *euskaldunberri zaharra* edo *euskalduna izateko gauza*. Diskurtsoaren analisia eginda, ondorioztatu dugu nork bere burua zein terminorekin identifikatzen duen ez dagoela lotuta irizpide «tekniko» hutsei; aitzitik, autoidentifikazio horretara iristeko hiztunak azterketa konplexua egiten du berea den baina aldi berean gizartean partekatua den hizkuntza-identitatearen inguruan. Atal honetan, hiztunen autodeskribapenekin hasiko gara, hau da, zer hiztun mota direla uste duten (6.3.1-6.3.4) eta, ondoren, hiztun-kategoria bakoitza nola definitzen duten aztertuko dugu ikuspegi teorikoago batetik (6.3).

6.3.1. Zer euskal hiztun mota naiz? Euskaldun zaharra ez, behinik behin

Gure partaide guztiek euskara familiatik kanpo ikasi badute ere eta, hortaz, *euskaldun zaharren* ohiko definizioaren arabera *euskaldun zahartzat* har ezin balitezke ere, nolatan izan liteke haietarikoren batek bere burua *euskaldun zahartzat* hartzea? Hipotesi gisa pentsa liteke euskara sozializazio goiztiarrean, hau da, 2-3 urterekin ikasi dutenek izan lezaketela beren burua *euskaldun zahartzat* ; izan ere, asko aldi berean hasi ziren hitz egiten gaztelaniaz eta euskaraz. Hori hala den ikertzeaz gain, interesgarria da jakitea zer arrazoi ematen duten partaideek beren buruari kategoria hori ukatzen diotenean, horrek lagunduko baititu identitate horrekin zer balio lotzen diren eta zertan dartzan argitzen.

Euskaldun zaharra terminorik erabiliena izan bada ere, subjektuek beste termino hauek ere erabili dituzte hiztun kategoria hori aipatzeko: «betidanik egiten dutenak», «ama-hizkuntza euskara dutenak», «etxetik euskaldunak», «baserriko jendea», eta «euskaldunak» ere bai. Termino horietan hiztun mota horri atxikitako balioak zein diren antzeman daiteke.

Euskaldun zaharra izateko funtsezko balioa berba hauetan azaltzen zaigu, «bide batez» edo:

- (265) Tenía una novia guipuzcoana que era euskaldun zaharra, o sea, que tenía el euskera como lengua materna.» (ELK-I, 61)

Oro har, gure ikerketako partaideek *euskaldun zaharrak* ez bezalakoak ikusten dute beren burua. Hori beste testuinguru batzuetan ere deskribatu da (adibidez, O'Rourke eta

Ramallo 2011 Galiziaz eta Irlandaz). Gakoa? Familia-transmisioa, ama-hizkuntza. Ematen du hori eztabaidea dela. Ikus dezagun nola azaltzen dituzten bi taldeen arteko desberdintasunak.

Galdakaoko gazte honek uste du familia-transmisioa eta euskara etxeko hizkuntza izatea dela erabakigarria *euskaldun zaharra* edo *euskaldunberria* izateko.

- (266) Adibidez nik txikitatik ikasi dot eta ondiño pentsaten dot euskaldunberria nazela etxean ez daulako iten berba euskeraz eta... ez dakit, uste dot inportantea dala be bai euskaldun zaharra edo hori iziteko, **ba etxian berba egitea**, edo **familian e betidanik** euskeraz berba itea, uste dut **horrek baldintzatzen dauela ba izatea euskaldun zaharra edo**. (Gazte-BI-C, 252)

Badira beste faktore batzuk ere, gazte bilbotar honek aipatzen dituenak esaterako, euskararen kalitatea kontuan hartzen dutenak. Gaztelaniak hiztun berri askoren euskararen duen eragina, besteak beste, jatorrizko hiztunen eta hiztun berrien arteko beste desberdintasun baten ondorioa da: zer hizkuntzatan pentsatzen duten:

- (267) –Me parece que los euskaldunberris hablamos un poco duro, o sea, suena menos musical. Y luego una cosa que, yo es que soy muy maniática para la gramática en general, y soy muy puntillosa, se habla muy catellanizado, o sea, en cuanto a las estructuras me refiero. (ELK-I, 184)
 –¿Quién, quién lo habla? (ELK-M4, 185)
 –Los berris. O sea, **se piensa en castellano y luego se habla en euskera**. Un euskaldun zaharra, creo, a lo mejor estoy metiendo la pata, pero creo que **es capaz de pensar en euskera y a un euskaldunberri le cuesta mucho más**. Yo reconozco que a veces soy capaz de pensar en euskera, pero otras veces no. Otras veces, aunque hagas el ejercicio rápido en tu cabeza, pero otras veces pienso en castellano y luego lo digo en euskera, aunque igual, a ver, el proceso son unos segundos, y a lo mejor la otra persona no lo percibe, pero a veces me pasa. (ELK-I, 186)

Partaideen ustez, familia-transmisioak elebidunen prozesu mentalak baldintzatu ez ezik, erabilera «natural»erako baldintzak ere sortzen ditu.

- (268) Un euskaldun zaharra es una persona que se ha criado en ese idioma, mayoritariamente, y que además en su entorno familiar, o sea, cuando va a casa y su madre le pregunta «¿qué quieres para cenar?», se lo pregunta en..., su madre o su padre, me da igual, se lo pregunta en euskera. A mí eso nunca me ha pasado, y además nunca me va a pasar, a no ser que yo algún día llegue a ser madre y que entonces a mis hijos les diga que qué quieres para cenar y se lo pregunte en euskera. (ELK-I, 324)

Hiztun berri askorentzat *euskaldun zahar* baten moduan hitz egitea lortzea ia ezina da; halaxe adierazten du irratiko profesional gasteiztar honek:

- (269) Aunque tú tengas un lenguaje oral muy bueno y un lenguaje escrito muy bueno, para llegar a los niveles de un euskaldun zaharra que trabaja igual que tú tienes que hacer maravillas. (ELK-I, 104)

Partaideen gogoetek, baita beren buruari *euskaldun zahar*ren identitatea ukatzeak ere, argi erakusten dute zenbateraino dagoen errotuta «**ama-hizkuntzaren ideologia**» deritzona (Skutnabb-Kangas eta Phillipson 1989). Ideologia horren arabera, familian ikasitako hizkuntzak erabat eta bizitza guztirako baldintzatzen du pertsonaren hizkuntza-identitatea. Gure partaideen kasuan ere, euskara familian ikasi ezean, komunikatzeko lortutako gaitasuna gorabehera eta euskarak hiztunaren identitatean nolako garrantzia duen gorabehera, ezin liteke euskaldun zaharra edo jatorrizko hiztuna izan.

Zumaiako partaide honek dakarkigu ama-hizkuntzaren ideologiaren muturreko adierazpena. Helduaroan ikasi du euskara. ZU-C partaidearekin konparatzen da, *euskaldun zahar*rek bezala hitz egiten duen neska gazte batekin, eta hauxe dio:

- (270) Zuk esaten dezu, nahiz ta gurasoak erdaldunak izan, zu euskalduna sentitzen zeala, eta ni, euskalduna, kulturalki euskalduna sentitzen naiz, baina askotan esaten det, eske ni **erdalduna naiz, pentsatzen det erderaz eta barneratuta dakatena da erdera**. Ni ez naiz kapaza, [ZU-C] bezala, hitz egiten dun bezala, holako azkartasuna, agilidadea... (ZU-E, 97)

Ikusi dugunez, euskara sozializazio goiztiarrean, 2-3 urterekin, ikastea ez da nahikoa norbere burua *euskaldun zahar*tzat edukitzeko. Hori, neurri batean, ezustea izan da; gazte batzuek beren burua *euskaldun zahar* izendatzea espero genuen, baina kasu batean baino ez da gertatu: Arratiako neska gazte bat (6.5.4. atalean hitz egingo dugu hartaz). 6.4. atalean benetako euskal hiztun legitimo sentitzen direnei buruz hitz egingo dugu eta *euskaldun zahar* izatearen prestigioaz eztabaidatuko dugu. Indarrean badago ere, badira adibide batzuk iradokitzen digutenak ama-hizkuntzaren ideologia kolokan jartzen hasia dela egoera batzuetan. Oraingoz, jarrai dezagun gure partaiderik gehienek hartutako identitateekin.

Behin *euskaldun zahar* terminoa eta identitatea baztertuta, partaiderik gehienak bi kategoria hauetako batekin identifikatu ziren: *euskaldunberri* edo *euskaldun*. Ikus dezagun, bada, zer arrazoi ematen duten eta nola adierazten dituzten arrazoi horiek.

6.3.2. Zer euskal hiztun mota naiz? «Euskaldunberria naiz»

Kategoria honetara biltzen diren pertsonen artean askotariko profilak daude, baita murgiltze goiztiarrean ikasi duten hainbat gazte ere. Hala ere, arrazoietan nahiko bateratsu dabilta adin-talde guztietakoak.

6.3.2.1. BEREN BURUA EUSKALDUNBERRI IZENDATZEN DUTENEK IDENTITATE HORI JUSTIFIKATZEKO EMATEN DITUZTEN ARRAZOIAK

— Ama-hizkuntza gaztelania delako.

- Euskara modu formalean *ikasi* dutelako, dela ikastetxean, dela helduentzako programetan. (*ikasi* ikaskuntza egituratuaren zentzuan, Krashen-ek darabilen *eskuratze* edo *jabetze*arekin kontrajarrita (1981a, 1981b).)
- «Eskema mentalak» gaztelaniaz dituztelako (ama-hizkuntzaren ideologiarekin bat: lehenengo eskuratutako hizkuntzak erabakitzen du hizkuntzen eraketa garunean).
- Gaztelaniaz pentsatzen dutelako.
- Gaztelania delako nagusi beren hizkuntza-gaitasunean.
- Gaztelania erabiltzen dutelako batez ere edo soilik eguneroko bizimoduan.

Ikusten denez, irizpideak era askotakoak dira: batzuk ama-hizkuntzaren ideologian oinarritzen dira, baina badira komunikatzeko gaitasunarekin eta erabilerarekin zerikusia dutenak ere.

Hona hemen adierazpen batzuk **ama-hizkuntzak eskema mentaletan duen eragina** arrazoi moduan ematen dutenak. Euskara 3 urterekin ikastolan ikasten hasi zen gazte bilbotar batek azaltzen du argi eta garbi:

- (271) Eguneroko bizitzan gaztelania erabiltzen dudalako gehienetan, eta gañera, ba hori, etxean txikitatik gaztelania ikasi nebalako, gero ikastolan sartzerakoan hasi nintzen euskera ikasten. Baña, zelan da, ***lengua madre, edo hori, ama-hizkuntza, gaztelania izan da***, beraz, horregatik hartzen dut neure burua euskaldunbarri. / Nik askotan pentsatu behar dodaz lehenengo gauzak gaztelaniaz gero euskeraz botateko. Beharbada hor egongo litzateke ezberdintasuna, eta neuk, bueno, gaztelaniaz pentsetan dot. Bueno, hasten banaz euskeraz berbetan, ba bueno, automatikoki irtetzen zait ere, baña ***printzipioz nire pentsamoldeak antolatzeko hizkuntza gaztelania da***. Niretzako hor egongo litzateke behar bada ezberdintasuna, euskaldunbarri baten kasua edo euskaldun zahar batena. (BI-D, 164/188)

ZU-F partaideak nerabezaroan ikasi zuen euskara eta bizi-inguruak euskara erabiltzeko modua ematen dio; hala ere, «gabezia» hori antzematen zaio eta berak **gaztelaniazko eskema mentalak** aipatzen ditu azaltzeko:

- (272) Eskemak hor daude, ***erderazko eskema hoiek***. Eta, bueno, alde batetik pozik hartu dezula ja euskeraz ere, gaitasun bat eta hori, baina batzutan ***akatsa, edo hutsune bat hor sentitzen da***. (ZU-F 102)

Beste batzuek *euskaldunbarri* direla uste dute **helduaroan ikasi dutelako eta ikas-teko moduagatik** (horixe da *euskaldunbarri* terminoaren ohiko ulerkerak):

- (273) —Klaro, guk ulertzen duguna euskaldunbarria, gu bai gerala euskaldunbarria. (ZU-B, 63)
—Bai, ezta? Ja ***helduagoak ikasi dugula***. (ZU-A, 64)
- (274) Honbre, euskaldunbarriekin identifikatzen naiz. Euskaldunbarri, ze, ze hartu dudana euskara maila ez..., edo nire hizkuntza nagusia erdara izan da eta euskara hizkuntza nagusi moduan geroago hartu dut. (ELK-C, 282)

Agerikoa denez, euskara berandu ikastea oraindik lotzen da *euskaldunberriaren* profil klasikoarekin, baina gainera batzuek uste dute horrek baldintzatu egiten duela euskara maila ona lortzeko benetako ahalmena. Iritzi hori harrigarria da kontuan harturik gaitasun handiko zenbat eta zenbat euskal hiztunek ikasi zuten euskaltegian gaztetan edo heldutan. Iritzi horretakoa da, esaterako, Zeanuriko neska gazte hau, euskara umetan modu naturalean ikasi duena:

- (275) Hizkuntza, eske gatza da, ze batzuk gure daurie jakin baina kostau egiten jakie, kostau. Klaro, **eske ez da berdin hogeitaz urtegaraz ikasi edo hamar urtegaraz, txikitatik ikasi edo berrogeitaz urtegaraz**, ez da berdin. Eta euskera gainera ez da erreza, hizkuntza moduen, klaro, nik txikitatik ikasi dot eta bai, ba bueno, ba errez ikusten dot, **baina euskaldunberri edo hasten denean ikasten ja hogeitaz hamar urtegaraz, eta ahaleginak iten dauz ikisteko, eta ezin dau...** Nik ikusi dodaz batzuei ba kostau. Osea, gero **elkarrizketa bat ez dire kapazak**, osea, erderatara. (ZEA-B, 216)

Euskarazko gaitasun maila ere askok aipatutako arrazoia da; hiztun honena, besteak beste:

- (276) Pues *euskaldunberri*, bai, bai, bai. Nire mailan... (GA-B, 213)

Partaide askok aitortu dute gaztelania menderatzen dutela. Uste hori oso hedatuta dago gure subjektuen artean, baita euskararen menderatze-maila altua eduki eta euskaraz eroso sentitzen direnen artean ere; izan ere, beren burua *euskaldunberri* izendatzen duten askok mugak ikusten dituzte euren gaitasunean: kontua ez da bakarrik gaztelaniaz hobeto adierazten dutela adierazi nahi dutena; horrez gain, mugatuta ikusten dute zer adierazi eta ulertu ahal duten euskaraz; are gehiago: askok uste dute ezin dutela lortu gaitasun maila altua. Eta hori oso testuinguru euskaldunetan ere bai. Hara zer dioen, esaterako, aspaldi Zeanurira bizitzera joan zen andre honek:

- (277) **Ama-hizkuntzak daukan pisue**, o sea, ezin dozu ukatu. O sea, ni egon ahal naz **bizitza osoan euskera ikasten** baina, o sea, berdin da, azkenean konturatzen naz, hemengo jendea gura izanez gero, nik elkarrizketa batean **ez dot piperrik ulertzen**, pero piperrik ulertzen. Joaten gara dantzetara, batzutan hasten dire bata, bestea, nik esaten dot, bueno, azkenean, konklusioa esango dugu zein dan, o sea, gura izanez kero, beste baten be euskera ikasten, errez joan gara be bai baserri batera hilabete bat, o sea, haiek gura izanez gero es que ez genuen ezer harrapetan. / Eta, pues konturatzen zara, es que han dago hori, ikasi ahal dozu, eukin al dozu elkarrizketak, egunero erabiltzen dogu, lan egiteko, etxean, tal, baina dago han **puntu bat que nik pentsetan dot inoiz ez dodala lortuko**, o sea da, hori, gauzak sakon-sakonak esateko, edo esaerak, edo hori, ikasi edo bai mila bider zenbat hori, pero behar danean, o sea, hori ez da irtetzen ez bada zure ama-hizkuntza, ni behintzat puntu honetan... (ZEA-F, 267-268)
- (278) Baina holan, o sea, bai, ni **mugatuta**, o sea, sentitzen naz euskera berba egiten, o sea es que nahi ta... Ganera konturatzen naz dela como muga, o sea, **ailegatzen zara puntu bateraino** edo ja, edo banoa berririo ikasten eta no se qué, edo **sentitzen naz como que ez dot aberasten ja**, ez hiztegia, ez ezebez, o sea, ahaztuta gauzak gainera. (ZEA-F, 278)

Euskararen **erabilera urria** da partaideek aipatutako beste arrazoi bat. Ez da harritzekoa arrazoi hori aipatu duten partaide gehienak euskararen presentzia urria duten inguru soziolinguistikoetan bizitzea, adibidez, Sestaon, Bilbon edo Gasteizen:

- (279) Ni bai **euskaldunberri**, ze **ez da eguneroko**, orain bai, baina **ez dut erabiltzen**, eta orduan, ba, ez naiz ondo mintzatzen bez, o sea, kostata egiten dut, eta azkenean, ba bai, euskaldunberri naiz, eta txikitatik ikasi baina... (SE-E, 271)
- (280) [Me considero euskaldunberri] Porque no es mi idioma primero. El primero me refiero al uso. O sea, si yo tuviera que decir, si alguien me tuviera que decir «elige entre, en qué idioma vives en euskera o en castellano, y no puedes elegir los dos, y no vale que me digas un setenta en uno y un treinta el otro», pues tendría que poner la equis en la casilla del castellano porque es así. (ELK-H, 314)
- (281) Nire kasuan bai, euskaldunberri ikusten dut nire burua, **gehien bat ez dudalako egunero hitz egiten**. Igual GA-Aren kasuan, ba familia *euskalduna* duzu orain, zure familia, zure semeekin euskeraz egiten duzu orduan, ez dakit agian sentipena ba *euskaldun zahar* bat ez dakit, baina bueno... (GA-D, 203)

Beren burua *euskaldunberri* ikusten dutenek zer arrazoi eman duten eta nola azaldu dituzten aztertu ondoren esan behar da diskurtsoan mugak, gabeziak eta «falta zaidana» azpimarratzen direla. Horrek pentsarazten digu *euskaldunberriaren* identitatea hartzen dutenek arrazoi horiengatik hartzen dutela identitate hori. Gaitasuna mugatuta ikusten dute eta euskara beren ama-hizkuntza ez izateari egozten dizkiote gaitasun-mailan dituzten arazoak. Erabilerari buruzko adierazpenak ere negatiboak dira: euskara gutxitan erabiltzen dute. Azken finean, euskara ikasteak ez ditu bihurtu hiztun aktibo. Erabilerari buruzko atalean (4. atala) ikusi dugunez, egoera hori frustrazioz eta etsipenez bizi dute askok.

6.3.2.2. BEREN BURUA *EUSKALDUNBERRI* DEFINITZEN DUTEN PERTSONEK PARTEKATZEN DITUZTEN EZAUGARRIAK

Ikusi dugu zer arrazoi partekatzen dituzten beren burua *euskaldunberritzat* dutenek. Baina nor dira, nolako profila dute?

Kategoria honetara bildu diren pertsona asko *euskaldunberriaren* profil tradizionalarekin bat datoz; hau da, gaztaroan edo helduaroan ikasi dute euskara eta euskaltegian; baina beste asko murgiltze goiztiarrean ikasitako gazteak dira. Hori ezustea izan da neurri baten. Nagusiagoen belaunaldietan bezala, testuinguru soziolinguistikoa erabakigarria da.

Zenbait profil identifikatu ditugu eta konpartitzen dituzten ezaugarri soziolinguistikoak eta ideiak kontuan harturik deskribatuko ditugu:

- Gaztetan edo helduaroan (40 urtetik gora) ikasi eta testuinguru nahiko erdaldunetan (Bilbo handia, Gasteiz) bizi diren pertsonak

Gure datuen arabera, beren burua *euskaldunberritzat* edukitzea ohikoagoa da inguru horretan bizi direnen artean eta ez hain arrunta inguru euskaldunetan bizi direnen artean.

Pertsona hauek euskara bigarren hizkuntza moduan euskaltegian «ikasi» izana azpimarratzen dute. Gehienek kexa da euskara gutxitan edo inoiz ez erabiltzea. Hezkuntzako profesionalak dira salbuespena, arlo horretan euskara erabilia delako gehiago edo gutxiago.

Euskarari esleitzen dizkioten balioei eta haien motibazioei dagokienez, profila zabalagoa da: batzuek identitate- eta integrazio-balioak ematen dizkiote euskarari eta barne-motibazioz ikasi zuten; beste batzuek, berriz, arrazoi instrumentalengatik ikasi zuten, irakasle batzuek esaterako.

- 40 urtetik beherako pertsonak, gehienak euskara murgiltze goiztiarrez ikasi eta testuinguru nahiko erdaldunetan bizi direnak

Inguru erdaldunenetan daude bere burua *euskaldunberri* izendatzen duten gazte gehienak, 13 guttira. Nahiz eta askok ematen duten arrazoi gisa euskara ez dela beren ama-hizkuntza, ikastetxean «ikasi» zutela, talde honetan erabilera urriak garrantzi handia du; izan ere, ia denek ezaugarria da hizkuntza gutxitan edo oso gutxitan erabiltzea eta euren gizarte-sareetan euskaraz egiten duten pertsonak ez egotea. Batzuek diote lagun batzuekin baino ez dutela egiten euskaraz eta modu puntualean pertsonaren batekin.

Kontua da haien lagun askok badakitela euskaraz, ikastetxean ikasi zutelako, baina jakiteak ez du ekarri euren artean hitz egiteko ohitura.

Euskarari esleitutako balioetan, bada alde interesgarri bat: nagusiagoen taldean ikusi dugu identitate- eta integrazio-balioak zirela nagusi; gazteen artean, oster, balio gehiago ageri dira eta balio instrumentalak presentzia handia du. Hori ez da harrigarria, berez, eta euskarak azken 40 urteetan izan duen garapena islatzen du, baina bada harrigarria diskurtso hausnartu gutxi dutela euskarari, bere egoerari eta euskarak eurentzat duen zentzuari buruz. Helduen kasuan errazagoa izan da balioak eta sentimenduak identifikatzea; gazteen esanak, berriz, oso azalekoak izan dira eta sarritan topikoetan oinarrituak (adibidez, «zenbat eta hizkuntza gehiago hobe», «euskara altxor bat da», «euskara euskaldunen hizkuntza da»), eta ez dago ebidentziarik ideia hausnartuak diren baieztatzeko.

- Gaztaroan edo helduaroan (40 urtetik gora) ikasi eta euskaldunen portzentaje altua (% 60tik gora) duten inguruetan (adibidez, Zumaia, Zeanuri, Tolosa) bizi diren pertsonak
Pertsona hauek bizi diren inguruetan, printzipioz, euskara erabiltzeko aukerak ugari dira. Beren burua *euskaldunberritzat* duten pertsona gutxi kokatu dira talde honetan. Ikusi dugunez, nahiz eta euskal inguruan bizi, euskal hiztunekin sare indartsu eta aktiborik eratzea (bikotea, familia, lagun-taldea...) lortu ez duten pertsonak dira. Gainera, kasu honetan jatorrizko hiztunek inguratutik bizitzeak areagotu egin dezake gaitasun-mailan edo darabilten euskara motan igartzen duten aldea. Kasu batzuetan nabaritu dugu ez direla euskaldunen komunitateko erabateko kide sentitzen.
Adin-talde honetan eta oso inguru euskaldunetan, ordea, beste pertsona batzuek euskara erabiltzeko aukera asko dituzte eta guztiz integratuta daude euskara ohiko hizkuntza duten familia edo taldeetan, baina, hala ere, gaia edo galdera sortu deanean, *euskaldunberritzat* jo dute beren burua. Arrazoitzen dute beren ikasprozesua

helduaroan gertatu dela eta aitortzen dute euskaraz gaitasun eta jario gutxiago dutela gaztelaniaz baino eta gaztelaniaz erosoago sentitzen direla. Uste dugu *euskaldunberriaren* definizio klasikoa aplikatzen diotela beren buruari, adinagatik oso barneratuta dutelako; baina ez dugu igarri sentipen negatiboz hitz egiten dutenik beren buruaz.

Balioei dagokienez, gehienek barne-balioak eta balio integratzaileak esleitzen dizkiote euskarari. Gehienek euskalkiaren ezaugarriak erantsi dizkiote beren hasierako euskara batuari.

- 40 urtetik beherako pertsonak, euskara murgilduta ikasi eta euskaldunen portzentaje altua (% 60tik gora) duten inguruetan (adibidez, Zumaia, Zeanuri, Tolosa) bizi direnak Oso inguru euskaldunetan bizi direnen artean bizpahiruk baino ez dute beren burua euskaldunberrizat; beraz, ezin eredu komunik aurkitu.

Kasuren batean argi dago pertsona horrek lan egiten duen giroan euskara ez dela beharrezkoa eta lagun-koadrilan ere euskara gutxi egiten dela. Pentsa liteke, euskara jakitea balioesten badute ere, euren balio eta motibazioak ez direla oso sendoak eta ez dutela oso jarrera proaktiboa.

Laburbildurik, *euskaldunberri* identitatea testuinguru soziolinguistikoko guztietan eta adintalde guztietan dago, baina badira aldeak: askoz ohikoagoa da inguru erdaldunetan eta badira aldeak 45 urtetik gorakoen eta gazteen artean: nagusiek arazoak dituzte gaitasunean eta erabiltzeko aukeretan baina nahiko konpromiso handia erakusten dute hizkuntzarekiko, baita balio positiboak ere; hortaz, penaz eta frustrazioz bizi dute euren egoera; bere profila ohiko *euskaldunberriaren* dela uste dute eta profil horretan islatuta ikusten dute beren burua. Gazteek, berriz, *euskaldunberriaren* ohiko definizioan sartzen ez badira ere, identitate hori hartu dute ikastetxean ikasi dutelako eta gutxi erabiltzen dutelako. Haien diskurtsoa, dena dela, mugetan oinarritzen da: *badakite* euskaraz ikasi dutelako, baina ez dute sentitzen hizkuntza beren errepertorio aktibora ekarri dutenik.

Atal honetan, beren burua izendatzeko *euskaldunberri* terminoa hautatu duten partaideez mintzatu gara, baina denek ez dute etiketa hori hartu: beste askok halako «etiketen» baliotasuna ukatu dute eta beste batzuek irmo baztertu dute *euskaldunberri* terminoa eurentzat eta batzuetan beste izen batzuk hartu dituzte. Hori dena hizkuntza-identitatea bilatzea dela ulertzen dugu eta hurrengo ataletan jarraituko dugu aztertzen.

6.3.3. Zer euskal hiztun mota naiz? «Ni ez naiz euskaldunberria»

Partaide askok beren burua *euskaldunberri* ikusten badute ere eta hiztun kategoria horrekin identifikatzen badira ere, beste askok argi utzi dute ez dutela kategoria hori onartzen eurentzat. Horrek pentsarazten digu *euskaldunberri* kategoria —eta, horrenbestez, euskal hiztun guztien kategoriak— ez dela etiketa «tekniko» eta neutro bat, hiztunak hizkuntza eskuratzeko moduaren arabera sailkatzen dituen; aitzitik, halako kategoriek hiztunentzat oso garrantzitsuak diren hizkuntza-identitateak bideratu eta transmititzen dituzte.

Oso interesgarria izan da norberarentzat kategoria hori auzitan jarri edo baztertzen duen diskurtsoa aztertzea, ematen diren arrazoiengatik batez ere. Kasu batzuetan, dikotomia hori gairidituta dagoela adierazten da; beste batzuetan, *euskaldunberritzat* hartua izatearen kontrako jarrera argia dago.

Ikus dezagun Bermeoko bi hiztunen arteko elkarrizketa hau: BE-C 41 urteko Bilboko andre bat da eta Bermeora ezkondu zen. Euskara lehenago ikasi zuen euskaltegian. El-karrizketaren txatal honetan ikusten dugu nola definitzen duen bere burua etiketa ba-koitza nola ulertzen den kontuan izanik, eta argi uzten du *euskaldunberri* kategoria ez zaiola egokia iruditzen eta luze eta zabal justifikatzen du.

- (282) —Oin *euskaldunak* eta aipatu dozuzala, zuen burua *euskaldunberritzat* dekozue edo *euskaldun zahartzat*, ala... (BE-M1, 281)
 —Nik **hori sailkapena aspalditik gairidituta** dakot. Ni ez naiz berririk, ez zaharrik. / Ze hain-beste urtetan eitzen eitzen dotena, ja nahiko zaharra nai. / Ez, ez, hori sasoi baten, behar-bada sasoi baten zentzuduna izan zen, ba ez dakit, sailkatzeko edo esateko, baina **gaur egun ez nai ez euskaldunberria, ja, ez euskaldun zaharra bez**, ze hori inoiz ez naiz izango, ze Bilbon bermeotarra nai eta Bermeon bilbotarra nai. Ordun, horrelako sailkapenak oso ga-tzak direz esaten baietz edo ezetz. **Berria ze zentzutan?** Zentzu baten bai ze **ikasi dot**, ika-si dot gehiena, guztia ez esate arren, ze egia esan gero, ezkondu eta gero, ba familien eta kalien eta, **ba ikasi dot asko entzunez edo, ba hiztegi aldetik batez be, baserritar artien, ze amaginarreba eta aitaginarreba eta hango mundua**, gauza bat da otzara bat, zabala, beste bat lastozkoa, beste bat.. / Orduan, han bai ikasi dot. Baina *euskaldun* berria izatez, banai, *euskaldun zaharra* ez nai. Osea, **kontraposizioz da, ez naienez euskaldun zaharra, ba izango nai euskaldunberria**. Baina egia esan gaur egun nik itxen dotena **ba ez da ikasi dotana**. Eta **ikasi dudanetik ez da geratzen askorik**. (BE-C, 282 / 284 / 286 / 290)

Ikusten dugunez, euskal hiztun gisa izan duen ibilbidea aintzat harturik, BE-Ck uste du *berri/zahar* dikotomia klasikoa ez dela egokia, eta zenbait arrazoi ematen ditu: Batetik, urte asko eman dituelako euskaraz bizitzen eta, bestetik, nahiz eta lehenago euskaltegi batean «ikasi zuen» («*ikasi dot*»), gero bestelako ikaskuntza bat izan zuelako, senarraren familian eta, gainera «*baserritarra*» zirelako. BE-Cren diskurtsoak ikaskuntza formala eta naturala kontrajartzen ditu modu inplizituan. Ematen dituen arrazoibideek agerian jartzen dute zer ideia lotzen diren *euskaldunberri* izatearekin, baina beste gauza inter-esgarri bat ere bai: ezin du baztertu terminoa gizartean zabal erabiltzen den zentzuan («*zentzu baten bai, ze ikasi dot*»), baina ez du onartzen berea ez den hizkuntza-iden-titate bat islatzen duenez gero. Bigarren ikaskuntza naturalago hori aipatzea eta «*eus-kaldun zaharrekin*» ikasi zuela azpimarratzeko interesa diskurtso legitimatzailea dela in-terpretatzen dugu. BE-Ck bere hizkuntza-identitatean egiten duen azterketan lehenago ere aipatu ditugun bi ideologia ikusten ditugu lehian: ama-hizkuntzaren ideologia (ikusi 6.3.1.) eta benetakotasunaren ideologia (ikusi 6.1.6.)

BE-C hiztunak zioen berak gairidituta zeukala dikotomia hori; beste hiztun batzuen esa-netan dikotomia bera dago gairidituta eta, beste barik, «ez diote buelta askorik ematen» hau ala bestea diren, Getxoko gazte honek adierazten duenez:

- (283) **Nik ez diot buelta askorik eman.** Inoiz ez dut pentsatu *euskaldunberri* naizen edo ez, eta orduan... Hobeto egiten dut gazteleraz, askoz hobeto egiten dut gazteleraz euskaraz baino, baina puntu. (Gazte-GE-B, 357)

Beste lekukotza honetan, Zumaiko neska gazte batek, zeinak euskara umetatik ikasi zuen eskolan eta kalean lagunekin, aurre egiten dio besteek ezarritako etiketari:

- (284) –Bai, ni hiru urtekin hasi nintzen eskolan eta hiru urtekin, baina ni **beti izan naiz euskaldunberria eskolantzat**. Adibidez, eman dotsu oharrak beti, euskaldunberriak, eta holan in behar genun, beti. (ZU-C, 58)
 –Gurasoak erdaldunak direla. (ZU-A, 59)
 –Bai. (ZU-C, 60)
 –Baina zuk zure burua...? (ZU-M1, 61)
 –**Ni euskalduna. Ez det esaten ez berri, ez zahar**, ez, ni *euskalduna* naiz euskera erabiltzen detelako. Baina esaten detenean etxian hona netorrela, nere mutilak esan dit, «baina zu ez zea euskaldunberria». «Klaro ezetz, baina bai ama aldetik, ama-hizkuntza da erdera, orduan horregatik.». Ta esaten zun, «baina zu ez zea euskaldunberria, ezin dezu horrera jun», ta esaten nun, «bai ama-hizkuntza dalako erdera, eta nik hala ulertzen det.» Esaten ziguenean txikitan ba gu(k) esaten genun, guk euskaldunberriak, **ni ez zidaten bat e gus-tatzen, baina hala zan, ta hala ulertzen ginan danak** eta... (ZU-C, 62)

Berririo ikusten dugu gatazka dagoela partaideen erantzunean: batetik, ama-hizkuntza-ren ideologia dela eta, onartzen dute irizpide «tekniko» moduan kategoria ezartzea, baina, bestetik, hori oso urruti dago hiztunaren hizkuntza-identitatetik, ez baitu bere burua *euskaldunberri* ikusten. Kasu honetan, partaideak *euskaldunberriaren* identitatea errefusatu ez ezik, beste identitate bat proposatzen du: *euskalduna*. Azter dezagun orain identitate hori.

6.3.4. *Eta euskaldunberria ez banaiz, zer euskal hiztun mota naiz?* *«Euskalduna naiz»*

Aurreko ataleko neska zumaiarraren moduan, beren burua definitzeko *euskaldunberri* kategoria baztertzen duten partaideetako asko *euskaldun* kategorian sartzen dira, euskal hiztunak dira eta kito, «ez zahar ez berri». Beren buruari *euskaldunberri* kategoria argi eta garbi ukatzeak («Ni dagoeneko ez naiz *euskaldunberria*», «Ez naiz *euskaldunberria*, ze...») eta haien diskurtsoak argi uzten dute haientzat *euskaldun* kategoriakoak izatea, identitate hori hartzea, aurrerapena dela, garapena; *euskaldunberria* izatea, garai batean horixe izan baitziren, atzean utzi dute. Diskurtso ugaria sortu dute identitate hori justifikatzeko eta bertan gako batzuk identifikatu ditugu.

Partaide hauek aipatzen dituzten arrazoiek, neurri handi batean, aintzat hartzen dituzte beren burua *euskaldunberri* ikusten zutenek azpimarratzen zituzten irizpideak, besteak beste, hizkuntza-gaitasuna eta hizkuntzaren erabilera, baina hiztun hauen artean bi ezaugarri horiek positiboak dira. Ikus ditzagun zehaztasun garrantzitsu batzuk:

- kategoria honek ez du kontuan hartzen ama-hizkuntzaren ideologia;
- erabileraren irizpidea kualifikatu egiten da: euskara euren errepertorio aktibora ekarri ez ezik, maila emozionalean esanguratsuak diren gizarte-sareetan erabiltzen dute (etxekoekin eta lagunekin);
- hizkuntza-gaitasunari dagokionez, gaitasun handiaz gain, hiztun askoren kasuan elementu berri bat dago: euskalkian ahozko gaitasuna edukitzea.

Hurrengo lekukotzetan argi ageri zaizkigu arrazoi horiek:

Aurreko atalean ikusi dugun Zumaiako neskaren iritziz (284), erabilera da bere burua euskaldun definitzeko gakoa:

- (285) Ni euskalduna. Ez det esaten ez berri, ez zahar, ez, ni euskalduna naiz **euskera erabiltzen detelako**. (ZU-C, 62)

Beste neska honentzat, berriz, **euskaraz pentsatzen duela** konturatzean jabetu da benetako *euskalduna* dela. Balorazio honetan, gainera, elebitasunari buruzko ideologietan oso zabalduta dagoen ideia bat ageri da: benetako elebiduna izateko hiztunak bi hizkuntzetan pentsatu edo amestu behar duela.

- (286) Baina nik hori oain mobilak direla-eta, hasta mezu baten, al det jarri, hasi euskeraz, erderaz zeozer sartu eta bukatu euskeraz. Eta, egia esan, oain jartzen baldin banaiz pentsatzen ez dakit benetan ari naizen, euskeraz pentsatzen ai naizelako o, eske, eske, ez dakit, igual erderaz ai naiz pentsatzen eta euskara itzultze'et edo, bueno, geo konturatzen naiz, ez, ba oain euskeraz ai nintzan pentsatzen, porque hori aitu nion behin norbaitei eta, esaten zun, «*euskalduna* zea euskeraz pentsatzen hasten zaenian». Eta hori, ba hori urte pila, eta ni, saiatu iten nintzan, ordun hasten nintzan, ai, erderaz ai nintzan, eta berriro, eta..., ba pixkat hori lantzen, eta ni nola pentsatzen det?, porque dia gauzak igual zu hasten zea hitz eiten eta ez dezu pentsatzen, nik behintzat hasieran ez nintzan geatzen, ointxe esan behar nun, eta euskeraz hori, ez, niri normal ateratzen zitzaiten, ez nuen pentsau ber. «**Ni oaintxe ari naiz hitz egiten eta ez nau itzultzen**, ni ai naiz euskeraz hitz egiten **pentsatzen ari naizelako**». Ordun, nik esaten nun, bueno, ba ordun gizon honek arrazoia baldin bazekan, al det esan que «**ni euskalduna nai, eta oain ja seguru nao**». (ZU-D, 132)

Bi gazte hauek euskaraz bizi dira oso inguru euskaldunean; baina, hain arrunta ez bada ere, euskararekin apenas kontakturik duten hiztunen artean ere aurkitu dugu *euskaldun* identitatea. Horren adibide dugu 22 urteko gazte hau. Gasteizko ikastetxe batean ikasi zuen euskara, murgiltze-ereduan, eta gaur egun Trebiñun bizi da. *Euskalduna* da **senti-mendu** kontuengatik:

- (287) —Yo me identifico, más que con el euskaldunberri, con euskaldun a secas. (ELK-G, 196)
—A secas. ¿Por qué? ¿Tienes una razón de decir «no me considero euskaldunberri»?
—No es una razón, simplemente es **los sentimientos**, para mí eso, soy euskaldun, no soy ni berri ni zaharra, no... (ELK-G, 198)

Euskalduna sentitzea, ordea, ez da gazteen kontua bakarrik. Hurrengo aipua Bilboko eztabaida-taldearena da. BI-C 49 urteko gizona da, helduaroan ikasi zuen euskara, baina irakasle lana Gernikako eskualdean egin zuen. *Euskalduntzat* dauka bere burua, nagusiki **jatorrizko hitzunik «euskaldun zaharra» dela uste dutelako**. Taldekideekin batera arrazoiak aztertzean, nabaritu da horren arrazoa dela **batuaz barik bertako aldaeran egitea** (ikusi 6.1.4. atala ere):

- (288) —Urte asko emon dodaz, esan bezala, Gernika, Gernika inguruan, eta gero Lea-Artibaitik, eta lana dela-eta, eta nik ikusi dot hangoen erreakzioa, eta hainbatetan **harritu egiten dira jakitean euskaldunbarrixa nazela**. / Igual berba eitxeko era, edo ez dakit, ez dakit. / Izan leike doinua, izan leike hiztegia... (BI-C, 166/170/172)
 —Batueraz ez duzulako egiten. (BI-A, 173)
 —**Gernikeraz** egiten, edo... (...) Ni pozik, **pozik eta harro**. (BI-C, 176)
 —Eta zuk zure burua *euskaldunberritzat* daukazu edo etapa hori ja...? (BI-M1, 179)
 —**Euskalduntzat**, ez barrixe, ez zaharra, ez. (BI-C, 180)

Partaide honek harrotasuna adierazten du *euskaldun zahartzat* hartzen dutelako; horrek eta beren burua *euskaldun* izendatzen dutenei ematen zaien estatusak pentsarazten digute kategoria horiek benetako euskal hitzunik hurbil dauden identitateak islatzen dituztela eta erreferentea jatorrizko euskal hitzuna dela, hots, «*euskaldun zaharra*». Horrek pentsarazten digu kontu horiek estu lotuta daudela hitzun berriek legitimitate-sentimendu handiagoa edo txikiagoa sentitzearekin. 6.4. atalean eztabai-datuko dugu horretaz, baina aurreratu dezagun euskara ikasi izana, euskaraz *jakitea*, ez omen dela nahikoa hitzun berri askok euskal hitzun onak edo hitzun legitimoak direla sentitzea.

6.3.4.1. BEREN BURUA EUSKALDUN DEFINITZEN DUTEN PERTSONEK PARTEKATZEN DITUZEN EZAUGARRIAK

Beste identitateetan bezala, ezin eman daiteke profil bakar bat *euskaldun* identitate-rako. Izan ere, identitate horretara biltzen diren artean badira inguru soziolinguistiko oso euskaldunekoak eta inguru gehienbat erdaldunekoak ere bai; gainera, batzuek gaztaroan edo helduaroan ikasi dute euskara eta beste batzuek hezkuntzako murgiltze-ereduetan. Dena dela, denek dute zerbait komunean eta horixe da esanguratsuen:

- Komunikatzeko gaitasun-maila altua eta ahozko jario ona lortu dituzte.
- Eguneroko bizimoduan eta hainbat arlotan erabiltzen dute euskara.
- Euskara darabilten gizarte-sareetan txertatuta daude eta, bereziki, ikuspegi emozionaletik esanguratsuak diren sareetan, hala nola familian eta lagun-taldean, baina sare profesionalean ere bai.
- Gainera, inguru euskaldunetan bizi edo lan egiten dutenek euskalkia erabiltzen dute (hurbiltzen dira, nahasita bada ere) eta zenbaitek «jatorrizko hitzuntzat hartzen dituztela» adierazi dute.

- Ezaugarri hori ez dute betetzen inguru gehienbat erdaldunetan bizi direnek, Bilbo Handian edo Gasteizen kasurako, halako lekuetan ez baita euskalki jakin bat zabal erabiltzen. Beraz, beren burua euskalduntzat duten hiztun berriek batua aski dute beren beharrianetarako, baldin eta 1. puntua betetzen bada, egoera informaletarako behar adina hizkuntza-baliabideak barne. (Ikusi 6.1.3.4.)

6.3.5. Hizkuntza-identitate profilen diagrama

1. PROFILA

- *Euskadun zahar* sentitzen dira.
- Murgiltzean eta kalean ikasi zuten.
- Testuinguru euskaldunetan bizi dira.
- Euskaraz bizi dira ala ia-ia.
- Sare sozial euskaldun asko dituzte.
- Euskal komunitatean erabat integratuta daude.
- Gaitasun komunikatibo ona dute eta lekuan lekuko aldaera.
- *Euskaldun zahartzat* hartzen dituzte.

2. PROFILA

- Murgiltzean ikasi zuten.
- *Euskaldun zahar* ematen dute.
- Euskaraz gaztelaniaz baino gaitasun handiagoa edo berdina dute eta lekuan lekuko aldaera.
- Testuinguru euskaldunetan bizi dira.
- Sare sozial euskaldun asko dituzte eta euskara asko erabiltzen dute.
- Euskal komunitatean erabat integratuta daude.
- *Euskaldun zahartzat* jo daitezke.
- Ez dira *euskaldunberri* sentitzen, *euskaldun* baino ez.
- Euskarari balio integratzaile eta identitarioak atxikitzen diote.

3. PROFILA

- Euskaltegian ikasi zuten
- Gaztelaniaz hobeto moldatzen dira, baina euskaraz ere gaitasun handia dute eta lekuan lekuko aldaera darabilte.
- Euskaldun *zahartzat* jo daitezke.
- Testuinguru euskaldunetan bizi dira.
- Sare sozial euskaldun asko dituzte eta asko erabiltzen dute.
- Euskal komunitatean erabat integratuta daude.
- Gehiena ez dira *euskaldunberri* sentitzen. *Euskaldunak* dira.
- Euskararekiko balio integratzaile eta identitarioak dituzte.

4. PROFILA

- Testuinguru euskaldunetan bizi dira.
- Euskaltegian ikasi zuten.
- Euskara badarabilte baina euskaraz mintzatzen diren sare sozial esanguratsuak falta dituzte.
- Ez dira eroso sentitzen euren euskara gaitasunarekin.
- Lekuan lekuko aldaeraren ezaugarriak dituzte.
- *Euskaldunberritzat* dute euren burua.
- «Falta zaienaren» diskurtsoa darabilte.

5. PROFILA

- Testuinguru euskaldunetan bizi dira.
- Murgiltzean ikasi zuten.
- Euskara badarabilte baina sare sozial esanguratsuak falta zaizkie.
- *Euskaldunberritzat* hartzen dute euren burua
- Balio eta motibazio epelak dituzte eta euren jarrera ez da oso proaktiboa.

6. PROFILA

- Testuinguru erdaldunetan bizi dira.
- Euskaltegian ikasi zuten.
- Heldutan ikasi dutenez, euren burua *euskaldunberritzat* dute.
- Erabiltzeko aukera gutxi dute.
- Balio eta motibazio askotarikoak, baina balio integratzaile eta identitarioa nagusi.

7. PROFILA

- Testuinguru erdaldunetan bizi dira.
- Murgiltzean ikasi zuten.
- *Euskaldunberritzat* dute euren burua eta gutxi erabiltzen dute (batzuek horregatik pena sentitzen dute).
- Pozik daude ikasi dutelako baina ez dute konpromiso argia.
- «Ikasitako» diskurtsoa.
- Askotariko balioak baina instrumentala nagusi.

8. PROFILA

- Testuinguru erdaldunetan bizi dira.
- Murgiltzean edo euskaltegian ikasi zuten.
- *Euskalduntzat* daukate euren burua eta ez dute etiketetan sinisten.
- Erabiltzeko aukera gutxi izanda ere jarrera proaktiboa dute.
- Barneko balio indartsuak.

6.4. Kategorien interpretazioa: hizkuntza-identitatea eta legitimitatea

Hizkuntza gutxituetako hiztun berriek segurtasun falta, konfiantza falta eta benetako hiztunak ez direlako sentipena izan ohi dute; bestela esanda, ez dira hiztun legitimo sentitzen (O'Rourke eta Ramallo, 2011). Gure partaideen hizkuntza-identitateak aztertuta, horri buruzko zenbait ondorio atera ditugu eta atal honetan jorratuko ditugu.

Aurreko ataletan ikusi dugunaren arabera, gure partaide gehienak bi hiztun-kategoriarekin identifikatzen dira: *euskaldunberri* eta *euskaldun*. *Euskaldun zahar* kategoria, ordea, sarri agertzen da beren diskurtsoan eta erreferente argia da. Beste testuinguru batzuetan bezala, jatorrizko hiztuna benetakotasunaren erreferentea da hizkuntza-komunitatean, eta beragan ikusten da *benetako* hiztuna, berak dauka legitimitate guztia komunitatearen begietara (Pujolar 2007; Irvine eta Gal 2000; Grillo 1989; Skutnabb-Kangas eta Phillipson 1989). *Euskaldunberri* eta *euskaldun* kategoriei, biei atxikitzen zaie benetakotasuna neurri berean?

Biziki interesgarria da aztertzea hiztun berriak euskararen hiztun legitimotzat duten beren burua eta hiztun legitimotzat hartuak diren ala ez, eta zer irizpideren arabera. Jakin nahi dugu, era berean, hizkuntza-identitateak finkoak diren ala identitate legitimatua-goetarantz aurrera egin daitekeen; ea, Bucholtz-ek (2003) defendatzen duen moduan, legitimitatea gizarteko jardunean negoziatutako legitimazio-prozesuen ondorio den. Bestalde, identifikatu nahi dugu zein diren euskal testuinguruan «legitimazio-bideak» edo legitimatzeko funtzionatzen duten faktoreak.

Argitu dezagun hemen egindako planteamenduak ez duela iradokitzen inondik inora euskal hiztun berriak gutxietsiak sentitzen direnik. Alderantziz, gure partaide ia guztiek esan dute baloratuak sentitu direla euskara ikasi dutelako eta euskara dakitelako, eta «*euskaldun zaharren*» babesa eta laguntza izan dutela. Esan nahi duguna da badi-rela hitz egiteko modu batzuk gizartean hobeto balioesten direnak edo, beste era batera esanda, benetakotasun handiagoa ematen zaienak.

Hizkuntza-identitate bat edo beste hartzeari buruzko diskurtsoaren analisiak kategorien legitimitaterako gako batzuk erakutsi dizkigu:

- *Euskaldun zaharra* euskal hiztun onarekin, benetakoenarekin, identifikatzen da, familiar ikasi duelako euskara eta euskalkian egiten duelako berba.
- *Euskaldunberri* identitateari buruzko diskurtsoan oso nabarmena da «zer falta zaidan», «zer ez dudan»; hots, nolabait euskal hiztun ez osoaren ideia adierazten da. Gainera, beren burua *euskaldunberri* gisa definitzen duten asko batuaz mintzatzen dira, eta hizkuntza-aldaera horrek, estandarrak, argi eta garbi ez ditu euskalkiek dituzten benetakotasun-balioak (ikusi 6.1.3).
- *Euskaldun* identitateari buruzko diskurtsoan, berriz, identitate hori *euskaldunberri* izatearen garapen edo hobekuntza gisa aurkezten da, *euskaldunberri* izaera gaingitu eta atzean utzitako zerbait dela adieraziz. Bestela esanda, *euskaldun* izatea *euskaldunberri* izatea baino *hobea* da nonbait. Beren burua *euskaldun* izendatzen dutenek

euskaldun zaharren ezaugarri asko dituzte, hala nola gaitasuna, senitartekoen eta lagunaren sareetan erabiltzea eta, kasu askotan, euskalkia jakitea.

Laburbildurik, *euskaldunberri* edo *euskaldun* kategorietara biltzeko eta *euskaldun zahar* kategoriarekiko kokatzeko erabilitako terminoak eta diskurtsoa aztertu ondoren, ondorioztatu dugu kategoria horiek benetakotasun maila handiagoa edo txikiagoa erakusten dutela *continuum* batean, eskema honetan irudikatu dugunez (Ortega eta beste, 2014: 92):

2. grafikoa

Hizkuntza-identitateak benetakotasun-continuumean

euskaldunberria-----euskalduna-----euskaldun zaharra

Hiztunak bere burua definitzeko *euskaldun zahar* terminoa ez hartzeak ez omen du ondorioz bere burua benetako hiztun oso eta legitimatu moduan ikusteko, badelako aski legitimatzailea den identitate bat: *euskalduna*. Norbere burua *euskaldunberri* moduan ikusteak, ordea, izan dezake ondorioz.

Norbere burua benetako euskalduntzat jotzeko gakoak

6.3.4. atalean aztertu dugu nolako ezaugarriak dituzten euskaldun sentitzen diren pertsonak eta zer arrazoi ematen duten identitate hori justifikatzeko: gaitasun maila altua, batez ere ahozko erabilera informalean; euskara eguneroko bizimoduan erabiltzea eta hainbat esparrutan (batzuk euskaraz *bizi* dira); euskaldunen gizarte-sare ahaltzuetako kide izatea (familia, lagunak, lana); euskalkia dagoen lekuetan erabiltzea; batzuek «*euskaldun zaharrak* ematen dute».

Euskaldun identitatea justifikatzeko emandako arrazoiak benetako «**legitimazio-bideak**» direla interpretatzen dugu (Bucholtz, 2003). Ezaugarri horiek bultzatuta, hiztun berriak erosoago, trebeago eta konfiantza handiagoarekin sentitzen dira, azken baten, legitimatuago.

«Falta zaidana» azpimarratzen duen diskurtsoa: diskurtso deslegitimatzailea

Deigarria da zein maiz aipatzen den «falta zaidanaren» diskurtsoa. Zalantza barik *euskaldunberriek* identitate hori justifikatzeko ematen duten arrazoietakoa bat da («hau ez dut», «beste hori falta dut»), baina harrigarriena da zein gogor hartzen duten beren bu-

rua gure partaideek («falta zaidana», «egiten dudana akatsa», «daukadan hutsunea», «nik ez daukat gauza hori...»), baita beren burua euskalduntzat dutenek eta euren euskararekin gustura eta komunitatearen aurrean eta euren begietara ere legitimatuta sentitzen direnek ere.

Hona hemen beren burua *euskaldunberrit*zat dutenek aipatutako zenbait desio: beste kide horrek (*euskaldun zahar* baten moduan mintzatzen den horrek) bezala hitz egitea, gehiago hitz egitea.

- (289) Jo, niri gustatuko litzaidake **bera(k) hitz egiten duen moduan hitz egitea**, klaro, klaro. / Niri gustatuko litzaidake] **leku bateko euskeraz egitea, lagunekin egunero** euskeraz egitea, ba **lotsarik gabe** euskeraz egitea. (Gazte-BI-E, 317/313)

- (290) Gutxi, gutxiegi, **nahiko nukeen baino gutxiago** erabiltzen dudala. (SE-F, 278)

Baina ez dira beren burua «*euskaldunberri*» izendatzen dutenak falta zaiena dela-eta desioak adierazten dituzten bakarrak. Hurrengo lekukotzak eman dituzten partaideek *euskalduntzat* dute beren burua, euskara erabiltzeko aukera ugari dute eta maila altua; lehenengoa (291) komunitate oso euskaldun baten bizi da ondo integraturik eta pena du tokiko hizkeran mintzatzen ez delako, bertakoen moduan; bigarrena (292) alde oso erdaldunean bizi da, baina lanean eta gizarte-harremanetan neurri handi baten euskaraz bizitzeko aukera du. Elkarrizketa egin zenean haurdun zegoen eta umeei hitz egiteko modua igartzen zuen faltan.

- (291) Niri gustatuko jatan jakitea bertako euskalkiak baina holan, ondo, esaerak eta dana. Nik horrek ematen doste penea ba holan ez dakitela. Nahiz eta ahalegindu, ta entzun, ta hau, ta bestea, baina gero **ez dekot hori gauzea, hemen bertakoak iten duen moduan**. (ZEA-E, 151)

- (292) —En general sí, lo que sí me pasa, por ejemplo, que bueno, es algo que desde hace unos años, bueno, de hace años, que veo es, para temas formales, o de amigos, o tal, uso euskera y no tengo ningún problema ¿no? Pero, por ejemplo, ahora estoy embarazada, o con mi sobrino, que tiene dos años y medio, sí noto que **me faltan herramientas**. Es una experiencia que no se aprende..., bueno, una experiencia, o hay términos, o canciones, o formas del idioma que, claro, nunca las he vivido, ni las he aprendido, entonces, ahí sí siento que tengo como un agujero. / Canciones, dichos, sí, ese tipo de cosas, sí, o formas de hablar, o, esa seguridad de..., claro, que no lo he vivido en euskera con... / Igual sí he vivido con gente que habla en euskera y he pasado diferentes experiencias, pero nunca he vivido con una madre con un niño pequeño al lado para ver cómo le habla. En castellano sí porque, porque has tenido hermanos, primos, tal, eso se vive. Y por ejemplo en eso sí tengo como un agujero que, bueno, ya veremos... (ELK-B, 224/226/230)
—Porque piensas hablar en euskera con tu hijo.
—Claro, pero sí, como que me da un poco de cosa en ese sentido, decir, bueno, si tuviera alguien, si tuviera más ejemplos cerca, sería mucho mejor, pero no tengo. (ELK-B, 236)

Azkenean, bere burua *euskaldun zahar* aldarrikatzen zuen partaide bakarrak ere (ikus 6.5.4) igartzen du zerbait faltan:

- (293) —Nik egunero gehiau ikisten dot be bai, osea, aber, nik nire aitite-amama dekoaz Sestaon, baia nire ondoko baserrikoak nietzako dire nire aitite-amama bigarrenak, ordun txikitan joaten nintzen eurekana eta ordun eukin dot be bai hori euskera, hori, baserriko euskera, ez dakit zer. **Nik badakit asko falta jatala ondiño ikisteko, osea, igerten dot.** (ZEA-B, 283)
 —Eta zertan? Badakizu? (ZEA-M1, 288)
 —**Hitzetan.** Hitz batzuk **esaera batzuk** nik ez dakitezenak, ze klaro, nik ez do(da)z entzun, ordun nik ez dakidez, hartu do(d)az, ba horiek esan, horik entzun, nik hartu in dodaz, baia lehen bai igerten naun gehiau, eta txikitan txarto pasau, nik txarto paso dot ikisi arte, ba ze klaro, nik eukiten naben astelehenetik barikure euskera, baina gero asteburuan ez nauen eukiten, edo igual heltzen ziren oporrak, ekainan hartzen zinozun oporrak, joaten zinen Murtziara, eta ni etorten nintzen irailan eta euskeraz ahaztute. Nik hori igerten noan, eta gero ja jo hastea zerotikaz eta ez dakit zer. Baina bueno, oain ja... (ZEA-B, 289)

Gorago esan dugunez, ematen du autokritika hiztun berrien bereizgarria dela eta azkar identifikatzen dutela zer ez duten, zer duten faltan. Sarri aipatzen dituzten hainbat gauza (atsotitzak, *hikaren* erabilera...) ziur asko euskara familian ikasi duten askok ere ez dituzte; baina hiztun berriek, eurentariko askok behintzat, beti igartzen dute zerbait faltan euren gaitasunean edo erabileran, hain zuzen ere benetako *euskalduna* izatearekin lotzen dituzten elementuak, aztertu ditugun ideologiaren arabera (ikusi 6.1. atala, 6.1.3 bereziki).

Gure ustez, bi mailetako elementuak, «legitimizatzen nauena» eta «falta zaidana» oso esanguratsuak dira «legitimazio-bideak» zein diren ikusteko. Komeni da bide horiek eza-gutzea bultzatu beharrekoa bultzatzeko eta hiztun berrientzat oztupo izan litezkeenei garrantzia kentzeko.

6.5. Hiztun-kategoriak eta haien euskarri diren ideologiak auzitan

Aurreko ataletan aztertu dugu nola identifikatzen diren partaideak euskal hiztunen kategoriekin, baina partaideek maila teorikoagoan ere hitz egin dute luze eta zabala hiztun-mota batetaz eta besteaz. Egiaztatu dugunez, deskribatu ditugun identitateak, baita haien euskarri diren ideologiak edo balioak ere, nahiko hedatuta daude oraindik; hala ere, auzitan jartzen direla ere barruntatu ditugu, gizartearen sektore batzuetan eta kontu batzuetan behinik behin. Ezaugarri hauek ikusi dugu:

- *Euskaldunberri* / *euskaldun zahar* ohiko dikotomia gainditzeko gogoia.
- *Euskaldunberri* terminoa baztertzeko guraria, deslegitimatzailea den neurrian.
- Ama-hizkuntzaren ideologiak arazoak sortzen dituela eta *euskaldun zahar* kategoria iritsi ezina dela euskal hiztunen profil berri eta aldakorrak dauden garai honetan.

6.5.1. Euskaldunberri / euskaldun zahar *ohiko dikotomia zaharkituta dago*

Ohiko dikotomia 60ko hamarkadan hasitako *euskalduntze* prozesuan finkatu zen eta bi hiztun profil bereizten zituen argi eta garbi: *euskaldun zaharra* eta *euskaldunberria*. Laburbildurik, loturak hauek dira: **Euskaldun zaharra – euskara etxean ikasi vs. euskaldunberria – euskara helduen eskolan ikasi**. Dikotomia definitzen duen funtsezko aldagaia ikasteko modua da, baina badira beste aldagai batzuk ere elkarren aurka daudenak eta profil bakoitza deskribatzeko balio dutenak: hizkuntza zer adinetan ikasi den (umetan vs. gaztetan edo nagusitan), hizkuntza-aldaera (euskalkia vs. batua). Aldagai horien loturek denboran iraun dute (*euskaldun zaharra* – umetan ikasi-euskalkia vs. *euskaldunberria* – geroago ikasi-batua).

Euskaldunberriaren definizio klasikoak iraun duela argi ikusten da 40 urtetik gorako bi pertsonaren lekukotza hauetan:

(294) A mí no quiero que me digan «eres euskaldunberri», pero sí que veo que **hay diferencias**. (ELK-I, 213)

(295) –Klaro, guk ulertzen duguna euskaldunberria, gu bai gerala euskaldunberriak. (ZU-B, 63)
–Bai, ezta? **Ja helduagoak ikasi dugula**. (ZU-A, 64)

Gazte batzuek nola ikusten duten nor den *euskaldunberria* kontuan hartuta, esan deza-kegu profil klasiko hori iraganarekin lotzen dela, 19 urteko neska donostiar honek adierazten duenez: haren adineko gazteak ez dira *euskaldunberriak*; izan ere, *euskaldunberriak* helduaroan hasten dira euskara ikasten, euskaltegian.

(296) Eske **nik euskaldunberria kontsideraten dut**, adibidez, gure adineko pertsona oain dakien euskeraz ez dut kontsideratzen euskaldunberria, nik euskaldunberria kontsideratzen det, adibidez, **bere bizitza erdia eman duna gazteleraz hitz egiten eta hogeita hamar urtekin hasi dana euskaltegi batian edo holako lekun batian euskara ikasten**. Hoi netzako da *euskaldunberria*, baino gutako pertsona bat, hobeto hitz in, okerrau hitz in, gehiau erabili edo gutxio, ez dut uste euskaldunberri, bueno, nik ez dut kontsideratzen euskaldunberri beza-la. (Gazte-DO-E, 504)

Orduan, zer hiztun mota dira euskara eskolan ikasi duten gazteak? Gazte horrek dioena gorabehera, 6.3.2. atalean ikusi dugu murgiltze-ereduetan ikasi duten gazte askok *euskaldunberri* izendatzen dutela beren burua. Hurrengo lekukotzan, Gasteizko gizon heldu batek, zeinak euskara H1 bezala transmititu dien seme-alabei, gogoeta egiten du zelako desberdintasunak ikusten dituen beren seme-alaben eta etxean euskara erabiltzen ez duten (eta, Gasteizko inguru soziolinguistikoaaren ezaugarriengatik beharbada eskolatik kanpo oso gutxitan egiten duten) beste ume batzuen artean, eta iradokitzen du *euskaldunberri* terminoa egokia izan litekeela profil klasikoaz bestelako hiztun berriak izendatzeko:

- (297) Mis hijos, que tienen amigos *euskaldun zaharras* y amigos *euskaldunberris*, mis hijos son *zaharras*. Yo sí que les noto diferencia respecto a otros niños. Para mí un ***euskaldunberri* es un niño que sus padres con cuatro o cinco años deciden que va a la ikastola pero en casa sólo se habla castellano.** [...] Estos chavales tienen muchas dificultades, muchas dificultades, la mayoría de ellos, en una ciudad como Vitoria para hablar euskera fuera de las cuatro paredes de la ikastola. Entonces, aunque a mí no quiero que me digan «eres *euskaldunberri*», pero sí que veo que hay diferencias también en la sociedad del siglo XXI. Klaro, *euskaldunberris* éramos los que íbamos al euskaltegi, no sé qué. Para mí hay *euskaldunberris* también entre los niños en las ikastolas (ELK-I, 213)

Beraz, ikusten dugunez, euskaldunberri identitatea birkokatzen ari da euskara biziberri-tzeko mugimenduek eta murgiltze-ereduen hedapenak sorrarazi dituzten hiztun eta hizkuntza-identitateen espazio berrian. Gainera, euskaldunberri terminoa deslegitimatzailea denez, sektore batzuek aurre egiten diote.

6.5.2. Euskaldunberri terminoa auzitan

Askok ez diote zentzu txarrik ikusten *euskaldunberri* hitzari; euskara familiatik kanpo ikasi duten hiztunak identifikatzeko modua baino ez da haientzat; hala adierazten du Leioako 45 urteko pertsona honek:

- (298) No sé cómo se llegó a extender esa terminología, pero bueno, **tampoco creo que se utiliza de forma peyorativa o despectiva**, no creo que tenga, no, o por lo menos yo no lo llevo así, o sea, no creo que..., es simplemente, pues una forma de diferenciar las diferentes... pero no... Así como tampoco me parece que existan para otros idiomas así tan extendido, **tampoco creo que sea, que se utilice de forma despectiva o para decir «este es euskaldunberri y tú eres más originario que eres euskaldun zaharra»**, no creo, no creo. Yo por lo menos no lo vivo así. (ELK-C, 282)

Haatik, *euskaldun zaharrekin* osatutako eztabaida-taldeetan, partaide batzuek aipatu dute norbait *euskaldunberria* dela esateak nolabait deslegitimatu egiten duela:

- (299) Eta gero, beste gauza bat gure izan dot esan, euskaldun zaharrak edo euskaldunberrien inguruan, nik holan erabiltzen dot, baina **injustoa** zelan deritzadan **euskaldunberri deitzea pertsona bateri, ze emoten dau sentsaziñoe inoz ez dala helduko zeure nibelera**, euskaldun zaharra izatera, ba ikasi dauelako 15 urtegaz. Eta nik dekoaz lagunek euskera iten dabela, bueno, nik baino egokiagoa iten dabe, finago iten dabela, dabenak, eta ikasi dabenak unibertsidade garaian hasi zirenak ikasten. (Zahar-BI-C, 134)

Aurreko aipuko partaideak dioen moduan, kasu askotan hiztun berrien hizkuntza-gaitasuna bikaina da, eta horrek kolokan jartzen du hortik zabal dabilen ustea, alegia, «eus-

kaldunberriek» oso zaila dutela «*euskaldun zaharren*» mailara heltzea (6.3.1. atala). Baina kontua ez da terminoa gaitasun handiko hiztunentzat bakarrik baztertzea. Euskaltegiko irakasle honek, *euskaldun zaharrekin* osatutako eztabaida-taldekoak, dio bere euskaltegian ikasten ari direnentzat ere baztertu dutela terminoa:

- (300) –Oain nabil Grabiél Arestin, hemen, Bilbon, euskaltegian klaseak emoten. Orduan, ba, bueno, nahiko kontakto zuzena dekot holako ikasle, ez dakit, profelegaz, zuk aipatu duzun euskaldunberriek dire... **Gu saiatu iten gara termino hori ez erabiltzen, euren aurrean behintzet**, euskaldun zahar-berri kontzeptu hori, bueno, uste dogu neurri baten **desfasausta** daola. (Zahar-BI-B, 13)
- Bai, bai, eta hori zergaitik? (Zahar-BI-M, 28)
- Bueno, igual **konpleju** konturen bategatik. (Zahar-BI-B, 32)
- Baina pentsetan dozu igual mingarri izan daitekeela ikasleentzako, edo bigarren dibi-siñukoa izan daitekeela? (Zahar-BI-M, 30)
- Ba, batzuentzat bai, bai, batzuentzat bai, benetan interesa badeko ikasle batek euskaldun izateko edo, sentidu leike holako, ez dakit nik..., eh, ez dakit zelan esan, **gutxiago dala** edo pentsa leike, bai? (Zahar-BI-B, 31).
- Bai, bai, eta orduan ze termino erabilten dozue? (Zahar-BI-M, 32)
- Euren aurrean?** Ez, niretzako horiek **euskaldunak** dire (Zahar-BI-B, 33)

Etiketa, eta horrekin batera identitatea, aspaldi ikasi eta/edo maila altua dutenentzat baztertzen da batez ere, partaide honek dioenez:

- (301) –Bai, nik lehengokoakin gelditu naiz esateko, *euskaldun zahar* ta berri... **Euskaldun berri batzuk zenbait denboraz jarraituko dute...** / ... **berri izaten?** Jo, ni badazkat lagunak euskaldun berri dirala eta, jolin, ya, zenbat, berrogeita zazpi, zortzi urte dituzte, igual ikasi zuten euskeraz hamasei urtekin, eta joe, daramate euskeraz denbora gehiau erderakin baino, eta oaindikan berriak dira? Joe, eta zea ta, zea ta, «ez, euskaldunberria». Joe, euskaldunberria, bai zea, jolin. (Zahar-TO-A, 246/248)
- (302) **Niretzako euskaldunak dira eta kitxo.** Ze ez dakit non bukatzen dan euskal kalitateko neurtzeko milimetruko hori noiz bukatzen dan, eta hori ez det... Igual euskaldun zaharra edo euskaldunberria igual bai da kontzeptu bat euki duela nolabaiteko erabilpen bat oain dela urte batzuk, oain ikusi beharko da hori benetan, oain benetan toki batzutan existitzen den edo, ze nik baditut ikasleak izandakoak B ereduan ikasitakoak diala..., ez dakit ze esan, **euskal kalitate guztiz zahartuta**, ez dakit zan Donostiko, edo Pasaiko, edo Irungo euskaldunena baino euskaldunena baino euskaldunagoak diala. Eta hemen igual izango zan konsideratuta ba..., holan, ez, hemen ba zenbait jendegatikan ba bere aita dalako ez dakit nungoa, bere ama dalako ez dakit nungoa, ez dakit ze eskolatan ikasi dula-ko eta ez dakit ze eredutan egon dalako... Eta igual jartzen dezu beste batekin, ez dakit, Irungo ikastolako batekin edo, eta, eta hemengoak ematen dizkio hogeita hamar maila buelta (Zahar-TO-A, 64)

Azken aipu horretan funtsezko kontu bat aipatu da eta merezi du sakonago aztertzea: badira hiztun berriak jatorrizko hiztuntzat jotzen direnak. 6.5.4. atala eskainiko diogu horri.

6.5.3. «Euskaldunberria *naiz eta ez dit axola*»

Kategoriei buruzko eztabaidan partaide batzuek beste era batera egin diete aurre kategoriei: ez dute auzitan jartzen *euskaldunberri* kategorია, *euskaldunberriak* direla aitortzen dute, baina garrantzia kentzen diote: ez die batere axola.

- (303) **Neri** ez daust preokupaten. Neuk argi dakot euskaldunberria naiela, baina... / Nik pentsaten dot hori da la importancia que se le quiera dar, erderiez esanda. Zuk emoten dozun inportantzia zeatik euskaldunberrie, edo euskaldun zaharra edo... Neuk ez dot emoten. Badakit euskaldun berrie nai(z), eta leku batzutara jungo naiena eta ez dot ulertuko zer dauzen berbetan, edo zer dauzen kantaten. (BE-B, 285 / 293)
- (304) **Nik ez diot buelta askorik eman.** Inoiz pentsatu dut euskaldunberri naizela edo ez, eta orduan... Hobeto egiten dut gazteleraz, askoz hobeto egiten dut gazteleraz euskaraz baino, **baina punto.** (Gazte-GE-B, 257)

Getxoko neska hau haratago doa. Besteek *euskaldunberri* izendatzea ez zaiola inportabadio ere, ematen du kategoría hori onesten duela eta gako legitimatzaile berri bat ematen du: hiltun berriek egin behar duten aparteko ahaleginak legitimatu egiten ditu moduren baten.

- (305) Eske berdin zait, osea. Uste dut euskaldunberriek lan gehiago egin behar dutela besteak baino, asike... berdin zait. (Gazte-GE-D, 353)

6.5.4. Euskaldun zahar *kategoria auzitan*

Oso interesgarria da *euskaldun zahar* identitatea zerk ukitzen duen, hain zuzen ere gure partaideek zalantzan jartzen ez zutena. Gogora dezagun gehienek oso argi zutela haiek **ez zirela euskaldun zaharrak**, ama-hizkuntzaren ideologian oinarrituta: ez zutelako euskara ikasi lehenengo hizkuntza moduan familia bidezko transmisioan.

Ama-hizkuntzaren ideologiaren sendotasuna kolokan gelditzen da *euskaldun zaharra* izatearekin lotzen diren beste ezaugarriekin talka egiten duenean: euskara maiz erabiltzea edo euskaraz bizitzea, hizkuntzan gaitasun handia edukitzea eta euskalkia erabiltzea. Bestela esanda, hiltun berria jatorrizko hiltuntzat hartzen denean, «gure moduan hitz egiten duelako». Azter dezagun kontu hori.

«NEURE BURUA *EUSKALDUN ZAHARTZAT DUT*»: AMA-HIZKUNTZAREN IDEOLOGIA AUZITAN

Gure partaideen artean pertsona bakarra dago bere burua *euskaldun zahartzat* duena. 22 urteko neska bat da eta haren gurasoak Zeanurira bizitzera joan ziren hain zuzen ere alabak euskara ikas zezan.

- (306) Nik ez dekot euskaldunberri moduen, **nik dekot euskaldun zahar moduan**, ba ze ni, o sea, nire lehenengo hitzek azkenean dire, euskeraz izan dire, eta nik pentsetan dotenean, lehenengo euskeraz pentsaten dot eta gero idatzi iten dot, nahiz ta erderaz gura doten idatzi, nik euskeraz pentsaten dot zelan esan. **Ni euskaldun, osea, ni naiz euskaldun zaharra, ni kontsideratzen naz euskaldun zaharra.** / Nire gurasoak etorri ziren hona ni jaio baino lau urte lehenago. Orduan **ni hemen jaio naz**, eta **etorri ziren Zeanurira apropos nik euskeraz jakiteko**, bueno, euren seme-alabak euskeraz jakiteko. Así que, sin más, nik txikitatiki euskeraz ikisi dot, in dodaz estudio guztiak egin dodaz euskeraz, kendute urtebete, in behar izan nebala holako ziklo bat, goi mailako ziklo bat, eta in noala gazteleraz eta pasau neuen oso txarto, osea, nahiz eta famili guztia erdalduna izan, **nik erderaz ez dakit berbaz**, o sea, iten doaz hanka sartze batzuk, inkreiblead erderaz, osea, oso txarra. Eta oain, aber, ba gero azkenean ikisten dozu gehiau, gehiau, iten zara zaharragoa eta azkenean iten dozu, baia, **nik ezpaere euskeraz, lagunekaz euskeraz, dana euskeraz.** (ZEA-B, 291/86)

Ematen dituen arrazoibideak esanguratsuak dira: euskara da beraren hizkuntzarik sendoena, dioenez «nik erderaz ez dakit berbaz»; txikitan ikasi zuen bigarren aitita-ama-matzat dituen auzoko «*euskaldun zahar*» horiek; euskaraz pentsatzen du eta euskaraz bizi da eta Zeanuritarrek bezala hitz egiten du. Zaila da asmo legitimatzaile handiagoko diskurtsoak topatzea eta hain zuzen ere inoiz kolokan jarri ez den ideia bati aurre egiten diolako ematen du hainbeste arrazoibide: ama-hizkuntzaren ideologiari aurre egiteko prest dago beste guztia daukalako eta jatorrizko hiztun sentitzen delako.

EUSKALDUN ZAHARRA EMATEA

Euskaldun zahar identitatea kolokan jartzen da jatorrizkoak ez diren hiztunek jatorrizkoak ematen dutenean (Piller 2002). Azter dezagun ELK-Dren lekukotza (307). 45 urte ditu, Gaztelako etorkinen semea da eta Usurbilen hazi eta bizi da. 14 urtera arte «lasai» bizi zen gaztelaniaz, baina aisiako jarduerak aldatu, koadrila berri baten sartu eta euskararekin egin zuen topo. Bost urtean euskaltegi batean ibili bazen ere, bere benetako eskola kalea eta lagunak izan direla uste du. Galdetuta, bere burua hiru identitate nagusietan kokatu behar izan duenean, aitortu du ezin duela esan *euskaldun zaharra* denik, baina... horrek ere kontraesana sortzen dio.

- (307) –Tú te consideras euskaldunberri, o euskaldun, o euskaldun zahar?
 –Yo me considero *euskaldun*. *Euskaldun zaharra* tampoco puedo decir porque sé que no es, pero yo, ni euskalduna kontsideratzen naz, ni... (ELK-D, 180)
 –¿Esa terminología para ti sigue siendo válida, una distinción relevante?
 –Realmente yo eso no me acuerdo, al fin y al cabo, **yo me siento euskaldun, entonces de ahí para adelante...** Y luego, pues para mí, pues igual ser *euskaldunberri* es una medalla en un momento dado, porque me lo he trabajado yo, o sea, **me lo he currado yo y es algo que lo he conseguido yo**. En un momento dado puede ser una medalla, pero no es algo real, o sea, no es algo que exista, sí, ha sucedido así, pero no es algo que tenga en mente o, no me suelo acordar, o sea no, no es, es simplemente parte de..., es un proceso, ¿no?, al fin y al cabo otro ha aprendido, de siempre ha sabido y yo, pues lo hice así, con [nombre del amigo que le animó y le enseñó] y no le doy mayor... *Euskaldun zaharra* tampoco porque sabes que no eres, **pero en un momento dado yo igual me metería más, o me gustaría más, o yo igual, a mí mismo, sin igual decir a nadie, igual sí me metería en el saco de los euskaldun zaharras** porque hablo más como un *euskaldun zaharra*, pero no... (ELK-D, 182)

—Bueno, de hecho tus compañeros de trabajo están diciéndote «cómo qué, tú eres *euskaldun[berri]...*»

—Sí, sí, al principio ha sido como «pero tú qué morro, tú, **si tú eres *euskaldun zaharra***», «no, no, yo no soy *euskaldun zaharra*», «**pero tú hablas como... [nosotros]**», «ya, pero **yo he aprendido**», «¿pero cuándo has aprendido?», «pues joer, pues con 14 o 15 años», y ahí se han... Son los que vamos en el coche, que hemos tocado, pues los que vivimos ahí cerca, pues vamos en el coche, y no nos conocemos tampoco tanto, y se han quedado así un poco..., pero es la realidad, o sea, *euskaldunberri*. (ELK-D, 184)

Bere kasuan, eskura duen identifikaziorik legitimatzaileena hautatu du, *euskalduna*, baina argi dago ez zaiola nahikoa iruditzen: «hortik aurrera». Aitortzen du ez dela *euskaldun zaharra* izan, «ze badakizu ez zarela, baina «inori esan gabe, igoal sartuko nintzateke *euskaldun zaharren* zakuan». Berak badaki zein izan den bere ikasprozesua, baina ez dakitenentzat *euskaldun zaharra* da, lankideen erreakzioak erakusten duenez. Gakoak? Haiek bezala hitz egiten du, ez da bereizten, hau da, *euskaldun zaharra* ematen du euskara benetan erabiltzen den testuinguru batean. Lekukotza hau oso interesgarria da hiru termino aipatzen dituelako: nola ikasi duen argitu nahi duenean, orduan *euskaldunberria* dela dio. Baina argi dago beraren hizkuntza-identitatea ez dela hori, *euskalduna* baizik, eta eroso sentitzen dela jatorrizko hiztuna ematen duenean.

Gure partaideetako batzuek esan dute jatorrizko hiztuntzat hartzen dituztela eta beti azaltzen dute hori arrazoibide bera emanez, «haiek bezala hitz egiten dutelako».

Euskaldun zaharrekin osatutako eztabaida-taldeek berretsi dute nolako kontraesana darraren ama-hizkuntzaren ideologiak jatorrizko hiztuntzat hartzen dituzten hiztunen artean. Hala erakusten dute Tolosako taldeko 16 urteko mutil honek lagunaz mintzatzean dituen kontraesanek:

- (308) —Besteok, holako beste hiztunik ezagutzen duzue? (Zahar-TO-M, 30)
 —Nik kuadrillan badaukat bat, osea, bi guraso erdaldun ditu baino berak **gukin beti euskaraz** iten du ta **anaiakin e bai beti euskeraz** hitz eiten du, ez dakit... (Zahar-TO-D, 31).
 —Eta zelan iten dau berak be? Tolosako euskeran iten dau? (Zahar-TO-M1, 32).
 —Bai, bai, eta **normal** hitz iten dau, eh, osea, **ondo** (Zahar-TO-D, 33).
 —Normal zer esan nahi du? (Zahar-TO-M1, 34).
 —Osea, **guk bezela, ondo** (Zahar-TO-D, 35).
 —Bai, bai. Hori zuk euskaldun zahar konsideratuko zeunke? (Zahar-TO-M1, 36).
 —**Ez dakit, ez...** (Zahar-TO-D, 37).
 —Zergatik? (Zahar-TO-M1, 38).
 —Euskaldun zaharra ez da, baino..., osea, gukin, osea, gu bezela, osea, gurasoak euskaldunak izan balira bezela hitz iten'u (Zahar-TO-D, 39).
 —Ja, baina **zergatik diñozu ez hain argi**? (Zahar-TO-M1, 40).
 —Nola ez? (Zahar-TO-D, 41)
 —Euskaldun zaharra ez, ezin dala izan. (Zahar-TO-M1, 42)
 —A, ez dakit, osea, ez dakit, euskaldun zaharra ez dakit zer dan ba... Osea, euskaldun zaharrrak, guraso behintzat ez ite euskaldunak, baina euskeraz normal hitz iten deu, eta bere eguneroko kontu euskara itxen dau, eta anaiakin, osea, etxean anaiakin e bai euskeraz hitz iten dau. (Zahar-TO-D, 43)
 —Tolosako euskeran? (Zahar-TO-M1, 44)
 —**Bai**. (Zahar-TO-D, 45)

Lagunak *euskaldun zaharren* ezaugarri guztiak ditu ama-hizkuntza izan ezik eta horrek sortzen duen kontraesana oso nabaria da diskurtsoan. Ikusi baino ez dago nola dabilen zalantzan, esanak zuzentzen, kontraesanetan eta nola deskribatzen duen haren euskara «normal» moduan, Tolosako euskara, «guk bezala». Beste partaide batzuek ez dute dudarik egiten, Zahar-TO-Dk, esaterako, Gorozikako mutilak, ez du zalantzarik *euskaldun zahartzat* jotzeko «eurek lez» hitz egiten duten hiztunak:

- (309) –Bai, bai, ez askogaz, baino bai, eta hori beti komentau zuen, etorri zait burure gurasoak erdaldunak deitzenak eta, ba nire lehengo neska-laguna zan, **bera euskaldun zaharra da**, bueno, neba-arreba bixek, hemen jaio d(ir)e, baino gurasoek kanpotarrak dire. Eta gurasoak ba bota bezan ikastolara lehenengotatik, orduen, klaro, etxien ez, ze etxeokak danak ziren kanpotarrak, baina eurek, ba hori, ikastolan hasi ziren ikasten, lehenengo eta behin ez'uen ulertzen ezer, ze klaro, ba ikastola zenbat urtegaz zoaz, ba hirugaz edo hasten zara, ezta? (Zahar-BI-A, 7).
–Bai, bai (Zahar-BI-M, 8).
–Orduen hiru urtera arte ba erderaz dana, eta orduen lehenengota ez uen ulertzen ezer, ba gero, ba bueno, hasi ziren eta, **geure lez iten deue**, oseake, bueno, hortik puntutik, ba... (Zahar-BI-A, 9).

6.5.5. *Euskaldun zaharra-euskalkia vs. euskaldunberria-batua loturen haustura: H1 batua duten euskaldun zaharrak*

Euskaldunberria-batua eta *euskaldun zaharra*-euskalkia loturek indarrean diraute gaur egun. Lotura indartsuak dira eta *euskaldun zahar*arekin lotutako benetakotasun ideologiaren muinean dago; izan ere, ikusi dugunez, euskalkiak benetakoagotzat jotzen dira eta batua, ordea, artifizial ikusten da. Beheko lekukotzetan argi eta garbi ageri da lotura hori, baita kolokan jartzten dela ere.

- (310) –Nik bizkaieraz edo gipuzkoeraz egiten dutenak ikusten ditut euskera zahar moduan... (Gazte-BI-A, 266)
–Euskaldun zaharrak direla pentsatzen dozu. (Gazte-BI-M, 267)
–Bai, bai, bai. Eta gero **batuan egiten dugunok** edo, **euskaldunberriak**. (Gazte-BI-A, 268)
–Hori da normalean pentsatzen dozuna? (Gazte-BI-M, 269)
–Bai, nik behintzat, bai. (Gazte-BI-A 270)
–Bai, zuk, aurpegia holan ipini dozu eta... (Gazte-BI-M, 271)
–Ez dakit, eske igual badau jendia Bilbokoa euskaldun zaharra dana, bere gurasoak batua in daurienak eta, ez dakit, **ez dut uste bizkaierak edo mugatuten dauenik euskaldun zahar edo euskaldunberri izatia**. (Gazte-BI-C, 272)
–Adibidez telebistan askotan ikusten dozuz ba euskera batuan berba iten, eta ondo iten dabe berba, eta nik hori, bueno, uste dot ez dauela hori baldintzatzen ba euskaldun zaharra edo euskaldun berri izateko. Nik horri ez detsot emoten garrantzirik. (Gazte-BI-C, 273)

Izan ere, azken urteetan hiztun profil berria agertu da: euskara guraso hiztun berriengandik ikasi dutenak eta, ondorioz, jatorrizko hizkera euskalkia barik batua dutenak. Profil berri horrek *euskaldun zaharren* eta euskalkiaren arteko lotura berrerratu beharra dakar. Zahar-Bilbo-C partaideak horrek dakarren terminoen kontraesana darabil gogoetan eta ondorioztatzen du halako gazteak *euskaldun zaharrak* direla eta euren hizkuntza-aldaera batua dela:

- (311) —Bai, nik lehen pentsau dot hori, zer pentsaten dozue, zer igual euskaldunberri edo dala zelan interpretetan dozue, eta ni beti batueragaz. Eta gero egon naz pentsetan, ni Algortakoa naz, ez dot esan lehen, baina Algortan oin zenbat guraso gazte dagon umee euskera itxen dotsiena, eta ume horrek batueraz ingo dabe hemendik eta hamar urtera, eta imajinetan dot aldatu ingo dotela hori pertzepziñoa, ze klaro, guk han bizkaieraz nik entzuten dotenean nonon edo Uribekostako euskeran berba itxen Algortan, bueno, adi lo-tzen naz, ez dot sinistuten (Zahar-BI-C, 131).
 —Klaro, entzuten den euskera batua delako (Zahar-BI-M, 132).
 —Klaro, batua dalako, eta **niretzako horrek guztiek dire euskaldunberri**, eta danagaz, eta zer iten..., ni batez be horregaz. Eta badakit txarto iten dotela ze ontxe nau ikusten nigaz edo ni baino apur bat zaharrago direnak eta seme-alabak 10, 15 urtetakoak dekiezenak, **euskera hutsean dabiz, baino batuz iten dabe, eta horrek dire euskaldun zaharrak** (Zahar-BI-C, 133).

Bilboko eztabaida-taldeko gazteak antzeko ondoriora iritsi dira konturatu direnean seme-alabei euskaraz egiten badiete, seme-alaba horiek *euskaldun zaharrak* izango direla:

- (312) —Gaur egun ikusten dugun ba zelan dauen, bueno, (...) zelan dagozen ba hogeita hamar urteko pertsona batzuk ja semeekaz eta, eta haien semeekaz iten dabela berba ba euskaraz ta, eta orduen nik uste dut hori pasa dela, igual zure gurasoak ez dozula berba euskeraz in, eta orduan ya zure semeek ja, ez dakit, horrerri ja garrantzi handia emoten detzozula, ja jaio eta segiduan hasten zarela ja beragaz berba euskeraz, eta dana euskaraz iten dozula beragaz. (Gazte-BI-C, 255)
 —Bai, orduan zu euskaldun berria izango zinateke baina zure semea euskaldun zaharra, hori esan gure dozu? (Gazte-BI-M, 256)
 —Bai, nik uste dot hor dagoela... (Gazte-BI-C, 257)
 —Bai. Besteok pentsatu duzue horretaz, edo zertzat daukazue zuen burua, edo...? (Gazte-BI-M, 258)
 —**Nire ondorengoa [seme-alaba] izango zan euskaldun zaharra**, osea, nigandik hasite, danak izango ziren euskaldun zaharrak, baina ni euskaldun [berria]... (Gazte-BI-D, 259)

H1 batua izatea gertakari berri samarra da. Ikusi beharko da nolako bilakabidea duen halako hiztunen hizkuntza-identitateak.

6.5.6. *Ama-hizkuntzaren ideologiaren haustura: zein da benetako euskaldunaren bermea, ama-hizkuntza ala hizkuntzaren erabilera?*

Azken atal honetan, berriro gatoz atalaren hasieran aipatu dugun *euskaldun zaharra vs. euskaldunberria* dikotomiara. Esan dugunez, euskara ikasteko unea eta modua dira kontrajarren horren oinarriak. Partaideen iritzien azterketak erakutsi digunez, badira beste elementu batzuk garrantzi handiagoa hartzen hasita daudenak, ama-hizkuntzaren irizpi-dea neutralizatzeraino. Ditugun adibide guztiak gazteenak dira.

Gazte-BI-E Trapagarango gazteak (alde oso erdalduna) frustrazioa sentitzen du aukera gutxi duelako euskara erabiltzeko eta uste du euskara eskasa duela. Bada, beraren ustez, azken finean balio duena euskara **erabili** ahal izatea da. Eta *euskaldun zaharrek* bezala hitz egiten duten beste hiztun berri batzuekin konparatzen denean, argi eta garbi esaten du berarentzat hiztun horiek *euskaldun zaharrak* direla, eta bera, berriz, ez:

- (313) Klaro, eta igual niretzat, nik esaten dut «ba, beraiek [eztabaidan dauden euskaldun zaharren moduko hiztunak, adib. Gazte-BI-E] egon dira **betidanik ba euskeraz hitz egiten**, ba igual lagunekin... hau ere bai lagunekin...» eta ba **niretzat igual beraiek izango ziren euskaldun zaharrak eta ni euskaldun berria**», osea, nik ez dut inoiz ia-ia euskeraz hitz egiten, bakarrik unibertsitatean. (Gazte-BI-E, 260)

Aipu honetan partaide berak garrantzia kentzen die etiketei eta euskara erabiltzeari eta bultzatzeari ematen die benetako balioa:

- (314) –Baina azken finean euskaldun zaharra edo euskaldun berria izatea, ba, ez dauka garrantzirik, ezta? O sea, zuk bultzatu behar duzuna da ba euskeraz badakizu **zure lagunekin hitz egitea eta euskeraz bultzatzea**. (Gazte-BI-E, 274)
–Bai, etiketak ez dira, ez daukie garrantzirik, hori esan nahi dozu? (Gazte-BI-M, 275)
–Bai, nire ustez etiketak ez dauka garrantzirik. Beraiek, hauek hiruk oso ondo hitz egiten dute euskeraz, eta bueno... (Gazte-BI-E, 276)

Neska getxotar honek, berriz, desberdintasunak ikusten ditu *euskaldun zaharren* eta *euskaldunberrien* artean, baina beraren ustez erabilera da gakoa, **euskaraz bizitzea**, jakinik hori lortzea zaila dela *euskaldunberri* askorentzat. Ziur asko ikusi du bere inguruan behinik behin, Getxon alegia, jende askok *dakiela* baina ez dela erabilerara pasatu.

- (315) –Ni(k) horretaz ez dut pentsatu baina, o sea, orain pentsatzen ari naiz eta nik uste dut desberdintasuna, posiblea da ezberdintasuna izatea **euskaldunberriak euskara ikasi dute-nak orain arte baina bere bizitza ez dute euskeraz bizi**, ez dakit nola esan, eta *euskaldun zaharrak* o sea **txikitatik hartu dute euskeraz, bai eskolan, eta bai bere etxean, ingurukoekin**, eta hortik dabil... Es que **ni proiektua naiz**, es que ni... (Gazte-GE-F, 373)
–Euskaldun proiektua, esan nahi duzu?, euskaldun proiektua. Zu euskalduna zara. (Gazte-GE-M1, 374)
–Hori fijo, hori, bai, bai, bai, baina uste dut igual desberdintasuna dagoela, o sea, **euskaraz bizitzea, ez jakitea bakarrik**. (Gazte-GE-F, 375)

Atal honetan ahalegindu gara erakusten euskaldunen profil berriak eta euskara erabiltzeko egoera berriak direla eta, ohiko kategoriak, sakon sustraitutako balio eta ideologietan oinarrituta daudenak, kolokan hasi direla jartzen. Aldaketa unean gaude eta ideologia berriak ari dira agertzen. Jarraipena egin behar zaio horren bilakaerari, baita gaiaz hausnartu ere gizartearen eta hizkuntza politikaren ikuspegitik, hiztun berrientzako balio legitimatzailerak sustatzeko.

6.6. Kategorien arteko mugikortasuna

Gorago esana dugu hiztun moten kategoriak produktu sozialak direla eta, ondorioz, ez direla finkoak; aitzitik, eratu, aldatu eta desagertu ere egin litezke gizarte jakin batean. Banakoen mailan, pertsonak kategoriak barneratu edo aurre egiten diete, baina haien inguruan eratzen dute beren hizkuntza-identitatea. Erantzuteke dugu, ordea, ea hizkuntza-identitate horiek finkoak diren ala aldatu egin litezkeen denboran edo hiztunaren inguruabarren arabera. Beste era batera esanda, gerta liteke hiztun-kategoria batetik bestera igarotzea? Erantzun diezaiogun galderari bi ikuspuntutatik: batetik, posible da kategoria bateko «kide» izateari uztea eta beste batera pasatzea pertsona baten historia linguistikoaren une desberdinetan? Eta, bestetik, posible da kategoria bat edo beste hartzea inguruabarren arabera, pertsonaren historiako une berean?

6.6.1. Bizitzan zehar kategoria batetik bestera mugitu

Aurreko ataletan hizkuntza-identitateaz azaldu den eztabaidak erakutsi du hizkuntza-identitateak eta partaideak kategoria batekin edo besterekin identifikatzea hizkuntza garatzeko eta hizkuntza-identitatea eratzekeo prozesu konplexuei lotuta daudela. Prozesu bat denez, aldaketa-ideia du berekin. *Euskaldunberri* eta *euskaldun zahar* kategorien legitimitate maila azaltzeko proposatu dugun *continuum*a (6.4. ataleko 2. grafikoa) baliagarri zaigu prozesua aztertzeko. Ikusi dugunez, gaur egun beren burua *euskalduntzat* duten hiztun batzuek diote garai batean *euskaldunberriak* izan zirela baina hori atzean utzi dutela; eurek aurrerapauso moduan ikusten dute aldaketa hori. Hortaz, posible ikusten dute kategoria batetik bestera aurrera egitea. Interpretatu behar dugu aipatzen dituzten gakoak direla jauzia ahalbidetzen duten legitimazio-bideak (ikusi 6.4. atala). Hala diote beren burua *euskaldun* izendatzen duten bi partaide hauek. Lehena Bermeokoa da eta bigarrena Usurbilkoa.

(316) Nik hori sailkapena aspalditik **gaindituta** dakot. **Ni ez naiz berririk, ez zaharrik.** / Ze hainbeste urtetan eitxen eitxen dotena, ja nahiko zaharra nai(z). (BE-C, 282/284)

- (317) **Igual ser euskaldunberri** es una medalla en un momento dado, porque me lo he trabajado yo, o sea, me lo he currado yo y es algo que lo he conseguido yo. **En un momento dado puede ser una medalla, pero no es algo real, o sea, no es algo que exista**, sí, ha sucedido así, pero no es algo que tenga en mente o, no me suelo acordar, o sea no, no es, es simplemente parte de..., **es un proceso**, ¿no? (ELK-D,182)

Prozesuaren ideia neska getxotar honen berbetan ere ageri da: ikusten du bere euskara maila hobetzen doala eta gero eta aukera gehiago dituela euskaldunekin euskara erabiltzeko jarduera berrien bidez. Lekukotzaren amaieran dioenez, «etiketa hori (*euskaldunberri*arena) gainditu» daiteke.

- (318) **Ni proiektua naiz.** / Bai, edo **prozesuan nabilela**, ez? Ez dakit, ez dakit non kokatu nire burua baina **euskaldun berri puntu horretan egon naizela askotan** bai, ze azkenean, ez dakit, pixkat ereduia izanda akademikoa, ez?, eskolan, eskolan ikasi genuen eta patiora ateratzen ginenean gazteleraz egiten genuen lagunekin edo ingurukoekin. (...) Eta orduan hor bai ikusten dituzula **mugak**, eta nik uste dut muga horiek **gainditu egiten direla, denborarekin eta praktikarekin e bai, eta inguruaren arabera** gainditu egiten direla. Eta beste egunean euskarako irakasleak esan zigun bera zala **euskaldun berri zaharra**. Joan zala, ba hori, ba oso aspaldi ba euskaraz..., eta irakaslea da, laugarren mailako irakaslea da, ordun, proba da hori, etiketa hori gainditu dezakegula. (Gazte-GE-C, 373/345)

Ikusten dugunez, Gazte-GE-Cren irakasleak «*euskaldunberri zaharra*» diotso bere bu-ruari eta horrek oso ondo islatzen du prozesua «berri» eta «zahar» hitzekin jokatzuz, eta «jatorrizkoarekiko» lotura eginez. Beste partaideren batek ere erabili du «*euskaldunberri zaharra*» terminoa eta horrek adierazten digu gizartean dabilen kategoria dela.

Tolosako partaide honek oso urrun ikusten du *euskaldunberri* izateari uztea, «*requeteberri*» ikusten baitu bere burua, baina aurrerakuntza ikusten du beregan eta egunen baten «*berri*» etiketa kentzeko aukera.

- (319) –Hombre, ni euskaldunberri, berri, baina **requeteberri**, bai, bai. (TO-B, 214)
–Eta requeteberri zergaitik? Zuretzat zeintzuk diren klabeak edo, hori hain argi eta garbi esateko? (TO-M1, 215)
–Ba, bueno nik uste det **pixkanaka-pixkanaka jariatasuna lortuko detela**, eta ordun, ba, bueno, **igual berri-berri hori kenduko det...**/ Baina hori, hori, falta zait pilo bat. (TO-B, 216, 218)

Baina kategorien arteko mugikortasuna ez da beti aurrerapausoa. Sestaoko partaide honek oso ondo deskribatzen du euskara erabiltzeko aukera gutxi duten hiztun berri askoren egoera. Beraren historia linguistikoa euskaltegira itzuli behar izan du noizik behin hizkuntza ez galtzeko. «Atzera eta aurrera» ibili da prozesuan.

- (320) –Euskararen kontua, osea, historia da ta, hemen, Sestaon, eta ezkerraldean orokorrean, **beti hasten zarela sentitzen duzu**. Bueno, nik behintzat, **beti hasten, beti hasten...** (SE-B,282)
–Beti euskara ikasten hasten esan nahi duzu? (SE-M1, 283)

—Ez, euskararekin hasi nintzen eta gero berriro horrekin, ez dakit nola esan, **atzera pausak ematen duzu, gero berriro aurrera, gero berriro aurrera, gero berriro atzera**, momentu honetan atzera nago, pasa den urtean nagoela... Eta, ez dakit, nola definitu egoera hau? Ba **euskaldun izatea gauza naiz**, hori... (SE-B, 284)

—Euskalduna izateko, bai, gauza zara. (SE-M1, 285)

—Euskalduna izateko gauza naizela, o sea, honela ikusten dut nire burua. Ez dakit berri ala zer, baina bai, gauza naiz, eta momentuaren arabera aurrera pausak emango dut ala atzera pausoak. Honela da hemen. (SE-B, 286)

Hiztun horiek guztiek ez dute finko ikusten beren hizkuntza-identitatea. Kasu batzuetan prozesuan identitate bat gainditu dute, *euskaldunberriarena*, eta *euskaldun* identitatara egin dute aurrera. Beste kasu batzuetan, azken bi kasuetan adibidez, partaideak ez dira kategoria berri horretara iritsi, baina irits daitezkeela uste dute. Beste partaide batzuek, ordea, ezina ikusten dute *euskaldunberri* identitatetik irtetea, identitate horrek definitzen dituelakoan eta beti definituko dituelakoan.

6.6.2. Identitate bat edo beste hartu inguruabarren arabera

Orain arte eztabaidatutakoaz bestelako ikuspegia da pentsatzea identitateak interakzioan egoeraren arabera har daitezkeela unean-unean. Nahiz eta eztabaida-taldeetan eta elkarrizketetan gure partaideen ahaleginik handiena izan den beren burua hiztun moduan definitzea gizartean dabilzan hiztun-kategorien arabera, horrek ez du esan nahi hiztunak kategoria finko batean kokatzen direnik. Identitate sozialen gaineko ikerketetan honela definitzen dira identitate sozialak: «konstruktua malguak, interakzioan etengabe sortu, negoziatu eta aldatzen direnak» (Sebba & Wootton 1998: 284).

Lehenago ere aipatu dugun partaide usurbildarraren hitz hauek ondo islatzen dute zer esan nahi dugun: euskara nola ikasi duen zehaztu gura duenean, *euskaldunberria* dela dio; bere burua nola ikusten duen argitu gura duenean, berriz, *euskalduna* dela dio (eta *euskaldunberri* izaera atzean utzitako fasea dela). Elkarrizketan argi uzten du ez dela *euskaldun zaharra*, baina eguneroko bizimoduan *euskaldun zaharra* ematen du eta gustura dago horrekin.

- (321) —Yo me considero *euskaldun*, *euskaldun zaharra* tampoco puedo decir porque sé que no es, pero yo, ni *euskalduna* kontsideratzen naz, ni... / Yo me siento ***euskaldun***, entonces **de ahí para adelante**... Y luego, pues para mí, pues igual ser *euskaldunberri* es una medalla en un momento dado, porque me lo he trabajado yo, o sea, me lo he currado yo y es algo que lo he conseguido yo. / (...) *Euskaldun zaharra* tampoco **porque sabes que no eres**, pero en un momento dado **yo igual me metería más**, o me gustaría más, o yo igual, a mí mismo, sin igual decir a nadie, igual sí me metería **en el saco de los *euskaldun zaharras* porque hablo más como un *euskaldun zaharra***, pero no... (ELK-D,180/182)

—Bueno, de hecho tus compañeros de trabajo están diciéndote «cómo qué, tú eres *euskaldun[berri]*...» (ELK-M, 183)

—Sí, sí, al principio ha sido como «pero tú qué morro, tú, **si tú eres *euskaldun zaharra***», «no, no, yo no soy *euskaldun zaharra*», **«pero tú hablas como [nosotros]...»**, **«ya, pero yo he aprendido»**, «¿pero cuándo has aprendido?», «pues joer, pues con 14 o 15 años», y ahí se

han... Son los que vamos en el coche, que hemos tocado, pues los que vivimos ahí cerca, pues vamos en el coche, y no nos conocemos tampoco tanto, y se han quedado así un poco..., pero es la realidad, o sea, *euskaldunberri*. (ELK-D,184)

Une jakin batean jatorrizko hiztuna ematea eta beste batean hiztun berri moduan agertzea, jakina, behar adinako gaitasuna dutenen esku baino ez dago. Baina ez da hori mugikortasuneko aukera bakarra: inguruabarrek (inguruak, pertsonak...) eragina dute hiztunen sentitzeko eran eta besteen aurrean agertzeko moduan, eta horrek ere eragina du erabileran. Gerta liteke zailtasunak dituela-eta bere burua *euskaldunberritzat* duen hiztun berri bat zenbait momentutan gustura sentitzea, *euskaldun* sentitzea. Eta, era berean, *euskaldun* sentitzen den eta jatorrizko hiztuna ematen duen hiztun batek une jakin batean *euskaldunberri* identitatea hartzea, gorago ikusi dugunez.

Kategoria batetik bestera mugitzeko aukera eta 6.5. atalean aztertu dugun aurre egin edo auzitan ipintzeko aukera garrantzitsuak dira; izan ere, horrek esan nahi du hiztun berriek sentitu ohi dituzten mugak gainditu egin litezkeela. Batetik, hiztunak legitimatuago sentiarazten dituzten identitateetara aurrera egitea, hots, euskara erabiltzeko konfiantza handiagoa izatea, berri ona da eta jatorrizko hiztuna/hiztun berria dikotomia gainditzeko modua ere bai; izan ere, inork ez duela gogoko dirudien arren, dikotomia hori oraindik ere euskal hiztunen identitateen funtsa da atzean dauden ideologiak direla-eta (nor den benetako euskalduna, hiztun ona; hiztun berria hiztun ez oso eta ez on ikusten duten ideologiak). Atal honetan zehar «legitimazio-bideak» zein izan litezkeen ikusi dugu, hiztunei zailtasunak gainditzeko lagundu diezaieketen elementuak. Behin bide horiek ezagututa, aurrera egin behar dugu, gizarte moduan eta hizkuntza-politikaren bidez, bide horiek sendotzen.

Bigarrenik, oso interesgarria da jakitea hiztun berri batek une jakin batean euskaldun identitatea har dezakeela, edo testuinguru jakin batean dituen konplexuak alde batera utz ditzakeela, unean unean edo testuinguru jakin batzuetan eta seguru sentitzen den guneetan jauzi egin dezakeela. Garrantzi handikoa da gune horiek (ez nahita nahi ez gune fisikoak), kategoriak bertan behera geratzen diren gune horiek, sustatzea, hiztun berria ez ardurtzeko, bere burua berresteko eta hizkuntzkonplexu barik erabiltzeko.

Azterketa kuantitatiboa

Azterketa kualitatiboaren bidez euskal hiztun berrien euskararekiko bizipenak, jarrerak, hizkuntza-erabilera zein hizkuntza-identitatearen gainean sakondu dugu, baita euskal hiztun berrien artean nagusitzen diren profil ezberdinak identifikatu ere. Azterketa kuantitatiboaren helburu nagusia ikerketa kualitatiboko partaideek agertu dituzten ideiak euskal hiztun berrien artean zenbateko orokortze maila duten ezagutzea izan da. Egiteko horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoan errolatutako 18 eta 55 urte arteko euskal hiztun berriei zuzendutako inkesta soziolinguistiko bat burutu da, ikerketarako beren beregi diseinatu dena.

Kapitulu kuantitatiboak hurrengo atalak bilduko ditu:

7.1. Metodologia

- 7.1.1. Helburuak
- 7.1.2. Galdesorta
- 7.1.3. Lagina eta datuen bilketa

7.2. Analisia

- 7.2.1. Euskararen ikaste prozesua: eskola, euskaltegia eta kalea/lagunartea
- 7.2.2. Euskara gaitasuna
 - 7.2.2.1. Euskaraz ondo komunikatzeko gaitasuna bereganatzeko adina
 - 7.2.2.2. Norberaren euskara gaitasunarekiko asebetetze sentimendua
 - 7.2.2.3. Zelako gaitasuna: batua, euskalkia, kaleko euskara
- 7.2.3. Euskara ikasteko motibazioak eta euskara ikasteak ekarritako sariak
 - 7.2.3.1. Euskara ikasteko motibazioak
 - 7.2.3.2. Euskara ikasteak ekarritako «sariak»
- 7.2.4. Euskara erabilera-patroiak

- 7.2.4.1. Euskararen erabilera-maila
- 7.2.4.2. Euskararen erabilera oztopatzen duten faktoreak
- 7.2.4.3. Euskararen erabilera laguntzen duten faktoreak
- 7.2.4.4. Euskara norekin eta zein esparrutan erabiltzen da
- 7.2.4.5. Hiztun aktibo bihurtzea

7.2.5. Familia barruko hizkuntza-transmisioa

7.2.6. Hizkuntza-identitatea

7.3. Azken hitzak

7.1. Metodologia

Metodologiari zuzendutako atal honetan, lehenengo, ikerketa kuantitatiboaren helburuak zehaztuko dira, bigarren, galdesortaren deskribapena burutuko da, eta azkenik, laginaren eta datu bilketaren inguruko zehaztasunak eskainiko dira.

7.1.1. Helburuak

Aurretik aipatu den moduan, azterketa kuantitatiboaren **helburu nagusia** azterketa kualitatiboko partaideek agertu dituzten ideiak euskal hiztun berrien artean zenbateko orokortze maila duten ezagutzea izan da. Helburu nagusi horren baitan, azterketa kuantitatiboak hainbat **helburu zehatz** izan ditu:

- H1: Euskal Autonomia Erkidegoko euskal hiztun berriek euskara ikasteko nolako ikasketak prozesuak jarraitu dituzten ezagutzea, eta baita euskara ikasteko izan dituzten motibazioak eta ikasteak ekarri dizkien onura nagusiak zeintzuk diren jakitea.
- H2: Euskal hiztun berriek bereganatutako euskara gaitasunarekiko duten auto-pertzepzioa ezagutzea, trebezia komunikatibo ezberdinetan.
- H3: Euskal hiztun berriek dituzten erabilera-patroiak ezagutzea eta, beraien ustez, euskararen erabileraren alde eta kontra jotzen duten faktore nagusiak zeintzuk diren identifikatzea.
- H4: Euskal hiztun berriek familian lehenesten dituzten transmisio-ereduak arakatzea.
- H5: Euskal hiztun berrian hizkuntza-identitatea ezagutzea, alegia, zein hiztun-motatzat duten haien burua.

7.1.2. Galdesorta

Arestian esan bezala, azterketa kuantitatiboan erabili den galdesorta ikerketa honetarako **beren-beregi diseinatu da** azterketa kualitatiboko partaideek agertutako ideiek euskal hiztun berrien artean zenbateko orokortze maila duten ezagutzeko, dela maila oroko-

rrean dela aldagai jakinak kontuan hartuta. Beraz, **galdesortako galderak** (ikus 5. eranskina), zein berbalizazioak, azterketa kualitatiboan identifikatu diren gai zentralei jarraiki planteatu dira; hain zuzen, euskararen ikasketa, erabilera, transmisioa eta hizkuntza-identitatea. Halaber, galdesortan euskal hiztun berrien gaineko hainbat datu soziodemografiko ere batu dira, horiek beste erantzunetan zein eragin izan dezaketen argitzeko.

Galdetegiak biltzen dituen eduki-multzoak honakoak dira:

- **Ikasketa prozesua:** Galdesortako erantzuleen ikasketa prozesuaren zer-nolakoa eza-gutzeko bi gai ezberdin jorratu dira: batetik, erantzuleek euskara ikasteko erabili duten modua —eskola, euskaltegia edota kalea eta lagunartea; bestetik, euskara ikasteko izan dituzten motibazioak. Galdesortako erantzuleen euskara ikasteko modua eza-gutzeko hiru galdera egin dira: lehenengoa, txikitan zein hezkuntza eredutan —A, B, C edo X— ikasi zuten (G10); bigarrena, euskara ikastera inoiz euskaltegi, barnetegi edo hizkuntza eskola ofizialera joan diren (G11); eta hirugarrena, kalean edota lagunartean euskara ikasteko aukerarik izan duten (G12). Erantzule bakoitzak hiru galderei eman dizkien erantzunak aztertzeak ikasketa-prozesu profil ezberdinak identifikatzeko aukera eskaini du. Informazio horren osagarri, euskaraz ondo komunikatzeko gaitasuna zenbat urterekin lortu zuten ere galdetu zaie, erantzun aukera moduan adin-tarte ezberdinak eskainiz (G13). Erantzuleek euskara ikasteko zein motibazio izan dituzten eza-gutzeko, arrazoi integratzaile, identitario eta instrumentalekin lotutako erantzun aukera ezberdinak eskaini zaizkie, aukera bakoitza 0tik (*batere garrantzirik ez*) 10erako (*garrantzia handia*) eskala batean kokatzea eskatuz (G14). Erantzun aukera guztiak azterketa kualitatiboko partaideek aipatutakoak izan dira.
- **Gaitasuna:** Galdesortako erantzuleek beraien euskara gaitasunarekiko duten auto-pertzepzioa eza-gutzeko, lortutako eza-gupen-mailarekiko duten asebetetze-maila orokorraren gainean (G16) itaundu zaie, eta baita batua, euskalkia eta lagunarteko hizkeraren menperatze-mailaren gainean (G15). Halaber, beraien euskararekin ez oso *gustura* edo *batere gustura ez* daudela erantzun dutenei komunikazio esparru ezberdinetan —ahozkoan, idatzizkoan, lagunartekoan edota formalean— euskaraz jarduteko duten zailtasunaren gainean galdetu zaie, erantzun moduan lauko eskala bat eskainiz, non 1 *zailtasun oso handia* eta 4 *batere zailtasunik ez* izan diren (G17).
- **Euskara jakiteak eskainitako sariak:** Galdesortako erantzuleei euskara jakiteak eskaini dizkien sari edo onurak ere hartu dira galdegai (G18). Beste behin, azterketa kualitatiboko partaideek aipatutako sariak oinarri hartuta, sari-zerrenda bat eskaini da, Horrela, erantzuleak sarietako bakoitza zein neurritan izan zaion onuragarria erantzun behar izan du, 1 *asko* izanik eta 4 *batere ez*. Aipatzekoa da, euskara ikasteko motibazioen antzera, euskara ikasteak ekarritako sari motak ere balio integratzaile, identitario eta instrumentalekin lotuta daudela.
- **Erabilera-patroiak:** Galdesortako erantzuleen euskara erabilera-patroiak eza-gutzeko, egunerokoan orokorrean zenbat euskara erabiltzen duten itaundu zaie (G21), baina baita ere egoera jakinekin —*bikotekidearekin*, *neba-arrebekin*, *lagunekin*, *seme-alabekin*, *lankide edota ikaskideekin*, *denda eta tabernetan* eta *aisialdian*— zenbat euskara egiten duten (G19). *Beti euskaraz*, *gehienetan euskaraz*, *bietan berdin-tsu*, *gehienetan erdaraz* ala *beti erdaraz* erantzuteko aukera eman zaie. Euskara beti,

gehienetan edo erdara beste egiten dutenei, beraien euskara-erabilera bultzatzen duten faktoreak zeintzuk diren galdetu zaie, erantzun aukera moduan hainbat item proposatuz (G22). Berriz, beti ala gehienetan erdaraz egiten dutenei beraien euskara erabilera oztokatzen duten faktoreen inguruan itaundu zaie, beste behin, erantzun aukera moduan hainbat item proposatuz (G23).

- **Hiztun aktibo bihurtzea:** Galdesortako erantzuleek euskara bere erreperitorio linguistikoan modu aktiboan gehitu duten ala ez jakin nahi izan da. Horretarako, galdetu zaie euskararen aldeko ohitura-aldaketarik burutu duten eta egitekotan, no-rekin —*gurasoekin, anai-arrebekin, bikotekidearekin, seme-alabekin, lankide edota ikaskide batzuekin*— (G24) eta bizitzako zein momentutan —*herri euskaldunera bizitzera joaterakoan, familia euskaldun batera ezkontutakoan, seme-alabak izatera-koan, eskola, unibertsitatea, euskaltegi-barnetegian hasterakoan, lagun euskaldunak egiterakoan, jarduera berriren batean hasterakoan, lanean, euskararekiko kontzientzia hartzerakoan*— (G25).
- **Transmisioa:** Transmisioari dagokionean, galdesortako erantzuleen artean guraso direnek beraien seme-alabei euskara transmititu dioten ezagutzeko seme-alabekin euskara zein neurritan darabilten galdetu zaie (G19). Berriz, guraso ez direnen kasuan, euskararen transmisioari begira dituzten intentzioak batu dira, seme-alabak izatekotan zein hizkuntzatan eta hizkuntza bakoitza zein neurritan hitz egingo zieten galdetuz; alegia, *beti euskaraz, gehienetan euskaraz, bietan berdintsu, gehienetan erdaraz eta beti erdaraz* (G20). Aldi berean, esan beharra dago, bi galdera horiek euskararen transmisioaren gaineko informazioa eskaintzeaz gainera, familietan nagusitzen ari diren hizkuntza-politika ereduaren inguruan ere datu baliotsuak eskaintzen dituztela.
- **Hizkuntza-identitatea:** Galdesortako erantzuleek euskarari begira garatu duten hizkuntza-identitatea ezagutzeko, azterketa kualitatiboan partaideek eurek aipatu-tako etiketak erabili dira —*euskaldun zaharra, euskaldunberria eta euskalduna*; eta elkarrizketatuei galdetu zaie etiketatik zeinekin identifikatzen duten beraien burua (G26).
- **Aldagai soziodemografikoak:** Aldagai soziolinguistikoen baitan, ikerketa soziolinguistikoetan ohikoak diren hainbat aldagairi buruzko datuak jaso dira: sexua (G2), jaioterria (G6), amaitutako ikasketak (G8), lan egoera (G9), diru sarrerak (G29) eta ideologia politikoa, ezker-eskuin ardatzean (G27) eta abertzale-ez abertzale ardatzean (G28). Adina eta bizilekua aldagaiak berkodefikatu egin dira. Horrela, erantzuleen adina hiru adin-taldeetan transformatu da: 18-26, 27-37 eta 38-55. Bizilekuak 4 gune soziolinguistikotan banatu dira: biztanleen <%25 euskaldunak diren herriak, %25-%49 euskaldunak direnak, %50-%69 euskaldunak eta >%70 euskaldunak direnak.

7.1.3. Lagina eta datuen bilketa

Azterketa kuantitatiboari dagokion laginketa eta datu bilketa SIADECO enpresak egin du, 2015eko azaroan zehar, telefono bidezko elkarrizketak burutuz.

LAGINA OSATZEKO IRIZPIDEAK

Aztergai den taldea **Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatutako 18 eta 55 urte arteko euskara familiatik kanpo ikasi eta gaitasun maila aurreratua duten hiztunak dira**. Hitzun mota honen unibertsoa 190.170 pertsonen osatzen dute.

Elkarrizketatuek goian aipatutako irizpide guztiak betetzen dituztela ziurtatzeko, galbahe galderak burutu dira. Batetik, adina ezagutzeko, zenbat urte dituzten galdetu zaie (ikus G1). Bestetik, euskara familiatik kanpo ikasi dutela baieztatzeko, umetan etxean ikasi zuten lehen hizkuntza zein izan zen itaundu zaie (ikus G4). Eta azkenik, elkarrizketatua euskaldundua dagoela ziurtatzeko, bi neurri hartu dira: lehenengoa, beraien euskara mailagatik galdetzerakoan, elkarrizketatuak ondo edo nahiko ondo hitz egiten dutela erantzutea (ikus G3); eta bigarrena, elkarrizketatuak galdesorta bere osotasunean ala gehiengoan euskaraz erantzutea (ikus G5 eta G30).

Lagina osatzeko Eustateko 2011ko datuak hartu dira kontuan. Laginketa geruzatua —lurralde historikoaren eta udalerrien gune soziolinguistikoaren arabera— eta interesatua edo ez proportzionala izan da, hain zuzen, geruza bakoitzean gutxieneko inkesta kopurua ziurtatu ahal izateko. Beraz, datu orokorrak kalkulatu ahal izateko lagineko datuak haztatu edo ponderatu egin dira, laginketa geruza bakoitzari unibertsoko datuekiko dagokion pisua kontuan izanik. **Laginketaren prozedura** honakoa izan da:

- **1. urratsa:** Lurralde historiko eta gune soziolinguistiko bakoitzean inkestatu beharreko elkarrizketatu kopurua zehaztu da; egin beharreko inkesten gutxieneko kopurubak geruza bakoitzean ziurtatuz eta ez, unibertsoko datuen arabera egindako banaketa proportzionalaren arabera.
- **2. urratsa:** Ibilbidekako kuota sistema definitu da, adina eta sexuaren arabera:
 - sexuaren arabera: %50 emakumezkoak eta beste %50 gizonezkoak.
 - adinari jarraiki, unibertsoko datuen arabera honako adin-tarteak bereizi dira:
 - 18-24 urte artekoak: %25
 - 25-31 urte artekoak: %25
 - 32-39 urte artekoak: %25
 - 40-55 urte artekoak: %25
- **3. urratsa:** Lurralde historiko eta gune soziolinguistiko bakoitzean egin beharreko ibilbide kopurua zehaztu da.
- **4. urratsa:** Lurralde historiko eta gune soziolinguistiko bakoitzean egin beharreko ibilbideak edota inkestak egiteko, udalerrien ausazko aukeraketa egin da, udalerri bakoitzean bizi den euskal hiztun berrien kopurua kontuan hartuta; alegia, geruza bereko udalerrien artean, inkestak egiteko aukeratuak izan diren udalerriak, aleatorioki aukeratuak izan dira, baina euskal hiztun berrien kopuruaren arabera, aukeratua izateko probabilitate handiagoa edo txikiagoarekin.

— **5. urratsa:** Laginerako aukeratuak izan diren udalerriak zehaztu ondoren, elkarriketatuetatik lortzeko zein etxebizitzatara hots egin erabaki da, ausazko aukeraketa bidez.

Laginak **612 euskal hiztun berriren datuak** jaso ditu, unibertso osoa 190.170 izanik. Lurraldea eta gune soziolinguistikoa aintzat harturik, haztatutako laginaren inkesta kopurua honela banatzen da:

3. taula

Laginaren tamaina gune soziolinguistikoaren eta lurraldearen arabera

Lurraldea	Gune soziolinguistikoa	Lagin haztatua	
		Kopurua	%
Araba	<%25 euskaldunak	77	12,6
	%25-49 euskaldunak	23	3,8
	%50-69 euskaldunak	0	0,0
	%70 edo gehiago euskaldunak	0	0,0
	Guztira	99	16,2
Bizkaia	<%25 euskaldunak	205	33,5
	%25-49 euskaldunak	90	14,7
	%50-69 euskaldunak	24	3,9
	%70 edo gehiago euskaldunak	11	1,8
	Guztira	330	53,9
Gipuzkoa	<%25 euskaldunak	0	0,0
	%25-49 euskaldunak	97	15,8
	%50-69 euskaldunak	63	10,3
	%70 edo gehiago euskaldunak	22	3,6
	Guztira	182	29,7
GUZTIRA	<%25 euskaldunak	282	46,1
	%25-49 euskaldunak	210	34,3
	%50-69 euskaldunak	87	14,2
	%70 edo gehiago euskaldunak	33	5,4
	Orotara	612	100,0

Adina eta **sexua** ere lagina osatzerakoan kontuan hartu dira. Horrela, laginaren %50 emakumezkoak izan dira eta %50 gizonezkoak. Adinari dagokionean, lau adin-talde be-

reizi dira (18-24 urte artekoa, 25-31 urte artekoa, 32-39 urte artekoa eta 40-55 urte artekoa) eta bakoitzari laginaren %25 egokitu zaio.

Bestalde, datuen **errore-marjina** estatistiko orokorra **+/-%4koa** da, **%95,5eko konfiantza** tartearekin.

4. taula

Lagina

Unibertsoa	Lagina	Errore-marjina (+/-%)	Konfiantza artea (%)
190.170	612	4	95,5

LAGINAREN DESKRIPZIOA

Laginaren deskripzioari ekinez gero, galdesortako erantzuleen erdia (%50) **emakumezkoa eta** beste erdia (%50) **gizonezkoa** da. **Adinari** erreparatuz gero, erantzuleak pareko hiru adin-taldetan banatu ditugu: gazteak (18-26), laginaren %32,2; heldu gazteak (27-37), %35,9 eta helduak (38-55), gainontzeko %31,9. **Lurraldeari** dago-kionean, erantzuleen gehiengoa bizkaitarra dela baieztatu daiteke, zehazki, laginaren %49,5; gipuzkoarrak, berriz, %33,8 dira eta arabarrak %16,7. Erantzuleen bizitokiaren **gune soziolinguistikoari** arreta jarritz gero, erantzuleen gehiengoa euskaldunak biztanleriaren %25 baino gutxiago diren herri erdaldunetan bizi direla aipatu beharra dago (%32,5); eta ostera, herri euskaldun euskaldunetan bizi direnak, hau da, biztanleriaren %70 edo gehiago euskaldunak diren horietan bizi direnak, elkarriketatuen gutxiengoa dira (%16). Tarteko bi zonalde soziolinguistikoek pareko ordezkartza lortu dute: %25,8 euskaldunak biztanleriaren %25-49 direnak eta %25,7 euskaldunak biztanleriaren %50-69 direnak.

Galdesortako erantzuleen **ikasketa-maila** hizpide hartuta, aipatzekoa da elkarriketatuen %32,2k goi mailako ikasketak dituztela. Erdi goi-mailako ikasketak dituztenak, berriz, %19,8 dira. Goi-mailako batxilergoa dute %19,3k eta lanbide heziketa %16,4k. Berriz, ikasketa-maila baxuak dituzten elkarriketatuen gutxiengoa dira: lehen hezkuntza dute %11,5ek eta bat ere ikasketarik ez %0,8k. Hortaz, orokorrean elkarriketatuen ikasketa-maila nahiko altua dela baieztatu daiteke. **Lan egoerari** arretaz jarritz gero, autonomo eta enpresa pribatuetako langileak gailentzen dira, elkarriketatuen %43,3 direlarik. Administrazio eta enpresa publikoetako langileak, ostera, gutxiago dira, elkarriketatuen %17,8. Elkarriketa burutu zenean elkarriketatuen %15 langabezian zegoen. Bestalde, elkarriketatuen artean ikasleen kolektiboa ere handia izan da (%22,1), ez ostera etxeko lanetan dihardutenena (%0,5) eta aurre-jubilatuta edota pentsiodun direnena (%0,4). Bestalde, **diru-sarreraren** gainean ere galdetu zaie elkarriketatuei eta

gehiengo nagusiak diru-sarrera ertainak dituela baieztatu du, hain zuzen, %68,1k. Diru-sarrera nahiko altuak eta nahiko baxuak dituztela baieztatu dutenak antzeko ehunekoak bildu dituzte, %15,8 eta %11,6, hurrenez hurren. Berriz, diru-sarrera oso baxuak dituztela elkarriketatuen %1,5ek bakarrik baieztatu du. Dena dela, hainbat ikerketak dagoneko aditzera eman duten moduan, diru-sarreraren inguruko galderetan jendeak beraien burua posizio ertainetan kokatzeko joera izaten du. Hori dela eta, datuok kontu handiaz erabili behar dira.

Ideologia politikoa hizpide hartuta, aipatzekoa da **ezkerrak eskumarekiko** bereganatu duen presentzia nabarmena¹. Elkarriketatuen erdiak (%47,1) ezkertiarzat jo du bere burua, eskuindartzat, berriz, %5,1ek soilik. Zentroan kokatu dira elkarriketatuen %29,6. **Abertzaletasunari** dagokionean, elkarriketatuen gehiengoa abertzale sentitzen da²: erdizka abertzale elkarriketatuen %36,4 eta oso abertzale %35,9. Ez abertzale moduan definitutakoak %10,1 bakarrik izan dira. Ideologia politikoaren bi aldagaiok aipatzerakoan, inportantea da azpimarratzea elkarriketatu askok ez dutela galdera erantzun nahi izan: ezker-eskumari lotutako galderan elkarriketatuen %17,5ek eta abertzale-ez abertzale galderan %18,3k.

7.2. Analisia

Datu kuantitatiboaren analisiari zuzendutako atal honetan, galdegai izan ditugun edukien maiztasunak izango dira aztergai. Era berean, edukiok aldagai soziodemografikoe-kin gurutzatuko dira, ezaugarri soziodemografikoen arabera bereizitako taldeen artean ezberdintasunik dagoen ezagutzeko. Aipatu beharra dago, aldagai soziodemografiko emankorrenak adina eta gune soziolinguistikoa izan direla. Alegia, euskal hiztun berrien adinak eta beraien bizilekua lekutzen den gune soziolinguistikoak modu erabakigarrian baldintzatzen dituzte hiztun berrien erantzun asko. Sexua ere aldagai esanguratsua suertatu da zenbaitetan.

7.2.1. *Euskararen ikaste prozesua: eskola, euskaltegia eta kalea/ lagunartea*


Azterketa kualitatiboak aditzera eman digu, euskal hiztun berriek euskara ikaste prozesu ezberdinak jarraitu dituztela; batzuk eskolan, beste batzuk euskaltegian eta zenbaitek kale giroan. Elkarriketatuei txikitan (12 urte bete arte) zein eredutan ikasi zuten galdetu

¹ Erantzuleei 0-10eko eskalan kokatzeko eskatu zaie, 0 ezker muturra eta 10 eskuin muturra izanik. Erantzunak hiru multzotan banatu dira: 0-3 ezkertiarak, 4-6 zentrokoak eta 7-10 eskuindarra.

² Erantzuleei 0-10eko eskalan kokatzeko eskatu zaie, 0 batere abertzalea ez eta 10 oso abertzalea izanik. Erantzunak hiru multzotan banatu dira: 0-3 ez abertzale, 4-6 erdizka abertzale eta 7-10 oso abertzale.

zaie (G10) eta %62,2k eskolan, D zein B ereduetan, euskara ikasteko aukera izan dutela baieztatu dute. Berriz, euskaltegi zein barnetegietan aritutakoak elkarriketatuen %55 izan dira; eta kalean edota lagunartean euskara ikasi izana adierazi dutenak %36,5. Hortaz, orotara, irakaskuntza formalak informalari aurrea hartu dio. Dena dela, kontuan hartu behar da elkarriketatu askok modu batean baino gehiagotan ikasi dutela euskara, bada izan da murgiltzean arituta ere euskaltegira joan denik, euskaltegiko ikasketa giro informalagoetako ikasketarekin konbinatu duenik, eta abar.


Azterketa kualitatiboak aurreratu digun moduan, euskararen ikaste prozesuan ezberdintasunak handiak dira **adinaren** arabera (ikus 3. grafikoa).



la gazte denek euskara eskolan jaso dute, %65,6k D ereduari eta %27,5ek B ereduari, eta helduen kasuan, berriz, euskaltegia izan da ikaste modu nagusia. Hortaz, adinean gora egin ahala eskolaren presentziak behera egiten du eta euskaltegiarenak gora. Hori horrela, gazteen artean euskaltegira joan direnen ehunekoa esanguratsua da benetan (%37,2); are gehiago, adin-tarte horretan eskolan A ereduari ikasi dutenak %5,4 bakarrik direla jakinik. Datu horiek aurretik aipatutakoa baieztatzen du, hain zuzen, gazte euskal hiztun berriek eskolako ikasketa euskaltegikoarekin sendotzen dutela sarri.

Bestalde, euskara kalean edota lagunartean ikasi dutela gutxiagok aipatu dute, eta are gutxiago gazteek. Datu hori ez da harritzekoa kontuan hartuta gaur murgiltzean euskaldundutako gazte gehienak testuinguru nahiko edo oso erdaldunean bizi direla.


Illo horretan, azpimarratzekoa da kalean edota lagunartean ikasteko aukera **gune soziolinguistiko** oso euskaldunetan (+%70 euskaldunak) bakarrik gertatzen dela modu nabarian (ikus 4. grafikoa).



Horrela, herri oso euskaldunetan bizi diren elkarriketatuen %73,3k kalean edota lagunartean euskara ikasteko aukera izan duela baieztatu duen bitartean, gainontzeko gune soziolinguistikoetan ehuneko hori erdira jaitsi da; baita gune nahiko euskaldunetan ere. Hau da, euskara kalean edota lagunartean ikasteari begira, ez dirudi aldea dagoenik gune oso erdaldunean (–%25 euskaldunak) eta gune nahiko euskaldunen artean (%50-69 euskaldunak).

Sexua aintzat hartuta ere, agerian geratu dira emakumezko eta gizonezkoen arteko ezberdintasunak euskara ikaste prozesuan (ikus 5. grafikoa). Gizonezkoen artean gehiago izan dira eskolan euskara ikasi dutenak (%66,2) eta kalean edota lagunartean euskara ikasteko aukera izan dutenak (%42); emakumezkoen artean, berriz, euskaltegiara joandakoen ehunekoa gizonezkoena baino 20 puntu handiagoa izan da (%66,1). Azken datu hori ulertzeko administrazio eta hezkuntza lan sektoreen *feminizazioan* arreta jarzea komeni da. Alegia, euskara ezagutzea hizkuntza betekizuna den lanpostuetan ema-

kumezkoak gizonezkoak baino gehiago direla, eta ondorioz, hizkuntza eskakizuna lortzeko emakume gehiagok jo dutela euskaltegira.




7.2.2. Euskara gaitasuna

Azterketa kualitatiboak erakutsi digu hiztunaren euskara gaitasunak, bai gaitasun objektiboak bai gaitasun auto-hautemanak, eragin handia duela, besteak beste, hiztunaren euskara erabileran zein hizkuntza-identitatean. Gainera, zelako euskara egiten duten ere (bataua baino ez ala euskalkia ere; kaleko euskara bai ala ez) garrantzitsua da. Horregatik, ikerketa kuantitatiboan ere elkarriketatutako hiztun berriek beraien gaitasunari buruz dituzten pertzepzioak neurtu nahi izan dira; alegia, euskaraz ondo komunikatzeko gaitasuna noiz lortu zuten, beraien euskara gaitasunarekiko zein asebetetze maila duten eta zelako euskara egiten duten.

7.2.2.1. EUSKARAZ ONDO KOMUNIKATZEKO GAITASUNA BEREGANATZEKO ADINA

Euskal hiztun berri guztiek euskara familiatik kanpo ikasi dute, baina noiz eta nola? Elkarriketatuei, beraien iritziz, euskaraz ondo komunikatzeko gaitasuna zenbat urterekin lortu zuten galdetuta (G13), erdiak baino gehiagok gaitasuna 2 eta 15 urte bitartean bereganatu zutela adierazi dute (ikus 6. grafikoa). Beste laurden batek 16 eta 25 urte bitartean

eskuratu dute. Esan daiteke, beraz, gure elkarriketatuen artean euskalduntzea adin goiztiarrean edota gaztaroan eman dela nagusiki.




7.2.2.2. NORBERAREN EUSKARA GAITASUNAREKIKO ASEBETETZE SENTIMENDUA

Elkarriketatuek beraien euskara gaitasunarekiko duten asebetetze-maila aztertu aurretik, komeni da gogoratzea ikerketan euskara gaitasun aurreratua duten hiztun berriak bakarrik izan direla aztergai eta gaitasun hori ziurtatzeko galdetegiaren hasieran iragazki galdera bat burutu zaiela euskara nola hitz egiten duten galdetuz (G3)³. Elkarriketa erantzun aukeren artean *ongi* ala *nahiko ongi* erantzun dutenei bakarrik burutu zaie, kanpoan utziz *zertxobait*, *hitz batzuk* ala *ezer ez* erantzun duten guztiak.

³ Gainera, galdesorta amaitutakoan inkestagileak hizkuntzari dagokionez elkarriketa nola joan zen baloratu zuen (G30), ondoko aukeren artean: 1. euskaraz inolako zailtasunik gabe, 2. euskaraz zailtasun txikiekin (behin edo behin gaztelania tartekatuz), 3. euskaraz zailtasun batzuekin (zenbaitetan gaztelania tartekatuz). Elkarriketa guztien %79,3 inolako zailtasunik gabe egin ziren; %14,8 zailtasun txikiekin; eta %5,9 zailtasun batzuekin.

Elkarriketatuek beraien euskara gaitasunarekiko duten asebetetze maila ezagutzeko beraien euskara mailarekin zenbateraino dauden gustura galdetu zaie (G16). *Oso gustura* daudela elkarriketatuen %22,3k bakarrik baieztatu du eta, berriz, elkarriketatuen erdia baino gehiago izan dira (%53,3) *nahiko gustura* daudela adierazi dutenak (ikus 7. grafikoa).



Pentsatu daiteke, oso gustura eta nahiko gustura, biak direla erantzun positiboak gaitasun auto-hautemana neurtzerakoan. Zentzu horretan, kezkarriagoa da, beraz, ez oso *gustura* eta *batere gustura ez* erantzun aukerak bereganatu duten %24,5 azpimarregarria. Aipatzekoa da, beraien euskara mailarekin ez oso *gustura* edo *batere gustura ez* daudela baieztatu dutenek oztopo handienak ahozkoan eta euskara landuan sentitzen dituztela. Alegia, idatzizko euskararekin baino ahozkoarekin dituztela zailtasun gehiago, eta lagunarteko hizkerarekin baino euskara landuarekin (G17). Datuok azterketa kualitatiboarekin bat datoz ahozko hizkuntzari dagokionean. Ostera, idatzizko euskara landuarekiko zailtasunak ez dira atera ikerketa kualitatiboan.


Elkarriketatuek duten euskara mailarekin agertzen dute asebetetze maila **adinarekin** gurutzatuz gero, adin taldeen artean ez dago ia ezberdintasunik; **sexuari** dagokionez, berriz, gizonezkoak emakumezkoak baino pixka bat gusturago daudela esan daiteke. Hala ere, azpimarragarriena **herri oso euskaldunetan** bizitzeak hitzun berrien eus-

kara gaitasunaren gogobetetzean duen zeresana da; izan ere, biztanleriaren %70 baino gehiago euskalduna den herrietan, beraien euskara mailarekin oso gustura dauden ehunekoa 41,1era igotzen da, batez besteko orokorra %22,3 izanik.

7.2.2.3. ZELAKO GAITASUNA: BATUA, EUSKALKIA, KALEKO EUSKARA


Gaitasunari buruz hitz egiterakoan, norberaren asebetetze maila ezagutzeaz gainera, interesgarria da argitzea hiztun bakoitzak zelako euskara egiten duen; hau da, batua baino ez, lekuan lekuko hizkera eta erregistro aldakortasuna duen ala ez. Ezaugarri hauek ikasketa prozesuarekin eta hiztuna bizi den testuinguru soziolinguistikoarekin daude lotuta. Izan ere, ikaskuntza formalean sarri batua baino ez denez irakasten, lekuan lekuko aldaerarik ez dagoen testuinguruan hiztunak batua bakarrik ikasteko aukera izan ohi du; ostera, euskalkia dagoen testuinguruan bizi den hiztunak aldaera biak ikasi eta erabili ditzake.

Elkarriketatuei euskara batua, bizi diren herriko edo inguruko euskalkia eta lagunarteko edo kaleko hizkera kolokiala zenbateraino menperatzen duten galdetu zaie (G15). Ekarrizketatuen gehiengoak batua menperatzen dutela baieztatu du; zehazki, %84,7 dira batua ondo edo nahiko ondo menperatzen dutenak (ikus 8. grafikoa).



Batua ondo menperatzen dutela gehiago esan dute **gazteenek** (%56,6) eta **emakumeek** (%53,4). Ez da harritzekoa, eskola gehienetan irakasten den aldaera batua baita, eta aurretik aipatu den moduan, emakumeen artean gehiago izan dira euskaltegian ibilitakoak, non beste behin, batua den irakatsitako aldaera. Bestalde, **gune soziolinguistikoari** arreta jarritz gero, euskara batuaren menperatze maila txikiena herri euskaldunetako hiztun berriek dute, biztanleriaren %70 baino gehiago euskaldunak diren herrietako hiztunek, alegia.


Herriko edo inguruko euskalkiari dagokionez (G15b), ondo edo nahikoa ondo dakitela esan duten hiztun berrien kopurua txikiagoa da, batuaren ezagutzarekin konparatuta: %58,4. Herriko edo inguruko euskalkiari buruz galdetzerakoan, daturik aipagarrienak **gune soziolinguistikoari** lotuak daude (ikus 9. grafikoa).



Espero daiteken moduan, euskalkia oso zabalduta dago herri oso euskaldunetan; eta oster, gainontzeko zonalde soziolinguistikoetan aukera hori murriztagoa da. Datu azpimarragarriena baina euskalduna biztanleriaren %25 baino gutxiago den herrietan bizi diren elkarriketatuek agertu dute. Horietatik %41,6k bizi diren herriko edo inguruko euskalkia ongi ala nahikoa ongi hitz egiten dutela baieztatu dute. Baina he-

rriko edo inguruko euskalkiaren menperatze maila benetan horren altua izango da zonaldeotan? Ez dirudi. Ehuneko handi horren zergatia ulertzeko, batetik, galderaren formulazioari eta, bestetik, hiztun berriek duten euskalkiaren errepresentazioari jarri behar zaie arreta. Galderak horrela zioen: «Zenbateraino menperatzen duzu bizi zaren herriko edo inguruko euskalkia?» Posible da erantzule batzuk, beraien herrian euskalki propiorik ez dagoela jakinda ere, herrian egiten den euskara motaren arabera erantzun izana galdera. Adibidez, zenbait erantzulek zera pentsatu izana: «nire herrian batua hitz egiten da eta nik ongi menperatzen dut batua». Hortaz, galderaren formulazioa partaide batzuentzat desegokia izan daiteke. Bestalde, pentsatzekoa da euskalkiaren errepresentazioa lekuan-lekuan aldatu daitekeela, alegia, izan daiteke herri oso euskaldunean bizi denak eta herri oso erdaldunean bizi denak euskalki moduan identifikatutakoa ezberdina izatea. Horren ondorioz, erantzunak interpretatzerakoan kontuz ibiltzea komeni da.

Bestalde, **lagunarteko edo kaleko hizkeraren** menperatze maila hizpide hartuta, elkarriketatuen erdia inguruk (%48,9) adierazi du hizkera «kolokial» hori ondo menperatzen duela, herri oso euskaldunetako hiztun berriak izanik menperatze maila handiena adierazi dutenak (ikus 10. grafikoa). Dena dela, eta euskalkiarekin gertatu den antzera, elkarriketatuek galdera nola interpretatu duten ez da ziurra. Posible da hiztun berria bizi den zonalde soziolinguistikoaren arabera lagunarteko edo kaleko hizkera modu ezberdinean irudikatzea. Gainera, kaleko hizkeraren menperatze mailaren datu kuantitatibo



altuek ez dute bat egiten azterketa kualitatiboan batutako bizipen askorekin. Eztabaidataldeetan behin baino gehiagotan adierazi zen gune ez euskaldunetako partaideen etsipena kaleko hizkera informala ez menperatzeagatik (ikus 3.3. atala).

Elkarriketatuen ikasketa prozesuari eta gaitasunari zuzendutako atal honi amaiera emateko, interesgarria da beraien gaitasunarekin oso gustura daudela aipatzen duten euskal hiztun berrien profil txiki bat burutzea. Osotara, hiztun berri hauetatik %58,4k D ereduan ikasi du, %59,9k euskalkian ondo aritzen dela baieztatzen du eta %67,6k lagunarteko hizkera ere ondo menderatzen duela dio. Beraz, pentsatu daiteke murgiltze ereduan ikastea eta euskalkia zein kaleko hizkera menperatzea banakakoaren gaitasuna modu baikorrean hautemateko aldagai garrantzitsuak direla.


7.2.3. *Euskara ikasteko motibazioak eta euskara ikasteak ekarritako sariak*

7.2.3.1. EUSKARA IKASTEKO MOTIBAZIOAK

Zerk bultzatu ditu euskal hiztun berriak euskara ikastera? Zeintzuk izan dira haien motibazio-iturri nagusiak? Auzi hau euskara heldutan, 16 urtetik gora, ikasi dutenen artean arakatu da (gainontzeko elkarriketatuek eskolan umetan ikasi zuten eta, beraz, erabakia haien gurasoek hartu zuten). Honako galdera luzatu zaie: «Zenbateko garrantzia izan dute ondoko motibo hauek zuk euskara ikasteko?» (G14). Galdetegian hainbat motibazio ezberdin zerrendatu zaizkie eta bakoitza 0tik 10erako garrantzia eskala batean kokatzea eskatu, non 0 *batere garrantzirik ez* eta 10 *oso garrantzia handia* diren. Motibazio zerrenda azterketa kualitatiboko partaideek aipatutako arrazoi ezberdinetan oinarritu da eta, bere baitan, izaera identitarioko, integratzaileko zein instrumentaleko arrazoiak planteatu dira. Emaidza orokorrak 11. grafikoan ageri dira.

11. grafikoa

Euskara ikasteko izandako motibazioak (batez bestekoak)



Orokorrean, garrantzirik handiena motibazio identitarioek bereganatu dute. Alegia, euskara ikasteko motibazio nagusiak *euskara Euskal Herriko hizkuntza izatea, euskal munduaren parte izateko* hiztun berriak duen nahia zein euskara *bere identitatearen parte sentitzea* izan dira. Euskara seme-alabei transmititzeko ikastea ere oso motibazio indartsua izan da gure elkarrizketatuen artean. *Lanean aukera gehiago izateko* motibazioa, izaera instrumentalduna, ere inportantea izan da, nahiz eta neurri txikiagoan. Ostera, motibazio integratzaileagoak, alegia, *bizi diren herrian integratzeko, lagun euskaldunak dituztelako, bikotea edota bikotearen familia euskalduna delako* ez dira, batez bestean, euskara ikasteko horren motibazio indartsu izan; ezta euskara behartuta ikastea ere.


Motibazioak **sexuaren** arabera aztertuz gero, datu aipagarriena zera da: lanean aukera gehiago izateko eta behartuta sentitu direlako euskalduntzea motibazio apur bat garrantzitsuagoa izan direla emakumeentzako gizonentzako baino: 7,34 vs. 5,68 eta 4,7 vs. 3,93, hurrenez hurren. Badirudi, euskararen ezagutza eskaera moduan ezartzen duten lanbideen feminizazioa, beste behin, agerian gelditu dela.

Gune soziolinguistikoari arreta jarritz gero, aipagarria da hiztun berria bizi den herriaren euskaldun kopuruak ez duela eraginik hiztunek euskara ikasteko dituzten motibazio identitarioetan, bai ostera integratzaileetan. Horrela, biztanleriaren %70 baino gehiago euskalduna den herrietan bizi diren euskal hiztun berriek motibazio integratzaileei es-

kaini dieten garrantzia batez bestekoarekin konparatuz altuagoa izan da. Esaterako, bizi diren herrian integratzeari 7,39ko puntuazioa eman zaio herri oso euskaldunetan eta batez bestean 5,81. *Lagunak euskaldunak direlako* erantzunari 6,42, batez bestekoa 4,73 izanik. Datuok ez dira harritzekoak, gune oso euskaldunetan euskararen balio integratzailea handia delako.

7.2.3.2. EUSKARA IKASTEAK EKARRITAKO «SARIK»

Euskara ikasteko euskal hiztun berriek izan dituzten motibazioak ezagutzeaz gainera, ikasi ostean euskara ezagutzeagatik onura edo «saririk» izan duten jakitea ere interesgarria da oso. Hori ezagutzeko, eta azterketa kualitatiboko partaideek mahai gainera-tutako sariak aintzat hartuta, galdera multzo bat egin zaie hurrengoa itaunduz: «Euskara ikasteak zenbat lagundu dizu [honakoetan]?» (G18a-h). Erantzun-aukerak lau kategoriako eskala batean bildu dira: laguntza *asko*, laguntza *nahikoa*, *gutxi* eta *baterere* ez; eta euskara ikasteko izandako motibazioen kasuen antzera, galdera-sorta honetan ere izaera identitario, integratzaile eta instrumentaleko edukiak bildu dira.



12. grafikoak argiro erakusten duen moduan, elkarrizketatuek galdetegian proposatutako sari guztiak baloratu dituzte; *asko* eta *nahikoa* erantzun aukerek bereganatu dituzten ehuneko handiak begiratzea besterik ez dago. Dena dela, sarien artean izan da ezberdintasunik. Saririk indartsuena euskara ikasteak hiztun berriei ekarri dizkien *sentimendu positiboak* —poza, harrotasuna, asebetetzea— izan dira (%89); eta berriz,

gutxien aukeratutako saria *lan aukera gehiago edo hobeak izatea*, nahiz eta ehuneko esanguratsuekin (%63). Lanari lotutako azken datu horrek aditzera ematen du, laneratzeari begira euskarak baduela baliagarritasuna, hautemana behinik behin, baina ez beste sariak bezain besteko indarra; agian, lanean diharduten hiztun berri ugari ez dutelako errealitatean euskara lanerako behar.


Bestalde, motibazioetan ikusi den antzera, euskara ikasteak sortutako sentimendu positiboekin konparatuz, harremanak izan eta integrazioa hobetzeko euskarak laguntza gutxiago eskaini die elkarriketatutako euskal hiztun berriei (%65,1). Baliteke, euskararen egoera gutxituak bere beharrezkotasun soziala murrizten duelako; alegia, herritar guztiak gaztelania hiztunak izanik, euskara ez delako beharrezkoa benetan pertsona berriak ezagutu edota integratua sentitzeko. Hala ere, aipagarria da balio integratzaile eta identitarioen tartean kokatu daitezkeen *euskaldunekin hurbilago sentitzea* zein *euskararen munduan sartzea* sariak oso baloratuak izan direla; baita sari erabat identitarioak ere.

Euskara ikasteak ekarritako sariak mailakatzerako orduan, orokorrean, **adinaren** arabera ez da ezberdintasun esanguratsurik aurkitu. Diferentzia aipagarri bakarra euskara ikasteak lan aukera gehiago edo hobeak izatean lagundu dien mailakatzerakoan agertu dira. Gazte asko oraindino lanean hasi barik daudela ahaztu gabe, 38-55 urte bitartekoak izan dira beraien laneratzerako euskarak izan duen garrantzia gehien baloratu dutenak. Zehazki, adin-tarte horretako elkarriketatuen %50,9k baieztatu du *asko* lagundu diela euskarak lan aukera gehiago edo hobeak izaten —batez bestekoa %41,9n geratu da—. Horren arrazoietakoa bat, euskararen ezagutza gehien antzean baloratzen den herri administrazio zein hezkuntzan lanean diharduen euskal hiztun berri gehienak adin-talde horretan kontzentratzen direla izan daiteke.

Sexuari dagokionean ere, euskarak ekarritako sariak identifikatzerakoan, gehienetan, ezberdintasunak txikiak izan dira; bitan izan ezik. Emakumezkoek euskarak euskal munduan sartzeko eskaini dien laguntza gizonetakoek baino gehiago baloratu dute; asko lagundu diela %60k eta %50ek baieztatu dute, hurrenez hurren. Halaber, diferentziarik nabarmenena lanari lotutako sarian mahai gaineratu da. Emakumezkoen %53,1ek euskarak beraien lan aukerak gehitzen edo hobetzen asko lagundu diela baieztatu dute; gizonetakoek kasuan %30,7 izan dira. 20 puntu portzentajezko ezberdintasuna bi sexuen artean, beraz. Berriz ere, euskara eskakizun den lanpostuen feminizazioa jo daiteke diferentzia horren zergatietako bat moduan.

Gune soziolinguistikoaren arabera ezberdintasunak hizpide hartuta, banaketa biztanleriaren %70 baino gehiago euskaldunak diren herrietan bizi diren euskal hiztun berrien eta gainontzekoen artean adierazi da. Herri oso euskaldunotako elkarriketatuek sari guztietan euskara ikasteak sentimendu positiboak ekarri dizkiela adierazten dutenean salbu, puntuazio altuagoa bereganatu dute beste guneetakoek baino; alegia, gehiago baloratu dituzte sariak, lagungarriagoak egin zaizkie. Dena dela, ezberdintasunik handienak integrazioarekin lotutako sarietan eman dira. Horrela, herriotako euskal hiztun berri elkarriketatuen %60,2k euskarak harremanak izaten edota integrazioa

hobetzen asko lagundu diela baieztatu dute —batez bestekoa %30,1 izan da—; eta hemengoa sentitzen asko lagundu diela %71,3k —batez bestekoa %58,1 izan da—.




Bestalde, elkarriketatutako hiztun berrien euskal **abertzaletasun** sentimenduaren arabera euskara ikasteak eskaini dizkien sariak modu ezberdinean baloratzen dituzten ezagutzeak interes berezia dauka. Esan daiteke badagoela abertzaletasunaren araberrako joera bat. Alegia, zenbat eta abertzaleago sentitu orduan eta balorazio handiagoa jasoko dute euskara ikasteak ekarritako sariak, salbu eta izaera instrumental argia duen lan aukera gehiago edo hobeak izateak. Era berean da aipagarria, euskara ikasteak ekarritako sentimendu positiboak asko baloratu direla hiru taldeetan, abertzale ez direnen artean ere. Horien %78k euskara ikasteak sentimendu positiboak ekarri dizkiela adierazi dute.

7.2.4. Euskara erabilera-patroiak

Azterketa kualitatiboak erakutsi du hiztun berriek euskara erabilera-patroi ezberdinak dituztela. Azterketa kuantitatiboan ere erabilera-patroi horien gainean sakondu da. Horretarako, elkarriketatuek euskara zenbat, norekin eta zein esparrutan erabiltzen duten ezagutu nahi izan da; eta baita, erabilera hori oztopatzen ala laguntzen duten faktore nagusiak zeintzuk diren.


7.2.4.1. EUSKARAREN ERABILERA-MAILA

Euskara ikasi eta ezagutzeak bere erabilera bermatzen ez duela gauza ezaguna da; eta gure ikerketa kualitatiboan ere argi agertu da. Eskuaratean dugun azterketa kuantitatiboa errealitate hori berrestera dator. Galdesortan honako galdera planteatu zaie elkarriketatuei: «Egun normal batean, zein neurritan erabiltzen duzu euskara?» (G21). Erantzuleen %30 inguruk euskara erdara bezainbeste edo gehiago erabiltzen dutela adierazi du, %70 inguruk, berriz, erdaraz euskaraz baino gehiago edo erdara beti ala ia beti (ikus 14. grafikoa).



Erabilera datuok **sexu**, **adin** eta **gune soziolinguistiko**arekin gurutzatuz gero, orokorrean, ehunekoak erabilera-maila guztietan aldaketa txikiekin eta nahiko egonkor mantentzen direla baieztatu daiteke; herri oso euskaldunetan salbu, biztanleriaren %70 baino gehiago euskaldunak direnetan, non euskara erdara bezainbeste edo gehiago erabiltzen dutenak %59,8 diren.

Azterketa kualitatiboak euskara-erabileraren arrazoietakoa bat hiztunaren gaitasunaren auto-pertzepzio mugatua izan dela erakutsi du; neurketa kuantitatiboak datu hori berretsi du (ikus 15. grafikoa).




Aurreko 15. grafikoak erakusten duen moduan, euskara gehiago darabilte beraien gaitasun mailarekin *oso gustura* eta *nahiko gustura* dauden hiztun berriak. Ildo horretan, azpimarratzekoa da beraien gaitasunarekin *oso gustura* dauden euskara-erabilera ugaria: %28,4k euskara erdara baino gehiago darabiltela adierazi dute, eta %29k euskara erdara bezainbeste. Bestalde, aipatu beharrekoa da, beraien gaitasunarekin *ez oso gustura* edo *batere gustura* ez daudenek erabiltzen dutela euskara gutxien. Azterketa kualitatiboan azaldu den bezala (ikus. 4.2.3. atala), pentsa liteke erabilera eta gaitasunaren artean lotura zuzena eta norabide bikoia dela: gaitasun murriztuak erabilera mugatua dakar, eta alderantziz, gaitasun handiak erabilera ugaria. Hortaz, erabilerari begira funtsezkoa dirudi norberaren gaitasunarekin gustura egotea.

7.2.4.2. EUSKARAREN ERABILERA OZTOPATZEN DUTEN FAKTOREAK

Euskararen erabileraren kontra eta alde egiten duten faktore nagusiak zeintzuk diren jakite aldera, galdera bikoitza burutu da; batetik, egunerokoan beti (edo ia beti) erdaraz zein erdaraz euskaraz baino gehiago hitz egiten duten elkarrizketatuei euskararen erabilerarako oztopagarri izan daitezkeen hainbat elementu proposatu zaizkie, beraien esperientzian traba izan dituzten ala ez adierazi dezaten; bestetik, egunerokoan euskara erdara bezainbeste edo gehiago darabilten elkarrizketatuei erabilera hori erraztu dezaketen elementuak proposatu zaizkie, beste behin, beraien esperientzian lagungarri izan zaizkien ala ez esan dezaten. Bigarren puntu hau hurrengo atalean landuko da (7.2.4.3. atalean).

Egunerokoan beti edo ia beti erdaraz eta erdaraz euskaraz baino gehiago egiten dutela baieztatu duten elkarrizketatuak 400 izan dira. Horiei ondorengo galdera egin zaie: «Zer dela eta erabiltzen duzu gutxi euskara?» (G23a-g).

Euskararen erabilera oztopatzen duten faktoreen artean, gaztelaniaz hitz egiteko ohi-tura eta inguruan ez hitz egitea nabarmendu dira gehien. Hau da, ikerketa kualitatiboan identifikatu diren ohi-tura falta (ikus 4.2.2. atala) eta testuingurua (ikus 4.1.1. atala). Bestalde, eta arestian esandakoaren haritik, hitz egiteko erraztasun falta egunerokoan euskara gutxi darabiltenen erdiak agertu du faktore oztopotzaile moduan. Datu positibo moduan zera aipatu daiteke: hiztun gutxi izan direla erabilerarako faktore mugatzaile moduan euskarari eskainitako garrantzia txikia aipatu dutenak.




Dena dela, oztopoak modu ezberdinean agertzen dira euskal hiztun berria emakumezkoa ala gizonezkoa den, gaztea ala helduagoa den, etab. Zentzu horretan, eta elkarriketatuen **sexua** aintzat hartuta, azpimarratzeko modukoa da emakumeentzako gizonezkoentzako baino faktore oztopagarri argiagoa dela euskaraz hitz egiteko duten erraztasun falta (%52,6 vs. 46,4). Izan liteke, beste ikerketa batzuetan aurkitu den moduan, emakumeek hizkuntza ziurtasun-eza handiagoa izatea. Argudio ildo horretan legoke emakumezkoek hizkuntza egokitasunari begira euren buruari exigentzia handiagoa eskatzea.

Elkarriketatuen **adinaren** arabera ez da diferentzia esanguratsurik aurkitu, euskaraz egiteko erraztasun faltan salbu. Helduenek (38 eta 55 urte bitarteko elkarriketatuak) euskaraz hitz egiteko erraztasun falta handiagoa agertu dute gazteenek baino (18-26 urte bitartekoak). Era berean, deigarria da ohitura adin-talde guztietan oztopo oso garrantzitsua izanik (%92,5entzat) ere, are handiagoa izatea gazteentzat (%97,2rentzat).

7.2.4.3. EUSKARAREN ERABILERA LAGUNTZEN DUTEN FAKTOREAK

Egunerokoan euskara erdara baino gehiago edo erdara bezainbeste erabiltzen duten elkarriketatuei, 212 guztira, beraien euskara-erabilera errazten duten faktoreen gainean galdetu zaie, hurrengoa galdetuta: «Zer dela eta erabiltzen duzu asko euskara?» (G22a-e). Emaitzak 17. grafikoan ikusi daitezke.



Euskara asko darabiltenentzako jarrera proaktiboa (aukera denak aprobetxatzea), sa-reak eta gaitasun ona izatea faktore klabeak dira euskara egunerokoan erabiltzeko. Berriz, testuinguru soziolinguistiko mesedegarria izatea ez dute faktore lagungarri moduan horrenbeste hiztunek aukeratu. Zergatik? Testuingurua ez delako garrantzi-tsua? Ez; izan ere, EAEko errealitate soziodemografikoa kontuan harturik, biztanleria-ren gehiena ez da bizi gune oso euskaldunetan eta, beraz, faktore hau ez da hiztun berri askorentzat adierazgarria. Egitez, datuok testuinguru soziolinguistikoarekin gu-rutzatuz gero, agerian geratzen da gune soziolinguistikoa bai dela faktore lagunga-rria. Izan ere, herri oso euskaldunetan, %70 baino gehiago euskaldunak diren herrie-tan, bizi diren hiztun berri gehien-gehienek baieztatu dute herrian asko hitz egitea faktore lagungarria dela euskara erabiltzeko. Halaber, testuinguru mesedegarriotan herriko hizkera menperatzeak ere gainontzeko testuinguruetan baino garrantzia han-diagoa bereganatu du.

Bestalde, euskara erabiltzeko faktore lagungarriak eta oztopotzaileak hizpide hartuta, merezi du une batez **gazte**engan arreta jartzeak. Gazteen %32,3k euskara kolokiala ez izatea oztopo moduan bizi dute; beste adin-taldeek baino gehiago. Datu horrek zera eman dezake aditzera: gazteen kasuan hizkuntza bat erabiltzeko erregistro ez formala ezagutzeak inportantzia handia duela.


Euskararen erabilera oztopatzen eta laguntzen duten faktoreak kontuan hartuta, inter-sgarria da hausnarketa txiki bat burutzea. Aurretik aipatu dugun moduan, euskararen erabilera oztopatzen duen faktore nagusia euskaraz egiteko hiztunen ohitura-falta da eta faktore lagungarri nagusia, berriz, erabiltzeko aukera guztiak aprobetxatzea. Horrek zer ematen du aditzera? Euskararen erabilerarako gako inportantea hiztunaren esku da-goela, alegia, bere jarrera proaktibo ala erreaktiboan. Horrela, hiztunak jarrera proakti-boa badu eta euskaraz jarduteko aukera guztiak aprobetxatzen baditu, euskara erabiliko du; eta alderantziz, ohitura-falta gailentzen bada, euskaraz egiteko aukerak murriztu egingo dira.

7.2.4.4. EUSKARA NOREKIN ETA ZEIN ESPARRUTAN ERABILTZEN DEN

Arestian ikusi dugu galdeketa parte hartu duten euskal hiztun berriek beraien egune-rokoan zenbat euskara erabiltzen duten. Baina zenbat erabiltzen duten jakiteaz gainera, norekin edota zein esparrutan erabiltzen duten jakitea ere inportantea da oso. Hori eza-gutzeko honako galdera burutu da: «Zein neurritan egiten duzu euskaraz ondokoekin/ondokoetan?» (G19a-g).


18. grafikoan ikusi daiteken moduan, elkarrizketatutako hiztun berriek beraien seme-alabekin erabiltzen dute euskara gehien. Emaiza hori bat dator Hizkuntzen Kale Erabile-raren Neurketan aurkitu den umeen aurreko erabilera-datu positiboekin (Soziolinguistika Klusterra 2011). Ostera, familiako gainontzeko kideekin erabilera asko jaisten da. Horren arrazoen artean egon daitezke familia-kideak euskaldunak ez izatea edo harreman- ohi-turak gatzelaniaz ezarrita egotea.

Bestalde, elkarriketatuen ia erdiak erabiltzen du euskara lankide eta ikaskideekin gaztelania beste, gutxienez. Lan-esparruan altua ematen duen datu hori elkarriketatuetatik hainbatek herri administrazioan eta hezkuntzan lan egiten dutelako, eta egun ikasten diharduten askok ikasketak euskaraz burutzen dituztelako izan daiteke.



Seme-alabekin eta lankide-ikaskideekin salbu, gainontzeko pertsona eta esparruetan euskara beti ala gehienetan egiten dutenen ehunekoa %10aren inguruan geratu da. Hori horrela izan arren, etxetik kanpoko harreman sozialetan, hala nola, denda eta tabernetan, aisialdian eta lagunekin, hizkuntza biak berdintsu erabiltzen dutenen ehunekoa kontuan hartzeko modukoa da (%22-28 bitartekoa).


Testuinguru soziolinguistikoari dagokionez, biztanleriaren %70 baino gehiago euskaldunak diren herrietako hiztun berrien artean asko dira *euskara beti*, *erdara baino gehiago* edo *erdara bezainbeste* erabiltzen dutenak, bereziki denda eta tabernetan eta aisialdian (ikus 19. grafikoa). Alabaina, euskaldunak %50-69 diren gunetako euskara-erabilera hurbilago dago euskaldunak %25-49 diren gunekoetatik %70 baino gehiago direnekoetatik baino, hau da, ez da ikusten zenbat eta gunee euskaldunagoa orduan eta erabilera handiagoa progresio argia.



Sexuari arreta jarritz gero, gizonezkoek emakumezkoek baino euskara-erabilera handiagoa egiten dutela baieztatu dute esparru eta pertsona guztiekin, lankide edota ikaskideekin salbu (ikus 20. grafikoa). Azken datu hori herri administrazio eta hezkuntza-munduko emakumeen presentzia handiagoaren ondorio izan daiteke, arestian aipatu den bezala.


20. grafikoa

Euskararen erabilera pertsona ezberdinekin eta testuinguru ezberdinetan sexuaren arabera (beti euskaraz + gehienetan euskaraz + bietan berdintsu, %tan)



Adin-taldeak aintzat hartuta eta 21. grafikoan ikus daitekeenez, item gehien-gehienetan erabilera txikiena dutenak gazteak dira; salbuespena lankide-ikaskideekin burutzen den euskara-erabilera izanik. Gazteek eskainitako datuok bat datoz gizartean dauden gazteen erabilerarekiko kezkekin; alegia, gazte gehienak euskaldunak izanda ere beraien euskara-erabilerak ez duela gora egiten.

Beraz, gazteen artean euskara ezagutza zabaltzeak ez du ematen gazteen erabileran eragin positiborik duenik. Zentzu horretan, merezi du gogoratzeak gazteen artean euskara ez erabiltzeko arrazoi moduan ohitura-faltak izan duen indarra. Zentzu horretan, pentsatu daiteke, ohitura aldatu ezean, gazteek nekez erabiliko dutela euskara gehiago beraien egunerokoan.




7.2.4.5. HIZTUN AKTIBO BIHURTZEA

Euskararen hiztun aktibo bihurtzeko prozesua ezagutze aldera, interesgarria da, euskararen alde ohitura-aldaketa burutu duten hiztun berriek aldaketa hori norekin eta bizitzako zein momentutan burutu duten ezagutzea.

Ohitura aldatzea

Hiztun berriek ohitura-aldaketarik egin duten ezagutzeko, eta egitekotan, norekin burutu duten jakiteko, ondorengo galdera luzatu zaie: «Euskara ikasi eta gero, ondorengo pertsonekin lehen erdaraz egitetik orain euskaraz egitera pasatu zara?» (G24a-f). Emaitzak 22. grafikoa biltzen dira.

⁴ 18 eta 26 urte bitarteko gazteen kasuan seme-alabekin egindako erabileraren ehunekoa ez da komeni kontuan hartzea, adin horretako oso gazte gutxi direlako guraso.




22. grafikoan ikusi daitekeen lez, elkarriketatuek ohitura linguistiko-aldaketa gehienak lagunekin edota lankide eta ikaskideekin burutu dituzte. Zehazki, elkarriketatuen erdiak baieztatu du lagun batzuekin euskaraz egitera pasatu dela, eta herenak lankide-ikaskide batzuekin. Ostera, familia barruko ohitura linguistikoen aldaketak ez dira horren ohikoak izan. Azken datu hori interpretatzerakoan kontuan hartu behar da ez dakigula gure elkarriketatuetatik zenbatek dituzten anai-arreba, bikotekide edo guraso euskaldunak. Hori horrela izanik ere, datuok zera iradokitzen dute: ohitura linguistikoa hurbil hurbileko pertsonekin aldatzea zailagoa dela. Bestalde, seme-alabekin burututako euskararen aldeko ohitura-aldaketak ere ehuneko txikia bereganatu du. Datu hori aztertzerakoan baina, kontuan hartu beharra dago, hiztun berri askok seme-alabei hasiera-hasieratik euskaraz hitz egin dietela eta, beraz, harreman-hizkuntza aldatzeko aukerarik ez dutela izan.

Gune soziolinguistikoa aintzat hartuta, hizkuntza-ohitura aldaketa gehien biztanleriaren %70 baino gehiago euskaldunak diren herrietan bizi diren elkarriketatuek burutu dituztela aipatu beharra dago (ikusi 23. grafikoa). Datu hori ez da harritzekoa. Baina tesuinguru soziolinguistikoari begira benetan interesgarria honakoa da: herri oso euskaldunetan bizi diren elkarriketatuen ostean ohitura-aldaketa gehien burutu dituztenak herri oso erdaldunetakoak, euskaldunak biztanleriaren %25 baino gutxiago diren herrietakoak direla. Datuok testuinguru oso erdaldunean bizi diren euskal hiztun proaktiboen presentzia erakusten digute, familia-harreman estuenetan ere *muda* linguistikoa burutzeko erabaki duten horiena.

23. grafikoa

Hizkuntza-ohitura aldaketa euskararen alde gune soziolinguistikoaren arabera (%)




Hiztun aktibo bihurtzeko bizi-momentuak

Elkarriketatutako hiztun berriak euskara modu aktiboan erabiltzen zein bizitzako momentutan hasi ziren ere ezagutu nahi izan da. Hori arakatzeko, elkarriketatuei bizitzako aldaketa-une konkretu batzuk proposatu zaizkie, eta beraietako bakoitza euskararen hiztun aktibo bilakatzeko lagungarri izan zaien ala ez galdetu: «Zure bizitzako zein momentutan eman zenuen euskara modu aktiboan erabiltzen hasteko pausua?» (G25a-k). Erantzun aukera moduan, bizitzako momentu ezberdinak eskaini zaizkie. Esan beharra dago, une biografikoez gainera «euskararekiko kontzientzia hartzea» erantzun-aukera ere gehitu dela, momentu biografiko jakin batekin lotuta ez dagoen arren, azterketa kualitatiboak euskal testuinguruan euskararen aldeko apustua egiteko inportantea dela aditzera eman duelako (ikus 4.4 atala). Erantzuteko aukera moduan «bai/ez» planteatu zaie.

Elkarriketatuek hiztun aktibo bilakatzea, alegia, euskararen aldeko *muda* egitea, ikas-kuntza espazioekin lotu dute neurri handi batean: eskolarekin, lehenengo, eta euskaltegi-barnetegiarekin, gero. Zalantzan gaude espazio horiek benetako mudantza sortu duten aipatu duten elkarriketatu guztiengan, hau da, eremu horietaz gain beste batzuetara hedatu duten euskara-erabilera.

Askoz datu interesgarriagoa da euskararekiko kontzientzia hartzeak zein presentzia handia bereganatu duen euskal hiztun aktibo bilakatzeko elementu moduan, azterketa kualitatiboak aurreratutako moduan (ikus 4.4. atala). Era berean, lagun euskaldunak egiteko unea ere garrantzi handiko moduan azaldu da elkarriketatuen erdiarentzako. (Ikus 24. grafikoa).



Goian aipatutako bizitza-momentuen ostean, lana izan da hurrengo bizitzako momentu giltzarriena euskararen hiztun aktibo bilakatzeko orduan. Hain zuzen, elkarriketatuen %33k baieztatu du lana dela eta hasi zela euskara modu aktiboan erabiltzen. Bestalde, elkarriketatuei proposatutako gainontzeko bizitzako momentuek indar txikiagoa bereganatu dute. Besteak beste, herri euskaldun batera bizitzera joatea edota familia euskaldun batera ezkontzea. Ostera, kualitatiboko partaideen artean, euskararen hiztun aktibo bilakatzeko bi momentuon garrantzia argi agertu da. Zertan datza, beraz, azterketa kuantitatiboan bi momentuok bereganatu duten ehuneko txikia? Izan liteke elkarriketatutako hiztun berrietako gutxik bizi dutela egoera hori; alegia, herri euskaldun batera bizitzen joatea edota familia euskaldun batera ezkontzea.

Sexuari dagokionean, emakumezkoek gizonezkoek baino garrantzi handiagoa eman diete euskaltegiari (50,5 vs. 34,5), lanari (41,5 vs. 24,8) eta seme alabak izan zituzten

momentuari (22,4 vs. 14,8). Berriz, euskarekiko kontzientzia hartzeari dagozkion datuak parekatuta agertu dira.

Adinari arreta jarritz gero, zera aipatu daiteke: gazteenek, 18-26 urte bitartekoek, euskaraz hasteko momentu nagusia eskolan kokatu duten bitartean, helduenek, 38-55 urte bitartekoek, euskaltegian egin dutela, bi adin-taldeek izan duten ikasketa-prozesu ezberdina agerian utziz. Bestalde, kontzientziari bi adin-taldeek pareko garrantzia eskaini die. Halaber, helduenen kasuan seme-alabak izateak garrantzi handia izan du, eta gazteenen kasuan lagun euskaldunak egitea eta jarduera berriren bat hastea nagusitu dira.


Azkenik, gune soziolinguistikoa hizpide hartuta, biztanleriaren %70 baino gehiago euskaldunak diren herrietako elkarrizketatuek euskararen hiztun aktibo bilakatzeko aukera gehiago izan dituzte, bereziki lagun euskaldunak egiterakoan (%81) eta lanean (%56). Baina are interesgarriagoa da honako hau: herri oso erdaldunetako herriarren artean (euskaldunak <%25) euskararekiko kontzientzia aipatu dutenak ia %70 izan dira, herri oso euskaldunetan (euskaldunak >%70) bizi direnen ehuneko bera; tarteko guneetako artean, berriz, gutxiagok aipatu dute kontzientzia: euskaldunak %25-49 direnen gunekoen %42k euskaldunak %50-69 direnen gunekoen %52k.

7.2.5. *Familia barruko hizkuntza-transmisioa*

Galdesortan elkarrizketatuen eta familia barruko transmisio-hautuak aztergai izan dira. Azterketa kualitatiboan bezala, transmisioaren gaia guraso diren elkarrizketatuekin ez eze, guraso ez direnekin ere landu da; azken kasu horietan intentzioa galdetuta. Jakin badakigu transmisio-praktika errealak (oraingo gurasoenak) eta intentziozkoak (orain guraso ez direnenak, gehienak gazteak izanda) ez direla gauza berbera, baina interesgarri iruditzen zaigu gazteen transmisio-ereduekiko intentzioa eta guraso diren hurrengo belaunaldiaren praktikak erkatzea: transmisio-eredu berberen alde daude belaunaldi biak? Murgiltze ereduaren euskaldundutako gaur egungo gazteek transmitituko diete euskara beraien seme-alabei? Eta egitekotan, zein transmisio-ereduri jarraituz?

Guraso diren elkarrizketatuak 229 dira, lagin osoaren %35,2 eta guraso ez direnak, ostera, 383, laginaren %64,8. Gurasoak seme-alabei euskara transmititzen dauden eza-gutzeko honakoa galdetu zaie: «Zein neurritan egiten duzu euskaraz seme-alabekin?» (G19d); eta guraso ez diren elkarrizketatuen transmisio intentzioa ezagutzeko, berriz, honakoa: «Seme-alabak izatekotan zein hizkuntzatan egingo zeniekeela uste duzu?» (G20). Erantzunek euskara zein neurritan transmititzen den edo transmitituko litzatekeen erakusteaz gainera, transmisio-ereduaren gaineko informazio baliogarria eskaintzen du; hain zuzen: euskara bakarrik, euskara eta erdara, hizkuntza biak, ala erdara bakarrik transmititzea.

Guraso direnen kasuan, hautua nagusiki hizkuntza bat transmititzea izan da, dela euskara (%48) dela gaztelania (%35,6). Guraso ez direnek, berriz, euskara transmititzeko intentzio argia agertu dute, baina berrietasun batekin: askok euskara eta gaztelania biak transmititzeko hautua egingo lukete, seme-alabei euskaraz eta erdaraz, bietan berdintsu, eginez (ikus 25. grafikoa).




Elkarrizketatuen **adinari** arreta jarritz gero, datuek azterketa kualitatiboak aurreikusitakoa baieztatzen dute (ikus 5.3.6. atala); alegia, gazte askok (%39,9) hizkuntza biren transmisioa («bietan berdintsu») aurreikusten dutela, eta adinean gora egin ahala, gehiago direla «euskaraz bakarrik» transmisio-ereduaren aldeko apustua egingo luketenak⁵ (ikus 26. grafikoa). Badirudi, gazte askok hizkuntza biak familia barruan transmititzea hobesten dutela, hizkuntza gutxituak gizartean daukan presentzia urria eta horrek euskara ondo ikasteko dakartzan zailtasunak kontuan izan gabe. Ikus 8. kاپitulua.

⁵ Seme-alabarik ez duten 38 eta 55 urte bitarteko elkarrizketatuak 34 bakarrik dira. Horregatik, adin-tarte horri dagozkion datuak kontu handiz begiratu behar dira.

26. grafikoa

Guraso ez direnen euskararen transmisio-ereduak adinaren arabera (%)




Sexua hizpide hartuta, gizonezko zein emakumezkoek euskara transmititzeko intensioa neurri berean agertzen badute ere, emakumezkoek gizonezkoek baino euskararen aldeko apustu argiagoa erakutsi dute. Hain zuzen, ama izatekotan seme-alabei beti ala gehienetan euskaraz egingo liekeela emakumezkoen %54,6k baieztatu du eta gizonezkoen %44,7k. Datuok arestian aipatutako guraso direnen transmisio-datuekin erabat kontrajartzen dira; izan ere, bertan, aita diren elkarriketatuen %63k baieztatu du seme-alabekin beti ala gehienetan euskaraz hitz egiten duela; berriz, amen kasuan ehunekoa 38,1era jaitsi da. Aldea garrantzitsua da eta mereziko luke bertan gehiago sakontzeak. Dena dela, horren zergatia ezagutzeko, soziolinguistikoak ez diren beste faktore batzuk ere kontuan hartu beharko lirateke.

7.2.6. Hizkuntza-identitatea

Hizkuntza-identitatea oso gai emankorra suertatu da azterketa kualitatiboan. Horretan partaide asko zein euskaldun-motatakoak diren adierazteko, gizartean erabiltzen diren ondoko kategoria hauekin identifikatu dira: *euskaldunberri*, *euskaldun* ala *euskaldun zahar*. Termino eta kategoria horiek asko erabiltzen direla ikusita, azterketa kuantitatiboan haien maiztasuna neurtu da.

Azterketa kualitatiboan partaide gehienek beraien burua *euskaldunberritzat* ala *euskalduntzat* jo dute eta bakanen batek *euskaldun zahartzat* (ikus 6.3. atala). Azterketa kuantitatiboan hurrengo galdera egin zaie: «Zu zer zarela esango zenuke: euskaldun zaharra, euskaldunberria ala euskalduna?» (G26). Irakurleak kontuan hartu behar du hiru kategoriatik bat aukeratzeko eskatu zaiela. Jakin badakigu galderak baduela bere konplexutasuna, elkarriketatu bakoitzak terminook modu ezberdinetan interpretatu ditzakeelako. Dena dela, eta zailtasunak zailtasun, galdera egitea erabaki da eta hurrengo grafikoan erakusten diren datuak aurkitu dira.

Datuek erakusten dute, ikerketa kualitatiboan gertatu den bezala, *euskaldun zaharra* izan dela partaideek gutxien aukeratu duten kategorია (%7,2) (ikus 27. grafikoa). Horrek erakusten du «ama-hizkuntzaren ideologiak» (ikus 6.3.1 atala) daukan indarra, baina baita ere ideologia hori kolokan jartzen hasita dagoela (ikus 6.5.4). Bestalde, *euskaldunberria* eta *euskaldun* identitateak nahiko parekatuta agertu dira. Esan daiteke, beraz, *euskaldunberriaren* kategorია oraindik ere indartsu dabilen arren, hiztun berri askok *euskaldun* kategorია nahiago dutela beraien burua definitzeko. Dena dela, aintzakotzat hartu behar da *euskaldun* terminoak erabilera bikoitza daukala gizartean: euskal hiztuna eta euskal herritarra; eta baliteke elkarriketatu batzuk *euskalduna* bigarren zentzuan erantzun izana.



Horrezaz gain, joera batzuk nabarmendu dira azterketa kuantitatiboan, kualitatiboan agertu diren hiztun-profilekin bat eginez: beraien burua *euskaldun zahartzat* definitu duten hiztunen artean gehiago izan dira herri oso euskaldunetan bizi, beraien euskara mailarekin oso gustura egon, euskalkia ondo ezagutu, lagunarteko hizkera kolokiala ederto erabili eta egunerokoan euskara ugari darabiltenak; *euskaldunberri* moduan definitu direnen artean, berriz, gehiago izan dira herri erdaldunetan bizi, beraien euskara-mailarekin asebetetze-maila txikia izan, euskalkirik jakin ez, lagunarteko hizkera kolokiala erabiltzeko zailtasunak izan eta egunerokoan euskara oso gutxi darabiltenak; azkenik, beraien burua *euskalduntzat* jo duten hiztunak *euskaldun zahar* eta *euskaldunberrien* erdibidean kokatu dira, nahiz eta *euskaldun zahar*rengandik hurbilago. Hau da, *euskaldun zahar* identitatea hobetsi dutenek konpartitzen dituzten ezaugarriak *euskaldun* identitatea hobetsi dutenek ere konpartitzeko joera dute.

Elkarriketatuen hizkuntza-identitatea **sexu**aren arabera gurutzatuz gero, aipatzekoa da beraien burua *euskaldunberritzat* jo duten gizon eta emakumezkoak parekatuta agertu direla —%43aren bueltan— eta ezberdintasunak *euskaldun zahar* eta *euskaldunberri* izendapenetan agertu direla: *euskaldun zahar* moduan gizonezko gehiago definitu dira (%10,4 vs. %4,1) eta *euskaldun* moduan emakumezko gehiago (%51,1 vs. %43,1).

Azkenik, **adinari** arreta jarritz gero, adinean behera joan ahala gehiago izan dira beraien burua *euskaldun zahartzat* eta *euskalduntzat* jo dutenak. Gazteenen —18 eta 26 urte bitartekoen— eta helduenen —38 eta 55 urte bitartekoen— datuak erkatuz gero, beraien burua *euskaldun zahartzat* gazteenen %10,1ek jo du eta helduenen %3,7k; *euskalduntzat*, berriz, gazteenen %53k eta helduenen %36k. Hala ere, azpimarratzekoa da gazte gehienek euskara ume-umetan ikasi arren, %34,1ek bere burua *euskaldunberri*tzat hartu izana eta bakarrik %10,1ek *euskaldun zahartzat*. (Ikus 8.4)

7.3. Azken hitzak

Amaitu aurretik kapituluan zehar agertu diren ideia batzuk azpimarratu nahi ditugu, izan ditzaketen ondorioei buruz gogoeta egiteko.

a) Gune soziolinguistikoen eragina

Norbaitek pentsa dezake herri baten zenbat eta euskaldun gehiago izan orduan eta euskararen presentzia eta euskararen aldeko jarrera handiagoa egongo dela. Horren arabera, espero zitekeen euskaldunak %25 baino gutxiago direnen gunean euskararen aldeko emaitzarik eskasak aurkitzea, euskaldunak %70 baino gehiago diren gunean onenak kokatzea eta gainontzeko bi guneak (%25-49 eta %50-69) erdian. Mailaz-mailako tendentzia hori zenbait gauzatan betetzen da, aurreko ataletan erakutsi den bezala. Alabaina, progresio hori eman ordez bi joera agertu dira hainbat datutan: batetik, batzuetan euskaldunak %70 baino gehiago diren guneko hiztun berriak modu batera

agertu dira eta gainontzeko beste gunetakoak, antzera, baina beste modu batera; eta beste kasu batzuetan gune erdalduneneko hiztun berriak gune euskaldunenekoengandik hurbilago agertu dira, erdiko gunekoengandik baino. Azter dezagun muturreko bi gunetako hiztun berrien profila zelakoa den.

Euskaldunak biztanleriaren %70 baino gehiago diren gunea: salto kualitatibo handia

Gune oso euskaldunetan bizi diren hiztun berriak dira aukera gehien dituztenak euskara ikasi eta erabiltzeko. Oro har, hiztun berri hauek beste gunetakoek baino ikasketa-maila baxuagoa dute. Guztietatik euskalkia eta hizkera kolokiala ongien dakitela eta batua gutxiengatik dakitela esan dutenak dira.

Erabilera-mailari dagokionez, bakarrik da nabarmena gune honetako hiztun berrien artean, ia %60k esan du euskara erdara bezainbeste edo gehiago erabiltzen dutela. Gai nontzeko hiru gunetakoak oso urrun daude ehuneko horretatik. Gainera, beste gunetakoengandik urrunduz, euskara ikasita hartu dituzten sariak aipatzerakoan nabarmen hobetsi dituzte integrazioarekin lotutako sariak («harremanak izatea», «hemengoa sentitzea») eta euskara lagunartean edota kalean ikasi dutela bakarrik adierazi dute modu nabarmenean gune honetakoek.

Badirudi gune euskaldunenak bakarrik bermatzen duela integratzeko euskararen beharra eta erabilera nabarmena, eta erdiko gunetako hiztun berriek ez dutela bizitzen euskara gune euskaldunenekoek bezala. Edo beste modu batera esanda, salto kualitatiboa benetan euskaldunak %70 baino gehiago ala gutxiago diren guneen artean ematen dela eta ez apurka-apurka gune batetik bestera.

Euskaldunak %25 baino gutxiago diren guneko hiztun berriak: profil militantea

Arestian esanda bezala, zenbait datutan gune erdalduneneko hiztun berriak hurbilago agertzen dira gune euskaldunenekoetatik erdiko gunetakoetatik baino. Adibidez, euskara modu aktiboan noiz hasi ziren erabiltzen galdetu zaienean, ia %70k «kontzientzia hartu nuenean» erantzun du, gune euskalduneneko kopuru berak, eta nabarmenki urrunduz erdiko gunetako hiztun berriengandik. Ez hori bakarrik, gune erdalduneneko hiztun berri gehiagok aldatu du hizkuntza-ohitura, erdiko gunekoek baino, anai-arreba-aren batekin, bikotekidearekin, eta lankide/ikaskide batzuekin; seme-alabekin, berriz, lau gunetako emaitzarik altuena eman dute, gune euskaldunenetako hiztun berrien gainetik.

Datu hauek, eta kapituluaren zehar erakutsi diren beste batzuk, euskaldunak %25 baino gutxiago diren gunean dagoen hiztun berri militante-multzoa agerian uzten dute. Hiztun horiek, espero daitekeen bezala, euskara ez dute asko erabiltzen, aukera gutxi dituztelako, baina, hala ere, jarrera proaktibo handia erakutsi dute, haien esku dauden erabakiak hartu behar izan dituztenean. Testuinguru oztopotzailean bizi izanda euskararen hiztun aktibo bihurtzeko hiztun berri batzuk egiten dituzten ahaleginak goraipatu eta

kontuan hartu beharrekoak dira. Ildo horretan gainera, ezin ahaztu daiteke gune horretan bizi diren hiztun berrien kopurua altua dela-eta hizkuntza-plangintzari begira, talde hau estrategikoa izan beharko litzatekeela.

b) Emakume eta gizonen arteko ezberdintasunak

Arestian erakutsi denez, emakume eta gizonen artean ere ezberdintasun nabarmenak agertu dira zenbait datuetan. Ikaste prozesuari dagokionez, gizonak baino (%44) askoz emakume gehiago (emakumeen %66) joan dira euskaltegira. Horrekin lotuta, gizonek baino emakume gehiagok adierazi du batua menperatzen duela, euskara ikasteko tresna-motibazioa izan duela eta behin ikasita lan-aukerak hobetu egin zaizkiela. Datu horiek lan-sektore batzuen feminizazioarekin izan dezakete zerikusia, hala nola, hezkuntza-sektorea eta administrazio publikoa, non hizkuntza-eskakizunak, beste lan-sektore batzuetan ez bezala, ohikoak diren. Horren erakusle da lagineko elkarriketatuen %17,8k egiten duela lan administrazioan eta emakumeen kasuan ehuneko hori 24,6ra igozen dela. Gainera, 38-55 urteko emakumeen artean are handiagoa da (37,5). Hor-taz, hiztun berrien artean beste profil indartsu bat nabarmendu da bere presentziaren maiztasunagatik: 38-55 urteko administrazioan lan egiten duten eta euskaltegian ikasi duten emakumeak.

Bestalde, emakume eta gizonen arteko beste ezberdintasun batzuk ere badaude. Adibidez, euskara erabiltzeko oztopoak identifikatu dituztenean, emakumeentzako gizonentzako baino faktore oztopogarriagoa suertatu da erraztasun falta izatea (emakumeen %52,6k versus gizonen %46,4k aipatu dute). Gainera, emakume gutxiago (%18,8) dago oso gustura bere euskara-mailarekin; gizonen %25,8 dago oso gustura. Badirudi datu horiek lotuta egon daitezkeela askotan aurkitu den emakumeen hizkuntza-ziurtasun ezarekin, hots haien hizkuntza edo aldaerarekiko duten irudi negatiboarekin. Ildo horretan, esanguratsua izan da zein hiztun-motatakoak diren galdetu zaienean, legitimitate handiena duen euskaldun zahar kategoria (ikus 6.4 atala) gizonen %10,4k aukeratu duten bitartean emakumeen %4,1ek baino ez duela aukeratu. Honetan ere baliteke emakumeek gizartean dauden ideologiak barneratuago izan ditzaketela, «ama-hizkuntzaren ideologia» barne.

Azkenik, interesgarria da ikustea sexu-ezberdintasun handia dagoela euskararen erabilera aitortuaren inguruan, adibidez, emakume askoz gehiagok (%58) esan du beti erderaz egiten duela bikotekidearekin gizonek baino (%35,9), eta baita lagunekin, denda eta tabernetan eta aisialdian ere. Datu horiek harrigarriak dira kale-neurketako ikerketak (Soziolinguistika Klusterrak 2013) erakutsi duelako emakumezkoek gehiago egiten dutela euskaraz gizonezkoek baino haur, gazte zein heldu izan. Norberaren pertzepzio (erabilera aitortua) eta neurtutako (behatutako) erabileraren artean dauden desadostasunak jakinak dira baina sexu-aldetiko ezberdintasuna zergatik den ez dakigu: gizonek «puztu» egiten dute euren euskara-erabilera? «Izkutatu» egiten dute gaztelania baino ez dutela erabiltzen? Edota emakumeak objektiboagoak dira erabilera aitortua ematera-koan? Gai honek ikerketa gehiago merezi du.

c) Gazteak

Aurreko ataletan erakutsi den bezala, gazteen artean oso orokortua dago, batetik, euskara D ereduan ikasi izana eta kalean ikasteko aukera ez izana, eta bestetik Batua ondo menperatzen dutela esatea. Alabaina, erabilerari begira datu kezkarriak eman dituzte: gazteen artean beste taldeetan baino ohikoagoa da gehienetan erdaraz aritzea bikotekidearekin, denda eta tabernetan, lankide/ikaskideekin eta aisialdian. Gainera, gutxiagok egin dute mudantza lagunen batekin beste adin-taldetakoek baino. Bestalde, euren ondorengoei euskara familian transmitituko dieten galdetuta, argi dago euskara transmititzeko asmoa dutela baina harrigarria da zenbatek esan duten euskara eta gaztelania «bietan berdintsu» egingo dietela seme-alabei. Hitzun berri gazteen jarrerak eta esperientziak beren-beregi jorratuko dira hurrengo kapituluan.

Hiztun berri gazteak

Aurreko kapituluetan ikusi dugunez, azterketa kualitatiboak erakutsi digu alde aipagarriak daudela hiztun gazteen eta helduen esperientzien artean. Alde hori 35-40 urteen bueltan ageri da eta horrek eman digu hain esperientzia desberdinak zergatik dituzten ulertzeko gakoa. Gakoa da, hain zuzen, demokrazia berriro ezartzeak autonomien estatuaren sorrera ekarri zuela eta, ondorioz, EAEn euskararen aldeko hizkuntza-politika indarrean ipini zela eta, horren barruan, hezkuntza elebiduna. Kapitulu honen helburua ez da informazio berria ematea, baizik eta gazteei buruz agertu diren auzi garrantzitsuenen sintesia egitea, Euskal Herrian eta Europan egiten ari diren gogoetetarako interesgarriak izan daitezkeelakoan. Hortaz, demokraziaren aldian hazi diren hiztun berriak hartuko ditugu hausnargai, gazteenak bereziki, hots, 18 urtetik 26ra artekoak.

Gogoan izan behar dugu gazteak ez direla izan ikerketa honen ikergai nagusia; dena dela, eztabaida-talde guztietan egon ziren gazteak eta, gainera, gazteekin bakarrik osatutako hiru talde eratu ziren (Gazte-BI, Gazte-DO eta Gazte-GE). Ikerketa kuantitatiboa 18 urtetik 55era arteko populazio heldu guztiaren gainean egin zen, baina, emaitzak aztertzeke, hiru adin-talde bereizi dira: 18-26, 27-37 eta 38-55. Beraz, nahikoa datu ditugu ekarpenak egiteko adin-tarte horretako euskal hiztunen ideiei eta praktikei buruz gizartean egiten ari diren eztabaida eta gogoetei. Haatik, argi utzi nahi dugu gure emaitzetan oinarritutako ekarpenak eta emaitza horien interpretazioak behin-behingoak direla; izan ere, ikerketa monografikoa egin beharko da, kualitatiboa eta kuantitatiboa, aurkitu ditugun esperientziak, jarrerak, ideiak eta balioak gizartean zenbateraino dauden hedaturik neurtzeko.

8.1. Hiztun berri gazteen profil oso desberdinak

Ez dago euskal hiztun berri gazteen profil bakarra; aitzitik, era askotako esperientziak daude eta guztiak koka daitezke euskararekiko hurbiltasunaren *continuum* batean, non batzuk hurbilago eta beste batzuk urrunago dauden euskaratik eta euskal mundutik. Hasteko, har ditzagun bi muturretako profilak: «euskaldun zaharretatik» bereizten ez diren hiztun berriak, bateko, eta euren eguneroko bizimoduan euskara oso urruti sentitzen duten hiztun berriak, besteko.

a) «Gure moduan hitz egiten dute»

Ikasketaren emaitzarik argienetako bat izan da euskal hiztun berri gazte askok euskara H1 bezala duten ikaskideek bezala jokatzeko dutela. Euskara nagusi den testuinguru soziolinguistikoetan gertatzen da egoera hori batez ere: halako gazteak gustura daude euren hizkuntza-gaitasunarekin (askok hobeto menderatzen dute euskara gaztelania baino), herriko beste edozein euskaldunek bezala hitz egiten dute, eta «euskaldun zaharrek» ez dituzte desberdin ikusten. Erabilerari dagokionez, sarritan erabiltzen dute euskara eta hainbat esparrutan (maiz, denetan familian izan ezik). Eta hizkuntza-identitateari dagokionez, *euskaldun* sentitzen dira eta *euskaldun zahar* ematen dute. Oso jarrera proaktiboa ez dutenek ere modu positiboan erantzuten diete inguruak eskaintzen dizkien aukerei eta euskara-bidezko sareetan sartuta daude.

Eunatek 21 urte ditu eta Zeanurin bizi da. Gurasoek ez dute euskaraz hitz egiten, baina seme-alabek euskara ondo ikas zezaten hain justu joan ziren Arratiara bizitzera. Eskolan, kalean eta auzokoekin ikasi zuen euskara, bereziki «bigarren aitita-amamatzat» duen adineko bikote batekin. Lagun-taldearekin dena egiten du euskaraz eta euskaraz erdaraz baino hobeto moldatzen dela uste du; are gehiago, bere ibilbidea azaltzeko orduan, bere burua euskaldun zahartzat duela dio. Arratiako euskaraz mintzatzen da, lagunak eta auzokoen moduan; batua estandarra idazteko baino du erabiltzen. Neurri handi batean, Eunate euskaraz bizi da eta inork ez luke alderik ikusiko beraren eta euskara etxean ikasi duten lagunak artean. Euskararekin estu lotutako identitatea du eta ezin du imaginatu bere bizitza euskararik gabe. Beraren hitzetan, beste pertsona bat izango litzateke.

Gazte askok ikusten dute beren burua Eunatek bezala eta halaxe ikusten dituzte komunitateko «euskaldun zaharrek» ere: «gure modukoak dira». Hori arrakasta handia da euskarak azken 35 urteetan egin duen bidean, eta badira, gainera, profil arrakastatsu gehiago, c atalean ikusiko dugunez. Bestelakoa da, berriz, euskaratik urrun sentitzen diren hiztun berri gazteen kontua.

b) «*Euskaraz hitz egiten dut, baina ezin esan dezaket euskalduna naizenik*»: *babesa behar duen profila*

Murgiltze-ereduetan ikasi duten gazte askok ez dute lortu euskara-bidezko sarerik sartzetik edo halakoetan sartzerik, eta gutxitan erabiltzen dute hizkuntza, edo inoiz ez. Esperientziak orokortzerik ez badago ere, muturreko kasu gehienek ezaugarri hauek dituzte:

- Euskarak presentzia txikia duen inguru soziolingüistikoetan bizi dira (Gasteiz, Bilbo, Nerbioi itsasadarraren Ezkerraldea, Donostia neurri batean...).
- Komunikatzeko gaitasun mugatua dute orohar, hau da, zailtasunak dituzte bizitza sozialeko eremu guztietan hitz egin ahal izateko. Nahiz eta eskolako urte guztiak egin murgiltze-ereduetan, denak ez dira iritsi erabateko gaitasunera euskaraz. Adierazteko trebetasunetan izan ohi dute zailtasunik handiena. Erregistro informalik eza azpimarratu behar dugu, hots, lagunekin erabiliko luketen erregistrorik ez dute. Askok laster galtzen dute gaitasuna behin hezkuntza-sistema utzita.
- Euskara eskolarekin lotzen dute, ez dute garatu euskararekiko benetako atxikimendurik, ez emozionalik ez erantzukidetasunekorik ulertzeko zer den komunitate elebidun batean bizitzea, hizkuntzetako bat gutxitua delarik eta normalizatzeko bidean dagoe-larik.
- Euskara oso gutxitan erabiltzen dute edo inoiz ez. Lagun askok edo guztiek dakite euskaraz (eskolan ikasi dute haiekin), baina jakite hori ez da erabilerara pasatu, ezta erabilerara elebidunera ere: gaztelania hutsean dituzte harremanak. Asko jota, une jakin batzuetan eta modu enblematikoan erabiltzen dute euskara, edo hiztun jakin batzuekin.
- Euskal hiztun ez osotzat dute beren burua, ez *benetako euskalduntzat*, *euskaldunberri* gisa identifikatzen dute beren burua eta batzuek ez dute uste euskaldunak direnik.
- Batuaz baino ez dira mintzatzen.
- Batzuek frustrazioz edo penaz bizi dute egoera hori; denek ez, ordea.

Gure eztabaida-taldeetan ez dugu muturreko kasurik aurkitu, baina partaideek aipatu dituzte halakoak: euskara ikastea eurekin zerikusirik ez duen kontu arrotz baten moduan bizi izan duten hiztun berri gazteak, ikasketak euskaraz egin behar izatea nahi-gabez hartu dutenak, eta, behin derrigorrezko eskolaldia bukatuta, euskara lantzeko ezertxo ere egin ez dutenak. Gure datuen arabera, ez da profil arrunta, baina ikertu egin beharko litzateke. Bada bestelako profil bat, aldiz, gure datuetan atera dena, Urkorena:

Urkok 22 urte ditu eta Lehen Hezkuntzako Gradua ari da ikasten. Ezkerraldean bizi da eta unibertsitate aurreko ikasketa guztiak B ereduan egin zituen. Iritzi eskasa du bere euskaraz. Graduan badira euskara etxean ikasi eta oso inguru euskaldunetan bizi direnak; haiekin konparatzen da eta aitortzen du batzuetan ez diela ulertzen. Zorionez, lagunak egin ditu haien artean eta hobetzen ari da. Kontua da orain arte inoiz ez duela izan harremanik «euskaldun zaharrekin». Batzutan barre egiten diote, baina modu onean; asko laguntzen diote. «Lekuren bateko» euskararen mintzatzea gustatuko litzaioke, berdin dio nongoan, kontua da «hain batuo» ez ematea. Eta errazago egin nahi luke berba. Badaki asko falta duela. Eskolako lagun guztiek dakite euskaraz, baina inoiz ez dute euskaraz egin haien artean. Baten batek eginez gero, beti egongo da besteren bat esango duena «¡Qué haces, tío! ¡Que estamos en Trapagaran!». Eta egia esan, Trapagaranen arraroa da. Euskal herritartzat du bere burua eta euskara bere identitatearen berezko ezaugarria dela uste du. Eta maisua izango denez, konturatu da zein garrantzitsua den hizkuntza ondo jakitea. Bere eguneroko bizimodutik urrun dago ordea. Frustazioz bizi du hori guztia.

Urkoren esperientzia hori oso arrunta da. Beste gazte batzuek ez dute Urkok erakutsi duen euskararekiko atximendu hori. Urkoren motibazioa eta jarrera Eunateren antzeko esperientzia edukitzeko adinakoa dira, baina ibilbidea eta testuingurua oztupo dira horretarako. Sare potentzialak baditu —eskolako ikaskide guztiek dakite euskaraz—, baina ez dira sare aktibo bilakatu. Urkok testuinguru soziolinguistikoari egozten dio, baina gaitasuna ere aipatzen du: ez du uste euren euskara eta hitz egiteko jariora behar bezain onak direnik. Hori guztia dela eta, «arraro» sentitzen dira euskaraz.

c) *Euskararekiko hurbiltasun mailaren continuumean beste hiztun berri profil batzuk*

Gazte hiztun berrien esperientziak continuum batean kokatu daitezke hiztunek euskararekiko duten hurbiltasun mailaren arabera, gaitasuna, erabilera zein euskararekiko agertzen duten lotura afektiboa aintzat hartuta. Eunate continuumaren mutur batean legoke eta Urko beste muturretik gertu, baina ez mutur-muturrean. Izan ere, mutur-muturrean Urkoren gaitasun eta erabilera antzeko hiztun berriak daude, baina euskararekiko sentimendu epela agertzen dutenak. Gure eztabaida-taldeetan mutur horretatik gertuen dauden pertsonak eskola gaitasun maila baxuarekin amaitu dute eta berau hobetzeko euskaltegian daude arrazoi instrumental garbiekaitik, alegia, euskara lanerako behar dutelako. Eztabaida-taldeetan profil honetako kasu asko izan ez ditugun arren, partaideek beraien gainean hitz egin digute. Adibidez, Donostiako Gazte-DO eztabaida-taldean euskara ez galtzeko unibertsitatean ikasgaietako batzuk hizkuntza horretan egitea erabaki duen neska gazte batek zera agertzen du: lagunek euskaraz ikasteko bere erabakia harriduraz begiratzen dutela, eskolan eta institutuan euskara nahikorik ez, eta unibertsitatean ere borondatez euskaraz ikastea erabaki duelako. Testuinguru soziolinguistiko er-

daldunetako beste partaide batzuek beraien zenbait adiskideren kasua azaldu dute: horiek institutua amaituta euskara gaitasun handia galdu dute, euskaraz komunikatzeko zailtasunak izateraino. Beraien esanetan, adiskide horiek ez lukete ikerketako eztabaidataldeetan parte hartzeko gaitasun nahikorik.

Euskararen presentzia handia den testuinguru soziolinguistikoetan Eunatek agertzen duen euskararekiko hurbiltasuna ohikoa da. Dena dela, ikerketak aditzera eman du testuinguru oztopotzailea ez dela erabat erabakigarria eta euskaraz bizitzea, neurri batean behintzat, posible dela kontrako baldintza soziolinguistikoetan ere. Idoiaren kasua ikus dezagun.

Idoia Getxon bizi da, biztanleriaren %27,7 euskalduna den herrian. Getxok belaunez-belauneko euskararen transmisioan eta erabileran atzerakada nabarmena bizi izan zuen gerra osteko garaian. Horren adibide da Idoiaren familia: aitaren eta amaren aldeko aitita-amamak euskaldunak ziran, bere gurasoak, oster, ez. Berak eta bere lehengusu-lehengusin denek euskara eskolan ikasi dute. Garai batean herri administrazioan lan egin zuen Idoiak. Bertan, lankideekin euskaraz hitz egiteko aukera izan zuen. Dena dela, bere euskara erabilera nahiko murrizta zen kontzienteki euskara erabiltzeko erabakia hartu zuen arte. Orain Idoia hilabeteen behin gai ezberdinen inguruan euskaraz eztabaidatzeko talde baten parte da, eta era berean, herrian euskaraz antolatzen diren hainbat ekintzatan ere parte hartzen du. Euskaraz gehiago hitz egiteko erabakia hartu zuenetik hainbat estrategia martxan jarri ditu eta lortu du gutxika gutxika euskara gehiago erabiltzea. Egia da institutuko lagunekin ez duela harreman-hizkuntza aldatu (denak euskaldunak diren arren beraien artean beti gaztelaniaz hitz egiten dute); hala ere, harreman berriak euskaraz eraiki ditu, harreman kideak euskaldunak diren kasuetan. Bere burua euskaldunberritzat badu ere, horren arrazoia ikasi duen euskararen izaera akademikoa dela dio, euskara maila pertsonalagoan ez duelako erabili. Dena dela, bere euskararekin gero eta gusturago sentitzen dela aitortzen du eta euskaldunberri etiketa gainditu daitezkeela sinisten du. Etiketa gainditzeko «prozesuan» dagoela dio. Bere bizitza ezin du euskara gabe imaginatu; bere identitatearen parte da. Aldi berean, Idoia bere etorkizunarekiko eta euskararen etorkizunarekiko baikorra da.

Idoiaren kasuak jarrera proaktiboarekin gauza asko lortu daitezkeela erakusten du, eta baita testuinguru oztopotzaileetan jarrera proaktibo hori beharrezkoa dela. Bere esperientzia kontatzerakoan, Idoiak esan du euskara erabiltzeko hautua erabaki kontziente izan dela, izan ere, Getxon euskara erabili eta euskaraz, neurri batean behintzat, bizitzeak aparteko ahalegina eskatzen du, eta ahalegin hori ez da egiten erabaki kontziente eta sakona egin ezik. Berak dioen moduan, bizitzan erabakiak denetarako hartu behar dira. Eta zentzu horretan, zergaitik ez da izango euskara erabiltzea erabakiotako bat? Hartutako erabaki horrek itzelezko gogobetetzea eman dio eta bere balio eta nahiekiko adostasun handiagoz bizitzea ahalbidetu.

Idoiak prozesuan zehar lagundu dioten zenbait gako eskaintzen ditu. Hilean hilean elkar-tzen den taldearekiko harremanak osagai sozial eta emozional argiak ditu: gai ezberdi-nen inguruan hitz egiten dute, estimua hartu dien kideei «barruan daukatena adieraziz». Lagun berriekin ere euskaraz sortutako lotura emozional indartsua ezarri du. Aurrerago ikusiko dugun moduan, euskara hezkuntza-sisteman bakarrik ikasteak dakartzan mugak gainditzeko erabakiorra da hizkuntzarekiko ezarritako lotura soziala eta emozionala.

Ikusi dugun moduan, ezin daiteke «gazte» hiztun berrien gainean berba egin guztiek profil bakarra osatuko balute moduan. Gazteon esperientzia eta jarrera zeintzuk ele-mentuk eraikitzen dute? Jarraian, gure datuetan oinarrituta, elementuotatik eragin han-diena dutenak birpasatuko ditugu.

8.2. Euskal hiztun berri gazteen esperientzietan eragina duten faktoreak

Atal honetan hiztun berri gazteen esperientzietan zer faktore diren erabakigarrienak iku-siko dugu, alegia, testuinguru soziolinguistikoa eta ikaste prozesua, gaitasun komunika-tiboa eta erabilera.

Testuinguru soziolinguistikoa eta ikaste prozesua

Aurreko kapituluetan ikusi dugunez, ikaste prozesuan hizkuntza erabiltzeko auke-rak edukitzea funtsezkoa da: testuinguru soziolinguistiko oso euskaldunean ikasi du-ten eta euskara erabiltzen duten gizarte-sareetako kide diren gazteek bi ikaste prozesu uztartzen dituzte: eskolako ikaste prozesu formala eta kaleko ikaskuntza. Horri esker, hizkuntza-gaitasun aberatsagoa izaten dute eta, gainera, lagunen arteko erregistro in-formala eta tokiko euskalkia ikasten dituzte. Euskaldunen portzentaje ertaina (% 50-%70) duten inguru soziolinguistikoek ere eskaintzen dituzte euskara eguneroko bizimoduan erabiltzeko aukerak eta euskaraz komunikatzen diren gizarte-sareak. Kontrara, oso er-daldunak diren inguru soziolinguistikoetan (% 25 baino gutxiago) aukera gutxi izaten da, edo bat ere ez, euskara kalean erabiltzeko eta eskola izaten da ikasle askoren *in-put* bakarra.

Ikerketa kuantitatiboa lagungarri zaigu ikasesperientzia desberdinen hedadura neur-tzeko. Ikerketa kuantitatiboan jasotako datuen arabera, 18 urtetik 26 urtera bitarteko euskal hiztun berri gazteen % 93,1ek murgiltze-ereduetan egin dituzte eskolako ikaske-tak (% 65ek D ereduan, hau da, murgiltze osoan, eta % 27k B ereduan, hots, murgiltze partzialean); «kalean» ere ikasi dutela diotenak, berriz, % 28,5 baino ez dira. Ehuneko horrek argi erakusten digu nolakoa den EAEko errealitate soziolinguistikoa: euskaldu-nen ehuneko txikia (% 25 edo gutxiago) dagoen eremuetan, hala nola Bilbon, Gastei-zen eta Nerbioi itsasadarraren Ezkerraldean, pilatzen da Arabako eta Bizkaiko biztanleria gehiena.

Horrenbestez, jakinik ume eta gazte askorentzat eskola dela euskararekiko lotura nagusia, eta «eskola ez dela nahikoa», ikastetxe askok ahalegin handia egiten dute ikasgelako erabilera akademikoa osatzeko eta indartzeko eskolaz kanpoko jarduera ludikoekin, eta guraso askok euskaraz egiten diren astialdiko jardueretara eramaten dituzte umeak. Dena dela, gauzak ez dira beti horrela izaten; horrek jarrera proaktibo sendoa eta aparteko ahalegina egitea eskatzen du eta, sarritan, euskarazko eskolaz kanpoko eskaintza ez da hain zabala ere izaten. Horrek guztiak eragin zuzena du gazteek haurtzaroan eta nerabezaroan lortzen duten komunikatzeko gaitasun *motan*. Hurrengo atalean aztertuko dugu gai hori.

Gero eta zabalduago dago «eskola nahikoa ez» delako ustea eta argi dago sozializatzeko beste esparru batzuk ere behar direla, euskara afektibitateari, gizarteko harremanei eta aisiari lotuta ikasteko eta erabiltzeko. Gure ikerketak gazteei dagokienez izan dituen emaitzak kontuan hartuta, uste sendoa dugu horixe dela landu beharreko funtsezko arloetako bat.

Hizkuntza-gaitasuna: «nola egiten dudan euskaraz»

Eztabaida-taldeetako gazte askok erabili dute hizpidean nolako euskara duten eta gai horretaz kezkatuta daudela ikusi dugu. Logikoa denez, zelako euskara garatu duten esperientziarekin eta ikasteko moduarekin dago lotuta, horiexek eratzen baitute hizkuntza-gaitasun komunikatiboa. Baina, aldi berean, haien euskara motak eta «nola hitz egiten dudan» oso erabakigarriak dira euskal hiztun moduan duten autokontzeptuan eta erabileran. Batzuk oso eroso sentitzen dira beren euskararekin, eta beste batzuk mugatuta sentitzen dira eta zailtasunak igertzen dituzte zenbait testuingurutan mintzatzeko; batzuk ez dira ausartzen hitz egitera euskalkian egiten den lekuetan uste baitute ez dutela ulertuko eta euren euskara batua lekuz kanpo dagoela; beste batzuek badakite euren euskara ez dela «euskaldun zaharrena» bezalakoa, baina hori ez dute mugatzat hartzen eta ondo komunikatzen dira.

Ikerketa kuantitatiboak norberaren euskararekiko pertzepzio eta sentimentu desberdinen hedadurari buruzko informazioa ematen du. Euren euskararekin zenbateraino dauden gustura galdetu zaienean (ikusi 7.2.2.2. atala), 18tik 26 urtera bitarteko gazteen % 77,6k dio gustura dagoela («oso gustura» (% 22,7) edo «nahiko gustura» (% 54,9)); baina ia laurdenak ez daude pozik (% 18,9k dio «ez nago oso gustura» eta %3,5ek «ez nago batere gustura»). Izan dezagun gogoan euskara maila aurreratua zuten pertsonen bakarrik egin zitzaizela inkesta eta elkarriketa euskaraz egin zela. Datu horiek ulertzeko, bi gaitasun bereizi behar ditugu: gaitasun orokorra eta hiztunen beharrian eta itxaropenetan «kokatutako» gaitasuna. Emaitza horiek ikusita, pentsa liteke lortutako gaitasunak ez dituela asetzen hiztunen benetako beharrianak. Kontu hau sakonago ikertu beharrekoa delakoan gaude. Ikerketa honetan partaideek «nola hitz egiten dudan» deskribatzean aipatu dituzten elementu batzuk argigarriak izan daitezke: gaitasun maila

orokorra, ahozko erraztasuna, hizkuntzaren erabilera informalerako baliabideak, eta, leku batzuetan eta pertsona batzuentzat, euskalkiaren ezaguera.

Erabilera

Orain arte adierazitako ideiak hizkuntzaren erabileran hezuramamitzen dira. Erabilera baldintza eta emaitza da. Baldintza da, lagungarria delako ikasteko eta hizkuntza-gaitasuna garatzeko eta, gainera, hiztunaren autokontzeptua baldintzatzen duelako; baina emaitza ere bada, izan ere, gaitasun mugatuak edo oso markatuak (batuaz bakarrik, testuinguru akademikoan bakarrik) eta norberaren trebetasunen autokontzeptu eskasak eragina dute erabileran: gazte batzuek aitortzen dute ez direla ausartzen hitz egitera, uste dutelako euren euskara ez dela behar bezain ona.

Gure ikerketa kualitatiboko helduek, euskaltegian ahalegin handia eginda ikasi eta bizitza guztian euskararen alde borrokatu ondoren, guztiz harrituta entzuten dute «denek dakitela baina ez dutela erabiltzen». Egia ote da? Datu kuantitatiboek berretsi egiten dute euskararen erabilera urria delako susmoa: 18 urtetik 26ra bitarteko taldean, erdiek diote gehiago egiten dutela gaztelaniaz euskaraz baino, eta % 16k diote gaztelaniaz egiten dutela «beti» edo «ia beti»; % 19k antzeko neurrian egiten dutela euskaraz eta gaztelaniaz, eta % 9,2k beti euskaraz edo gehiago euskaraz gaztelaniaz baino. Beste adin-talde batzuekin konparatuta, euskara gutxiago erabiltzen dute 38-55 adin-taldekoei baino (adin-tarte horretakoek erabiltzen dute gehien) eta 27-37 taldekoei baino apur bat gehiago. Datuak ez dira hobeak egoera zehatzetan eta pertsona zehatzekin zer hizkuntzatan egiten duten galdetzen zaienean: ikaskideekin izan ezik (haiekin beste adin-taldeetakoek baino gehiago erabiltzen dute euskara), egoera guztietan haiek dira guztien erabiltzen dutenak hurrengo taulan ikusten denez (beste adinekin konparazioa ikusteko, jo 7. kapituluko 21. grafikora):

5. taula

Gazteen euskara erabilera: zenbat eta norekin

	beti euskaraz edo gehienetan euskaraz (%)	bietan berdintsu (%)
Bikotekidearekin	12,4	12,7
Neba-arrebekin	5,4	9,9
Lagunekin	8,8	16,9
Lankideekin/ikaskideekin	30,5	22,3
Denda eta tabernetan	11,8	22,7
Aisialdian	13,5	19,2

Euskara ez erabiltzeko zer faktorek eragiten duten galdetzen zaienean, zein diren euskara erabiltzeko oztopoak, gazteen erantzunak ez dira asko desberdintzen gainerako adin-taldeen erantzunetatik (ikusi 7.2.4.2), baina badira alde batzuk: Garrantzi handiagoa ematen diote euren inguruan euskara ez erabiltzeari (% 93,7k aipatu du) eta gaztelaniaz hitz egiteko ohiturari (% 97,2k aipatu du). Gaitasun falta, berriz, ez da beste adin-taldeetan bezain arrazoi garrantzitsua (hala ere, % 37,1ek aipatu du). Bestalde, gizartean gazteen kontzientzia faltaz hainbat kexa entzuten bada ere, azpimarratu behar dugu oso gazte gutxik diotela «euskara ez dela garrantzitsua» eurentzat.

Hona hemen arrazoiaren taula:

6. taula

Euskara erabiltzeko faktore oztopotzaileak gazteen ikuspegitik

Zer dela eta erabiltzen duzu gutxi euskara?	%
Gaztelaniaz hitz egiteko ohitura dudalako	97,2
Inguruan ez delako hitz egiten	93,7
Ezagutzen ditudan euskaldunek ez didatelako egiten	56,6
Erraztasun faltagatik	37,1
Kaleko euskara kolokiala ez daukadalako	32,3
Batua bakarrik dakidalako	29,5
Niretzat euskara ez delako hain inportantea	15,4

Hausnar dezagun une batez ohituren garrantziaz. Gazte hauen ikaste prozesua dela eta, ikastetxeko lagun guztiek dakite euskaraz egiten, baina, hala ere, inguru erdaldu-netan harremanak gaztelaniaz ezartzen dira. Eztabaida-taldeetan, gazte batzuek kontatu dute batzuetan saiatu direla lagunekin euskaraz egiten, baina oso zaila dela ohitura haustea.

Kontuan hartuta zelako presioa egiten duen ohiturak, komeni da aztertzea zergatik ezartzen diren gaztelania hutsez harremanak. Zalantzarik gabe inguruaren presioa erabakigarria da (umeez gizartean zer ikusi hura ikasi); beraz, ez da harrigarria hori gertatzea, baina planteatu nahi genuke ea baden beste faktorerik eskua sartzeko modukorik: bat euskara-eskola lotura izan daiteke, izan ere, ume eta gazte askok ez dute lotzen euskara eguneroko komunikazioarekin, eskolarekin baino eta eskolarekin bakar-bakarrik; beste bat izan daiteke gazteek hezkuntza-sisteman lortzen duten gaitasun maila eta mota; izan ere, euskaraz hitz egitea, adieraztea, gehiago kostatzen bazaie, *plus* bat behar dute euskaraz egiteko, eta, gainera, lagunen artean ohikoak izaten diren berbake-

rak ezagutzen ez badituzte, pentsa liteke ez dauzkatela eskolatik kanpo komunikatzeko beharrezkoak diren baliabide komunikatiboak. Har dezagun gogoan egoera oso bestelakoa dela komunikatzeko ohiko hizkuntza euskara den testuinguruetan eta familian euskaraz mintzatzen diren haur asko dauden eskoletan.

Gizarteko pertzepzioa da «gazte guztiek dakitela» euskaraz; V. Mapa Soziolinguistikoa-ren (Eusko Jaurlaritza, 2014) arabera, 5 eta 24 urte bitarteko herritarren %73,2k dakite. Baina gure datuek erakusten digutenaren arabera, «dakiten» guztiek ez dituzte eguneroko beharizanetarako beharrezkoak diren baliabideak. Seguru asko hori adin-talde guztietan gertatzen da, baina bereziki azpimagarria da gazteen artean, gizarteak haiengan dituelako jarrita itxaropenak: eskolan murgiltze-sistemaren bidez ikasi dutenez, euskaraz «perfekto» hitz egingo dutela espero dugu.

Euskararen erabilera errazten duten faktoreei dagokienez, eztabaida-taldeetako partaideek aipatutako faktoreen gainean galdetu zitzairen ikerketa kuantitatiboko inkestatuei (ikusi 7.2.4.3), eta hau izan zen emaitza: (Euskaraz asko edo gaztelaniaz beste gutxienez egiten dutenei baino ez zitzairen egin galdera hau)

7. taula

Euskara erabiltzeko faktore mesedegarriak gazteen ikuspegitik

Zer dela eta erabiltzen duzu asko euskara?	%
Bizi zaren herriko hizkera menperatzen duzulako	82,1
Euskaraz egiteko aukera guztiak aprobetxatzen dituzulako edo aukera horiek nahita bilatzen dituzulako	76
Euskaraz hitz egiteko erraztasuna daukazulako edo euskara maila ona duzulako	70,4
Zure eguneroko harremanetan euskara asko erabiltzen delako	69,3
Bizi zaren herrian euskara asko hitz egiten delako	46,3

Erantzun horiek beste adin-taldeek emandakoen antzekoak dira, item batean izan ezik, kaleko hizkerari buruzkoan hain zuzen ere: 18-26 urteko adin-taldean, % 82,1ek eman dio garrantzia faktore horri, beste adin-taldeetakoek baino %15-20 gehiagok. Ulertzekoa da gazteen artean faktore hori garrantzitsuagoa izatea, eta argi erakusten du, gorrigo esan dugunez, gazteen gaitasun komunikatiboak ez dituela beti betetzen haien beharrian pragmatikoak. Nabarmendu nahi dugu, halaber, % 76,1ek adierazi duela erabiltzeko aukerak aprobetxatzen edo aktiboki bilatzen dituela. Gazteen jarrera proaktibo argia erakusten duelakoan gaude.

Hiztun aktibo bihurtu

Euskal hiztun aktibo bihurtzea, lehenago izan ez denean, hau da, euskara hiztunaren hizkuntza-errepertoria ekartzea, bizitzan aldaketa bat dagoenean jazo ohi da, adibidez, euskaraz egiten den herri batera bizitzera joatean edo euskaldun batekin harreman seriotan hastean. Gazteen kasuan, eskola aipatu dute gehienek (% 85,1), logikoa denez; baina bigarren momentua «euskararen kontzientzia hartu» zutenekoa izan da (% 60,5ek aipatu du), «lagun euskaldunak egitearen» aurretik (hirugarren lekuan, % 53,5ek aipatua). Gogora ditzagun Donostiako eztabaida-taldeko neska gazte baten hitzak: ederto gogoratzen du Lehen Hezkuntzako 3. mailan hasi zela lagunekin euskaraz hitz egiten, euskarari eta euskararen egoerari buruzko hitzaldi bat entzun ondoren (ikusi 3.2.1.1). Zer adierazten digu horrek? Euskarak zentzua izan dezan gazteentzat, haien-tzat esanguratsuak diren sozializazio-gune eta aukerei lotuta egon behar du, lagunei lotuta, gizarteko jarduerari lotuta. Gainera, kontuan harturik zein garrantzitsua den *kontzientzia hartzea*, gazteekin landu beharra dago zer esan nahi duen hizkuntza gutxitu bateko hiztuna izateak.

8.3. Gazteek euskarari atxikitzen dizkieten balioak, kontzientzia eta konpromisoa

Sarritan entzuten da euskal hiztun nagusiagoen artean gazteek ez dutela haiek adin horretan euskararekiko zuten kontzientzia eta konpromisoa. Euskaltegietako irakasleek maiz esaten dute ikasle-profila asko aldatu dela motibazioan. Orokortu ote liteke hori? Espero ote liteke belaunaldi berriek nagusiagoek haien adinean edo orain bezala bizitzea euskararekiko konpromisoa? Horrek esan nahi ote du ez dutela kontzientziarik ez konpromisorik? Hausnar dezagun galdera horien gainean gure datuetan oinarrituta.

Euskara ikasteko motibazioei dagokienez, desberdintasun nabarmen bat azpimarratu behar dugu: gaur 45 urtetik gora duten euskal hiztun berriek erabaki kontzientea hartu zuten eta ahalegin handia egin zuten euskaltegian ikasteko. Hizkuntza-murgilketan ikasi dutenen kasuan, berriz, gurasoek hartu zuten erabakia eta askotan haiek ez dute hausnarketa pertsonalik egin eta ez zaizkio lotu erabaki horri; are gehiago, eztabaida-taldeetan, galdetu zaienean, gazte askok ez dute jakin azaltzen gurasoek zergatik matrikulatu zituzten euskaraz murgiltzeko eredu batean.

Euskararekiko atximendu maila dugu beste kontu interesgarri bat. Berrito ere, nagusien artean euskararen egoerari buruzko diskurtso landua aurkitu dugu eta argi azaldu dute euskara zer den eurentzat; gazte askoren kasuan, berriz, horren gaineko gogoetarik eza ikusi da. Nahiz eta partaide guzti-guztiek adierazi duten pozik daudela euskara ikasi izanarekin, horrek ez du jarrera proaktiboa ekarri kasu guztietan. Euskara ikasteak ez dakar halabeharrez hizkuntzarekiko identifikazioa ezta konpromisoa ere: batzuetan bai eta beste batzuetan ez. Ikasle batzuek beste edozein hizkuntza balitz moduan ikasi dute euskara, euskarari ia baliorik erantsi gabe. Beste kasu batzuetan, diskurtso estereo-

tipikoak aurkitu ditugu: «zenbat eta hizkuntza gehiago hobeto», «hobe euskara txikitan ikastea» eta antzekoak, baina sakoneko hausnarketarik gabeak.

Euskararen egoerari buruzko kontzientziari dagokionez, ikusi ditugun ideia batzuk arriskutsuak iruditzen zaizkigu, besteak beste, «arrosa koloreko etorkizuna» esan dioguna (Amorrortu eta beste 2009): orain «denok dakigunez», «euskararen aldeko politika linguistikoa dagoenez», edo «euskara jadanik arriskuan ez dagoela» pentsatzea.

Alde positiboan esan dezakegu den-denak daudela pozik euskara ikasi dutelako eta batzuek, erabili ezik euskara galtzeko arriskua ikusita, horretaz kezkatuta, neurriak hartu dituztela hori gerta ez dakien. Baina, gainera, bai ikerketa kualitatiboan, bai kuantitatiboan, egiaztatu dugu gazteek balio eta sentimendu positiboak dituztela euskararekiko. Sentimendu positibo horiek ezagutzeko modu bat da euskarak ekarri dizkien **«sariak»** aztertzea, hau da, euskara jakiteak zer ekarpen egin dien.

Eztabaida-taldeetan garbi agertu zen, aurreikus zitekeen moduan, balio integratzaileak argiagoak direla euskaldunagoak diren testuinguru soziolinguistikoetan, hiztun berrien lagun-taldea euskaraz erlazionatzen bada batez ere. Gazte horiek argi dute euskararik gabe beren bizitza oso desberdina izango zatekeela eta beste lagun batzuk edukiko zizketela; argi dute euskarak eman diela dituzten sare eta lagun-taldeetarako sarbidea. Zalantzarik gabe, oso kontzientzia maila altua dute horretaz. Batzuek diote bestelako pertsonak izango ziratekeela. Euskara ez datorkielako «etxetik» hain zuzen ere, ematen du oso ondo konturatzen direla gauzak bestela izan zitezkeela; izan ere, haien lagun eta senitarteko batzuek bestelako bizipenak izan dituzte. Halako kasuetan faktore integratzailea identitateagaz nahasita egon ohi da: euskara jakiteak eman dizkien esperientziek eratu dute haien identitatea.

Unibertsitatean lagun berriak egin dituzten gazteen kasuan, edo euskaraz hitz egiten den herri batera bizitzera joan direnengan, **balio integratzaile** hori oso erreala da, baina ia denean gaztelaniaz bizi diren askorentzat euskara ez da integratzeko hizkuntza... ala bai, baina beste modu batera? Hausnar dezagun apur bat gehiago horretaz. Nahiz eta askok ez duten euskararik behar eguneroko bizimoduan, aktibatu egiten dute aukera datorkienez: Kafe Antzokiko kontzertu batera doazenean, euskaraz egiten den herri batera doazenean... Dena dela, **identitate-balioa** argia da, indar handiagoz edo txikiagoz, pertsonaren arabera. Gure lagineko gazteak euskal herritar sentitzen dira eta euskara euskal herritar izatearen osagai garrantzitsutzat jotzen dute. Ikerketa gehiago egin beharko lirateke euskara umetan ikasi baina apenas erabiltzen duten gazte hauek hizkuntzan ikusten dituzten balioak sakonago aztertzeko; eta, era berean, interesgarria litzateke gazteen euskal identitatearen nondik-norakoak ikertzea. Batzuentzat ematen du euskara zintzilik daramaten domina bat dela elementu aktibo bat baino gehiago.

Ikerketa kuantitatiboak erakutsi du zenbateraino dauden hedatuta eztabaida-taldeetan aipatutako «sariak» edo onurak (ikusi 7.2.3.2). Gazteen emaitzak eta beste adin-taldeenak ez dira oso desberdinak eta horrek agerian jartzen du nolako kontzientzia dagoen gizartean euskara ikasteak hiztun berriari dakarkionaz.

Nahiz eta ikerketa kuantitatiboak ez duen berretsi, ikerketa kualitatiboan **balio instrumentalaren** kontzientzia handiagoa ikusi zen gazteengan nagusiengan baino. Hori ez da berez negatiboa: euskara balio hori irabazten ari da eta gazteek uste bide dute gaur egun euskara jakitea garrantzitsua edo komenigarria dela. Dena dela, kezkarria litza-teke balio instrumental horrekin batera balio «barnekoagoak» ez egotea, hots, balio integratzailearekin eta identitarioarekin zerikusia dutenak.

Ez inposatzearen diskurtsoa: euskara norberaren aukera da. Deigarria da «ez inposatzearen diskurtsoa» izendatu duguna (ikusi 4.5.5.), hau da, euskara ezin dela inposatu, erabilera norberaren aukera dela dioena. Esan liteke nagusiagoen belaunaldiek euskararen aldeko diskriminazio positiboa, guztion inplikazioaren beharra, barneratuago dutela; gazteen artean, berriz, proiektu komun horren ideia ez da hain sarri agertzen, norbanakoaren aukera nagusitu da, ikerketa kualitatiboak erakutsi digunez.

«Bi hizkuntzen diskurtsoa» eta euskararen transmisioa. Gure gazte gehienek oraindik seme-alabarik ez badute ere, deigarria da nolako aldea dagoen nagusiek eta gazteek nahi dituzten transmisio-ereduen artean. Ikerketa kualitatiboan ikusi dugunez (ikusi 5. kapitulua), aldea dago batzuen eta besteen arteko diskurtsoan. Gazteak «bi hizkuntzen» transmisioaren alde azaltzen dira, eta arrazoibide moduan esaten dute «bi hizkuntzak ondo ikas ditzaten». Nagusiagoen artean, berriz, ohikoa zen familian euskara bakarrik transmititzea hautatzea, ahal dela (guraso biak euskaldunak izanez gero), euskara bermatzeko eta inguruko gaztelaniaren presioa konpentsatzeko, hain zuzen ere. Helduen arrazoibideek argi erakusten dute hobeto ezagutzen dutela nolako desoreka duten bi hizkuntzek euskal gizartean. Gorago esan dugunez, gazteek kontzientzia gutxiago dute nolako egoeran dauden euskara eta gaztelania EAEn eta zer esan nahi duen hizkuntza gutxitu baten hiztuna izateak; eman dituzten arrazoibideak bat datoz horrekin.

Ikerketa kuantitatiboak (ikusi 7.2.5, 25. grafikoa) datu interesgarriak erakutsi ditu. Galde-sortako bi galdera (G19d eta G20) gurutzatuz gero, helduen benetako praktikak eta gazteen asmoak alderatu ditzakegu. Lehenago esandakoaren haritik, hiztun berri helduek hizkuntza bakarraren transmisio-eredua agertzen dute: edo euskara edo gaztelania, baina, ahal dela, euskara. Gazteen asmoetan, euskara hutsaren transmisioa nagusia bada ere, hizkuntza bien transmisioak presentzia handiagoa du. Gazteen artean gaztelania hutsa transmititzeko asmorik ia ez dago. Etorkizunerako asmoei buruzko datuetan kontuz ibili beharra badago ere, oso positibotzat jotzen dugu hiztun berri gazteek hizkuntzaren transmisio sozialean eskolarekin batera parte hartzeko asmoa izatea. Mezezi du hausnartzea bi hizkuntzak transmititzeko asmoa duten gazteen % 34,6 horretaz. Datu hori lorpen moduan interpreta daiteke, lehen gaztelania hutsa transmititzeko asmoa zutenak bazirela kontuan hartuz gero; baina «bi hizkuntzen diskurtsoa»rekin lotuta ere egon daiteke (ikusi 5.3.6.), oso hedatua baitago gazteen artean «bi hizkuntzak maila berean» ideia. Ikusi dugunez, diskurtso horrek euskararen egoeraren kontzientzia falta erakusten du sarritan; izan ere, euskararen eta gaztelaniaren arteko erlazioa berdintasunetik urruti dago oraindik.

8.4. Gazteen hizkuntza-identitatea

6. kapituluari zabal hitz egin dugu gazteek «nolako euskal hiztuna naiz?» galderari emandako erantzunen gainean. Haien autopertzepzioa adierazle argia izan da ikusteko hiztun on sentitzen diren eta hiztun legitimo sentitzen diren. Horrek zuzeneko eragina du haien jokabidean eta hizkuntzaren erabileran. Hizkuntza-identitatean hiru kategoria ikusi ditugu: *euskaldunberri*, *euskaldun* eta *euskaldun zahar*, eta nola atxikitzen zaizkion hiztunak bati edo beste bati. Gazteen kasuan, kontuan hartuta gehienek murgilketa goiztiarrean ikasi zutela 2-3 urte zituztela, gure hipotesia zen askok *euskaldun zahar*-tzat hartuko zutela beren burua. Harrituta ikusi genuen ikerketa kualitatiboan gazte batek baino ez zuela zalantzarik gabe adierazi *euskaldun zahar*tzat zuela bere burua (ikusi 6.5.4.).

Ikerketa kuantitatiboak kualitatiboan ikusitako joerak berretsi ditu: 18 urtetik 26ra bitarteko taldekoen % 10,1ek baino ez du *euskaldun zahar*tzat jo bere burua, eta datu hori bat dator ikerketa kualitatiboaren emaitzarekin. Kontua da 27-37 urteko taldekoen % 7,7 baino gehiago dela eta 38-55 urteko taldekoen % 3,7 baino askoz gehiago. Datuek erakusten dute gazte horiek oso inguru soziolinguistiko euskaldunean bizi direla; beraz, pentsatzekoa da beren burua *hiztun natibotzat*, *euskaldun zahar*tzat jotzen duten gazteek «euskaraz bizi»-tzetik hurbil dagoen ikasesperientzia eta erabilera dutela. Gure ustez, datu horrek berresten du ama-hizkuntzaren ideologia «hausteko» bidean urratsak ematen ari direla (ikusi 6.5.4.) eta posible dela nork bere burua *euskaldun zahar*tzat jotzea etxeko transmisioko hizkuntza euskara izan barik ere.

Beste kategoriei dagokienez, ikerketa kualitatiboan ezustea izan zen aurkitzea zenbat gazte identifikatzen diren *euskaldunberri* kategoriarekin, nahiz eta kategoria hori askok nagusitan euskaltegian ikastearekin lotzen duten. Kategoria horrekin identifikatzen diren gazteek ezaugarri hauek partekatzeke joera dute: oso inguru erdaldunetan bizi dira, murgiltze-ereduetan ikasi dute baina apenas hitz egin zuten euskaraz eskolatik kanpo eskolan zeuden bitartean, eta orain euskara erabiltzeko aukera gutxi dute; ez dute konfiantzarik beren hizkuntza-trebetasunetan, gaitasuna falta dutela konturatzen dira edo galtzen ari direla ez erabiltzeagatik; batua baino ez dute. Batzuek ez diote garrantzirik ematen horri, eta erraztasuna da faltan botatzen dutena, baina beste batzuek batuarekin lotzen dute euren hizkeraren naturaltasun falta. Ikerketa kuantitatiboan 16-25 adin-taldekoen % 34,1 dira; nahiz eta nagusiagoen adin-taldeena baino ehuneko txikiagoa izan, asko deritzogu.

Azkenik, *euskaldun* kategoria gazteen % 53k hautatu du, beste adin-taldeetan baino gehiagok. Portzentaje horrek pentsarazten digu kategoria hori sendotuz doala eta modu positiboan balioesten dugu hori; izan ere, *euskaldunberri* kategoria gainditzea esan nahi du, baita legitimitate maila handiagoa ere. (Ikus 6.4 atala)

Gure iritziz, modu desberdinean interpretatu behar dugu gazteen eta helduen *euskaldunberri* kategoriarekiko identifikazioa. Batzuen eta besteen arrazoibideak berdinak dira,

baina helduetako batzuek, gaitasun eta erabilera onak edukita, eta oro har beren burua *euskalduntzat* hartuta ere, *euskaldunberri* kategoriari atxikitzen diote gauzak gehiago zehaztu nahi dituztenean, barneratuta dutelako termino horren ohiko esangura: heldua-roan euskaltegia ikasi duena. Gazteek, aldiz, beste era batera bizi izan dute sailkapen hori, askok «lehengo» egoera politiko-linguistikoarekin lotzen dute terminoa. Horregatik, susmatzen dugu gazteen artean termino horrek karga berezia duela, kontuan hartu beharrekoa, eta legitimitate faltako sentimentuak bildu ditzakeela, «falta zaidana»z bereriko diskurtsoetan oinarrituta.

Gazte-DO gazteen eztabaida-taldean gai honek interes handia piztu zuen, eta gako batzuk atera genituen egin ziren bereizketetatik:

- Ez da gauza bera **euskaraz egitea** eta **euskalduna izatea**.
- Ez da gauza bera **euskalduna sentitzea «euskal herritar» zentzuan**, nazio- edo kultura-identitate gisa, eta **euskalduna sentitzea «euskal hiztun» zentzuan**.

Irakur ditzagun aipu hauek:

- (322) Eske ez dakit, ez dakit. Aber, ni[k] gehiau erderaz hitz egiten det, baino, eske, euskeraz dakit ta euskeraz hitz egin dezaket, eske ez dakit. Euskalduna ez da ze ez da nere ama hizkuntza eta ez det ordun guztitan ta momentu guztitan euskeraz hitz egiten. Ordun ezin det euskaldun, euskaldun naizela esatea. / Euskaraz pentsatzea, nere ustez hori euskalduna izatea dela, bueno, ni adibidez ezin det hori esan. Ta gero euskaldun izatea naizela hori ez eukita, osea, nire lehenengo hizkuntza erdera izanda... ba ezin det, ezin det esan. (Gazte-DO-C, 453/455)
- (323) Hizkuntza bakarrik baldin bada, ez, baino orokorrean zu nola sentitzen zean, ba bai, **euskalduna, hemengoa, baino euskerarekiko ez**. (Gazte-DO-E, 469)
- (324) Bai, bai nik adibidez **lotzen dut euskaldun izatea lehenengo ideia da Euskal Herrian bizi-tzea, baina gero hizkuntzarekin lotzen dut gehiago adibidez euskaldunberria deitzea edo**. Ni adibidez ez dakit euskaldun berria naiz edo ez, ze euskara ez dut ama hizkuntza bezala eta euskalduna sentitzen naiz Euskal Herrian bizitzen naizelako bakarrik, baino..., **hizkuntzarekiko ez dut lotura handia**. (Gazte-DO-A, 477)
- (325) [Euskalduna izateko zer da garrantzitsuena?] Euskera erabiltzea. Ba **jakitea, baina baita ere erabiltzea, euskeraz erabiltzen dezunen ba zure hizkuntza bihurtzen da**. (Gazte-DO-F, 486)

Ikusten dugunez, gazte horiek uste dute ezin dutela esan *euskaldunak* direnik «hizkuntzari dagokionez». Euskaraz badakite (eztabaida-taldearen saioa euskara hutsean egin zen), baina ez dutenez lotura esturik hizkuntzarekin (batzuek esan zuten ia-ia ez dutela erabiltzen, ez dagoela presente euren bizitzan), uste dute asko esatea litzatekeela *euskaldunak* direla esatea, izatekotan, *euskaldunberriak* direla.

Komeni da halako hiztun gazteen profilak ondo ezagutzea. Hemen haien esperientziara hurbildu gaitzaketen ideia batzuk aztertu ditugu. Baina hori ez da EAEko errealitate bakarra: euskara etxetik kanpo ikasi duten gazte askok hizkuntza euren bizitzan txertatu dute eta normaltasunez darabilte. Azaldu dugunez, portzentaje txiki batek, % 10,1ek, du bere burua *euskaldun zahartzat*, ama-hizkuntzaren ideologiaren indarraren ondorioz (ikusi 6.3.1.), baina pentsatu behar da portzentaje horrek gora egin dezakeela. Edo ez; izan ere, gaur egungo euskal hiztun berrientzat kategoria hori ez da esanguratsua: pentsa liteke euskararekin eroso eta gustura dauden hiztun berriak definitzeko *euskaldun* kategoria erabiliko dela. Oraintxe bertan gazteen erdiak baino gehiago (% 53) identifikatzen dira kategoria horrekin. Ikerketa kualitatiboak eman zizkigun gakoak: gaitasun maila ona, mintzatzeko erraztasuna batez ere eta ziur aski lagun arteko elkarrizketetarako baliabide informalak; euskara erabiltzeko aukerak, hizkuntza egunero erabiltzeko behintzat; batzuentzat (inguru euskaldunetan bizi direnentzat), tokiko aldaera ezagutzea, bizi diren tokikoa edo lagunen tokikoa. Gako horiek indartu egin behar dira inguru mesedegarrietan eta sormenez heldu behar zaie hain mesedegarriak ez diren inguru eta egoeretan.

8.5. Azken gogoetak

Aspaldion euskal gizartearen gazteei buruz egiten ari diren gogoetei ekarpena egin nahian, kapitulu honek gure ikerketak euskal hiztun berri gazteen artean izan dituen emaitzen sintesia egin du, 18-26 urte bitarteko taldea kontuan hartuta batez ere.

Hiztun horietako gehien-gehienek hezkuntzako murgiltze goiztiarreko eruedetan ikasi dute euskara. Hizkuntza eskuratzeko modu hori ez da berria eta badakigu Europako eta munduko gainerako tokietako hizkuntza gutxitu askok handitu dutela hiztunen masa kritikoa hezkuntzari esker. Ez da hain ohikoa, ordea, hizkuntza-elkarte batek eskola-popolazioaren gehiengoa edukitzea hizkuntza gutxituko murgiltze-eruedetan (halako ereduek lortzen dituzte, hain zuzen ere, hizkuntza-gaitasun maila altuak). Eta, gainera (ez dezagun ahaztu), gurasoek hautatuta.

Dagokion neurrian balioetsi behar da euskal gizartearen ahalegin hori, euskaraz mintzatu ez baina seme-alabak euskaraz ikastera bidaltzen dituzten herritarrena barne. Alabaina, inozoak ginateke pentsatuko bagenu halako ahalegin handiak berez lortuko duela ikasle guztiek hizkuntza gorengo mailan ikastea edo euskararekiko konpromisoa hartzea eta euskal hiztun aktibo bihurtzeko moduko jarrera proaktiboa garatzea. Ikusi dugunez, hala izan da hiztun askoren kasuan, baina beste askorenean ez. Ulergarria da horretan sinestea, kontuan hartuta nolako itxaropen eta ilusioak zituen trantsizio politikoa bizi izan zuen belaunaldiak, baina egoera halako betaurrekoekin aztertuz gero, arriskua dugu errealitatea desitxuratuta ikusteko eta oso irakurketa negatiboak egiteko, lortu nahi zen aldaketa zein konplexua den kontuan hartu gabe.

Lehenengo mugarri handia da euskarak hiztun horiek guztiak irabazi dituela, bestela irabaziko ez zituenak edo ez hain laster, behintzat. 25 urtetik beherakoen ia %80k eus-

karaz egin ahal izateak (Eusko Jaurlaritza, 2014) aukera ematen du hainbat eta hainbat ekimen aurrera eramateko, osterantzean bideragarri izango ez zirenak: adibidez, gazteentzako hainbat ekitaldi euskara hutsean antolatzea, askok dakitelako; aukera ematen du euskaldunak haur eta gazte ezezagunei euskaraz zuzentzeko, probalitate handia dagoelako ulertuko dietela. Hori oso positiboa da. Horrenbestez, gure datuek berretsi dute eskola eraginkorra dela euskara etxean edo kalean eskuratu ez duten ikasleak elebidun bihurtzeko, eta egitate horrek lagundu behar digu etsipenean ez erortzen hezkuntzako esperientziaren mugen irakurketa sinplistik egiten direnean.

Bestalde, espero izatekoa zen hiztun berri guztiek elebitasun maila altua ez lortzea, euskalduntze-prozesuaren eskalatik beragatik ezbairik gabe. Gainera, liburu honetan zehar behin eta berriro ikusi dugu hiztun berri asko bizi diren inguru soziolinguistikotatik ez dela erraza hizkuntza eskolatik beste erabilera-eremu batzuetara pasatzea. Makro mailan, egia da euskarak erabilera-eremu eta funtzio berriak bereganatu dituela, baina mikro mailan, oraindik urruti dago hiztun berri askok funtzio eta eremu horiek bereganatuak izango dituzten eguna. Etorkizunerako erronka da hori, lortzeko lanean jarraitu beharko da.

Euskal hiztunen kopurua nabarmen areagotzea mugarri interesgarria da maila kuantitatiboan, eta are interesgarriagoa maila kualitatiboan. Gure ikerketak frogatu du hiztun berri asko daudela euren elebitasunarekiko oso gustura eta eroso daudenak. Ikusi dugunez, gazte asko «jatorrizko» hiztunak, hiztun «natiboak» bezalakoak dira. Hori, zalantza barik, oso positiboa da, baina azpimarratu nahi dugu «jatorrizko hiztunak ematen ez duten» (beharbada euskalkian egiten ez dutelako) hainbat hiztun berri ere oso gustura eta legitimatuta sentitzen direla. Horrek argi erakusten digu era askotara izan daitekeela *benetako euskalduna*. Batzuk eta besteak, denak dira euskararen normalizaziorako eragile aktiboak.

Lorpenak lorpen, gure ikerketa honek agerian jarri du hezkuntza-sistema ez dela aski. Euskara biziberritzeko prozesuen plangintzak garrantzi handia ematen dio hiztun kopurua handitzeari. Eta, ezbairik gabe, garrantzitsua da, baina, egiaztatu dugunez, horrek ez du bermatzen erabiltzeko jautzia egingo dutenik: murgiltze osoko ikastetxeetan, ume eta gazte guztiek dakite euskaraz, baina, ikusi dugunez, askok ez dute euskara lagunekiko komunikaziora ekarri. Beste zerbait behar da: batetik, gaitasunari dagokionez, lagunekin erabiltzeko erregistro informala («etxeko» hiztunek familian jasotzen dutena) (Altuna, 2008), eta bestetik, euskararekiko lotura eta funtzioei dagokienez, euskara *eskolako hizkuntza eta eskolarako hizkuntza* ideia gainditzea. Eta zerbait horrek zerikusia du haur-gazteek hizkuntza eurentzat esanguratsuak diren sozializazio-guneetan erabiltzearekin, halako guneetan garatuko baitute hizkuntzarekiko atxikimendua bi arlotan: sozialean eta emozionalean. Horri identitate-arloa gehituz gero, probabilitate handia dago gazte horiek jauzi egin dezaten hizkuntza ezagutzetik, euskaraz jakitetik, hizkuntzaren hiztun aktibo izatera, euskaraz bizitzera, neurri batean behintzat. Familia erdaldunetakoak izanik, bizimodua euskaraz egiten den inguruetan bizi eta euskaraz jarduten duten gizarte-sareak dituzten gazteek eskura dituzte sozializazio-gune garrantzitsu horiek. Baina oso inguru erdaldunetan bizi diren euskal hiztun berri gazte askorentzat sortu

egin behar dira. Hori ez da ikerketa honen aurkikuntza berria; aitzitik, lan honek berretsi egin du gizarteko hainbat eragilek, erakundek eta adituk lehenago ere esandakoa. Horrexegatik jarri dira martxan dagoeneko hainbat ekimen Euskal Herri guztian, besteak beste, Kuadrillategi proiektua¹. Erronka handia da hori (izan ere, hizkuntzaren erabilera sozialak konplexuak dira). Dena dela, positiboa da erronka hau identifikatua egotea eta elkarre ezberdinetako agendetan (esaterako, Urtxintxa Eskola) zein erakunde publikoetako euskara sustatzeko zerbitzu eta sailetan (azkena, Hizkuntza Politikaren Sailburuordetzak sustatutako *Eta hemendik aurrera zer?* (2016)) presente egotea.

Beste gogoeta bat egin dugu: beharbada aztertu beharko dugu nolako betaurrekoz begiratzen diegun hiztun berri gazteei, zer parametroz interpretatzen ditugun. Pentsatzen hasi beharko genuke beharbada halako hiztunentzat euskal hiztuna izateak eta elebiduna izateak duen zentzua ez dela belaunaldi nagusiagoentzat zena; ulertu beharko genuke beharbada beste era batera bizi eta sentitzen dutela euskara eta hizkuntzen arteko erlazioa —euskararen eta gaztelaniaren artekoa, baina ez hori bakarrik—; eta, beraz, beste giltz batzuk behar ditugula haien motibazioak eta balioak ulertzeko. Horretan bat gatoz Jone Miren Hernándezek zuzendutako eta Euskararen Aholku Batzordeak (2016) argitaratutako *Gu Gazteok* txostenarekin.

Azkenik, gure ikerketak hiztun berriak aztertu ditu, baina susmoa dugu hemen aipatu ditugun hainbat kontu antzekoak direla euskara etxean ikasi duten gazteen artean ere; urrunera barik, elebiduna izateko modua, oraintxe aipatu duguna. Zentzu horretan, euskara etxetik kanpo ikastea beste aldagai bat baino ez da gazteen profil eta esperientzia konplexuak gorpuzten dituztenen artean.

Ikerketa amaitzeko gaudela, galdera gehiago ditugu erantzunak baino, baina uste dugu datuak lagungarri izan zaizkigula, eta izango zaizkiela beste ikertzaile batzuei ere, gazteen inguruan zer galdera egin behar ditugun, batzuk behintzat, hautematen. Ikertzen jarraitu beharra dago eta, batez ere, gazteei entzun beharra dago ikertzeko orduan.

¹ *Kuadrillategi* nerabe eta gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko proiektua da. Kuadrillategiren oinarria da aisialdian sortzen direla euskararen erabilera ez formalak eta harreman berriak euskaraz hasteko aukerak.

Erreferentzia bibliografikoak

- Almgren, M., Beloki, L., Idiazabal, I. eta Manterola, I. (2008). Acquisition of Basque in successive bilingualism: data from oral Multilingualism. In P. Siemund, N. Kintana. (arg.), *Language Contact and Contact Languages* (239-259 or.). Amsterdam: John Benjamins.
- Altuna, O., Iurrebaso, I., Isasi, X., Martínez de Luna, I., Ramos, R. eta Uranga, B. (2012). Hizkuntzen kale-erabileraren VI. Neurketa, 2011. Emaita nagusiak. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 84 (3): 31-58.
- Amonarriz, K. (2008). Gazte hizkerak – Hizkera gazteak. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 68 (3): 167-183.
- Amonarriz, K. (2003). Eske hau superguaya da. *Sustatu Interneteko albistegia*, 2013/10/04. <http://sustatu.eus/1051689395>. 2015/10/28an azkenengoz ikusia.
- Amorrortu, E., Ortega, A., Idiazabal, I. eta Barreña, A. (2009). *Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Amorrortu, E. eta Ortega, A. (2010). Euskararen balioak eta gazteen erabilera: heldu erdaldunen pertzepzioak. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 77 (4): 117-134.
- Amorrortu, E. eta Ortega, A. (2011). Euskarara hurbiltzeko jarrera mesedegarri eta oztopatzailerak komunikazioa. Udaltop *Zer da euskara euskaraz ez dakitenentzat? Haiek euskarara hurbiltzeko, zer eta nola egin daiteke udaletatik?* jardunaldietan aurkezturiko lana (2011/04/07), argitaragabea.
- Anaut Peña, D. (2010). Argiak eta itzalak euskararen lurraldean euskararen etxean gazi-gozo. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 74: 17-42.
- Arejita, A., Eguzkitza, J., Iraola, J. M. eta Uriarte, J. (1983). *Bizkaieraren idatzizko arauak. Deklinabidea eta aditza*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua.
- Arratibel, N. (2001). Ukipeen-egoeran dauden menpeko hizkuntzen jabeakuntza. In N. Arratibel, M.J. Azurmendi eta I. García. *Menpeko hizkuntzaren bizi-kemena*. Bilbao: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Artetxe, K. eta Kintana, J. (2014). New Basque Speakers at University: A Brief Historical Approach. *2n Simposi Internacional: Nous Parlants en l'Europe Multilingüe*. Bartzelona, 2014ko azaroaren 20-22.
- Auer, P. (1998). Bilingual Conversation Revisited. In P. Auer, *Code-switching in Conversation: Language, Interaction and Identity* (1-24 or.). London: Routledge.

- Bell, A. (1984). Language Style as Audience Design. *Language in Society*, 13 (2): 145-204 or.
- Baztarrika, P. eta Erize, X. (2016). *Eta hemendik aurrera zer? Euskararen garapenaren iraunkortasuna edo «dabillan harriari etzaika goroldiorik lotzen»*. Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. In: http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/noticia/eta_hemendik/eu_def/adjuntos/Eta%20hemendik%20aurrera%20zer_2016-05-03.pdf. 2016/06/12an azkenegoz ikusia.
- Baxok, E., Etxegoien, P., Lekunberri, T., Martinez de Luna, I., Mendizabal, L., Ahedo, I., Itzaina, X. eta Jimeno, R. (2006). *Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Bizkaiko Foru Aldundia eta Labayru Ikastegia (2010). *Bizkaieraren Ataria*. In: <http://www.bizkaiera.biz.2015/11/03an> azkenegoz ikusia.
- Bourdieu, P. (1991 [1982]). The Production and Reproduction of Legitimate Language. In J.B. Thompson (arg.), *Language and Symbolic Power* (43-65 or.). Cambridge, MA: Harvard University Press.
- Brown P. eta Levinson, S.C. (1987 [1978]). *Politeness. Some Universals in Language Usage*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Bucholtz, M. (2003). Sociolinguistic Nostalgia and the Authentication of Identity. *Journal of Sociolinguistics*, 7 (3): 298-416.
- Bucholtz M. eta Hall, K. (2004). Language and Identity. In A. Duranti (arg.), *A Companion to Linguistic Anthropology* (369-394 or.). Oxford: Blackwell.
- de Bres, J. (2014). Competing Language Ideologies about Societal Multilingualism among Cross-border Workers in Luxembourg. *International Journal of the Society of Language*, 227: 119-137.
- De Houwer, A. (2009). *Bilingual First Language Acquisition*. Bristol: Multilingual Matters.
- Dorian, N. (1981). *Language Death. The Life Cycle of Scottish Gaelic Dialect*. Philadelphia: University of Philadelphia Press.
- Dorian, N. (1994). Purism vs. Compromise in Language Revitalization and Language Revival. *Language in Society*, 23 (4): 479-494 or.
- Edwards, V. eta Newcombe, L.P. (2005). When School is not enough: New Initiatives in Intergenerational Language Transmission in Wales. *International Journal of Bilingual Education and Bilingualism*, 8 (4): 298-312.
- Europako Kontseilua (2001). *A Common European Framework of Reference for Languages*. Estrasburgo: Europako Kontseilua.
- Euskararen Aholku Batzordea – Gazteriaren Batzorde-atala (2016). «Gu Gazteok». 12-14 urteko gazteen hizkuntza egunerokotasunera hurbiltzeko ikerketa partehartzailea. Laburpen txostena eta Lan-ildoen proposamena aurrera begira. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. In: https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/8239/Gu_gazteok.pdf?1465393066. 2016/06/12an azkenegoz ikusia.
- Eusko Jaurlaritza (2013). *V. Inkesta Soziolinguistikoa. Euskal Herria, Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa, Iparraldea*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Eusko Jaurlaritza (2011). *V. Mapa Soziolinguistikoa. 2011*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Eusko Jaurlaritza (2009). *IV Mapa Soziolinguistikoa. 2006*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Eusko Jaurlaritza (2008). *Euskal Herriko Hizkuntza-adierazleen Sistema*. In: http://www1.euskadi.net/euskara_adierazleak/about.apl?hizk=c. 2014/04/15ean azkenegoz ikusia.
- Eusko Jaurlaritza (2005). *III. Mapa Soziolinguistikoa. 2001*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

- Eustat (Euskal Estatistika erakundea) (2013). *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsua 2011*. In: http://es.eustat.es/ci_ci/elementos/ele0010600/tbl0010647_c.html#axzz2zS0aM2Rm. 2014/04/13an azkenengoz ikusia.
- Fishman, J. A. (1991). *Reversing Language Shift. Theoretical and Empirical Foundations of Assistance to Threatened Languages*. Clevedon: Multilingual Matters.
- Gardner, R.C. eta Lambert, W.E. (1972). *Attitudes and Motivation in Second-Language Learning*. Newbury House: Rowley, MA.
- Giles, H., Coupland, J. eta Coupland, N. (1991). *Contexts of Accommodation: Developments in Applied Sociolinguistics*. Cambridge: Cambridge University Press.
- González, I., J. Pujolar, A. Font eta R. Martínez (2009). *Entre la identitat i el pragmatisme lingüístic. Usos i percepcions lingüístiques dels joves catalans a principis de segle*. Generalitat de Catalunya. Direcció General de Política Lingüística. Observatori de la Joventut.
- Grillo, R. (1989). *Dominant Languages: Language and Hierarchy in Britain and France*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Gumperz, J. (1982). *Discourse Strategies*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Haugen, E. (1983). The Implementation of Corpus Planning: Theory and Practice. In Juan Cobarrias, J. A. Fishman (arg.), *Progress in Language Planning: International Perspectives* (269-289 or.). Berlin: Mouton.
- Hernández, J.M. (2007). *Euskara, comunidad e identidad. Elementos de transmisión, elementos de transgresión*. Madrid: Ministerio de Cultura.
- Hernández, J.M. (2015). Familia hizkuntza-politika: Transmisioa ulertzeko eredu berri baten bila. *BAT Soziolingüistika Aldizkaria*, 94: 47-62.
- Hymes, D.H. (1972). On Communicative Competence. In Pride, J. B. eta Holmes, J. (arg.), *Sociolinguistics* (269-293 or.). Baltimore, USA: Penguin.
- Ibarra, O. (2011). *Nafar euskaldun gazteen ahozko diskurtsoa*. Iruñea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- Inda, M. (2014). Mintzapraktika egitasmoak, arnagune funtzionalak. In *Gaur, Euskara praktikatu. Bihar, euskaraz bizi* AEKren Jardunaldian aurkeztutako lan argitaragabea. Bilbo, 2014ko azaroaren 28an.
- Irvine J. eta Gal, S. (2000). Language Ideology and Linguistic Differentiation. In P. Kroskritt (arg.), *Regimes of Language* (35-84 or.). Santa Fe, NM: School of American Research.
- Jauregi, P. (2013). Euskara eta gazteak Lasarte-Oria II. Hizkuntzazko jokaerak. Lasarte-Oria: Lasarte-Oriako Udala. Euskarako Batzordea. In: http://administrazioa.lasarte-oria.org/ficherosFTP/es/Aldizkariak/Euskara/6.Euskara_eta_Gazteak_II.pdf. 2016/05/13an azkenengoz ikusita.
- Jauregi, P. (2015). Gaurko gazteak, biharko gurasoak. *BAT Soziolingüistika Aldizkaria*, 94: 63-70.
- Kasares, P. (2014). *Euskaldun hazi Nafarroan. Euskararen belaunez belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa Nafarroako familia euskaldunetan*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Krashen, S.D. (1981a). Bilingual Education and Second Language Acquisition Theory. *Schooling and Language Minority Students: A Theoretical Framework* (51-79 or.). Los Angeles: California State University.
- Krashen, S.D. (1981b). *Second Language Acquisition and Second Language Learning*. Oxford: Pergamon.
- Lambert, W.E. (1967). A Social Psychology of Bilingualism. *Journal of Social Studies*, 23 (2), 91-109 or.
- Lantto, H. (2012). Grammatical Code-Switching Patterns of Early and Late Basque-Spanish Bilinguals. *Sociolinguistic Studies*, 6 (1): 21-43.
- Lantto, H. (2014). Code-switching, Swearing and Slang: The Colloquial Register of Basque in Greater Bilbao. *International Journal of Bilingualism*, 18 (6): 633-648 or.

- Larrañaga, N. (1996). *Euskalerriko gaztetxoak euskararekiko dituzten jarrerak eta bere eragina euskara ikasi eta erabiltzean*. Doktorego tesia, Deustuko Unibertsitatea.
- Manterola, I. (2010). *Euskarazko murgilketa haur hezkuntzan: euskara-gaztelania elebitasunaren azterketa. Ahozko ipuinen analisi diskurtsiboa eta didaktikoa*. Europako Doktorego Tesia: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Mayring, P. (2000). Qualitative Content Analysis. *Forum: Qualitative Social Research*, 1 (2): 1-10.
- Meyerhoff, M. (2002). Communities of Practice. In J.K. Chambers, P. Trudgill eta N. Schilling-Estes (arg.), *The Handbook of Language Variation and Change* (526-248 or.). Oxford: Blackwell.
- Muñoz, I. (2002). Zergatik eta zertarako erabiltzen dugu euskara eta gaztelera solasaldi berean? *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 43: 53-63.
- Óhlfearnáin, T. (2013). Family Language Policy, First Language Irish Speaker Attitudes and Community-based Response to Language Shift. *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, 34 (4): 348-365.
- O'Rourke, B. (2011a). *Galician and Irish in the European Context: Attitudes towards Weak and Strong Minority Languages*. Palgrave: Basingstoke.
- O'Rourke, B. (2011b). «Whose Language is it?: Struggles for Language Ownership in an Irish Language Classroom». *Journal of Language, Identity and Education*, 10 (5). 327-345.
- O'Rourke, B., Ramallo, F. (2011). The Native – Non-native Dichotomy in Minority Language Contexts. Comparisons between Irish and Galician. *Language Problems and Language Planning*, 35 (2): 139-159.
- O'Rourke, B., Ramallo, F. (2013). Competing Ideologies of Linguistic Authority amongst New Speakers in Contemporary Galicia. *Language in Society*, 42: 287-305.
- O'Rourke, B. eta Ramallo, F. (2015). Neofalantes as an Active Minority: Understanding Language Practices and Motivations for Change amongst New Speakers of Galician. *International Journal of the Sociology of Languages*, 231, 147-165.
- O'Rourke, B. eta Pujolar, J. eta Ramallo, F. (2015). New Speakers of Minority Languages: The Challenging Opportunity. *International Journal of the Sociology of Language*, 231: 1-20.
- O'Rourke, B. eta Walsh, J. (2015). New Speakers of Irish: Shifting Boundaries across Time and Space. *International Journal of the Sociology of Languages*, 231, 63-83.
- Ortega, A. eta Amorrortu, E. (2010). Actitudes hacia el euskera de los no vascohablantes: valor instrumental e integrador. *Inguruak-Revista Vasca de Sociología*, 4-17.
- Ortega, A., Amorrortu, E., Goirigolzarri, J., Urla, J., Uranga, B. (2013). Hiztun berrien hizkuntza-identitatea: «nolako euskalduna naiz?». *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 87-88, 151-170 or.
- Ortega, A., Amorrortu, E., Goirigolzarri, J., Urla, J., Uranga, B. (2014). Nuevos hablantes de euskera: identidad y legitimidad. *Digithum*, 16: 86-97.
- Ortega, A., Urla, J., Amorrortu, E., Goirigolzarri, J., Uranga, B. (2015). Linguistic Identity Among New Speakers of Basque. *International Journal of the Sociology of Language*, 231: 85-105.
- Piller, I. (2002). Passing by a Native Speaker. *Journal of Sociolinguistics*, 6 (2): 179-206.
- Puidgevall, M., Walsh, J., Amorrortu, E. eta Ortega, A (agertzeko). New speakers and Linguistic Mudes: Becoming, Passing and Belonging. *Journal of Multilingual and Multicultural Development*.
- Pujolar, J. (2007). Bilingualism and the Nation-state in the Post-national Era. In M. Heller (arg.), *Bilingualism: A Social Approach* (71-95 or.). Basingstoke, U.K.; New York: Palgrave Macmillan.
- Pujolar, J., González, I., Font, A. eta Martínez, R. (2010). *Llengua i joves. Usos i percepcions lingüístics de la joventut catalana*. Barcelona: Generalitat de Catalunya. Departament d'Acció Social i Ciutadania. Secretaria de Joventut.

- Pujolar, J. eta González, I. (2012). Linguistic «Mudes» and the De-ethnicization of Language Choice in Catalonia. *The International Journal of Bilingual Education and Bilingualism*, 16 (2): 138-152.
- Pujolar, J. eta Puidgevall, M. (2015). Linguistic Mudes: How to Become a New Speaker in Catalonia. *International Journal of the Sociology of Language*, 231: 167-187.
- Romaine, S. (1995). 1995. *Bilingualism*, 2. argitaraldia. Oxford: Blackwell.
- Sanchez Carrión, J.M. «Txepetx» (1987). *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del Euskara y teoría social de las lenguas*. San Sebastián: Elkar.
- Sarasola, I. (1997). *Euskara batua ajeak*. Irun: Alberdania.
- Schieffelin, B.B. eta Ochs, E. (1986). Language Socialization. *Annual Review of Anthropology*, 15: 163-191.
- Sebba, M. eta Wootton, T. (1998). We, They and Identity: Sequential versus Identity-Related Explanation. In P. Auer (arg.), *Code-Switching in Conversation: Language, Interaction and Identity* (262-86 or.). London: Routledge.
- Siguan, M. (2001). *Bilingüismo y lenguas en contacto*. Madrid: Alianza Editorial.
- Skutnabb-Kangas, T., Phillipson, R. (1989). «Mother tongue»: The Theoretical and Sociopolitical Construction of a Concept. In U. Ammon (arg.), *Status and Function of languages and Language Varieties* (450-477 or.). Berlin / New York: Mouton de Gruyter.
- Soziolinguistika Klusterra. (2011). *Hizkuntzen kale-erabileraren VI neurketa*. In: <http://www.soziolinguistika.org>. 2014/04/15ean azkenengoz ikusia.
- Sridhar, K.K. (1996). Societal Multilingualism. In S.L. McKay eta N. H. Hornberger (arg.) *Sociolinguistics and Language Teaching* (47-70. or.) Cambridge: Cambridge University Press.
- Tejerina, B. (1992). *Nacionalismo y lengua*. Madrid: Siglo XXI de España.
- Urla, J. (1993). Contesting Modernities: Language Standardization and the production of an ancient/modern Basque culture. *Critique of Anthropology*, 13 (2): 101-118.
- Urla, J. (2012). *Reclaiming Basque: Language, nation and cultural activism*. Reno, NV: University of Nevada Press.
- Urla, J., Amorrortu, E., Ortega, A., Goirigolzarri, J. eta Uranga, B. (2016). Authenticity and Linguistic Variety among New Speakers of Basque. In *Language Documentation & Conservation*. Special Publication, 9. Vera Ferreira eta Peter Bouda (arg.) (1-12 or.)
- Urla, J., Amorrortu, E., Ortega, A. eta Goirigolzarri, J. (argitaratzeko). Basque Standardization and the New Speaker: Political Praxis and the Shifting Dynamics of Authority and Value. In P.M.J. Lane & J. Costa (arg.). *Standardizing Minority Languages: Competing Ideologies of Authority and Authenticity in the Global Periphery*. Routledge.
- Villanueva, A. (2013). *Un estudio de transmisión y actitudes lingüísticas en la Comunidad Autónoma Vasca y la Comunidad Foral de Navarra. Padres y madres castellanoparlantes escolarizados en lengua vasca*. Argitaratugabeko tesina. Suediako Dalarna Unibertsitate Publikoa.
- Walsh, J. (2012). *Contests and Contexts: The Irish Language and Ireland's Socioeconomic Development*. 2. argitaraldia. Oxford: Peter Lang.
- Woolard, K. A. (1998). Language ideology as a field of inquiry. In B. Schieffelin, K. Woolard eta P. Kroskrity (arg.), *Language Ideologies: Practice and Theory* (3-47 or.). Oxford: Oxford University Press.
- Woolard, K.A. (2008). Language and identity choice in Catalonia. The interplay of contrasting ideologies of linguistic authority. In K. Suselbeck, U. Muhlschlegel, P. Masson (arg.), *Lengua, nación e identidad: La regulación del plurilingüismo en España y América Latina* (303-323 or.). Madrid: Iberoamericana.
- Zalbide, M. (2009). Aurrez aurreko jardunaren lekua HINBE-saioetan. Udaltop Jardunaldietan aurkezturiko txosten argitaragabea. 2009/05/07.

Eranskinak

1. eranskina. Azterketa kualitatiboko galdesorta

Eskerrik asko ikerketa honetan parte hartzeagatik. Orain, inkesta anonimo labur hau betetzea eskatu nahi dizugu.

Jaio urtea		Emakumea		Gizon	
Nongoa zara?		Non bizi zara? Herria		Ikasketak	
Lanbidea			Azaldu labur zer lan egiten duzun		

Zein adinarekin hasi zinen euskara ikasten?				
	Eskolan	Euskaltegian	Kalean	Beste
Euskara, non ikasi duzu?				
	Etxean	Lagunartean	Lanean	Aisialdian
Zein esparrutan erabiltzen duzu euskara?				

Nolako euskara daukazu?							
HITZ EGITEKO				IDAZTEKO			
Oso ona	Ona	Nahikoa ona	Ez oso ona	Oso ona	Ona	Nahikoa ona	Ez oso ona
Zein neurritan ulertzen eta hitz egiten dituzu euskararen aldaera hauek?							
ULERTZEN DUT			HITZ EGITEN DUT				
	Ondo	Zerbait	Ezer ere ez	Ondo	Zerbait	Ezer ere ez	
Batua							
Bizkaiera							
Gipuzkera							
Beste							
Nola kokatzen duzu zure burua ideologia politikoari dagokionez? (1etik 5era markatu, 1 guztiz ezkerrean, 5 guztiz eskuinean eta 3 zentroko posizioa izanda)							
1		2		3		4	
5							
Ezkerre		Zentroa		Eskuina			
Euskal abertzaletasunari dagokionez, nola kokatzen duzu zure burua? (1etik 5era markatu, 1 guztiz euskal abertzalea, 5 bat ere ez euskal abertzalea eta 3 ez bata ez bestea izanda.) /							
1		2		3		4	
5							
Guztiz euskal abertzalea		Ez bata ez bestea		Bat ere ez euskal abertzalea			
Mahai-inguru honi buruzko zure iritzia emango diguzu? Eroso sentitu zara?							

Eskerrik asko

2. eranskina. Banakako elkarrizketen galdera-gidoia

Biografía

1. ¿Dónde naciste y en qué pueblos o lugares has vivido a lo largo de tu vida?
2. ¿Has vivido o tienes intención de vivir en otro país?
3. ¿Piensas quedarte a vivir permanentemente en el País Vasco?
4. ¿De dónde son tus padres? ¿Cuál es o han sido tus profesiones?
5. ¿Cuáles son las lengua(s) de tu primera socialización con tus padres, familia, o las personas que cuidaron de ti?
6. ¿Hubo otras lenguas presentes en tu entorno familiar en tu primera infancia?

Aprendizaje del euskara

7. ¿Cuándo y cómo aprendiste el euskara?
8. ¿Alguna persona en tu casa, familia, o antepasados sabe o sabía euskara?
9. ¿Alguien en tu entorno social cercano lo hablaba?
10. En tu proceso de aprendizaje, ¿qué proporción tenía las clases (escuela o euskaltegi) por un lado y el aprendizaje en la calle o cuadrilla por otro?
11. ¿Cómo valoras la importancia de esas formas de aprender el euskara? ¿Qué es lo que te aportó cada una: la escuela, por un lado, y la calle, por otro?
12. ¿Ves algunas ventajas o desventajas de la forma (formal o informal) en que has aprendido el euskara? ¿Ha tenido algún impacto en el euskara que hablas?
13. ¿Por qué te pusiste a estudiar euskara? Si fue más bien una decisión de tus padres, ¿estás contento/a con las decisiones que tomaron acerca del estudio (o no) del euskara y demás lenguas? ¿Por qué?
14. ¿Has sacado o querido sacar un título de euskara? ¿Cuándo y por qué? ¿Te ha servido para algo?
15. ¿Qué es lo que te ha aportado el saber euskara en tu vida? ¿Hay experiencias o cosas que te ha dado que piensas que no las tendrías si no supieras euskara?
16. Aparte del euskara y castellano, ¿qué otras lenguas has estudiado o sabes?

Uso del euskara

17. ¿Te acuerdas cómo empezaste a hablar euskara? ¿En qué espacios? ¿Con qué personas? ¿En qué circunstancias? [Dejar hablar, pedir detalles, animar a que te cuenten anécdotas y den ejemplos]
18. ¿Cuándo y dónde sueles hablar euskara actualmente?
19. ¿Has tenido etapas en tu vida en las que has hablado mucho más o mucho menos euskara que ahora? ¿Por qué?
20. ¿Actualmente tienes una red social de amigos con los/las que hablas euskara?

21. ¿Las personas con las que hablas en euskara suelen ser mayoritariamente nuevos hablantes o *euskaldun zaharras*?
22. ¿Sientes que tienes oportunidades suficientes en tu vida actual para hablar en euskara?

Competencia Lingüística

23. ¿Cómo describirías la variedad de euskara que hablas: batua, algún dialecto, mezcla?
24. ¿Hoy en día te sientes cómodo/a con tu nivel de euskara? Sientes que tienes bastante facilidad u habilidad para hablar en cualquier ocasión con cualquier hablante?
25. Si no, ¿cuáles suelen ser los momentos difíciles para ti?
26. Cuando hablas euskara, ¿sueles mezclar euskara y castellano? ¿Realizas conversaciones bilingües?
27. ¿Sientes que dominas bastante bien el habla popular en euskara?
28. ¿Cuáles son las diferencias más notables para ti entre la forma de hablar de los nuevos hablantes y los nativos/*euskaldun zaharras*?
29. ¿Estas diferencias te presentan problemas a la hora de relacionarte con *euskaldun zaharras*? [Animar a que añadan ejemplos.]
30. ¿Sientes que tu forma de hablar es aceptado por otros hablantes nativos?

Queremos entender tu forma de vivir el bilingüismo


31. ¿Cómo eliges en tu día a día con quien vas a hablar en euskara y con quién en castellano?
32. Cuando conoces una persona nueva, ¿en qué idioma te sueles dirigir primero? ¿De qué depende que hables un idioma u otro?
33. Cuando la sociedad se empezó a movilizar para recuperar el euskara, se puso mucho énfasis en que todos los que sabían lo deberían de hablar. ¿Tú te sientes con responsabilidad de hablar euskara? ¿De salvar el euskara?
34. ¿Hay momentos en que te sientes mal o culpable por hablar en castellano? ¿Por hablar en euskara? ¿Cuándo y por qué?
35. ¿Es importante para ti que tus hijos/as aprendan euskara? Piensas transmitirlo tú mismo a tus hijos/as? ¿Por qué?

Lengua / Identidad / Sentimientos

Ahora queremos explorar la relación entre las lenguas que hablas, tu identidad y sentimientos. Es decir, el cómo ves o has vivido la relación entre el euskara, el castellano y tu identidad.

36. Para empezar vamos a hablar de la terminología *euskaldunberri* y *euskaldun zahar*. ¿Cómo te sitúas con respecto a estos términos? ¿Te consideras *euskaldunberri* o simplemente *euskaldun*? ¿Por qué?
37. ¿Estos términos todavía son válidos o útiles para ti?
38. ¿Qué lengua(s) consideras que es/son «tu(s)» lengua(s)?
39. ¿Qué sentimientos (positivos y negativos o de cualquier tipo) tienes hacia ella(s)?
40. En tu vida, ¿qué valor das a cada uno de estos idiomas?
41. ¿Te identificas más con uno que con otro?
42. ¿Cómo concibes tu identidad cultural o nacional: vasca, española, otra cosa?
43. ¿El aprender y saber hablar el euskara te ha hecho cambiar tu forma de concebir tu identidad cultural? ¿Te ha hecho sentir más o menos vasco/a? ¿Euskaldun? ¿Español/a?
44. ¿Te ha hecho sentir más legítimo como vasco? [Pedir que elaboren.]
45. En general, ¿qué relación ves entre el euskara y la identidad vasca?
46. ¿Es necesario o importante saber o hablar euskara como tu lengua preferente para ser auténticamente vasco? ¿Es importante para todos, algunos?
47. ¿Crees que se puede ser auténticamente vasco sin saber euskara?

3. eranskina. Kode zuhaitza



4. eranskina. Kodeen definizioak

IKASKUNTZA	
Kodea	Definizioa
Prozesua	Euskara ikasteko prozesuari buruzko ideiak.
<i>Zelan</i>	Ikasteko modua: euskaltegian, eskolan, kalean interakzioz, etab. Modu narratiboan kontatua, normalean biografia linguistiko bezala.
<i>Esperientzia</i>	Ikasteko prozesua nolakoa izan den: zaila, erraza, positiboa, negatiboa, ludikoa, gogorra, frustrazioz betea, gazteen kasuan hautatu bakoa, etab.
Motibazioak	Euskara ikasteko edo seme-alabek euskara ikas dezaten izan daitezkeen motibazio-mota ezberdinak.
<i>Integratzailea</i>	Gizarteratzeko euskara ikastea garrantzitsua dela, norberaren identitatean euskarak garrantzia daukalako ikasten dela, etab. uste izatea. Askotan arrazoia barnekoa izaten da baina ez beti. Adb. «nire lagun denek egiten dutelako egin dut nik».
<i>Tresna</i>	Motibazio instrumentala. Adb. lanerako eskatzen delako.
<i>Barnekoa</i>	Norberak nahi duelako, barnean sentitzen duelako, ikastea. Adb. identitateagatik, ideologiagatik, errespetuagatik, nahiagatik, etab.
<i>Kanpoko</i>	Kanpotik eragindako arrazoia, ez derrigorrez motibazio instrumentala dela-eta. Adb. «nire inguruko denek egiten dutelako», «behartuta nagoelako», etab.
<i>Ideologia</i>	Euskara ikasteko motibazioak azaltzerakoan ideologia, politika, klandestinitatea, erresistentzia, etab. aipatzen dira. Sarri, konpromiso kulturala eta politikoa aipatzen dira.
<i>Beste</i>	Beste arrazoi batzuk, euskara ez ikasteko arrazoiak barne.
Estrategiak	Euskara ikasteko estrategia desberdinak. Adb. <i>Berbalagun</i> egitasmoan parte hartzea, egunkaria euskaraz irakurtzea, telebista euskaraz ikustea, etab.
Sariak	Zer irabazi duten euskara ikasita, bi munduko egoera gainditu dela barne. Adib: bertsolariei ulertzea, asebetetzea euskaldun zaharrekin aritzerakoan, etab.
Gaitasuna	Euskara gaitasunari buruzko aipamen eta hausnarketak.
EGA	Akreditazioari buruzko hausnarketak.

HIZKUNTZA PRAKTIKAK: ERABILERA	
Kodea	Definizioa
Zenbat	Esplizituki euskara zenbat erabiltzen den esaten denean: asko, zerbait edo bat ere ez
Testuinguru soziolinguistikoa	Testuinguru soziolinguistikoaren eragina erabileran.
Testuinguru situazionala	Noiz, norekin, zein egoeratan, etab. erabiltzen den euskara, eta zein saretan (<i>language choice</i>).
Oztopoak	Euskara erabiltzeko aipatzen diren oztopo ezberdinak.
<i>Testuingurua</i>	Testuinguruak euskara erabiltzea zailtzen duenean.
<i>Gaitasuna</i>	Gaitasun-mailaren eragina erabileran: gaitasun falta dela-eta ez da erabiltzen, aha- legin handia egin behar da, edo, alderantziz, gaitasun-maila ona izanda, eroso sen- titzen da eta erabiltzen du.
<i>Ohitura</i>	Ohituraren eragin oztopotzailea erabileran.
<i>Ahalegin +</i>	Euskara erabiltzeko aparteko ahalegina egin behar da, ez gaitasun eskasa dela-eta, baizik eta egoerak gaztelaniara eramaten gaituelako.
<i>Euskara eskola</i>	Euskara eskolarekin erlazionatzeak erabilera murriztea ala erabilera eskasa izatea dakarrenean.
Estrategiak	Hiztun berriek euskaraz egiteko erabiltzen dituzten estrategiak. Adib. <i>Berbalagun</i> , etab.
Mudes	Ikus Pujolar <i>et al. linguistic muda/mudes</i> : «to name the specific biographical junctures where individuals enact significant changes in their linguistic repertoire; changes in language use that are important for people's selfpresentation in everyday life» (Pujolar & González, 2012: 2). Hautu pertsonalagatik euskara erabiltzen hastea ere hemen sartu dugu.
Kudeaketa	Egoera elebidunen kudeaketa-modu ezberdinak, gaztelaniara pasatzeko joera barne.
CS	Ingelesetik «code-switching», kode-alternantzia: Elkarriketa batean hizkuntza batetik bestera pasatzea. (CS motak, arrazoiak, zein egoeratan egiten den etab.)
Gazteak	Ume eta gazteek euskara erabiltzen duten ala ez adierazten duten adierazpenak.

HIZKUNTZA PRAKTIKAK: TRANSMISIOA	
Kodea	Definizioa
Ereduak	Familia barruko transmisio politika eredu ezberdinak (euskara bakarrik; euskara eta gaztelania, euskara ez transmititzea, etab.)
Gurasoen arrazoiak	Gurasoek seme alabak murgiltze ereduan eskolaratzeko izan zituzten arrazoiak.
Jarrerak	Gurasoek transmititzen dituzten euskararekiko jarrerak.

IDEOLOGIAK	
Kodea	Definizioa
Balioak	Euskarak izan ditzakeen balio ezberdinak, hau da, euskararen balioak edo euskararekiko balioak, pertzepzioak, sentimenduak.
<i>Integratzailea</i>	Balio integratzailea literatura zientifikoan erabiltzen den bezala.
<i>Instrumentala</i>	Balio instrumentala literatura zientifikoan erabiltzen den bezala.
<i>Euskararekiko sentimendua</i>	Euskararekiko sentimendua. Adib. frustrazioa, maitasuna, esker ona, gorrotoa, etab.
<i>Konpromisoa</i>	Euskararekiko konpromisoa aipatzen da, militantzia barne.
<i>Bitako bat</i>	Euskara euskal herritarren bi hizkuntzetako bat dela agertzen duten adierazpenak. Euskara euskal herritarren «hizkuntza» vs. «hizkuntzetako bat». «Bi hizkuntzen» diskurtsoa.
Aldaera	Euskalkiari, lekuan lekuko aldaerei edota «etxeko» euskarari (bernakularrari) egindako aipamenak, aldaeraren gaineko pertzepzioak eta hausnarketak.
<i>Batua vs. euskalkiak</i>	Batua eta euskalkia biak hausnarketa-gai diren edukiak.
<i>Balorazioak</i>	Batua, euskalkia edo lekuan lekuko edo «etxeko euskara»-ren balorazioak
<i>Funtzioak</i>	Batua eta euskalkien funtzioak. Adib. idatzia vs. ahozkoa, formala vs. kolo-kiala, etab.
<i>Elkar ulergarritasuna</i>	Aldaera (euskalkia, batua, hika) dela-eta elkar ez ulertzea.

IDEOLOGIAK	
Kodea	Definizioa
Hizkuntza-identitatea	Hizkuntza-identitatearen gaineko informazioak.
<i>Euskara eta identitatea</i>	Euskara eta identitatearen arteko harremanak.
<i>Euskaldun mota</i>	Zein euskaldun motatakoa den pertsona bat (auto-kontzeptua zein besteen kontzeptua) eta arrazoiak. Adib. ama hizkuntza ez delako, bizkaiera egiten duelako, heldutan/txikitan ikasi duelako, gaitasuna dela-eta, etab.
<i>Etiketak</i>	Etiketak eta deskripzioak.
<i>Ezaugarri linguistikoak</i>	Hiztun mota ezberdinen ezaugarri linguistikoak.
Normalizazioa	Euskararen normalizazioari buruzko ideiak.
<i>Euskararen egoera</i>	Euskararen egoerari buruzko balorazioak.
<i>Hizkuntza politika</i>	Euskararen normalizazioari buruzko ideiak eta balorazioak: hizkuntza politikari kritikak, egindako aurrerapenen balorazioak, klabeak euskara berreskuratzeke.
<i>Inposaketa</i>	Euskararen inposaketaren ideia, hau da, hizkuntza politikan zein pertsonen arteko harremanetan (militantziagatik, esate baterako).
<i>Politizazioa</i>	Euskara politizatuta dago.

5. eranskina. Azterketa kuantitatiboko galdesorta

A. Iragazki-galderak

G1.- ZENBAT URTE DITUZU? 18-55 URTE ARTEKOA EZ BADA: ESKERRAK EMAN ETA AMAITU	G2.- GENEROA - GIZONEZKOA 1 - EMAKUMEZKOA 2
G3.- NOLA HITZ EGITEN DUZU EUSKARAZ: ONGI, NAHIKO ONGI, ZERTXOBAIT, HITZ BATZUK ALA EZER EZ? - ONGI 1 - NAHIKO ONGI 2 - ZERTXOBAIT 3 - HITZ BATZUK 4 - EZER EZ 5 - Ed/Ee 6 } Eskerrak eman eta amaitu	G4.- ZEIN IZAN ZEN UMETAN ETXEAN IKASI ZENUEN LEHEN HIZKUNTZA? (3 urte bete aurretik hitz egiten ikasi zenuena) - GAZTELANIA 1 - EUSKARA 2 - BIAK (GAZTELANIA ETA EUSKARA) 3 - BESTERIK (ZEIN?) 4 - Ed/Ee 5 } Eskerrak eman eta amaitu 1 ALA 4 ERANTZUN DUTENEKIN BAKARRIK JARRAITU
G5.- (INKESTAGILE EZ GALDETU) GAZTELANIAZ ERANTZUN NAHI BADU, EUSKARAZ EGITEKO PROPOSATU. ZAILTASUNAK BADITU, GAZTELANIAZ ERE ERANTZUTEKO AUKERA EMANGO ZAIOLA ESAN. BAINA EUSKARA IZAN DADILA ELKARRIZKETAREN HIZKUNTZA NAGUSIA. GAZTELANIAZ BAKARRIK EGIN NAHI BADU ESKERRAK EMAN ETA AMAITU. - EUSKARAZ ERANTZUTEN HASI DA (EZ DU GAZTELANIAZ EGITEKO PROPOSATU) 1 - GAZTELANIAZ NAHIAGO DU BAINA EUSKARAZ ERANTZUTEKO PREST DAGO 2 - GAZTELANIAZ NAHI DU ETA EZ DAGO EUSKARAZ ERANTZUTEKO PREST 3 - Ed/Ee 4 } Eskerrak eman eta amaitu	

B. Alderdi soziodemografikoak

G6.- NON JAIKO ZINEN? (Galdetu gabe: IDATZI BIZI DEN HERRIAREN IZENA) (Bi herrien izenak idatzi eta ondoren kodifikatu, beheko kodeak erabiliz) A. Jaioterrria: B. Bizi den herria: Jaioterrria Bizi den herria - EA EKO UDALERRI BAKOITZARI BERE KODEA JARRI - NAFARROAN 33333 EZINEZKOA - IPAR EUSKAL HERRIAN (IPARRALDEAN) 55555 EZINEZKOA - ESPAINIAKO ESTATUAN 99999 EZINEZKOA - BESTE HERRIALDE BATEAN 22222 EZINEZKOA - Ed/Ee 00000 00000	G7.- ZENBAT URTE DARAMATZAZU (BIZI DEN HERRIA AIPATU) BIZITZEN? (Jaioterrria eta bizi den herria bat badatuz, pertsonak duen adina jarri behar da)
G8.- ZEIN IKASKETA MAILA DUZU AMAITUTA? - BAT ERE EZ, LEHEN MAILAKOAK BAINO BAXUAGOAK 1 - LEHEN HEZKUNTZA, OINARRIZKO BATXILERGOKA, OHO, DBH 2 - LANBIDE HEZKETA ETA ARABUTU GABEKO IKASKETAK 3 - GOI MAILAKO BATXILERGOKA, IEE, BBB, UBI 4 - ERDI GOI-MAILAKO IKASKETAK (DIPLOMATURA, KARRERA ERTAINAK...) 5 - GOI-MAILAKO IKASKETAK (LIZENTZIATURAK, DOKTORADUTZAK, GRADUONDOKOAK) 6 - BESTERIK (ZEHAZTU) 7 - Ed/Ee 8	G9.- ZEIN DA ZURE LAN EGOERA? - IKASLEA 1 - ADMINISTRAZIOAN/ENPRESA PUBLIKO BATEAN LANEAN 2 - ENPRESA PRIBATUAN EDO AUTONOMO GISA LANEAN 3 - LANGABEZIAN 4 - ETXKO LANETAN 5 - AURREJUBILATUTA/ PENTSIODUNA 6 - BESTERIK (ZEHAZTU) 7 - Ed/Ee 8

C. Ikasketa prozesua

G10.- TXIKITAN (12 URTE BETE ARTE) ZEIN EREDUTAN IKASI ZENUEN? - A EREDUAN (BATEZ ERE)..... 1 - B EREDUAN (BATEZ ERE)..... 2 - D EREDUAN/IKASTOLAN (BATEZ ERE)..... 3 - X EREDUAN (IKASTETXE FRANTSESA, ALEMANA...)..... 4 - Ed/Ee 5	G11.- INOIZ JOAN ZARA EUSKALTEGI, BARNETEGI EDO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALERA EUSKARA IKASTERA? - BAI1 - EZ.....2 - Ed/Ee3
G12.- ETA KALEAN EDO ZURE LAGUN ARTEAN IZAN DUZU EUSKARA IKASTEKO AUKERARIK? - BAI1 - EZ.....2 - Ed/Ee3	G13.- ZENBAT URTEREKin ESANGO ZENUKE LORTU ZENUELA EUSKARAZ ONDO KOMUNIKATZEKO GAITASUNA? - 2-15 URTEREKin1 → G15ERA - 16-25 URTEREKin2 - 26-35 URTEREKin3 - 36-45 URTEREKin4 - 46 URTE ALA GEHIAGOREKin.....5 - Ed/Ee6

(AURREKO GALDERAN: 16 URTE ALA GEHIAGOREKin LORTU DUTELA ERANTZUN DUTENEI BAKARRIK)

G14.- OTIK 10ERAKO ESKALA BATEAN, ZENBATEKO GARRANTZIA IZAN DUTE ONDOKO MOTIBO HAUEK ZUK EUSKARA IKASTEKO? (OAK ESAN NAHI DU EZ DUELA BATERE GARRANTZIRIK IZAN ETA 10AK OSO GARRANTZI HANDIA DUELA)

	Baterik garrantzirik ez										Garrantzi handia		Ed/Ee	Ez dagokio (G13=1 edo ez dauka)
	00	01	02	03	04	05	06	07	08	09	10			
A.- LANEAN AUKERA GEHIAGO IZATEKO.....	00	01	02	03	04	05	06	07	08	09	10	11	12	
B.- BIZI ZAREN HERRIAN INTEGRATZEKO.....	00	01	02	03	04	05	06	07	08	09	10	11	12	
C.- LAGUNAK EUSKALDUNAK DIRELAKO.....	00	01	02	03	04	05	06	07	08	09	10	11	12	
D.- BIKOTEA EUSKALDUNA DELAKO.....	00	01	02	03	04	05	06	07	08	09	10	11	12	
E.- BIKOTEAREN FAMILIA EUSKALDUNA DELAKO...	00	01	02	03	04	05	06	07	08	09	10	11	12	
F.- SEME-ALABEI EUSKARA TRANSMITTITZEKO.....	00	01	02	03	04	05	06	07	08	09	10	11	12	
G.- EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZA DELAKO.....	00	01	02	03	04	05	06	07	08	09	10	11	12	
H.- ZURE IDENTITATEAREN PARTE DELAKO.....	00	01	02	03	04	05	06	07	08	09	10	11	12	
I.- EUSKAL MUNDUAREN PARTE IZATEKO.....	00	01	02	03	04	05	06	07	08	09	10	11	12	
J.- BEHARTUTA SENTITU ZARELAKO.....	00	01	02	03	04	05	06	07	08	09	10	11	12	

D. Gaitasuna

(DENEI GALDETU)

G15.- ZENBATERAINO MENPERATZEN DUZU EUSKARA BATUA? ETA BIZI ZAREN HERRIKO EDO INGURUKO EUSKALKIA? ETA LAGUNARTEKO EDO KALEKO HIZKERA KOLOKIALA?

	A. Euskara Batua	B. Bizi zaren herriko/inguruko euskalkia	C. Lagunarteko/Kaleko hizkera
- ONGI.....	1.....	1.....	1.....
- NAHIKO ONGI	2.....	2.....	2.....
- ZERTXOBAIT.....	3.....	3.....	3.....
- HITZ BATZUK.....	4.....	4.....	4.....
- EZER EZ.....	5.....	5.....	5.....
- Ed/Ee.....	6.....	6.....	6.....

G16.- ZENBATERAINO ZAUDE GUSTURA ZURE EUSKARA MAILAREKIN...?

- OSO GUSTURA.....	1.....	} G18a
- NAHIKO GUSTURA	2.....	
- EZ OSO GUSTURA	3.....	
- BATERE GUSTURA EZ	4.....	
- Ed/EE.....	5.....	→ G18a

(AURREKO GALDERAN 3 ALA 4 ERANTZUN DUTENEI BAKARRIK)

G17.- ZENBATERAINOKO ZAILTASUNA SENTITZEN DUZU...(ZAILTASUN OSO HANDIA, NAHIKO HANDIA, NAHIKO TXIKIA ALA BATERE ZAILTASUNIK EZ)?

	Oso handia	Nahiko handia	Nahiko txikia	Bater ez	Ed/Ee	Ez dagokio (G16 = 1,2,5)
A.- EUSKARAZ AHOZ KOMUNIKATZEKO	1.....	2.....	3.....	4.....	5.....	6.....
B.- EUSKARAZ IDAZTEKO	1.....	2.....	3.....	4.....	5.....	6.....
C.- LAGUNARTEKO EUSKARA KOLOKIALA ERABILTZEKO	1.....	2.....	3.....	4.....	5.....	6.....
D.- EUSKARA LANDUA EDO FORMALA ERABILTZEKO	1.....	2.....	3.....	4.....	5.....	6.....

E. Euskarak emandako saria

(DENEI GALDETU)

G18.- EUSKARA IKASTEAK ZENBAT LAGUNDU DIZU.....(ASKO, NAHIKO, GUTXI ALA BATERE EZ)?

	Ask	Nahiko	Gutxi	Bater ez	Ed/Ee
A.- HARREMANAK IZATEN, INTEGRATZIOA HOBETZEN	1.....	2.....	3.....	4.....	5.....
B.- HEMENGOA SENTITZEN.....	1.....	2.....	3.....	4.....	5.....
C.- EUSKALDUNEKIN HURBILAGO SENTITZEN	1.....	2.....	3.....	4.....	5.....
D.- LAN AUKERA GEHIAGO EDO HOBEAK IZATEN.....	1.....	2.....	3.....	4.....	5.....
E.- EUSKAL IDENTITATEA LORTZEN	1.....	2.....	3.....	4.....	5.....
F.- EUSKARAREN MUNDUAN SARTZEN	1.....	2.....	3.....	4.....	5.....
G.- SENTIMENDU POSITIBOAK IZATEN (POZA, HARROTASUNA, ASEBETETZEA...).....	1.....	2.....	3.....	4.....	5.....
H.- (EZ IRAKURRI) BESTERIK (ZEHAZTU:.....)	1.....	2.....	3.....	4.....	5.....

F. Erabilera

G19.- ZEIN NEURRITAN EGITEN DUZU EUSKARAZ...(BETI EUSKARAZ, GEHIENETAN EUSKARAZ, BIETAN BERTINTSU, GEHIENETAN ERDARAZ EDO BETI ERDARAZ)?

	Beti euskaraz	Gehienetan euskaraz	Bietan berdintsu	Gehienetan erdaraz	Beti erdaraz	Ed/ee	Ez dagokio (ez dauka)
A.- BIKOTEKIDEAREKIN	1	2	3	4	5	6	7
B.- NEBA-ARREBEKIN	1	2	3	4	5	6	7
C.- LAGUNEKIN	1	2	3	4	5	6	7
D.- SEME-ALABEKIN	1	2	3	4	5	6	7
E.- LANKIDEKIN / IKASKIDEKIN	1	2	3	4	5	6	7
F.- DENDA ETA TABERNETAN	1	2	3	4	5	6	7
G.- AISIALDIAN (KIROI ETA KULTUR EKINTZETAN)	1	2	3	4	5	6	7

(AURREKO GALDERAN SEME-ALABARIK EZ DUTELA ESAN DUTENEI BAKARRIK: G19.D = 7)

G20.- SEME-ALABAK IZATEKOTAN, ZEIN HIZKUNTZATAN EGINGO ZENIEKEELA USTE DUZU?

- BETI EUSKARAZ 1
- GEHIENETAN EUSKARAZ 2
- BIETAN BERTINTSU 3
- GEHIENETAN ERDARAZ 4
- BETI ERDARAZ 5
- Ed/Ee 6
- EZ DAGOKIO (BADU SEME-ALABARIK) 7

(DENEI GALDETU)

G21.- EGUN NORMAL BATEAN, ZEIN NEURRITAN ERABILTZEN DUZU EUSKARA...?

- BETI (EDO IA BETI) EUSKARAZ EGITEN DUZU 1
- EUSKARAZ ERDARAZ BAINO GEHIAGO EGITEN DUZU 2
- EUSKARAZ ERDARAZ BEZAIN BESTE EGITEN DUZU 3
- ERDARAZ EUSKARAZ BAINO GEHIAGO EGITEN DUZU 4
- BETI (EDO IA BETI) ERDARAZ EGITEN DUZU 5
- Ed/Ee 6

G23ra

(Aurreko galderan 1, 2 ala 3 erantzun dutenei bakarrik)

G22.- ZER DELA ETA ERABILTZEN DUZU ASKO EUSKARA...?

	Bai	Ez	Ed/Ee	Ez dagokio (G21=4,5,6)
A.- BIZI ZAREN HERRIAN EUSKARA ASKO HITZ EGITEN DELAKO	1	2	3	4
B.- ZURE EGUNEROKO HARREMANETAN EUSKARA ASKO ERABILTZEN DELAKO (ADIB., LAGUNAK, LANKIDEAK, FAMILIA...)	1	2	3	4
C.- EUSKARAZ HITZ EGITEKO ERRAZTASUNA DAUKAZULAKO EDO EUSKARA MAILA ONA DUZULAKO	1	2	3	4
D.- BIZI ZAREN HERRIKO HIZKERA MENPERATZEN DUZULAKO	1	2	3	4
E.- EUSKARAZ EGITEKO AUKERA DENAK APROBETXATZEN DITUZULAKO EDO AUKERA HORIEK NAHITA BILATZEN DITUZULAKO	1	2	3	4

(G21ean 4, 5 ala 6 erantzun dutenei bakarrik)

G23.- ZER DELA ETA ERABILTZEN DUZU GUTXI EUSKARA...

	Bai	Ez	Ed/Ee	Ez dagokio (G22=1,2,3)
A.- ZURE INGURUAN EZ DELAKO HITZ EGITEN	1	2	3	4
B.- EZAGUTZEN DITUZUN EUSKALDUNEK EZ DIZUTELAKO EUSKARAZ EGITEN	1	2	3	4
C.- GAZTELANIAZ HITZ EGITEKO OHITURA DAUKAZULAKO	1	2	3	4
D.- EZ DAUKAZULAKO EUSKARAZ EGITEKO ERRAZTASUNIK	1	2	3	4
E.- BATUA BAKARRIK DAKIZULAKO, EZ DUZULAKO BIZI ZAREN HERRIKO EDO INGURUKO HIZKERA MENPERATZEN	1	2	3	4
F.- EZ DAUKAZULAKO KALEKO EUSKARA KOLOKIALA	1	2	3	4
G.- ZURETZAKO EUSKARA EZ DELAKO HAIN INPORTANTEA	1	2	3	4

G. *Muda*

(DENEI GALDETU)

G24.- EUSKARA IKASI ETA GERO, ONDORENGO PERTSONEKIN LEHEN ERDARAZ EGITETIK ORAIN EUSKARAZ EGITERA PASATU ZAREN ALA EZ JAKIN NAHI DUGU:

	Bai	Ez	Ed/Ee	Ez dagokio (ez daukalako)
A.- GURASOETAKO BATEKIN	1	2	3	4
B.- ANAI-ARREBAREN BATEKIN	1	2	3	4
C.- BIKOTEKIDEAREKIN	1	2	3	4
D.- SEME-ALABEKIN	1	2	3	4
E.- LAGUN BATZUEKIN	1	2	3	4
F.- LANKIDE BATZUEKIN/IKASKIDE BATZUEKIN	1	2	3	4

G25.- ZURE BIZITZAKO ZEIN MOMENTUTAN EMAN ZENUEN EUSKARA MODU AKTIBOAN ERABILTZEN HASTEKO PAUSUA...?

	Bai	Ez	Ed/EE	Ez dagokio (ez dagoelako egoera horretan)
A.- HERRI EUSKALDUN BATERA BIZITZERA JOAN ZINENEAN	1	2	3	4
B.- FAMILIA EUSKALDUN BATERA EZKONDU ZINENEAN	1	2	3	4
C.- SEME-ALABAK IZAN ZENITUENEAN	1	2	3	4
D.- ESKOLAN/IKASTOLAN HASI ZINENEAN	1	2	3	4
E.- UNIBERTSITATEAN HASI ZINENEAN	1	2	3	4
F.- EUSKALTEGIAN/BARNETEGIAN HASI ZINENEAN	1	2	3	4
G.- LAGUN EUSKALDUNAK EGIN ZENITUENEAN	1	2	3	4
H.- JARDUERA BERRIREN BAT EGITEN HASI ZINENEAN (AISIALDIA, KULTURALA, KIROLEKOA....)	1	2	3	4
I.- LANA DELA ETA	1	2	3	4
J.- EUSKARAREKIKO KONTZIENTZIA HARTU ZENITUENEAN	1	2	3	4
K.- (EZ IRAKURRI) BESTERIK (ZEHAZTU:)	1	2	3	4

H. *Hizkuntza ideologia*

G26.- ZU ZER ZARELA ESANGO ZENUKE...?

- EUSKALDUN ZAHARRA 1
- EUSKALDUN BERRIA 2
- EUSKALDUNA 3
- Ed/EE 4

I. Ideologia politikoa eta diru sarreraren balorazioa

G27.- POLITIKAZ HITZ EGITEN DENEAN NORMALKI EZKERRAZ ETA ESKUINAZ HITZ EGITEN DA, ZU ZEIN TOKITAN KOKATUKO ZINATEKE, OTIK 10ERAKO ESKALAN, ZEINETAN OAK EZKER MUTURRA ETA 10AK ESKUIN MUTURRA ESAN NAHI DUTEN?

Ezker muturra										Eskuin muturra		Ed/Ee
00	01	02	03	04	05	06	07	08	09	10	11	

G28.- BESTALDE, EUSKAL NAZIONALISTA EDO ABERTZALE SENTIMENDUARI DAGOKIONEZ, ESANGO ZENIDAKE NON KOKATUKO ZINATEKEEN OTIK 10ERAKO ESKALAN, KONTUAN HARTUTA OA DELA BATERE NAZIONALISTA EDO ABERTZALEA EZ ETA 10A OSO NAZIONALISTA EDO ABERTZALEA?

Baterre nazionalista edo abertzale ez										Osor nazionalista edo abertzalea		Ed/Ee
00	01	02	03	04	05	06	07	08	11	10	11	

G29.- ETA AMAITZEKO, ZURE ETXEAN BIZI ZARETENON DIRU SARRERA GUZTIAK KONTUAN HARTUTA, ZER ESANGO ZENUKE: SARRERA HORIEK OSO ALTUAK, NAHIKO ALTUAK, ERTAINAK, NAHIKO BAXUAK ALA OSO BAXUAK DIRELA...?

- OSO ALTUAK 1
- NAHIKO ALTUAK 2
- ERTAINAK 3
- NAHIKO BAXUAK 4
- OSO BAXUAK 5
- Ed/Ee 6

.- ESANGO DIDAZU ZURE IZENA MESEDEZ (ABIZENA EZ DA BEHARREZKOA)? (ENPRESAK NIK EGINDAKO LANA KONTROLATU AHAL IZATEKO DA)

.- INKESTAGILE (GALDETU GABE) IDATZI INKESTATUAREN TELEFONO ZENBAKIA:

HAU IZAN DA GUZTIA. ESKERRIK ASKO ZURE LAGUNTZARENGATIK.

J. Elkarrizketaren balorazioa

G30.- (INKESTAGILEAK BETETZEKO ELKARRIZKETA AMAITU ONDOREN): NOLA BURUTU DA ELKARRIZKETA HIZKUNTZARI DAGOKIONEZ?

- Euskaraz, inolako zailtasunik gabe 1
- Euskaraz, zailtasun txikiekin (behin edo behin gaztelania tartekatuz) 2
- Euskaraz, zailtasun batzuekin (zenbaitetan gaztelania tartekatuz) 3

